Foru Agindua, Zerga Berezien Foru Dekretu Arauemailea prestatzeko prozedura hastea baimentzen duena.

Duela gutxi, urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauak, 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituenak, 1. artikuluko lehen apartatuan, edukia eman dio Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 8. artikuluari, bertan xedatuta utzi baitu ezen, Foru Aldundiak, Batzar Nagusiek eskuordetuta, zerga arloko xedapen arauemaileak eman ditzakeela, foru arau baten mailarekin, horren xedea Gipuzkoako Lurralde Historikoko araudia egokitzea baino ez denean, baldin eta, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren arabera, Lurralde Historiko horretan araubide erkideko lurraldean dauden arau substantibo eta formal berberak aplikatu behar badira.

Foru dekretu arauemaile horietarako eskuordetza arauemailea aipatutako 2/2005 Foru Arauak emandakotzat jotzen da, betiere aurreikusita dagoen helbururako baliatu behar bada.

Foru Aldundiak eskuordetze horretaz baliatuta ematen dituen xedapenei foru dekretu arauemaile deituko zaie, eta haien arrazoibideetan eskuordetze espezifiko horren babesean ematen direla adierazi beharko da. Gainera, horrelako foru dekretu arauemaileek atzeraeragina izan

Orden Foral por la que se autoriza la iniciación del procedimiento de elaboración de un Decreto Foral Normativo de los Impuestos Especiales.

Recientemente la Norma Foral 1/2023, de 17 de enero, por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias para el año 2023, en el apartado uno de su artículo 1 ha dado contenido al artículo 8 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, habilitando a la Diputación Foral de Gipuzkoa, por delegación de las Juntas Generales, para dictar disposiciones normativas con rango de norma foral en materia tributaria en el supuesto de que su objeto sea exclusivamente la adaptación de la normativa del Territorio Histórico de Gipuzkoa, cuando, de conformidad con lo establecido en el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado mediante la Ley 12/2002, de 23 de mayo, deban regir en dicho Territorio Histórico las mismas normas sustantivas y formales que en el territorio de régimen común.

La delegación normativa para este tipo de decretos forales normativos se entiende conferida por la citada Norma Foral 2/2005, siempre que deba hacerse uso de ella para la finalidad prevista.

Las disposiciones que la Diputación Foral dicte en uso de dicha delegación se denominarán decretos forales normativos y su fundamentación deberá expresar que se dictan al amparo de esta delegación específica. Además, este tipo de decretos forales normativos podrán tener eficacia

FAEB5d8318bd-47e0-44c3-8b26-2afa91fd0ec4

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

dezakete, indarrean jartzen direnean bat etor daitezen egokitu beharreko araubide erkideko arauekin.

retroactiva con el fin de que su entrada en vigor coincida con la de las normas de régimen común objeto de adaptación.

Azkenik, behin onetsita, foru dekretu arauemaile horiek Batzar Nagusietara bidali behar dira batzarkideen kontrola izan dezaten, ofizialki argitaratzea eta indarrean jartzea eragotzi gabe.

Por último, una vez aprobados, estos decretos forales normativos serán remitidos a las Juntas Generales, al objeto de que sean sometidos al control parlamentario correspondiente, sin perjuicio de su publicación oficial y entrada en vigor.

Lehen aipatu dugun urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauak, azken xedapenetako bigarrenean, aldaketak sartu ditu Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauan, eta, zehazki, 5. apartatu bat gehitu dio 13. artikuluari, haren barruan eskuordetza arauemailea ahalbidetzen duen beste kasu bat sartzeko, eta, haren arabera, Foru Aldundia gaituta geratzen da zerga arloko foru dekretu arauemaileak emateko, lehen aipatutako 8. artikuluan aurreikusitako kasu berberetan.

La misma la Norma Foral 1/2023, de 17 de enero, antes citada, en su disposición final segunda, modifica la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, adicionando un apartado 5 al artículo 13, en el que incorpora un nuevo supuesto de delegación normativa, habilitando a la Diputación Foral para dictar decreto forales normativos en materia tributaria en los mismos supuestos que los previstos en el anteriormente mencionado artículo 8.

Zerga Berezien araudiaren egokitzapena, Gipuzkoako Lurralde Historikoari dagokionez, 2012. urtean eten zen. Ordura arte, egokitzapen hori xedapen honetan jasotzen zen: martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legean xedatutakora egokitzen duena. 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauak, lehen aipatu denak, lehen xedapen gehigarrian jasotakoa aintzat hartuta, orain unea da etenaldi horrek eragin duen egoera zuzentzeko. Izan ere, xedapen gehigarri horrek dio ezen Gipuzkoako Foru Aldundiak urtebeteko epea izango duela, 1/2023 Foru Araua indarrean jartzen denetik aurrera, 12/2002 Legearen bidez onetsitako Ekonomia Itunaren arabera lurralde erkideko arau substantibo eta formal berberen arabera arautu behar diren zergen erregulazioa egokitzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei

La interrupción desde 2012 de la adaptación de la normativa de los impuestos especiales en el Decreto Foral 20/1998, de 3 de marzo, por el que se adapta la normativa tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa a lo dispuesto en la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales, ha provocado una situación que debe solventarse de conformidad con lo previsto en la disposición adicional primera de la anteriormente citada Norma Foral 1/2023, de 17 de enero, por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias para el año 2023, que dispone que la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de los decretos forales normativos en materia tributaria previstos en el artículo 8 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y en el apartado 5 del artículo 13 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de

FAEB5d8318bd-47e0-44c3-8b26-2afa91fd0ec4

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 8. artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan aurreikusten diren zerga arloko foru dekretu arauemaileen bitartez.

Horregatik, proposatzen da foru dekretu arauemaile baten bidez zerga berezien araudia eguneratzea, foru dekretu arauemaile hori onesten denean lurralde erkidean indarrean dagoen araudiari jarraituz.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT

Agintzea Zerga Bereziei buruzko Foru Dekretu Arauemailea prestatzeko prozedura hasi dadila, foru agindu honekin batera doan eranskinarekin bat etorriz

Gipuzkoa, procederá, en el plazo de un año desde la entrada en vigor de la Norma Foral 1/2023, a adaptar la regulación relativa a los impuestos que, en virtud del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado mediante la Ley 12/2002, deban regirse por las mismas normas sustantivas y formales que en el territorio de régimen común.

Por ello, mediante un decreto foral normativa se propone actualizar la normativa de los impuestos especiales de conformidad con la normativa vigente en territorio común en el momento de aprobar dicho decreto foral normativo.

En su virtud,

RESUELVO

Ordenar la iniciación del procedimiento para la elaboración de un Decreto Foral Normativo de los Impuestos Especiales, de conformidad con el anexo que se adjunta a la presente orden foral.

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUKO FORU DIPUTATUA / DIPUTADO FORAL DEL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

FAEB5d8318bd-47e0-44c3-8b26-2afa91fd0ec4

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

ERANSKINA

Foru Agindua, Zerga Berezien Foru Dekretu Arauemailea prestatzeko prozedura hastea baimentzen duena.

Uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, araututa dakar 70. artikuluan zein prozedura erabiliko den Gipuzkoako Lurralde Historikoan foru arauen aurreproiektuak eta izaera orokorreko xedapenen proiektuak egiteko. Bertan dio prozedura hasiko dela gaian eskumena duen departamentuko foru diputatuak hala agintzen duenean.

Artikulu horren 1. apartatuko b) letrak xedatzen duenez, prozedura hasteko aginduak arauaren gaia eta xedea azaldu behar ditu laburki, eta txosten bat izan behar du erantsia adierazteko zer eragin izango duen indarrean dagoen lege antolamenduan, bideragarritasun ekonomikoa zenbatekoa den eta nola eragingo duen Gipuzkoako aurrekontuetan. Horrez gain, aginduzko izapide eta txostenak egingo dira sektoreko eta genero arloko araudiarekin bat, bai eta proposatutako erregulazioaren gaia eta edukia kontuan hartuta egokitzat jotzen direnak ere.

Araututakoa betetze aldera, proposatzen da foru agindu bat onestea haren bitartez eranskin honetako goiburuan adierazitako foru dekretu araugilea prestatzeko prozedura hastea baimendu dadin.

EDUKIA

ANEXO

Orden Foral por la que se autoriza la iniciación del procedimiento de elaboración de un Decreto Foral Normativo de los Impuestos Especiales.

El artículo 70 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, establece el procedimiento de elaboración de los anteproyectos de Norma Foral y de los proyectos de disposiciones de carácter general en el ámbito del Territorio Histórico de Gipuzkoa, disponiendo que el procedimiento se iniciará por orden del diputado o de la diputada foral titular del Departamento competente por razón de la materia.

La letra b) del apartado 1 del referido precepto dispone que la orden de iniciación expresará sucintamente el objeto y la finalidad de la norma y llevará como anexo un informe que determinará su incidencia en el ordenamiento jurídico vigente, su viabilidad económica e incidencia en los presupuestos del Territorio Histórico de Gipuzkoa y los trámites e informes que sean preceptivos según la normativa sectorial y de género, y aquéllos que se estimen procedentes en razón de la materia y el contenido de la regulación propuesta.

En cumplimiento de dicha regulación se propone la aprobación de la orden foral pertinente para la autorización del inicio del procedimiento de elaboración del decreto foral normativo referido en el encabezamiento del presente anexo.

CONTENIDO

FAEB5d8318bd-47e0-44c3-8b26-2afa91fd0ec4

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

Duela gutxi, urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauak, 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituenak, 1. artikuluko lehen apartatuan, edukia eman dio Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 8. artikuluari, bertan xedatuta utzi baitu ezen, Foru Aldundiak, Batzar Nagusiek eskuordetuta, zerga arloko xedapen arauemaileak eman ditzakeela, foru arau baten mailarekin, horren xedea Gipuzkoako Lurralde Historikoko araudia egokitzea baino ez denean, baldin eta, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren arabera, Lurralde Historiko horretan araubide erkideko lurraldean dauden arau substantibo eta formal berberak aplikatu behar badira.

Recientemente la Norma Foral 1/2023, de 17 de enero, por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias para el año 2023, en el apartado uno de su artículo 1 ha dado contenido al artículo 8 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, habilitando a la Diputación Foral de Gipuzkoa, por delegación de las Juntas Generales, para dictar disposiciones normativas con rango de norma foral en materia tributaria en el supuesto de que su objeto sea exclusivamente la adaptación de la normativa del Territorio Histórico de Gipuzkoa, cuando, de conformidad con lo establecido en el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado mediante la Ley 12/2002, de 23 de mayo, deban regir en dicho Territorio Histórico las mismas normas sustantivas y formales que en el territorio de régimen común.

Foru dekretu arauemaile horietarako eskuordetza arauemailea aipatutako 2/2005 Foru Arauak emandakotzat jotzen da, betiere aurreikusita dagoen helbururako baliatu behar bada.

La delegación normativa para este tipo de decretos forales normativos se entiende conferida por la citada Norma Foral 2/2005, siempre que deba hacerse uso de ella para la finalidad prevista.

Foru Aldundiak eskuordetze horretaz baliatuta ematen dituen xedapenei foru dekretu arauemaile deituko zaie, eta haien arrazoibideetan eskuordetze espezifiko horren babesean ematen direla adierazi beharko da. Gainera, horrelako foru dekretu arauemaileek atzeraeragina izan dezakete, indarrean jartzen direnean bat etor daitezen egokitu beharreko araubide erkideko arauekin.

Las disposiciones que la Diputación Foral dicte en uso de dicha delegación se denominarán decretos forales normativos y su fundamentación deberá expresar que se dictan al amparo de esta delegación específica. Además, este tipo de decretos forales normativos podrán tener eficacia retroactiva con el fin de que su entrada en vigor coincida con la de las normas de régimen común objeto de adaptación.

Azkenik, behin onetsita, foru dekretu arauemaile horiek Batzar Nagusietara bidali behar dira batzarkideen kontrola izan dezaten, ofizialki argitaratzea eta indarrean jartzea eragotzi gabe.

Por último, una vez aprobados, estos decretos forales normativos serán remitidos a las Juntas Generales, al objeto de que sean sometidos al control parlamentario correspondiente, sin perjuicio de su publicación oficial y entrada en vigor.

FAEB5d8318bd-47e0-44c3-8b26-2afa91fd0ec4

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

Lehen aipatu dugun urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauak, azken xedapenetako bigarrenean, aldaketak sartu ditu Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauan, eta, zehazki, 5. apartatu bat gehitu dio 13. artikuluari, haren barruan eskuordetza arauemailea ahalbidetzen duen beste kasu bat sartzeko, eta, haren arabera, Foru Aldundia gaituta geratzen da zerga arloko foru dekretu arauemaileak emateko, lehen aipatutako 8. artikuluan aurreikusitako kasu berberetan.

La misma la Norma Foral 1/2023, de 17 de enero, antes citada, en su disposición final segunda, modifica la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, adicionando un apartado 5 al artículo 13, en el que incorpora un nuevo supuesto de delegación normativa, habilitando a la Diputación Foral para dictar decreto forales normativos en materia tributaria en los mismos supuestos que los previstos en el anteriormente mencionado artículo 8.

Zerga Berezien araudiaren egokitzapena, Gipuzkoako Lurralde Historikoari dagokionez, 2012. urtean eten zen. Ordura arte, egokitzapen hori xedapen honetan jasotzen zen: martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legean xedatutakora egokitzen duena. 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauak, lehen aipatu denak, lehen xedapen gehigarrian jasotakoa aintzat hartuta, orain unea da etenaldi horrek eragin duen egoera zuzentzeko. Izan ere, xedapen gehigarri horrek dio ezen Gipuzkoako Foru Aldundiak urtebeteko epea izango duela, 1/2023 Foru Araua indarrean jartzen denetik aurrera, 12/2002 Legearen bidez onetsitako Ekonomia Itunaren arabera lurralde erkideko arau substantibo eta formal berberen arabera arautu behar diren zergen erregulazioa egokitzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 8. artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan aurreikusten diren zerga arloko foru dekretu arauemaileen bitartez.

La interrupción desde 2012 de la adaptación de la normativa de los impuestos especiales en el Decreto Foral 20/1998, de 3 de marzo, por el que se adapta la normativa tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa a lo dispuesto en la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales, ha provocado una situación que debe solventarse de conformidad con lo previsto en la disposición adicional primera de la anteriormente citada Norma Foral 1/2023, de 17 de enero, por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias para el año 2023, que dispone que la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de los decretos forales normativos en materia tributaria previstos en el artículo 8 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y en el apartado 5 del artículo 13 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, procederá, en el plazo de un año desde la entrada en vigor de la Norma Foral 1/2023, a adaptar la regulación relativa a los impuestos que, en virtud del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado mediante la Ley 12/2002, deban regirse por las mismas normas sustantivas y formales que en el territorio de régimen común.

FAEB5d8318bd-47e0-44c3-8b26-2afa91fd0ec4

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

Horregatik, proposatzen da foru dekretu arauemaile baten bidez zerga berezien araudia eguneratzea, foru dekretu arauemaile hori onesten denean lurralde erkidean indarrean dagoen araudiari jarraituz.

Por ello, mediante un decreto foral normativa se propone actualizar la normativa de los impuestos especiales de conformidad con la normativa vigente en territorio común en el momento de aprobar dicho decreto foral normativo.

Erregulazio berriari heltzen zaion unean arau testuingurua zein den kontuan hartuta, komenigarritzat jo da egitura erregulatorioa ahalik eta gutxien aldatzea, eta, horren ondorioz, foru dekretu arauemaileak martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan aurreikusita dauden titulu, kapitulu, sekzio, artikulu eta apartatuen korrelazio bera jasotzen du, baita abenduaren 28ko 38/1992 Legean jasotzen direnena ere, dekretu hori lege horretara egokituta ez dagoen partean. Horren ondorioz, foru dekretu arauemaileak edukirik gabeko zatiak ditu, indarrean dauden gainerako edukien korrelazioari eusteko. Horrek igorpenen konkordantzia errazten du zergaren araudi substantiboa garatzen duten xedapenetan, esate baterako, ereduak onesteko foru aginduetan, interpretazio ebazpenetan eta gainerako erregelamenduzko xedapenetan.

Teniendo en cuenta el contexto normativo desde el que se aborda la nueva regulación, se ha estimado conveniente modificar lo menos posible la estructura regulatoria, por lo que el decreto foral normativo recoge la misma correlación de títulos, capítulos, secciones, artículos y apartados que los recogidos en el Decreto Foral 20/1998, de 3 de marzo, y en la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, por la parte en la que aquél no está adaptado a esta última. Ello provoca que el decreto foral normativo contenga partes sin contenido a fin de conservar la correlación del resto de los contenidos vigentes. Ello facilita la concordancia de las remisiones contenidas en disposiciones de desarrollo de la normativa sustantiva del impuesto, tales como las contenidas en las ordenas forales aprobatorias de los modelos, las resoluciones interpretativas y demás disposiciones reglamentarias.

XEDAPENA PRESTATZEKO PROZEDURA

PROCEDIMIENTO DE ELABORACIÓN

Foru dekretu araugile hau prestatzeko prozedurari dagokionez, aipatu beharra dago, presazko izaera duenez, tramite eta txosten hauek egitea dakarrela:

En cuanto al procedimiento de elaboración de este decreto foral normativo hemos de señalar que el mismo se somete a la evacuación de los siguientes trámites e informes:

1. Arau proposamena prestatzea.

1. Elaboración de la propuesta normativa.

Ogasun eta Finantza Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko uztailaren 29ko 10/2020 Foru Dekretuak 18.4 artikuluan ematen dion eskumenaz baliatuta, Araugintzako eta Lege Aholkularitzako Zerbitzuak gaiaren inguruko arau proposamen bat prestatu behar du.

En desarrollo de la competencia atribuida por el artículo 18.4 del Decreto Foral 10/2020, de 29 de julio, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Hacienda y Finanzas, se elaborará por el Servicio de Desarrollo Normativo y Asesoramiento Jurídico una propuesta

FAEB5d8318bd-47e0-44c3-8b26-2afa91fd0ec4

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

normativa sobre la materia anteriormente mencionada.

2. Zirriborroa Ogasun eta Finantza Departamentuko zuzendaritza nagusiei, zuzendariordetzei eta ukitutako zerbitzuei helaraztea.

2. Comunicación del borrador a las Direcciones Generales, Subdirecciones o Servicios del Departamento de Hacienda y Finanzas afectados.

Zirriborro proposamena behin prestatu ondoren, zuzendaritza nagusien, zuzendariordetzen edo ukitutako zerbitzuen esku jarri behar da, beren iritzia adierazi edo bidezko irizten dituzten oharrak egin ditzaten.

Una vez elaborada la propuesta de borrador, ésta deberá ser sometida a la/s Dirección/es General/es, Subdirección/es o Servicio/s a quienes afecte la propuesta, a los efectos de recabar su opinión o recoger las observaciones que a la misma deseen realizar.

3. Araugintzako eta Lege Aholkularitzako Zerbitzuko buruak txosten juridikoa egitea.

3. Informe jurídico del Jefe del Servicio de Desarrollo Normativo y Asesoramiento Jurídico.

Araugintzako eta Lege Aholkularitzako Zerbitzuko buruak txosten juridikoa eman behar du, uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 70. artikuluaren 1. apartatuko c) letraren azken tartekian aurreikusten duen bezala.

Se evacuará el informe jurídico suscrito por el Jefe del Servicio de Desarrollo Normativo y Asesoramiento Jurídico previsto en la letra c), último inciso, del apartado 1 del artículo 70 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

4. Hasierako agindua eman zuen organoaren proposamenari adostasuna ematea.

4. Conformidad con la propuesta del órgano que dictó la orden de inicio.

Testua Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari aurkeztuko zaio, oniritzia eman diezaion.

El texto se someterá al visto bueno del diputado foral del Departamento Hacienda y Finanzas.

5. Zergen Koordinazio Organoari jakinaraztea.

5. Comunicación al Órgano de Coordinación Tributaria.

Izaera orokorreko foru xedapen bat denez, proposamena Zergen Koordinazio Organora bidali behar da, halaxe xedatzen baitu maiatzaren 30eko 3/1989 Legeak, Zerga Harmonizazio, Koordinazio eta Lankidetzari buruzkoak.

Por tratarse de una disposición foral de carácter general, y en cumplimiento de lo dispuesto en la Ley 3/1989, de 30 de mayo, de Armonización, Coordinación y Colaboración Fiscal, la propuesta deberá ser comunicada al Órgano de Coordinación Tributaria.

FAEB5d8318bd-47e0-44c3-8b26-2afa91fd0ec4

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

6. Estatuko Administrazioari jakinaraztea.

Ekonomia Itunak 4. artikuluko lehen apartatuan xedatzen duenez, proposamena Estatuko Administrazioari bidali behar zaio Ekonomia Itunean aurreikusitakoarekin badatorrela bat ebaluatzeko, hala badagokio (64.a art.).

6. Comunicación a la Administración del Estado.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 4, apartado uno, del Concierto Económico, la propuesta deberá remitirse a la Administración del Estado, a los efectos de la evaluación, en su caso, de su adecuación a lo previsto en el referido Concierto (art. 64.a).

7. Memoria.

Arau proposamenari legez ezarritako tramite eta beharkizunen konplimenduari buruzko memoria erantsi behar zaio, eta bertan aipatuta utzi zer arauk gaitzen duen/duten proposamena prestatzea, eta zer txosten eskatu eta egin diren. Horrez gain, eragin ekonomikoari buruzko memoria ere aurkeztu behar da.

7. Memoria.

Se adjuntará a la propuesta normativa una memoria sobre el cumplimiento de los trámites y requisitos legales establecidos al efecto, con referencia a la norma o normas habilitantes y a los informes recabados y emitidos, y sobre su repercusión económica.

8. Azkenik, proposamena Diputatuen Kontseiluari aurkeztu behar zaio, onar dezan.

8. Por último, se someterá la propuesta a la aprobación del Consejo de Gobierno Foral.

BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOA ETA AURREKONTU ERAGINA.

Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoari eta Gipuzkoako aurrekontu orokorretan duen eraginari dagokienez, erantsita bidaltzen da Ogasun eta Finantza Departamentuko Erakundeekiko Konpromisoen Zerbitzuak Azterlanen Atalaren bitartez egindako txostena.

VIABILIDAD ECONÓMICA E INCIDENCIA PRESUPUESTARIA.

En cuanto a la viabilidad económica e incidencia en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se adjunta informe elaborado por la Sección de Estudios del Servicio de Compromisos Institucionales del Departamento de Hacienda y Finanzas.

ARAUGINTZAKO ATAL BURUA / JEFE DE SECCIÓN DE DESARROLLO NORMATIVO

FAEB5d8318bd-47e0-44c3-8b26-2afa91fd0ec4

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

FA-OG-2023-0191 2023/05/10

Titulua / Título:	FAg eranskina. Zerga Berezien FDA onartzeko prozedura hastekoa

Sinatzailea 1 / Firmante 1:
BERNARAS ITURRIOIZ, Luis Ignacio
Data / Fecha: 2023/05/09 08:43:25

FAEB5d8318bd-47e0-44c3-8b26-2afa91fd0ec4

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinaturakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

Txostena: bideragarritasun ekonomikoa eta eragina Gipuzkoako lurralde historikoko aurrekontuetan

Informe sobre viabilidad económica e incidencia en los Presupuestos del Territorio Histórico de Gipuzkoa

Foru Agindua, Zerga Berezien Foru Dekretu Arauemailea prestatzeko prozedura hastea baimentzen duena

1/2023 Foru Arauaren lehen xedapen gehigarriak xedatzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak, foru-dekretu arauemaileen bidez egokitu egingo du, Ekonomia Itunaren Legearen arabera, araubide erkideko lurraldeko arau substantibo eta formal berberen arabera arautu behar diren zergei buruzko erregulazioa.

Egokitzapen hori urtebeteko epean egin beharko da, aipatutako 1/2023 Foru Araua indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita.

Orden Foral por la que se autoriza la iniciación del procedimiento de elaboración de un Decreto Foral Normativo de los Impuestos Especiales

La disposición adicional primera de la Norma Foral 1/2023 dispone que la Diputación Foral de Gipuzkoa procederá, a través de los decretos forales normativos, a adaptar la regulación relativa a los impuestos que, en virtud de la Ley del Concierto Económico, deban regirse por las mismas normas sustantivas y formales que en el territorio de régimen común.

Dicha adaptación deberá realizarse en el plazo de un año desde la entrada en vigor de la citada Norma Foral 1/2023.

FAEB5d8318bd-47e0-44c3-8b26-2afa91fd0ec4

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

Hala, proiektu honen bidez foru-dekretu arauemaile bat onartu nahi da, Zerga Berezien erregulazioa Gipuzkoako Lurralde Historikoko araudira egokitzeko.

Así, mediante este proyecto se pretende aprobar un decreto foral normativo que adapte la regulación de los Impuestos Especiales a la normativa del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Bideragarritasun ekonomikoa eta aurrekontu eragina

Viabilidad económica e incidencia en los Presupuestos

Esan bezala, proiektu honen helburu bakarra da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Berezien araudia eguneratzea. Hori egingo da indarrean dagoen egitura arautzailea ahalik eta gutxien aldatuz; Zerga Bereziei buruzko Legea egokitzeko 20/1998 Foru Dekretuan eta Zerga Bereziei buruzko 38/1992 Legean jasotako titulu, kapitulu, atal, artikulu eta apartatuen korrelazio bera jasoko da.

Tal y como se ha comentado, el objeto de este proyecto es, exclusivamente, actualizar la normativa de los Impuestos Especiales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. La misma se va a realizar modificando lo menos posible la estructura regulatoria vigente; se va a recoger la misma correlación de títulos, capítulos, secciones, artículos y apartados que los recogidos tanto en el Decreto Foral 20/1998 de adaptación a la ley de impuestos especiales, como en la Ley 38/1992 de Impuestos Especiales.

Asmoa ez da inolako aldaketarik egitea indarrean dagoen araudian, eta, beraz, ez du aldaketarik eragingo zergadunen tributazioan.

No se pretende introducir ningún tipo de modificación en la normativa vigente, por lo que no provocará modificaciones en la tributación de las personas contribuyentes.

FAEB5d8318bd-47e0-44c3-8b26-2afa91fd0ec4

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

Baina, egokitzapen horrek, zerga jarduketen eraginkortasun handiagoa ekarriko du, eta, azkenean, zerga sistemaren funtzionamendu hobea ekarriko du.

Pero esa adaptación si provocará una mayor eficacia de las actuaciones tributarias, que al final repercutirán en un mejor funcionamiento del sistema tributario en general.

Beraz, eta hasera batean, proiektu honetan jasotako neurriak bideragarriak dira ekonomikoki, eta beraien eragina Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontuetan jasangarria da.

Por tanto, y en un principio, las medidas contempladas en este proyecto resultan viables económicamente y su incidencia en términos cuantitativos dentro de los Presupuestos del Territorio Histórico de Gipuzkoa es asumible.

Donostia, 2023ko maiatzaren 9a

San Sebastián, a 9 de mayo de 2023

Sin./Fir.: José Antonio Lapeira Oyarzabal
AZTERLANETAKO ATALBURUA/ JEFE SECCIÓN DE ESTUDIOS

FAEB5d8318bd-47e0-44c3-8b26-2afa91fd0ec4

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

FAEB5d8318bd-47e0-44c3-8b26-2afa91fd0ec4

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

Sinadura laburpena

FA-OG-2023-0191

Resumen de firmas

Izenburua | Título:

Zerga araua egiteko espedientearen hasiera Zerga Berezien FD-Arauemailea prozedura baimentzen duena.
Disposición general tributaria. Inicio de expediente DF-Normativo Impuestos Especiales

Ondoren dokumentu honetan erreferentzia egiten den foru agindu originalaren sinadura datuak erakusten dira.
A continuación se muestran los datos de la firma de la orden foral original a la que hace referencia este documento.

Sinatzailea | Firmante:PERONA LERCHUNDI, Jokin

Data | Fecha:2023ko maiatzaren 10ean

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **FAEB5d8318bd-47e0-44c3-8b26-2afa91fd0ec4**
Dokumentu honen osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan: ***https://egoitza.gipuzkoa.eus/eks***
Compruebe la integridad y firma de este documento, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:
https://egoitza.gipuzkoa.eus/csv

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

Uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakunde, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 70. artikuluaren 1. apartatuko d) letran jasotakoaren ondorioetarako, eta espedientean horrela jasota gera dadin, adostasuna ematen diot arau proposamen honi.

A efectos de lo dispuesto en la letra d) del apartado 1 del artículo 70 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y para que así conste en el expediente, doy mi conformidad a la presente propuesta normativa.

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUKO FORU DIPUTATUA / EL DIPUTADO FORAL DEL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, Zerga Bereziena.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak, maiatzaren 13ko 12/1981 Legearen bidez onetsiak, lehen kapituluko 6. sekzioan zeharkako zergak zituen hizpide, eta horien artean zerga bereziak. Bertan jasotzen zenez, zerga bereziak, enpresen trafikoaren gaineko zergaren errekargu probintziala barne, Estatuak une bakoitzean ezarritako oinarrizko printzipio, arau substantibo, zerga egitate, sortzapen, oinarri, tasa eta tarifa berberak aplikatuta arautzen ziren.

Aurreko paragrafoan xedatutakotik kanpo geratzen zen ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga. Izan ere, zerga hori araudi autonomoko tributu itundutzat hartzen zen, sozietate eragiketetan, kanbio letretan eta ordezko balioa edo igorpen funtzio bat duten

DECRETO FORAL NORMATIVO de Impuestos Especiales.

El Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por la ley 12/1981, de 13 de mayo, contenía en la sección 6.ª de su capítulo primero la concertación de los impuestos indirectos, entre los que se encontraban los impuestos especiales, estableciendo que los mismos, incluido el recargo provincial sobre el Impuesto de Tráfico de Empresas, se regían por los mismos principios básicos, normas sustantivas, hechos imponibles, exenciones, devengos, bases, tipos y tarifas que los establecidos en cada momento por el Estado.

Se exceptuaba de lo dispuesto en el párrafo precedente, el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, que tenía el carácter de tributo concertado de normativa autónoma, salvo en las operaciones societarias, letras de cambio y documentos que suplan a las mismas o realicen función

agirietan izan ezik, horiek araudi erkidearen arabera arautzekoak baitziren.

Bestalde, hogeita hamabigarren artikuluak ezartzen zuen ezen, alkohol etilikoak eta edari alkoholdunak eta petrolioa, horien eratorriak eta antzekoak zergapetzen zituztenak kenduta, gainerako zerga bereziak foru aldundiek exijitu behar zituztela, erregela hauen arabera: telefonoaren erabileraren gaineko zerga Euskal Autonomia Erkidegoan ordainaraztea foru aldundiei zegokien, eta hura likidatu eta biltzea, berriz, Compañia Telefónicari, mila bederatziehun eta hirurogeita zazpiko martxoaren 2ko testu bateginak berrogeita laugarren artikuluan xedatutako eran; Telefonicaren ardura zen, orobat, likidazioaren zenbatekoa zuzenean ingresatzea foru aldundi eskudunean; edari freskagarrien gaineko zergaren kasuan, tributua Euskal Autonomia Erkidegoan ordainaraztea foru aldundien zeregina zen fabrikatzailearen salmenta edo entrega Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako fabrika, tailer edo biltegietako erosleei zuzenduta ateratzen zenean.

1993. urtean, abenduaren 13ko 11/1993 Legea dela medio, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna egokitu zen bai Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legera eta bai Zerga Berezien Legera. Zehazki, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia itundu zen lege horren bitartez. 1997. urtean, abuztuaren 4ko 38/1997 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren aldaketa onesten duenak, fabrikazioko zerga bereziak ordainarazteko erregelak aldatu zituen, eta 27. artikuluan ezarrita utzi zuen ezen Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundiek zerga horiek ordainarazteko garaian Estatuak une bakoitzean ezarritako arau substantibo eta formal berberak aplikatu behar zituztela, Ekonomia Itunaren 32. artikuluan aurreikusitako salbuespenei kalterik egin gabe.

de giro, que se regían por la normativa común.

Por su parte, su artículo treinta y dos establecía que, excepto los que gravaban los alcoholes etílicos y bebidas alcohólicas y el petróleo, sus derivados y similares, los impuestos especiales se exigían por las respectivas Diputaciones Forales con arreglo a las siguientes reglas: correspondía a las respectivas Diputaciones Forales la exacción del impuesto sobre el uso del teléfono en el País Vasco, liquidando y recaudando por la Compañía Telefónica en la forma dispuesta en el artículo cuarenta y cuatro del texto refundido de dos de marzo de mil novecientos sesenta y siete, e ingresando directamente su rendimiento en la Diputación Foral competente; el impuesto sobre bebidas refrescantes se exigía en el País Vasco por las respectivas Diputaciones Forales cuando la venta o entrega por el fabricante salía con destino a los adquirentes de fábricas, talleres o almacenes sitos en territorio del País Vasco.

En el año 1993, con la Ley 11/1993, de 13 de diciembre, de Adaptación del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco a la Ley del Impuesto sobre el Valor Añadido y a la Ley de Impuestos Especiales, se incluye dentro de la concertación el impuesto especial sobre determinados medios de transporte, y en el año 1997, con la Ley 38/1997, de 4 de agosto, por la que se aprueba la modificación del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, se modifica la concertación de las reglas de exacción de los impuestos especiales de fabricación, estableciendo en su artículo 27 que en su exacción las Diputaciones Forales del País Vasco debían aplicar las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado, sin perjuicio de las excepciones

previstas en el artículo 32 del mencionado Concierto Económico.

2002an, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itun berria 12/2002 Legearen bidez onartu zenean, jasota geratu zen espresuki zerga bereziei buruzko I. kapituluko 10. sekzioaren 33. artikuluan lurralde historikoetako erakunde eskudunek ahalmena dutela zerga horiek arautzeko, betiere Estatuak une bakoitzean ezartzen dituen arau substantibo eta formal berberak errespetatuz. Azken esandako horren salbuespen gisa, argitzen da, hala ere, lurralde historikoetako erakunde eskudunek zilegi izango dutela zerga horien karga tasak ezartzea, lurralde erkidean unean-unean indarrean dauden arauek ezarritako mugen eta baldintzen barruan. Era berean, eta lehendik hasitako bide beretik jarraituz, bertan lurralde historikoei ahalmena ematen zaie aitorpen eta ordainketa ereduak onesteko eta likidazio aldi bakoitzeko ordainketa epeak zein izango diren zehazteko; baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ezingo dira izan Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak.

En el 2002, con la aprobación del nuevo Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco por la Ley 12/2002, se recoge de forma expresa en el artículo 33, inserto en la sección 10.ª de su capítulo I, dedicado de forma expresa a los impuestos especiales, la capacidad normativa de las Instituciones competentes de los Territorios Históricos para regular dichos impuestos, si bien respetando las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado. Como salvedad a esto último, se aclara que las Instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán establecer los tipos de gravamen de estos impuestos dentro de los límites y en las condiciones vigentes en cada momento en territorio común. Asimismo, y como ya se venía recogiendo con anterioridad, se habilita para la aprobación de los modelos de declaración e ingreso, que contendrán al menos los mismos datos que los de territorio común, y señalar plazos de ingreso para cada período de liquidación, que no diferirán sustancialmente de los establecidos por la Administración del Estado.

Gaikuntza horien babesean, 1992an Gipuzkoako Lurralde Historikoan onetsi eta indarrean jarri zen abenduaren 29ko 103/1992 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzen duena. Bertan, alabaina, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia baino ez zen arautu, aipatutako 38/1992 Legearen barruan jasota datorrena. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean xedatutakora egokitzen duen martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretua onetsi zenean lortu zen guztiz arautzea gure lurraldean zerga berezien erregulazioa, azken xedapen

Al amparo de dichas habilitaciones, en el Territorio Histórico de Gipuzkoa se aprobó y entró en vigor el Decreto Foral 103/1992, de 29 de diciembre, por el que se adapta la normativa fiscal del Territorio Histórico de Gipuzkoa a la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales, que regulaba únicamente el impuesto especial sobre determinados medios de transporte, incluido en la Ley 38/1992 mencionada. Es con el Decreto Foral 20/1998, de 3 de marzo, por el que se adapta la normativa tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa a lo dispuesto en la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales, con el que se aborda una regulación íntegra de los impuestos especiales, de conformidad con la normativa vigente en el Estado en el

hori onartu zen unean Estatuan indarrean zegoen araudiarekin bat.

Testuinguru horretan, martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak hainbat aldaketa izan ditu harrez gero, haren edukia Estatuak une bakoitzean sartu dituen aldaketetara egokitzeko.

Komeni da argi uztea ezen Gipuzkoako Foru Aldundiak onetsi zuen erregulazioak, geroago, Gipuzkoako Batzar Nagusien oniritzia jaso zuela, aurrenik Zergei buruzko urtarrilaren 31ko 1/1985 Foru Arau Orokorraren 13. artikuluan, gero martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren 8. artikuluan, eta, azkenik, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren 14. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Egokitzapen hori, hala ere, 2012tik aurrera eten zen. Une hartan, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak, aurrekontu egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoak, besteak beste, tabako laboreen gaineko zergaren zerga tasak aldatu zituen, bai eta balio erantsiaren gaineko zergaren tasa orokorra eta murriztua igo ere: 100eko 18tik 100eko 21era eta 100eko 8tik 100eko 10era, hurrenez hurren.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, ordura arte segitutako bidetik jarraituz, Gipuzkoako zerga ordenamendura ekarri zuen aldaketa hori, eta, horretarako, abuztuaren 28ko 4/2012 Foru Dekretu-Araua onetsi zuen, balio erantsiaren gaineko zerga eta tabako laboreen gaineko zerga berezia aldatzen dituena. Hala ere, foru dekretu-arau hori Gipuzkoako Lurralde Historikoko Batzar Nagusietan aurkeztu zenean bertan baliozkotu edo indargabetu zedin, batzar nagusiak ez ziren ados agertu testuan

momento de la aprobación de esta última disposición.

En este contexto, el mencionado Decreto Foral 20/1998, de 3 de marzo, fue objeto de numerosas modificaciones, adaptando su contenido a las modificaciones realizadas en cada momento por el Estado.

Hay que aclarar que la regulación aprobada por la Diputación Foral de Gipuzkoa era objeto de convalidación posterior por las Juntas Generales del Territorio Histórico en sus resoluciones, de conformidad con lo dispuesto inicialmente en el artículo 13 de la Norma Foral 1/1985, de 31 de enero, General Tributaria, posteriormente en el artículo 8 de su sustituta Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, y finalmente en el artículo 14 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Esta adaptación, sin embargo, fue objeto de interrupción a partir del 2012. En aquel momento, mediante Real Decreto-ley 20/2012, de 13 de julio, de medidas para garantizar la estabilidad presupuestaria y de fomento de la competitividad, se procedió, entre otras cuestiones, a la modificación de los tipos impositivos del impuesto sobre las labores del tabaco, además de la elevación de los tipos impositivos general y reducido del impuesto sobre el valor añadido, del 18 por 100 y 8 por 100 al 21 por 100 y 10 por 100, respectivamente.

La Diputación Foral de Gipuzkoa, siguiendo la línea mantenida hasta la fecha, procedió a incorporar dicha modificación al ordenamiento tributario guipuzcoano, y para ello aprobó el Decreto Foral-Norma 4/2012, de 28 de agosto, por el que se modifican el Impuesto sobre el Valor Añadido y el Impuesto Especial sobre las Labores del Tabaco. Sin embargo, cuando el citado decreto foral-norma fue sometido a las Juntas Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para su convalidación o

jasotako neurriekin, eta, batik bat, balio erantsiaren gaineko zergaren tasak igotzearekin, eta 2012ko irailaren 19ko ebazpenaren bidez hura indargabetzea erabaki zuten.

derogación, estas se mostraron en desacuerdo con las medidas contenidas en el mismo, básicamente con la elevación de tipos impositivos del impuesto sobre el valor añadido, de modo que acordaron su derogación por resolución de 19 de septiembre de 2012.

Horrek berekin ekarri zuen Gipuzkoan desoreka bat egotea zerga bereziei buruz indarrean zegoen foru araudiaren eta Ekonomia Itunaren arabera aplikatu behar zenaren artean. Harrez gero, Gipuzkoako Lurralde Historikoan zerga berezien erregulazioak bi arau esparru izan ditu erreferentzia gisa: alde batetik, 20/1998 Foru Dekretua, eta, bestetik, 38/1992 Legea bera.

Ello provocó un desajuste entre la normativa foral vigente de los impuestos especiales en Gipuzkoa y la que, en virtud del Concierto Económico, debía resultar de aplicación. Desde entonces la regulación en el Territorio Histórico de Gipuzkoa de los impuestos especiales ha estado soportada en dos marcos normativos distintos, de un lado el Decreto Foral 20/1998 y de otro la propia Ley 38/1992.

Egoera hori konpontzeko, urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauak, 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituenak, bi foru arau aldatu zituen, hain zuzen ere, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra, eta uztailaren 12ko 6/2005 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketari, Gobernuari eta Administrazioari buruzkoa, eta horren helburua izan zen Gipuzkoako ordenamendu juridikoan zuzenbidearen beste figura bat sartzea gure zerga araudia Ekonomia Itunaren arabera lurralde erkidean ezarritako arau substantibo eta formal berberei jarraituz arautu behar diren zergetara egokitu ahal izan dadin.

A fin de solventar esta situación, mediante la Norma Foral 1/2023, de 17 de enero, por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias para el año 2023, se procedió a modificar tanto la Norma Foral 2/2005, de 8 marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, como la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, con el objeto de incorporar en el ordenamiento jurídico guipuzcoano una nueva fuente del derecho que permitiera adaptar su normativa tributaria a aquellos impuestos que, en virtud del Concierto Económico, deban regirse por las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en territorio común.

Horrela, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren 13. artikuluko 5. apartatuak xedatzen du ezen Foru Aldundiak foru dekretu arauemaileak eman ahal izango dituela, haien xede bakarra Gipuzkoako Lurralde Historikoko araudia egokitzea denean, baldin eta, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren arabera, lurralde historiko horretan

Así, el apartado 5 del artículo 13 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno, y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, dispone que, la Diputación Foral podrá dictar decretos forales normativos en materia tributaria en el supuesto de que su objeto sea exclusivamente la adaptación de la normativa del Territorio Histórico de Gipuzkoa, cuando, de conformidad con lo dispuesto en el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco,

araubide erkideko lurraldean dauden arau substantibo eta formal berberak bete behar badira.

aprobado mediante la Ley 12/2002, de 23 de mayo, deban regir en dicho Territorio Histórico las mismas normas sustantivas y formales que en el territorio de régimen común.

Bestalde, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 8. artikuluak xedatzen du ezen, Foru Aldundiak, Batzar Nagusiek eskuordetuta, zerga arloko xedapen arauemaileak eman ahal izango dituela, foru arau baten mailarekin, haien xede bakarra Gipuzkoako Lurralde Historikoko araudia egokitzea denean, baldin eta, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren arabera, lurralde historiko horretan araubide erkideko lurraldean dauden arau substantibo eta formal berberak bete behar badira.

Por su parte, el artículo 8 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, dispone que la Diputación Foral, por delegación de las Juntas Generales, podrá dictar disposiciones normativas con rango de norma foral en materia tributaria en el supuesto de que su objeto sea exclusivamente la adaptación de la normativa del Territorio Histórico de Gipuzkoa, cuando, de conformidad con lo establecido en el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado mediante la Ley 12/2002, de 23 de mayo, deban regir en dicho Territorio Histórico las mismas normas sustantivas y formales que en el territorio de régimen común.

Horri dagokionez, gorago aipatutako urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauak honako hau dio lehen xedapen gehigarrian: Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2/2005 Foru Arauaren 8. artikuluan eta 6/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan aurreikusten diren zerga arloko foru dekretu arauemaileen bidez, urtebeteko epean, 1/2023 Foru Araua indarrean jartzen denetik aurrera, egokitu behar du maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren arabera araubide erkideko lurraldean dauden arau substantibo eta formal berberei jarraituz arautu behar diren zergen erregulazioa.

Al respecto, la disposición adicional primera de la anteriormente citada Norma Foral 1/2023, de 17 de enero, dispone que la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de los decretos forales normativos en materia tributaria previstos en el artículo 8 de la Norma Foral 2/2005, y en el artículo 13 de la Norma Foral 6/2005, citados anteriormente, procederá, en el plazo de un año desde la entrada en vigor de la Norma Foral 1/2023, a adaptar la regulación relativa a los impuestos que, en virtud del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado mediante la Ley 12/2002, deban regirse por las mismas normas sustantivas y formales que en el territorio de régimen común.

Hortaz, agindu hori betez, proiektuaren helburua da zerga berezien araudi eguneratua jasoko duen foru dekretu arauemaile bat onestea, Estatuan indarrean dagoen araudiaren termino berdinetan. Funtsezkoenean, araudi hori Zerga Bereziei

En consecuencia, en cumplimiento de dicho mandato, se aprueba un decreto foral normativo que recoja la normativa actualizada de los impuestos especiales, en los mismos términos que los recogidos en la normativa vigente en el Estado, que en lo sustancial está recogida en la Ley 38/1992

buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean jasotzen da.

Erregulazio berriari heltzen zaion unean arau testuingurua zein den kontuan hartuta, komenigarritzat jo da egitura erregulatorioa ahalik eta gutxien aldatzea, eta, horren ondorioz, foru dekretu arauemaileak 20/1998 Foru Dekretuan aurreikusita dauden titulu, kapitulu, sekzio, artikulu eta apartatuen korrelazio bera jasotzen du, baita 38/1992 Legean jasotzen direnena ere, dekretu hori lege horretara egokituta ez dagoen partean. Horrek berekin dakar foru dekretu arauemailean edukirik gabeko parte batzuk agertzea indarrean dauden gainerako edukien korrelazioa mantentzeko, nahiz eta horrek, aldi berean, erraztu egiten duen zergaren araudi substantiboa garatzen duten xedapenetan konkordantzia egotea igorpenen artean (ereduak onesteko foru aginduetan, interpretazio ebazpenetan eta gainerako erregelamenduzko xedapenetan, esate baterako).

Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales.

Teniendo en cuenta el contexto normativo desde el que se aborda la nueva regulación, se ha estimado conveniente modificar lo menos posible su estructura regulatoria, por lo que el decreto foral normativo recoge la misma correlación de títulos, capítulos, secciones, artículos y apartados que los recogidos en el Decreto Foral 20/1998, y en la Ley 38/1992 por la parte en la que aquél no está adaptado a esta última. Ello provoca que el decreto foral normativo contenga partes sin contenido a fin de conservar la correlación del resto de los contenidos vigentes, si bien por otro lado facilita la concordancia de las remisiones contenidas en disposiciones de desarrollo de la normativa sustantiva del impuesto, tales como las contenidas en las ordenas forales aprobatorias de los modelos, las resoluciones interpretativas y demás disposiciones reglamentarias.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral en sesión del día de la fecha,

XEDATZEN DUT:

DISPONGO:

ATARIKO TITULUA

TÍTULO PRELIMINAR

1. artikulua. Zerga berezien izaera.

1. Foru dekretu arauemaile honetan arautzen diren zerga bereziak zeharkako tributuak dira, kontsumo espezifiko batzuen gainean aplikatzen direnak. Zehazki, ondasun jakin batzuk barruko lurralde eremuan fabrikatzea, modu irregularrean fabrikatzea, inportatzea, sartzea eta, kasua bada, modu irregularrean sartzea kargatzen ditu fase bakarrean, bai eta zenbait garraiobide matrikulatzea, energia elektrikoa

Artículo 1. Naturaleza de los impuestos especiales.

1. Los impuestos especiales regulados en el presente decreto foral normativo son tributos de naturaleza indirecta que recaen sobre consumos específicos y gravan, en fase única, la fabricación, incluida la fabricación irregular, importación, la entrada irregular y, en su caso, la introducción, en el ámbito territorial interno, de determinados bienes, así como la matriculación de determinados medios de transporte, el suministro de

hornitzea eta ikatza kontsumora jartzea ere, hori guztia foru dekretu arauemaile honetan xedatutakoari jarraituz.

2. Honako hauek dira zerga bereziak: fabrikazio zerga bereziak, elektrizitatearen gaineko zerga berezia, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia eta ikatzaren gaineko zerga.

energía eléctrica y la puesta a consumo de carbón, de acuerdo con lo dispuesto en este decreto foral normativo.

2. Tienen la consideración de impuestos especiales los impuestos especiales de fabricación, el impuesto especial sobre la electricidad, el impuesto especial sobre determinados medios de transporte y el impuesto especial sobre el carbón.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

1. Zerga bereziak foru dekretu arauemaile honetan xedatutakoaren arabera exijituko dira Gipuzkoako Lurralde Historikoan, hargatik eragotzi gabe Ekonomia Itunaren 5.1 artikuluan ezarritakoa eta Espainiako Estatuak sinatu eta berretsitako nazioarteko hitzarmen eta itunetan edo haren atxikimendua jasotzen dutenetan xedatutakoa.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiak kasu hauetan ordainaraziko ditu zerga bereziak:

a) Fabrikazio zerga berezien kasuan, zerga horien sortzapena Gipuzkoako Lurralde Historikoan gertatzen denean.

Fabrikazio zerga berezien itzulketak Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo ditu, itzultzeko eskatzen diren kuotak bertan ordaindu direnean. Dena dela, kuotak zein administraziotan ordaindu diren jakiterik ez dagoenean, itzulketarako eskubidea sortu den lurraldeko Administrazioak egingo du itzulketa.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan dauden establezimenduak kontrolatzea eta horiei baimena ematea, araubidea edozein dela ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eginkizuna izango da. Dena dela, aurretik horren berri eman beharko zaie bai Estatuko

Artículo 2. Ámbito de aplicación.

1. Los impuestos especiales se exigirán en el Territorio Histórico de Gipuzkoa de acuerdo con lo dispuesto en el presente decreto foral normativo, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 5.primera del Concierto Económico y de lo dispuesto en Convenios y Tratados Internacionales firmados y ratificados por el Estado español o a los que éste se adhiera.

2. Corresponderá a la Diputación Foral de Gipuzkoa la exacción de los impuestos especiales según las siguientes reglas:

a) Los impuestos especiales de fabricación cuando el devengo de los mismos se produzca en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Las devoluciones de los impuestos especiales de fabricación serán efectuadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa cuando las cuotas cuya devolución se solicita fueron ingresas en la misma. No obstante, en los casos en que no sea posible determinar en qué Administración fueron ingresadas las cuotas, la devolución se efectuará por la Administración correspondiente al territorio donde se genere el derecho a la devolución.

El control de los establecimientos situados en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, así como su autorización, en cualquiera de sus regímenes, será realizado por la Diputación Foral de Gipuzkoa, no obstante lo cual, será necesaria la previa comunicación a la

Administrazioari eta bai Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeari.

b) Zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren kasuan, zerga egitatea gauzatzen duen pertsona fisiko edo juridikoaren zerga egoitza Gipuzkoako Lurralde Historikoan dagoenean.

c) Ikatzaren gaineko zerga bereziaren kasuan, sortzapena Gipuzkoako Lurralde Historikoan gertatzen denean.

d) Elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren kasuan, une hauetan: energia elektrikoa hornitzen den kasuetan, elektrizitatea kontsumo propiorako eskuratzen duen pertsona edo entitatearen hornidura puntua Gipuzkoako Lurralde Historikoan dagoenean, eta ekoizleek sortutako elektrizitatea ekoizleek berek kontsumitzen duten kasuetan, kontsumo hori Gipuzkoako Lurralde Historikoan egiten denean.

Administración del Estado y a la Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa.

b) El impuesto especial sobre determinados medios de transporte cuando radique en el Territorio Histórico de Gipuzkoa el domicilio fiscal de la persona física o jurídica que realice el hecho imponible.

c) El impuesto especial sobre el carbón cuando el devengo se produzca en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

d) El impuesto especial sobre la electricidad en el caso de suministro de energía eléctrica, cuando esté ubicado en el Territorio Histórico de Gipuzkoa el punto de suministro de la persona o entidad que adquiera la electricidad para su propio consumo y en el caso del consumo por los productores de energía eléctrica de aquella electricidad generada por ellos mismos, cuando se produzca en el Territorio Histórico de Gipuzkoa dicho consumo.

I. TITULUA

Fabrikazio zerga bereziak

I. KAPITULUA

Xedapen komunak

3. artikulua. Fabrikazio zerga bereziak

Fabrikazio zerga berezitzat hartzen dira honako hauek:

1. Alkoholaren eta edari alkoholdunen gaineko zerga berezi hauek:

a) Garagardoaren gaineko zerga.

TÍTULO I

Impuestos especiales de fabricación

CAPÍTULO I

Disposiciones comunes

Artículo 3. Impuestos especiales de fabricación.

Tienen la consideración de impuestos especiales de fabricación:

1. Los siguientes impuestos especiales sobre el alcohol y las bebidas alcohólicas:

a) El impuesto sobre la cerveza.

b) Ardoaren eta edari hartzituen gaineko zerga:

c) Tarteko produktuen gaineko zerga.

d) Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga.

2. Hidrokarburoen gaineko zerga.

3. Tabako laboreen gaineko zerga.

b) El impuesto sobre el vino y bebidas fermentadas.

c) El impuesto sobre productos intermedios.

d) El impuesto sobre el alcohol y bebidas derivadas.

2. El impuesto sobre hidrocarburos.

3. El impuesto sobre las labores del tabaco.

4. artikulua. Kontzeptuak eta definizioak.

Titulu honen ondorioetarako, kontzeptu hauek definitzen dira:

1. “Barruko lurralde eremua”: Espainiako lurralde osoa da, Kanariak, Ceuta eta Melilla izan ezik. Nolanahi ere, garagardoaren gaineko zerga, tarteko produktuen gaineko zerga, eta alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga Kanarietan exijitu ahal izango dira, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean ezarritako baldintzetan. Aurrekoak ez du eragotziko nazioarteko hitzarmen eta itunetan ezarritakoa, ezta lurraldearen araberako zerga araubide bereziak ere.

2. Batasunaren gainerako lurralde eremua: Batasunaren lurraldea, barruko lurralde eremua kanpo utzita.

3. “Autokontsumoa”: fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak kontsumitzea edo erabiltzea produktu horiek etendura araubidean dauden establezimenduetan.

4. “Aisiako abiazio pribatua”: titularitate publikokoa ez den hegazkin bat erabiliz jabeak edo, errentamenduz zein beste edozein tituluz, hura erabil dezakeen beste pertsona batek egiten duen abiazioa, helburuak merkataritzakoak ez direnean eta, batez ere, bidaiariak nahiz merkantziak

Artículo 4. Conceptos y definiciones.

A efectos de este título, se entenderá por:

1. “Ámbito territorial interno”: es todo el territorio español, a excepción de las islas Canarias, Ceuta y Melilla. No obstante, en las condiciones establecidas en la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales, los impuestos sobre la cerveza, sobre productos intermedios y sobre el alcohol y bebidas derivadas serán exigibles en las islas Canarias. Lo anterior se entenderá sin perjuicio de lo establecido en Convenios y Tratados Internacionales y de los regímenes tributarios especiales por razón del territorio.

2. “Ámbito territorial de la Unión no interno”: el territorio de la Unión excluido el ámbito territorial interno.

3. “Autoconsumo”: el consumo o utilización de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación efectuado en el interior de los establecimientos donde permanecen dichos productos en régimen suspensivo.

4. “Aviación privada de recreo”: la realizada mediante la utilización de una aeronave, que no sea de titularidad pública, por su propietario o por la persona que pueda utilizarla, mediante arrendamiento o por cualquier otro título, para fines no comerciales y, en particular, para fines

garraiatzeko edo kostu bidezko zerbitzuak emateko egiten ez denean.

distintos del transporte de pasajeros o mercancías o de la prestación de servicios a título oneroso.

5. “Erreferentziako administrazio kodea”: estatu kide igorleko agintari eskudunak, zirriborroko datuak ontzat eman ondoren, administrazio agiri elektronikoari esleitzen dion erreferentzia zenbakia. Kode honen erreferentziak «ARC» siglen bidez egingo dira.

5. “Código Administrativo de Referencia”: número de referencia asignado por las autoridades competentes del Estado miembro de expedición al documento administrativo electrónico, una vez que los datos del borrador han sido validados. Las referencias a este código se harán mediante las siglas “ARC”.

6. “NC kodeak”: 1987ko uztailaren 23ko 2658/87/EEE Erregelamenduak ezarritako nomenklatura konbinatuko kodeak. Fabrikazio zerga berezien aplikazio eremu objektiboa zehazteko, aplikatzekoak izango dira, izaera orokorrez, nomenklatura konbinatuan merkantziak sailkatzeko ezarritako irizpideak, eta, bereziki, baita honako hauek ere: nomenklatura konbinatua interpretatzeko arau orokorrak, nomenklatura horretako atal eta kapituluetako oharrak, Aduanetako Lankidetza Kontseiluak merkantziak izendatu eta kodetzeko erabiltzen duen sistema harmonizatuari buruzko oharrak, Kontseilu horrek sailkapenerako finkatutako irizpideak, eta, azkenik, Europar Batasunaren nomenklatura konbinatua azaltzen duten oharrak.

6. “Códigos NC”: los códigos de la nomenclatura combinada establecida por el Reglamento (CEE) número 2658/87, de 23 de julio de 1987. Para la determinación del ámbito objetivo de aplicación de los impuestos especiales de fabricación, serán de aplicación, con carácter general, los criterios establecidos para la clasificación de mercancías en la nomenclatura combinada y, en particular, las reglas generales para la interpretación de la nomenclatura combinada, las notas de sección y de capítulo de dicha nomenclatura, las notas explicativas del sistema armonizado de designación y codificación de mercancías del Consejo de Cooperación Aduanera, los criterios de clasificación adoptados por dicho Consejo, y las notas explicativas de la nomenclatura combinada de la Unión Europea.

Hala ere, alkoholaren eta edari alkoholdunen gaineko zerga berezietan aipatzen diren NC kodeak Batzordearen 2018/1602 (EB) Exekuzio Erregelamenduaren nomenklatura konbinatuko kodeei buruzkoak direla ulertuko da (2018/1602 Exekuzio Erregelamendua, nomenklatura arantzelario eta estatistikoari eta aduanako tarifa bateratuari buruz Kontseiluak onetsitako 2658/87/EEE Erregelamenduaren I. eranskina aldatzen duena). Hidrokarburoen gaineko zergaren kasuan, aipatzen diren NC kodeak Batzordearen 2001eko abuztuaren 6ko 2031/2001 (EE) Erregelamendukoak izango dira (2031/2001 Erregelamendua, nomenklatura arantzelario eta estatistikoari

No obstante, los códigos NC a que se hace referencia en los impuestos especiales sobre el alcohol y las bebidas alcohólicas se entenderán referidos a los códigos de la nomenclatura combinada contenida en el Reglamento de Ejecución (UE) 2018/1602 de la Comisión, por el que se modifica el anexo I del Reglamento (CEE) n.° 2658/87 del Consejo relativo a la nomenclatura arancelaria y estadística y al arancel aduanero común. Los códigos NC a que hace referencia el Impuesto sobre Hidrocarburos son los del Reglamento (CE) n.° 2031/2001 de la Comisión, de 6 de agosto de 2001, por el que se modifica el anexo I del Reglamento (CEE) n.° 2658/87

eta aduanako tarifa bateratuari buruz Kontseiluak onetsitako 2658/87/EEE Erregelamenduaren I. eranskina aldatzen duena).

del Consejo relativo a la nomenclatura arancelaria y estadística y al arancel aduanero común.

7. "Gordailuzain baimendua": Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 35. artikuluko 3. apartatuan aipatzen den pertsona eta entitatea, fabrika baten edo gordailu fiskal baten titular dena.

7. “Depositario autorizado”: la persona o entidad a la que se refiere el apartado 3 del artículo 35 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, titular de una fábrica o de un depósito fiscal.

8. "Harrerako gordailua": hartzaile erregistratu baten titulartasun pean dagoen establezimendua, noizbehinkakoa ez dena, non estatu kide hartzaileko agintariek emandako baimenaz baliatuta eta bere lanbidean diharduela, fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak jaso baititzake beste estatu kide bateko lurraldetik iritsita eta etendura araubidean.

8. “Depósito de recepción”: el establecimiento del que es titular un destinatario registrado que no sea ocasional donde, en el ejercicio de su profesión y en virtud de la autorización concedida por las autoridades competentes del Estado miembro de destino, pueden recibirse productos objeto de los impuestos especiales que circulen en régimen suspensivo procedentes del territorio de otro Estado miembro.

9. “Gordailu fiskala”: fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak etendura araubidean biltegiratu, jaso, bidali, eta, hala dagokionean, eraldatzeko baimena duen establezimendua edo oliobide nahiz gasbide sarea, horretan aritzeko erregelamenduz ezarritako baldintzak eta beharkizunak bete behar dituena.

9. “Depósito fiscal": el establecimiento o la red de oleoductos o gaseoductos donde, en virtud de la autorización concedida y con cumplimiento de las condiciones y requisitos que se establezcan reglamentariamente, se almacenen, reciban, expidan y, en su caso, se transformen productos objeto de los impuestos especiales de fabricación en régimen suspensivo.

10. "Hartzaile ziurtatua": Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 35. artikuluko 3. apartatuan aipatzen den edozein pertsona edo entitate, zeina helmugako estatu kideko agintari eskudunen aurrean erregistratuta baitago zerga bereziei lotutako produktuak jasotzeko, eta, bere lanbidean jardunez, horiek kontsumora bideratzeko estatu kide bateko lurraldean, beste estatu kide bateko lurraldera eramateko gero.

10. "Destinatario certificado": Cualquier persona o entidad a la que se refiere el apartado 3 del artículo 35 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, registrada ante las autoridades competentes del Estado miembro de destino con el fin de recibir productos sujetos a impuestos especiales que, en el ejercicio de la profesión de dicha persona, hayan sido despachados a consumo en el territorio de un Estado miembro y posteriormente trasladados al territorio de otro Estado miembro.

11. “Hartzaile erregistratua”: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren 35. artikuluko 3. apartatuan aipatzen den edozein pertsona edo entitate, zeinari, erregelamenduz ezarritako baldintzetan eta bere lanbidearen barruan diharduela, baimena eman baitzaio fabrikazio zerga bereziei lotuta dauden produktuak bere titulartasun peko harrera gordailu batean jasotzeko, etendura araubidean eta beste estatu kide bateko lurraldetik iritsita. Erregelamenduz ezarritako baldintzak eta beharkizunak betez gero, hartzaile erregistratuari, oso kasu bakanetan soilik, baimena eman ahal izango zaio fabrikazio zerga bereziei lotuta dauden produktuen bidalketa jakin bat beste estatu kide bateko lurraldetik jasotzeko etendura araubidean. Horrelakoetan, ez du nahitaez zertan izan bidalketa jasotzen duen gordailuaren titularra.

11. “Destinatario registrado”: cualquier persona o entidad a la que se refiere el apartado 3 del artículo 35 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, autorizada en el ejercicio de su profesión y en las condiciones que se establezcan reglamentariamente, a recibir en un depósito de recepción del que será titular, productos sujetos a impuestos especiales que circulen en régimen suspensivo procedentes del territorio de otro Estado miembro. El destinatario registrado podrá ser autorizado, con cumplimiento de las condiciones y requisitos que se establezcan reglamentariamente, a recibir solo a título ocasional, en régimen suspensivo, una determinada expedición de productos objeto de los impuestos especiales de fabricación procedentes del territorio de otro Estado miembro. En este último caso, no será necesariamente titular de un depósito de recepción.

12. “Zuzeneko entrega”: fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuek etendura araubidean zirkulatzea helmugako estatu kideko agintariek zuzenean entregatzeko baimendu duten tokiraino, erregelamenduz ezarritako baldintzen arabera, baldin eta toki hori estatu kide horretako gordailuzain baimenduak edo hartzaile erregistratuak adierazitakoa bada.

12. “Entrega directa”: la circulación de productos objeto de los impuestos especiales en régimen suspensivo hasta un lugar de entrega directa autorizado por las autoridades competentes del Estado miembro de destino, en las condiciones que reglamentariamente se establezcan, si dicho lugar ha sido designado por el depositario autorizado en ese Estado miembro o por el destinatario registrado.

13. "Sarrera irregularra": zirkulazio askeko araubidearen barruan ez dauden produktuak Batasunaren lurraldean sartzea 952/2013/EB Erregelamenduaren 201. artikuluarekin bat, haiengatik aduana zor bat sortu denean Erregelamendu horren 79. artikuluko 1. apartatuaren arabera, edo zor bat sortzea gerta daitekeenean aduana eskubideen mende egon izan balira.

13. "Entrada irregular": La entrada en el territorio de la Unión de productos que no estén incluidos en el régimen de despacho a libre práctica con arreglo al artículo 201 del Reglamento (UE) n.° 952/2013 y con respecto a los que se haya contraído una deuda aduanera en virtud del artículo 79, apartado 1, de dicho Reglamento, o una deuda que se habría contraído si los bienes hubieran estado sometidos a derechos de aduana.

14. “Bidalketa bermatuak”: fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak Batasunaren

14. “Envíos garantizados”: el procedimiento de circulación intracomunitaria de productos

barruan zirkulatzeko prozedura, non produktuek sorburuko estatu kidean baitute zerga sortzapena, eta helmugako estatu kideko hartzaile ziurtatu batek jasotzen baititu, foru dekretu arauemaile honen 63. artikuluan barruko lurralde eremuan produktuak jasotzeari buruz ezartzen diren murriztapenekin, baldin eta produktu horiek ez baditu bidaltzen edo garraiatzen, zuzenean edo zeharka, bidaltzaileak berak edo haren konturako beste batek, eta erregelamenduz ezarritako baldintzak eta betekizunak betetzen badira.

objeto de los impuestos especiales de fabricación, por los que ya se ha devengado el impuesto en el territorio del Estado miembro de origen, con destino a un destinatario certificado en el Estado miembro de destino, con las restricciones que se establecen en el artículo 63 de este decreto foral normativo en cuanto a recepciones en el ámbito territorial interno, siempre que tales productos no sean expedidos o transportados, directa o indirectamente, por el expedidor o a cargo del mismo y que se cumplan las condiciones y requisitos que se establezcan reglamentariamente.

15. "Bidaltzaile ziurtatua": Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 35. artikuluko 3. apartatuan aipatzen den edozein pertsona edo entitate, zeina estatu kide igorleko agintari eskudunen aurrean erregistratu baita zerga bereziei lotutako produktuak bidaltzeko, eta, bere lanbidean jardunez, horiek kontsumora bideratzeko estatu kide bateko lurraldean, beste estatu kide bateko lurraldera eramateko gero.

15. "Expedidor certificado": Cualquier persona o entidad a la que se refiere el apartado 3 del artículo 35 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, registrada ante las autoridades competentes del Estado miembro de expedición con el fin de enviar productos sujetos a impuestos especiales que en el ejercicio de la profesión de dicha persona hayan sido despachados a consumo en el territorio de un Estado miembro y posteriormente trasladados al territorio de otro Estado miembro..

16. “Bidaltzaile erregistratua”: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 35. artikuluko 3. apartatuan aipatzen den edozein pertsona edo entitate, zeinari inportazioa jasotzen duen estatu kideko agintari eskudunek baimena eman baitiote bere lanbidean jardutean eta agintari horiek ezarritako baldintzen arabera, zerga bereziei lotutako produktuak etendura araubidean bidaltzeko, inportazio lekutik bakarrik eta aduanako izapidearen unean, 952/2013/EB Erregelamenduaren 201.artikuluaren arabera.

16. “Expedidor registrado”: cualquier persona o entidad a la que se refiere el apartado 3 del artículo 35 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, autorizada por las autoridades competentes del Estado miembro de importación a enviar, en el ejercicio de su profesión y en las condiciones que fijen dichas autoridades, productos objeto de los impuestos especiales en régimen suspensivo solo desde el lugar de su importación en el momento de su despacho de aduana de conformidad con el artículo 201 del Reglamento (UE) n.º 952/2013.

17. “Esportazioa”: fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak barruko lurralde eremutik irtetea Batasunaren lurraldetik kanpora bidaltzeko. Hala ere, ibilgailuen

17. “Exportación”: la salida del ámbito territorial interno de productos objeto de los impuestos especiales de fabricación con destino fuera del territorio de la Unión. No

depositu arruntetan eta edukiontzi berezietan gordetzen den erregaia Batasunaren lurraldetik irtetea ez da joko esportaziotzat, eremu horretatik irteteko zirkulatzen duten ibilgailuen funtzionamendurako erabiltzen denean.

obstante, no se considerará exportación la salida del territorio de la Unión de los carburantes contenidos en los depósitos normales de vehículos y contenedores especiales y utilizados en el funcionamiento de los mismos con ocasión de su circulación de salida del referido ámbito.

18. “Fabrika”: emandako baimenaz baliatuta eta erregelamenduz ezartzen diren baldintzak eta betekizunak betez fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak etendura araubidean ateratzeko, fabrikatzeko, eraldatzeko, biltegiratzeko, jasotzeko eta bidaltzeko erabil daitekeen establezimendua.

18. “Fábrica”: el establecimiento donde, en virtud de la autorización concedida, con las condiciones y requisitos que se establezcan reglamentariamente, pueden extraerse, fabricarse, transformarse, almacenarse, recibirse y expedirse, en régimen suspensivo, productos objeto de los impuestos especiales de fabricación.

19. “Fabrikazioa”: fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak sortzea eta produktu horiek beste batzuetatik abiatuta lortzeko beste edozein prozesu egitea, eraldaketa barne, artikulu honen 33. apartatuan definitzen den eran, hori guztia foru dekretu arauemaile honen 15. artikuluko 3. apartatuan ezarritakoa eragotzi gabe.

19. “Fabricación”: la extracción de productos objeto de los impuestos especiales de fabricación y cualquier otro proceso por el que se obtengan dichos productos a partir de otros, incluida la transformación, tal como se define en el apartado 33 de este artículo, todo ello sin perjuicio de lo establecido en el apartado 3 del artículo 15 de este decreto foral normativo.

Fabrikazio irregulartzat hartuko da foru dekretu arauemaile honetan eta berau garatzeko araudian ezarritako baldintzak bete gabe egiten dena.

Tendrá la consideración de fabricación irregular la realizada sin cumplir las condiciones establecidas en este decreto foral normativo y en su normativa de desarrollo.

20. "Inportazioa": zirkulazio askerako izapidea, 952/2013/EB Erregelamenduaren 201. artikuluaren arabera.

20. "Importación": El despacho a libre práctica de conformidad con el artículo 201 del Reglamento (UE) n.° 952/2013

21. “Nazioarteko itsas edo aire nabigazioa”: barruko lurralde eremua hasi eta eremu horretatik kanpo amaitzen dena, edo alderantziz. Orobat, nazioarteko itsas nabigaziotzat hartzen da itsas zabaleko nabigazioan dabiltzan itsasontziek egindakoa, baldin eta industria, merkataritza edo arrantza jardueran aritzen badira (garraioa alde batera utzita) eta nabigazioaren iraupena, eskalarik gabe, berrogeita zortzi ordutik gorakoa bada.

21. “Navegación marítima o aérea internacional”: la realizada partiendo del ámbito territorial interno y que concluya fuera del mismo o viceversa. Asimismo, se considera navegación marítima internacional la realizada por buques afectos a la navegación en alta mar que se dediquen al ejercicio de una actividad industrial, comercial o pesquera, distinta del transporte, siempre que la duración de la navegación, sin escala, exceda de cuarenta y ocho horas.

22. “Aisiako nabigazio pribatua”: titularitate publikokoa ez den itsasontzi bat erabiliz jabeak edo, errentamenduz zein beste edozein tituluz, beste pertsona batek egiten duen nabigazioa, helburuak merkataritzakoak ez direnean eta, batik bat, haren xedea bidaiariak edo merkantziak garraiatzea edo kostu bidezko zerbitzuak ematea ez denean.

22. “Navegación privada de recreo”: la realizada mediante la utilización de una embarcación, que no sea de titularidad pública, por su propietario o por la persona que pueda utilizarla, mediante arrendamiento o por cualquier otro título, para fines no comerciales y, en particular, para fines distintos del transporte de pasajeros o mercancías o de la prestación de servicios a título oneroso.

23. “Hornidurako gauzak”: ontzi barruko bizigaiak, karburanteak, erregaiak, labaingarriak eta erabilera teknikoko gainerako olioak.

23. “Productos de avituallamiento”: las provisiones de a bordo, los combustibles, carburantes, lubricantes y demás aceites de uso técnico.

24. “Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak”: zerga horietako bakoitzaren eremu objektiboan sartzen diren produktuak.

24. “Productos objeto de los impuestos especiales de fabricación”: Los productos incluidos en el ámbito objetivo de cada uno de dichos impuestos.

25. “Ontzi barruko bizigaiak»: eskifaiaren eta bidaiarien kontsumora bakarrik zuzendutako produktuak.

25. “Provisiones de a bordo”: los productos destinados exclusivamente al consumo de la tripulación y los pasajeros.

26. “Etendura araubidea”: fabrikazio zerga berezien xede diren produktuen fabrikazio, eraldaketa, edukitza, biltegiratze eta zirkulazioari aplikagarria zaien zerga araubidea, zerga berezien aplikazioa etetea dakarrena.

26. “Régimen suspensivo”: el régimen fiscal, consistente en la suspensión de impuestos especiales, aplicable a la fabricación, transformación, tenencia, almacenamiento o circulación de productos objeto de los impuestos especiales.

27. “Zerga ordezkaria”: Batasuneko beste estatu bateko lurraldean finkatuta dagoen bidaltzaile batek urrutiko salmenten sisteman izendatzen duen pertsona edo entitatea, zeinari Espainiako Zerga Administrazioak baimena eman baitio, erregelamenduz ezarritako baldintzak bete ondoren, ordezkatutako bidaltzaileak igorritako produktuen fabrikazio zerga berezien ordainketa bermatzeko eta, horren ondoren, ordainketa hori urrutiko bidaltzailearen ordez egiteko.

27. “Representante fiscal”: la persona o entidad designada por un expedidor dentro del sistema de ventas a distancia, establecido en el territorio de otro Estado miembro de la Unión y autorizada por la Administración tributaria española, previo cumplimiento de los requisitos que se establezcan reglamentariamente, para garantizar el pago, así como para efectuarlo posteriormente, en lugar del expedidor, de los impuestos especiales de fabricación correspondientes a los productos expedidos por el expedidor que representa.

28. “Hirugarren herrialdeak”: Tratatuak aplikatzen ez zaizkion estatu edo lurralde oro.

28. “Terceros países”: todo Estado o territorio al que no se apliquen los Tratados.

29. “Hirugarren lurraldeak”:

a) Batasunaren aduana eremuan sartzen diren lurralde hauek:

1.a Espainiako Erresuman: Kanaria uharteak.

2.a Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 349. artikuluan eta 355. artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren Frantziako lurraldeak.

3.a Finlandiako Errepublikan: Aland uharteak.

b) Batasunaren aduana eremuan sartzen ez diren lurralde hauek:

1.a Alemaniako Errepublika Federalean: Helgoland uhartea eta Büsingengo lurraldea.

2.a Espainiako Erresuman: Ceuta eta Melilla.

3.a Italiako Errepublikan: Livigno.

c) Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 355. artikuluko 3. apartatuaren aplikazio eremuan sartzen diren lurraldeak.

30. "Estatu kide bateko lurraldea": estatu kideetako bateko lurraldea, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 349. eta 355. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera Tratatuak aplikagarri dituena, hirugarren lurraldeak kenduta.

31. "Batasunaren lurraldea": estatu kideetako lurraldeak.

32. “Zergarik gabeko dendak”: Espainiako lurralde penintsularreko edo Balear uharteetako portu edo aireportuetan, segurtasun eta pasaporte kontrolak gaindu ondoren bidaiariak aduanaren kontrolpean ontziratzeko, igarotzeko edo iristeko

29. “Terceros territorios ”:

a) Los siguientes territorios comprendidos en el territorio aduanero de la Unión:

1.º En el Reino de España: Islas Canarias.

2.º Los territorios franceses a que se refieren los artículos 349 y 355, apartado 1, del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea.

3.º En la república de Finlandia: Islas Aland.

b) Los siguientes territorios no comprendidos en el territorio aduanero de la Unión:

1.º En la República Federal de Alemania: Isla de Heligoland y el Territorio de Büsingen .

2.º En el Reino de España: Ceuta y Melilla.

3.º En la República Italiana: Livigno.

c) Los territorios comprendidos en el ámbito de aplicación del artículo 355, apartado 3, del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea.

30. "Territorio de un Estado miembro": el territorio de uno de los Estados miembros a los que son aplicables los Tratados, conforme a lo previsto en los artículos 349 y 355 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, salvedad hecha de terceros territorios.

31. "Territorio de la Unión": los territorios de los Estados miembros.

32. “Tiendas libres de impuestos”: establecimientos situados en el recinto de un aeropuerto o de un puerto, en la zona bajo control aduanero destinada al embarque, tránsito o llegada del viajero una vez superado el control de seguridad y/o el

eremuan kokatuta dauden establezimenduak, erregelamenduz ezarritako baldintzak betez edari alkoholdunak edo tabako laboreak zergarik gabe saldu ditzaketenak hirugarren herrialde edo lurralde bat helmuga duten hegaldi edo itsasaldietako bidaiariek beren ekipajean eramateko.

control de pasaporte para su acceso, ubicados en el territorio español peninsular o en las Illes Balears que, cumpliendo los requisitos establecidos reglamentariamente, efectúen entregas de bebidas alcohólicas o de labores del tabaco libres de impuestos, a viajeros que los transporten como equipaje personal, en un vuelo o travesía marítima, con destino a un tercer país o a un territorio tercero.

Aurreko paragrafoan aipatu diren establezimenduek ezingo diete bidaiariei zergarik gabe saldu ez garagardorik, ez tarteko produkturik eta ez edari deribaturik, beren ekipaje pertsonalean eramaten dutenean Kanaria uharteetara joateko.

Los establecimientos a que se refiere el párrafo anterior, no podrán efectuar entregas de cerveza, productos intermedios y bebidas derivadas, libres de impuestos, a viajeros que las transporten como equipaje personal con destino a las Islas Canarias.

Zergarik gabeko dendatzat hartzen dira, orobat, Kanaria uharteetako portu edo aireportuetan kokatuta dauden establezimenduak, baldin eta, erregelamenduz ezarritako baldintzak betez, barruko lurralde eremutik kanpora doazen bidaiariei garagardoa, tarteko produktuak edo edari deribatuak saltzen badizkiete, hegaldian edo itsasaldian zehar beren ekipajean eramateko.

También se consideran tiendas libres de impuestos los establecimientos situados en el recinto de un aeropuerto o de un puerto de las Islas Canarias que, cumpliendo los requisitos establecidos reglamentariamente, efectúen entregas de cerveza, productos intermedios y bebidas derivadas a viajeros que las transporten como equipaje personal, en un vuelo o en una travesía marítima, con destino fuera del ámbito territorial interno.

Aurreko paragrafoetan adierazitako hegaldi edo itsasaldiak dirauen bitartean aireontzi edo itsasontziaren barruan egiten diren salmentak zergarik gabeko dendek egindako salmentekin parekatuko dira.

Se asimilarán a entregas de productos efectuadas por tiendas libres de impuestos las efectuadas a bordo de una aeronave o de un buque durante un vuelo o una travesía marítima de las señaladas en los párrafos anteriores.

33. “Eraldaketa”: fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak lortzea helburu duen edozein fabrikazio prozesu, zerga horiei ere lotuta dauden produktuetatik osorik edo partez abiatuta egiten dena, prozesu horretan zirkunstantzia hauetakoren bat gertatzen denean:

33. “Transformación”: cualquier proceso de fabricación por el que se obtengan productos objeto de los impuestos especiales de fabricación a partir, total o parcialmente, de otros productos que también lo son y en el que concurra alguna de las siguientes circunstancias:

a) Abiapuntuko produktua eta lortzen den produktua fabrikazio zerga berezien eremu objektibo desberdinetan sartzen dira.

a) El producto de partida y el producto obtenido se incluyen en ámbitos objetivos de impuestos especiales de fabricación diferentes.

b) Abiapuntuko produktua eta lortzen den produktua fabrikazio zerga berezi bereko eremu objektiboan sartzen dira, baina dagokien epigrafea edo zerga tasa desberdinak dira.

b) El producto de partida y el producto obtenido se incluyen en el ámbito objetivo del mismo impuesto especial de fabricación, pero el epígrafe o tipo impositivo aplicable es diferente.

c) Abiapuntuko produktua eta lortzen den produktua fabrikazio zerga berezi bereko eremu objektiboan sartzen dira eta epigrafe eta zerga tasa berdina aplikatzen zaie, baina, prozesutik lortzen den produktu kantitatea handiagoa da erabili den abiapuntuko produktuarena baino.

c) El producto de partida y el producto obtenido se incluyen en el ámbito objetivo del mismo impuesto especial de fabricación y en el mismo epígrafe o tipo impositivo aplicable, pero, como resultado del proceso, la cantidad de producto obtenido es mayor que la cantidad empleada de producto de partida.

d) Produktuak desnaturalizatzea edo trazatzaileak edo markatzaileak gehitzea da eragiketaren xedea.

d) Se trate de una operación de desnaturalización o de adición de trazadores o marcadores.

34. “Urrutiko salmentak”: fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuek Batasunaren barruan zirkulatzeko sistema, non zergaren sortzapena dagoeneko gertatu baita sorburuko estatu kideko lurraldean, eta eskuratzailea ezin baita izan beste estatu kide batean finkatutako gordailuzain baimendu bat, hartzaile erregistratu bat edo hartzaile erregistratu bat, produktu horiei dagokienez jarduera ekonomiko independenteak egiten ez dituena, foru dekretu arauemaile honen 63. artikuluan ezartzen diren murriztapenekin, baldin eta produktu horiek zuzenean edo zeharka bidali edo garraiatzen dituena jarduera ekonomiko independente bat egiten duen bidaltzaile bat edo haren kontura diharduen norbait bada, eta erregelamenduz ezarritako baldintzak eta betekizunak betetzen badira.

34. “Ventas a distancia”: sistema de circulación intracomunitaria de productos objeto de impuestos especiales de fabricación por los que ya se ha devengado el impuesto en el territorio de un Estado miembro de origen, que sean adquiridos por una persona distinta de un depositario autorizado, un destinatario registrado o un destinatario certificado establecida en otro Estado miembro, y que no ejerza actividades económicas independientes en relación con dichos productos, con las restricciones que se establecen en el artículo 63 de este decreto foral normativo, siempre que tales productos sean expedidos o transportados, directa o indirectamente, por un expedidor que ejerza una actividad económica independiente o por cuenta de este, y que se cumplan las condiciones y requisitos que se establezcan reglamentariamente.

5. artikulua. Zerga egitatea.

Artículo 5. Hecho imponible.

1. Fabrikazio zerga bereziei lotuta daude Batasunaren lurralde eremuan zerga horien xede diren produktuak fabrikatzea, inportatzea edo modu irregularrean sartzea.

1. Están sujetas a los impuestos especiales de fabricación, la fabricación e importación o la entrada irregular de los productos objeto de dichos impuestos dentro del territorio de la Unión.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa zerga bakoitzaren barruko lurralde eremuan

2. Lo dispuesto en el apartado anterior será de aplicación respecto de los productos que

dauden produktuei dagokienez aplikatuko da.

3. Aurreko apartatuetan ezarritakoak ez du eragotziko foru dekretu arauemaile honen 23. eta 40. artikuluetan xedatutakoa.

se encuentran en el ámbito territorial interno de cada uno de los impuestos.

3. Lo establecido en los apartados anteriores se entiende sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 23 y 40 de este decreto foral normativo.

6. artikulua. Zergari ez lotzeko kasuak.

Ez dira egongo zergari lotuta fabrikazio edo inportazio gisa, honako hauek:

1. Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen izaeragatik gerta daitezkeen galera partzialak, fabrikazio, eraldaketa, edukitza, biltegiratze eta garraiatze prozesuetan zehar etendura araubidean gertatutakoak, baldin eta erregelamenduz ezarriko diren arauekin bat, aurrez finkatutako portzentajeak gainditu ez eta horretarako ezarritako baldintzak betetzen badira.

Hala ere, fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen izaeragatik sortzen diren galera partzialak etendu araubidean egindako batasun barruko zirkulazio batean gertatu badira, galera horiei ez zaizkie aplikatuko arauzko portzentajeak, agintari eskudunek iruzurra edo irregulartasuna dagoela egiaztatzen dutenean.

Irregulartasuntzat hartzen da zerga bereziei lotutako produktuek etendura araubidean zirkulatzean gerta daitekeen edozein egoera, apartatu honetan eta hurrengoan aipatutakoak izan ezik, zeinaren ondorioz zerga bereziei lotutako produktuen zirkulazio bat, edo haren parte bat, amaitu gabe geratzen baita erregelamenduz ezarritakoaren arabera.

2. Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak etendura araubidean daudela erabat suntsitzea edo ezin berreskuratzeko moduan galtzea osorik edo partez, ezusteko kasuetan edo ezinbestean, erregelamenduz

Artículo 6. Supuestos de no sujeción.

No están sujetas en concepto de fabricación o importación:

1. Las pérdidas parciales debidas a la naturaleza de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación, acaecidas en régimen suspensivo durante los procesos de fabricación, transformación, tenencia, almacenamiento y transporte, siempre que, de acuerdo con las normas que reglamentariamente se establezcan, no excedan de los porcentajes fijados y se cumplan las condiciones establecidas al efecto.

No obstante, no serán de aplicación los porcentajes reglamentarios a las pérdidas parciales debidas a la naturaleza de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación, acaecidas en régimen suspensivo durante una circulación intracomunitaria, cuando las autoridades competentes prueben la existencia de fraude o irregularidad.

Se entiende por irregularidad toda situación que se produzca durante la circulación de productos sujetos a impuestos especiales en régimen suspensivo, excepto las mencionadas en este apartado y en el siguiente, debido a la cual una circulación, o parte de esta, de productos sujetos a impuestos especiales, no haya finalizado conforme a lo previsto reglamentariamente.

2. La destrucción total o la pérdida irremediable, total o parcial, de productos objeto de los impuestos especiales de fabricación, acaecidas en régimen suspensivo, por caso fortuito o de fuerza

ezarriko diren portzentajeak gainditzen ez dituztenean edo, horiek gaindituta ere, Zerga Administrazioari haien existentzia frogatu zaionean zuzenbidean onartutako frogabideetako edozein erabiliz.

mayor, cuando no excedan de los porcentajes que se fijen reglamentariamente o cuando, excediendo de los mismos, se haya probado su existencia ante la Administración tributaria, por cualquiera de los medios de prueba admisibles en derecho.

3. Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak erabat suntsitzea edo ezin berreskuratzeko moduan galtzea osorik edo partez, suntsipena edo galera gertatu den estatu kideko agintari eskudunek horiek baimendu dituenean, baldin eta produktuak etendura araubidean badaude.

3. La destrucción total o la pérdida irremediable, total o parcial, de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación como consecuencia de la autorización de las autoridades competentes del Estado miembro en el que dicha destrucción o pérdida se haya producido, siempre que los productos se encuentren en régimen suspensivo.

Produktuak erabat suntsitu direla edo behin betiko galdu direla joko da zerga bereziei lotutako produktu gisa erabili ezin direnean eta egoera hori suntsipena edo galera gertatu den estatu kideko agintariei behar den eran frogatzen zaienean.

Se considerará que los productos han sido destruidos totalmente o han sufrido una pérdida irremediable cuando no puedan utilizarse como productos sujetos a impuestos especiales y se demuestre a satisfacción de las autoridades competentes del Estado miembro en que se hayan producido o detectado.

7. artikulua. Sortzapena.

Artículo 7. Devengo.

1. Foru dekretu arauemaile honen 23., 28., 37. eta 40. artikuluetan ezarritakoa eragotzi gabe, zergaren sortzapena une hauetan gertatuko da:

1. Sin perjuicio de lo establecido en los artículos 23, 28, 37 y 40 del presente decreto foral normativo, el impuesto se devengará:

a) Fabrikazio kasuetan, fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak fabrikatik edo gordailu fiskaletik irteten direnean edo autokontsumoa gertatzen denean.

a) En los supuestos de fabricación, en el momento de la salida de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación de la fábrica o depósito fiscal o en el momento de su autoconsumo.

Dena den, produktu horiek etendura araubidean irtengo dira fabrikatik edo gordailu fiskaletik, irteerak xede hauetako bat duenean:

No obstante, se efectuará en régimen suspensivo la salida de los citados productos de fábrica o depósito fiscal cuando se destinen:

1.a Beste fabrika edo beste gordailu fiskal batera bidaltzea zuzenean, zuzeneko entrega bat egitea, hartzaile erregistratu bati ematea, edo esportatzea;

1.º Directamente a otras fábricas, depósitos fiscales, a una entrega directa, a un destinatario registrado o a la exportación;

2.a Fabrikazio zerga bereziei lotu gabeko produktuak fabrikatzea, xedea esportazioa denean, baldin eta erregelamenduz ezarriko diren baldintzak betetzen badira;

2.º A la fabricación de productos que no sean objeto de los impuestos especiales de fabricación con destino a la exportación, siempre que se cumplan las condiciones que reglamentariamente se establezcan;

3.a Kontseiluaren 2019ko abenduaren 19ko 2020/262 (EB) Zuzentarauak, zerga berezien araubide orokorra ezartzen duenak, 16. artikuluaren 1. apartatuko a) letraren iv) tartekian aipatzen dituen hartzaileetako bati entregatzea.

3.º A uno de los destinatarios a los que se refiere el artículo 16, apartado 1, letra a), inciso iv) de la Directiva (UE) 2020/262 del Consejo de 19 de diciembre de 2019, por la que se establece el régimen general de los impuestos especiales.

4. Irteerako aduanan entregatzea, baldin eta 2015/2447 (EB) Exekuzio Erregelamenduaren 329. artikuluko 5. apartatuarekin bat aurreikusten bada aduana hori, aldi berean, abiapuntuko aduana izango dela kanpo igarobidearen araubiderako, 2015/2446 (EB) Erregelamendu Delegatuaren 189. artikuluko 4. apartatuaren indarrez. Kasu horretan, etendura araubidea amaituko da produktuak kanpo igarobidearen araubidean sartzen direnean.

4.° A la aduana de salida, cuando se prevea con arreglo al artículo 329, apartado 5, del Reglamento de Ejecución (UE) n.° 2015/2447, que sea al mismo tiempo la aduana de partida para el régimen de tránsito externo cuando así se prevea en virtud del artículo 189, apartado 4, del Reglamento Delegado (UE) n.° 2015/2446. En este supuesto el régimen suspensivo finalizará cuando los productos sean incluidos en el régimen de tránsito externo.

b) Inportazio kasuetan, aduana izapideak egiten diren unean, 952/2013 (EB) Erregelamenduaren 201. artikuluaren arabera. Dena den, inportatutako produktuak zuzenean sartzen badira fabrika batean edo gordailu fiskal batean, edo horiek inportatzen badira zuzeneko entrega bat egiteko edo hartzaile erregistratu batek zerga bereziei lotutako produktuak Batasunaren lurraldetik irtetea ahalbidetzen duen toki batean jasotzeko, edo Kontseiluaren 2019ko abenduaren 19ko 2020/262/EB Zuzentarauak, zerga berezien araubide orokorra ezartzen duenak, 16. artikuluaren 1. apartatuko a) letraren iv) tartekian aipatzen dituen hartzaileetako bati entregatzeko, edo irteerako aduanan entregatzeko, azken kasu horretan, baldin eta 2015/2447 (EB) Exekuzio Erregelamenduaren 329. artikuluko 5. apartatuarekin bat aurreikusten bada aduana hori, aldi berean, abiapuntuko aduana izango dela kanpo igarobidearen araubiderako, 2015/2446 (EB)

b) En los supuestos de importación, en el momento de su despacho de aduana de conformidad con el artículo 201 del Reglamento (UE) n.° 952/2013. No obstante, cuando los productos importados se destinen directamente a su introducción en una fábrica o un depósito fiscal, a una entrega directa, cuando circulen con destino a un destinatario registrado, a un lugar donde se produzca la salida del territorio de la Unión de los productos sujetos a impuestos especiales o a uno de los destinatarios, situados en el ámbito territorial de la Unión no interno, a los que se refiere el artículo 16, apartado 1, letra a), inciso iv) de la Directiva (UE) 2020/262 del Consejo de 19 de diciembre de 2019 o a la aduana de salida, cuando se prevea con arreglo al artículo 329, apartado 5, del Reglamento de Ejecución (UE) n.° 2015/2447, que sea al mismo tiempo la aduana de partida para el régimen de tránsito externo cuando así se prevea en virtud del artículo 189, apartado 4,

Erregelamendu Delegatuaren 189. artikuluko 4. apartatuaren indarrez, inportazioa etendura araubidean egingo da.

del Reglamento Delegado (UE) n.° 2015/2446, la importación se efectuará en régimen suspensivo.

c) Hartzaile erregistratu bati egindako bidalketak direnean, hark destinoan jasotzen dituen momentuan.

c) En los supuestos de expediciones con destino a un destinatario registrado, en el momento de la recepción por este de los productos en el lugar de destino.

d) Zuzeneko entregen kasuan, sortzapena gertatuko da lotutako produktuak zuzeneko entregaren lekuan jasotzen diren momentuan.

d) En los supuestos de entregas directas, el devengo se producirá en el momento de la recepción de los productos sujetos en el lugar de su entrega directa.

e) Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak etendura araubidean eduki, biltegiratu edo zirkulatzen badute, sortzapena gertatuko da produktuak zergapetu gabe geratzea dakartenak ez bezalako galerak gertatzen diren momentuan, eta, une hori ezagutzen ez bada, galera horiek egiaztatzen direnean.

e) En el momento de producirse las pérdidas distintas de las que originan la no sujeción al impuesto o, en caso de no conocerse este momento, en el de la comprobación de tales pérdidas, en los supuestos de tenencia, almacenamiento o circulación en régimen suspensivo de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación.

f). Urrutiko salmenten kasuan, produktuak hartzaileari ematen zaizkion momentuan.

f) En los supuestos de ventas a distancia, en el momento de la entrega de los productos al destinatario.

g) Hartzaile ziurtatu bati egindako bidalketak direnean, hark destinoan jasotzen dituen momentuan.

g) En los supuestos de expediciones con destino a un destinatario certificado, en el momento de la recepción por este de los productos en el lugar de destino.

h) Etendura araubidean egindako zirkulazioak irregulartasunak izan baditu, zirkulazioa hasi den egunean gertatuko da sortzapena, betiere irregulartasuna noiz gertatu den frogatzen ez bada, horrelakoetan une hori izango baita sortzapenaren unea.

h) En el supuesto de irregularidades en la circulación en régimen suspensivo, en la fecha de inicio de la circulación, salvo que se pruebe cuándo fue cometida, en cuyo caso, éste será el momento del devengo.

i) Irregulartasunak gertatzen badira fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen batasun barruko zirkulazioan eta haien zerga beste estatu kide batean sortu bada, irregulartasunak gertatzen diren unean sortuko da zerga, eta une hori ezezaguna bada, horiek atzematen diren unean.

i) En el supuesto de irregularidades en la circulación intracomunitaria de productos sujetos a impuestos especiales de fabricación con el impuesto devengado en otro Estado miembro, en el momento de su comisión y, de no conocerse, en el momento de su descubrimiento.

j) Fabrikazioaren gaineko zerga bereziei lotutako produktuen zirkulazioan destinoa

j). En el supuesto de no justificación del destino o uso indebido en la circulación de

justifikatzen ez bada edo bidegabeko erabilera egin bada, eta produktu horien destinoa dela-eta salbuespen bat edo tasa murriztu bat aplikatu bada, produktuak jasotzeko ahalmena duen hartzaileari entregatzen zaizkion unean gertatuko da sortzapena, salbu eta bidegabeko erabilera egin den eguna modu sinesgarrian frogatzen bada. Horrelakoetan, orduantxe izango da sortzapenaren unea. Produktuak ematen bazaizkio horiek jasotzeko baimenduta ez dagoen hartzaile bati, zirkulazioa hasten den unean izango da sortzapena.

productos objeto de los impuestos especiales de fabricación que se han beneficiado de una exención o de la aplicación de un tipo reducido en razón de su destino, en el momento de su entrega al destinatario facultado para recibirlos, salvo prueba fehaciente de la fecha en la que se ha procedido a su uso indebido, en cuyo caso, este será el momento del devengo. Cuando la entrega de estos productos fuese a un destinatario no facultado para recibirlos, en el momento de inicio de la circulación.

k) Foru dekretu arauemaile honen 8. artikuluko 2. apartatuaren h) letran aipatutako kasuetan, aurreko apartatuetan ezarritakoaren arabera dagokion unean gertatuko da sortzapena; une hori ezagutzen ez bada, zerga sortuko da zergapekoak produktuak eskuratu dituen egunean edo horiek edukitzen hasten den egunean, eta hori ere ezagutzen ez bada, horren berri jakiten denean.

k) En los supuestos a los que se refiere la letra h) del apartado 2 del artículo 8 de este decreto foral normativo, en el momento del devengo que corresponda de acuerdo con los apartados anteriores; en caso de no conocerse ese momento, en la fecha de adquisición o inicio de la posesión de los productos por el obligado y, en su defecto, el momento de su descubrimiento.

l) Batasunaren lurraldean modu irregularrean sartzen badira, aduana zorra sortzen den unean, non eta aduana zorra ez den azkentzen 952/2013 (EB) Erregelamenduaren 124. artikuluak 1. apartatuko e), f), g) edo k) letretan jasotakoaren indarrez.

l) En los supuestos de entrada irregular en el territorio de la Unión, en el momento del nacimiento de la deuda aduanera, a menos que la deuda aduanera se extinga en virtud del artículo 124, apartado 1, letras e), f), g) o k), del Reglamento (UE) n.° 952/2013.

m) Batasuneko beste estatu bateko lurraldetik irten eta Kontseiluaren 2019ko abenduaren 19ko 2020/262 Zuzentarauaren 16.1 artikuluak a) letraren iv) apartatuan aipatzen dituen hartzaileei zuzenduta dauden bidalketak direnean, jasotzen diren unean.

m) En los supuestos de expediciones desde el territorio de otro Estado miembro con destino a los destinatarios a los que se refiere el artículo 16.1, letra a), apartado iv), de la Directiva 2020/262 del Consejo, de 19 de diciembre de 2019, en el momento de su recepción.

n) Fabrikazio irregularraren kasuan, fabrikazio zerga berezien xede diren produktuak lortu direla jakiten den unean.

n) En los supuestos de fabricación irregular, en el momento en el que se tenga constancia de la obtención de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación.

2. Artikulu honen 1. apartatuko a) letran xedatutakoa xedatuta ere, fabrikatik edo gordailu fiskaletik etendura araubidetik

2. No obstante lo establecido en la letra a) del apartado 1 de este artículo, cuando los productos salidos de fábrica o depósito

kanpo irtendako produktuak hartzaileak ezin izan baditu jaso, osorik edo zati batean, baimendutako gordailuzain igorleari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, produktuak irteerako establezimenduetan sartu ahal izango dira berriro, erregelamenduz ezarriko diren baldintzak betetzen badira, eta irteera horretan zergaren sortzapenik ez dela izan joko da.

fiscal, fuera del régimen suspensivo, no hayan podido ser entregados al destinatario, total o parcialmente, por causas ajenas al depositario autorizado expedidor, los productos podrán volver a introducirse en los establecimientos de salida, siempre que se cumplan las condiciones que se establezcan reglamentariamente, considerándose que no se produjo el devengo del impuesto con ocasión de la salida.

3. Artikulu honetako aurreko apartatuetan ezarritakoa gorabehera, gas naturala fabrika edo gordailu fiskaltzat hartutako instalazioetatik irteten bada eta irteera hori kostu bidezko hornidura kontratu baten barruan gertatzen bada, fakturazio aldi bakoitzean hornitutako gas naturalari dagokion prezioaren zatia exiji daitekeen momentuan gertatuko da hidrokarburoen gaineko zergaren sortzapena. Aurrekoa ez da aplikatuko gas naturala beste fabrika bati, gordailu fiskal bati edo hartzaile erregistratu bati bidaltzen zaionean, ezta hornidura hori hodi finkoak ez diren bitartekoen bidez egiten denean ere.

3. No obstante lo establecido en los apartados anteriores de este artículo, cuando la salida del gas natural de las instalaciones consideradas fábricas o depósitos fiscales se produzca en el marco de un contrato de suministro de gas natural efectuado a título oneroso, el devengo del impuesto sobre hidrocarburos se producirá en el momento en que resulte exigible la parte del precio correspondiente al gas natural suministrado en cada período de facturación. Lo anterior no será de aplicación cuando el gas natural sea enviado a otra fábrica, depósito fiscal o destinatario registrado, ni cuando el suministro se realice por medios diferentes a tuberías fijas.

Artikulu honen 1. apartatuko a) letran aurreikusitakoa aplikatzeko, aurreko paragrafoan aipatutakoez besteko bitartekoekin egiten diren gas horniduretan, subjektu pasiboek jo ahal izango dute ezen hirurogei egun jarraiturainoko epealdietan zehar hornitutako gas natural guztia aipatutako epealdi hori amaitu eta hurrengo hilabete naturaleko lehen egunean atera dela fabrikatik edo gordailu fiskaletik.

Para la aplicación de lo previsto en la letra a) del apartado 1 de este artículo, en relación con los suministros de gas natural distintos de aquellos a los que se refiere el párrafo anterior, los sujetos pasivos podrán considerar que el conjunto del gas natural suministrado durante períodos de hasta sesenta días consecutivos, ha salido de fábrica o depósito fiscal el primer día del mes natural siguiente a la conclusión del referido período.

8. artikulua. Zergapekoak.

1. Foru dekretu arauemaile honen ondorioetarako, zergapekoak izango dira dekretu honetan bertan ezarritakoagatik zerga obligazioak dituzten entitateak eta pertsona fisiko zein juridikoak.

Artículo 8. Obligados tributarios.

1. A los efectos de este decreto foral normativo tendrán la consideración de obligados tributarios las personas físicas o jurídicas y entidades a las que el mismo impone el cumplimiento de obligaciones tributarias.

2. Subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, honako hauek:

a) Gordailuzain baimenduak, sortzapena produktua fabrikatik edo gordailu fiskal batetik irtetean edo autokontsumoa egiten denean.

b) Aitortzailea, 952/2013/EB Erregelamenduaren 5. artikuluko 15. puntuan definitzen den bezala, edo Erregelamendu horren 77. artikuluko 3. apartatuan aipatzen den beste edozein pertsona, sortzapena inportazio baten ondorioz gertatzen denean.

c) Hartzaile erregistratuak, produktuak jasotzean sortutako zergari dagokionez.

d) Hartzaile ziurtatuak, beraiei zuzendutako produktuak jasotzean sortutako zergari dagokionez.

e) Gordailuzain baimenduak eta hartzaile erregistratuak, zuzeneko entregak direnean.

f) Batasunaren lurraldean merkantziak modu irregularrean sartzen dituen edo sarrera horretan parte hartzen duen edozein pertsona.

g) Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak modu irregularrean fabrikatzen dituen edo fabrikazio horretan parte hartzen duen edozein pertsona.

h) Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak foru dekretu arauemaile honen 16. artikuluan aurreikusitako kasuetatik kanpo eduki, biltegiratu, erabili, merkaturatu edo garraiatzen dituztenak, zerga horiek Batasuneko Zuzenbidearen eta legeria nazionalaren xedapen aplikagarrien arabera ordaindu direla frogatzen ez badute.

2. Son sujetos pasivos en calidad de contribuyentes:

a) Los depositarios autorizados en los supuestos en que el devengo se produzca a la salida de una fábrica o depósito fiscal, o con ocasión del autoconsumo.

b) El declarante, como se define en el artículo 5, punto 15, del Reglamento (UE) n.° 952/2013, o cualquier otra persona, a que se refiere el artículo 77, apartado 3, de dicho Reglamento, cuando el devengo se produzca con motivo de una importación.

c) Los destinatarios registrados en relación con el impuesto devengado a la recepción de los productos.

d) Los destinatarios certificados en relación con el impuesto devengado con ocasión de la recepción de los productos a ellos destinados.

e) Los depositarios autorizados y los destinatarios registrados en los supuestos de entregas directas.

f) Cualquier persona que realice o que participe en la entrada irregular de mercancías en el territorio de la Unión.

g) Cualquier persona que realice o que participe en la fabricación irregular de productos objeto de los impuestos especiales de fabricación.

h) Quienes posean, almacenen, utilicen, comercialicen o transporten productos objeto de los impuestos especiales de fabricación, fuera de los casos previstos en el artículo 16 de este decreto foral normativo, cuando no acrediten que tales impuestos han sido satisfechos con arreglo a las disposiciones aplicables del Derecho de la Unión y de la legislación nacional.

3. Subjektu pasiboak dira, zergadunaren ordezko gisa, foru dekretu arauemaile honen 4. artikuluko 27. apartatuan aipatzen diren zerga ordezkariak.

3. Son sujetos pasivos, en calidad de sustitutos del contribuyente, los representantes fiscales a que se refiere el apartado 27 del artículo 4 de este decreto foral normativo.

Halaber, zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadunaren ordezko gisa, foru dekretu arauemaile honen 7. artikuluko 3. apartatuaren lehen paragrafoan ezarritako kasuan, gas naturala kostu bidez hornitzen dutenak.

También son sujetos pasivos, en calidad de sustitutos del contribuyente, quienes realicen los suministros de gas natural a título oneroso en el supuesto previsto en el párrafo primero del apartado 3 del artículo 7 de este decreto foral normativo.

4. Gordailuzain baimenduak behartuta egongo dira zerga zorra ordaintzera edozein estatu kidetara etendura araubidean bidali diren produktuei dagokienez, hartzaileak jasotzen ez dituenean. Horretarako, bermea eratu beharko dute, erregelamenduz ezarriko den moduan eta zenbatekoan, eta hark Europar Batasun osoan izango du balioa. Halaber, beste estatu kide batzuetakoak izanik estatu horietan bermea eratzen duten zergapekoek Espainian ordaindu beharko dute, beraiek igorritako ondasunei dagokienez, horiek batasunaren barruan zirkulatzean barruko lurralde eremuan gertatutako irregulartasunei dagokien zerga zorra.

4. Los depositarios autorizados estarán obligados al pago de la deuda tributaria en relación con los productos expedidos en régimen suspensivo a cualquier Estado miembro, que no hayan sido recibidos por el destinatario. A tal efecto prestarán una garantía en la forma y cuantía que se establezca reglamentariamente, con validez en toda la Unión Europea. Asimismo, los obligados tributarios de otros Estados miembros que presten en ellos la correspondiente garantía, estarán obligados al pago en España de la deuda tributaria correspondiente a las irregularidades en la circulación intracomunitaria que se produzcan en el ámbito territorial interno respecto de los bienes expedidos por aquellos.

Gordailuzain baimenduak eta garraiolariak apartatu honetan aipatzen den erantzukizuna partekatzea adostu badute, Zerga Administrazioak garraiolari horren aurka jo ahal izango du erantzule solidario gisa.

Cuando el depositario autorizado y el transportista hubiesen acordado compartir la responsabilidad a que se refiere este apartado, la Administración tributaria podrá dirigirse contra dicho transportista a título de responsable solidario.

Erantzukizuna amaituko da hartzaileak produktuak jaso dituela edo esportazioa egin dela frogatzen denean.

La responsabilidad cesará una vez que se pruebe que el destinatario se ha hecho cargo de los productos o que se ha realizado la exportación.

5. Inportazioen kasuan, zergaren ordainketaren erantzule solidario izango dira, arlo horretako araudiaren arabera aduana zorra modu solidarioan ordaindu

5. En los supuestos de importaciones, responderán solidariamente del pago del impuesto las personas físicas o jurídicas y entidades que resulten obligadas solidariamente al pago de la deuda

behar duten entitateak edo pertsona fisiko zein juridikoak.

6. Foru dekretu arauemaile honen 17. artikuluan aipatzen diren irregulartasun kasuetan, zergaren ordainketaren erantzule solidarioak izango dira irregulartasunak gertatu diren batasun barruko zirkulazio modalitatearen arabera hura bermatu behar duten entitateak edo pertsona fisiko zein juridikoak.

7. Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen zirkulazioan edo haiei emandako erabileraren edo destinoaren justifikazioan irregulartasunak gertatzen badira, eta destinoa dela eta produktu horiei zerga salbuespenen bat edo tasa murrizturen bat aplikatu bazaie, bidaltzaileak ordaindu beharko ditu zerga eta ezar litezkeen zehapenak, harik eta produktuak jasotzeko ahalmena duen hartzaileak produktuak jaso dituela justifikatu arte; behin jasotakoan, ordaindu beharra hartzaileek izango dute.

8. Zerga berezien zor baterako zordun bat baino gehiago badaude, solidarioki ordaindu beharko dute zorra.

9. Igorle baimenduek zerga zorra ordaindu beharko dute etendura araubidean bidalitako produktuei dagokienez, hartzaileak produktuak jaso ez dituenean. Erantzukizuna amaituko da hartzaileak produktuak jaso dituela edo esportazioa egin dela frogatzen denean.

9. artikulua. Salbuespenak.

1. Foru dekretu arauemaile honen 21., 23., 42., 51. eta 61. artikuluetan ezarritakoa eragotzi gabe, fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen fabrikazioa eta inportazioa salbuetsita egongo dira, erregelamenduz ezarriko diren baldintzetan, produktu horiek xede hau dutenean:

aduanera de acuerdo con la normativa vigente sobre la materia.

6. En los supuestos de irregularidades a que se refiere el artículo 17 de este decreto foral normativo, responderán solidariamente del pago del impuesto las personas físicas o jurídicas y entidades obligadas a garantizarlo según la modalidad de circulación intracomunitaria en que se hayan producido las irregularidades.

7. En los supuestos de irregularidades en relación con la circulación y la justificación del uso o destino dado a los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación que se han beneficiado de una exención o de la aplicación de un tipo reducido en razón de su destino, estarán obligados al pago del impuesto y de las sanciones que pudieran imponerse los expedidores, en tanto no justifiquen la recepción de los productos por el destinatario facultado para recibirlos; a partir de tal recepción, la obligación recaerá sobre los destinatarios.

8. Cuando existan varios deudores para una misma deuda de impuestos especiales, estarán obligados al pago de dicha deuda con carácter solidario.

9. Los expedidores registrados estarán obligados al pago de la deuda tributaria en relación con los productos expedidos en régimen suspensivo que no hayan sido recibidos por el destinatario. La responsabilidad cesará una vez que se pruebe que el destinatario se ha hecho cargo de los productos o que se ha realizado la exportación.

Artículo 9. Exenciones.

1. Sin perjuicio de lo establecido en los artículos 21, 23, 42, 51 y 61 de este decreto foral normativo, estarán exentas, en las condiciones que reglamentariamente se establezcan, la fabricación e importación de productos objeto de los impuestos especiales de fabricación que se destinen:

a) Harreman diplomatiko edo kontsularren esparruan entregatzea.

b) Espainian nazioarteko erakunde gisa aitortutako erakundeei eta haien kideei entregatzea, erakunde horiek eratzeko nazioarteko hitzarmenetan edo egoitza akordioetan jarritako muga eta baldintzen barruan.

c) Ipar Atlantikoko Tratatuaren kide den Espainiaz besteko edozein estatutako indar armatuei entregatzea, baita 90/6407/EEE Erabakiaren 1. artikuluan aipatzen diren indar armatuei ematea ere, indar horiek edo haien zerbitzuko langile zibilek erabiltzeko edo haien jantokiak eta kantinak hornitzeko denean.

d) Hirugarren herrialdeekin edo nazioarteko erakundeekin egindako akordio baten esparruan kontsumitzea, baldin eta akordio hori onartzen edo baimentzen bada balio erantsiaren gaineko zergaren salbuespen gaietan.

e) Hurrengo itsasontziak hornitzea, aisiako nabigazio pribaturako erabilitakoak izan ezik:

1. Nazioarteko itsas nabigazioa egiten dutenak.

2. Itsas salbamendua edo laguntza eskaintzen dutenak, ontzi barruko hornigaien horniketa alde batera utzita, nabigazioaren iraupena, eskalarik gabe, berrogeita zortzi ordutik gorakoa ez denean.

f) Nazioarteko aire nabigazioa egiten duten aireontziak hornitzea, aisiako abiazio pribatuan jarduten ez dutenean.

g) Espainia ez den beste edozein estatu kidetako indar armatuei entregatzea, indar horiek eta haien zerbitzuko langile zibilek erabiltzeko edo haien jantokiak edo kantinak hornitzeko denean, baldin eta indar horiek, segurtasun eta defentsa politika erkidearen

a) A ser entregados en el marco de las relaciones diplomáticas o consulares.

b) A organizaciones internacionales reconocidas como tales en España y a los miembros de dichas organizaciones, dentro de los límites y en las condiciones que se determinen en los convenios internacionales constitutivos de dichas organizaciones o en los acuerdos de sede.

c) A las fuerzas armadas de cualquier Estado, distinto de España, que sea parte del Tratado del Atlántico Norte y a las fuerzas armadas a que se refiere el artículo 1 de la Decisión 90/6407/CEE para uso de dichas fuerzas o del personal civil a su servicio o para el abastecimiento de sus comedores y cantinas.

d) Al consumo en el marco de un acuerdo celebrado con países terceros u organizaciones internacionales, siempre que dicho acuerdo se admita o autorice en materia de exención del impuesto sobre el valor añadido.

e) Al avituallamiento de los buques siguientes excluidos, en todo caso, los que realicen navegación privada de recreo:

1.º Los que realicen navegación marítima internacional.

2.º Los afectos al salvamento o la asistencia marítima, con exclusión del suministro de provisiones de a bordo, cuando la duración de su navegación, sin escala, no exceda de cuarenta y ocho horas.

f) Al avituallamiento de aeronaves que realicen navegación aérea internacional distinta de la aviación privada de recreo.

g) A las fuerzas armadas de cualquier Estado miembro distinto de España, para uso de dichas fuerzas o del personal civil a su servicio, o para el abastecimiento de sus comedores o cantinas, siempre que dichas fuerzas estén afectadas a un esfuerzo de

esparruan, Batasunaren jarduera bat gauzatu behar badute defentsa ahalegin bati atxikita.

2. Erregelamenduz ezarri ahal izango da aurreko apartatuan aipatzen diren salbuespenak aurrez ordaindutako zergak itzulita eman ahal izango direla, eta, orobat, itzuli beharreko kuota kalkulatzeko eskurapen prezioaren portzentaje bat hartu ahal izango dela, kuota eta prezio horiek aurreko epealdietan izandako balioen arabera.

10. artikulua. Itzulketak.

1. Foru dekretu arauemaile honen 9., 17., 22., 23., 40., 43., 52. eta 62. artikuluetan ezarritakoa eragotzi gabe, honako hauek izango dute, erregelamenduz ezarriko diren baldintzetan, fabrikazio zerga berezien itzulketarako eskubidea:

a) Zerga hauen xede diren produktuak esportatzen dituztenak, edo, zerga horien xede izan gabe ere, haiei lotutako beste batzuk barruan daramatzaten produktuen esportatzaileak direnak, esportatutako produktuen ondorioz aurrez ordaindutako kuotengatik.

b) Zerga hauen xede ez diren produktuak eta barruan horrelakorik ez daramatenak esportatzen dituztenak, haien produkziorako, zuzenean edo zeharka, zerga hauen xede diren beste batzuk kontsumitu direnean, esportatutako produktu horietan jasanarazpen bidez edo haien prezioan sartuta aurrez ordaindutako kuotengatik. Erregai edo karburante gisa erabilitako produktuek ez dute inola ere itzulketarako eskubiderik emango.

c) Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak fabrika batean edo gordailu fiskal batean sartzen dituzten enpresaburuak, zergaren sortzapena barruko lurralde

defensa realizado para llevar a cabo una actividad de la Unión en el ámbito de la política común de seguridad y defensa.

2. Reglamentariamente podrá establecerse que las exenciones a que se refiere el apartado anterior se concedan mediante la devolución de los impuestos previamente satisfechos, así como que la cuota a devolver se determine como un porcentaje del precio de adquisición, en función de los valores alcanzados por tales cuotas y precios en períodos anteriores.

Artículo 10. Devoluciones.

1. Sin perjuicio de lo establecido en los artículos 9, 17, 22, 23, 40, 43, 52 y 62 del presente decreto foral normativo, tendrán derecho a la devolución de los impuestos especiales de fabricación, en las condiciones que reglamentariamente se establezcan:

a) Los exportadores de productos objeto de estos impuestos, o de otros productos que, aun no siéndolo, contengan otros que sí lo sean, por las cuotas previamente satisfechas correspondientes a los productos exportados.

b) Los exportadores de productos que no sean objeto de estos impuestos ni los contengan, pero en los que se hubieran consumido para su producción, directa o indirectamente, otros que sí lo sean, por las cuotas que se pruebe haber satisfecho previamente, mediante repercusión o incorporadas en los precios de los productos empleados, correspondientes a los productos exportados. En ningún caso originarán derecho a devolución los productos empleados como combustibles o carburantes.

c) Los empresarios que introduzcan productos objeto de los impuestos especiales de fabricación por los que se hubiera devengado el impuesto dentro del

eremuan gertatu denean, haien xedea produktu horiek geroago Europar Batasuneko beste estatu kide batera bidaltzea bada. Itzulketak sartutako produktuei dagozkien kuotak hartuko ditu, eta hura jasotzeko ezinbesteko baldintza izango da frogatzea produktuak helmugako estatuan jaso direla Batasunaren barruko zirkulazioa etendura araubidean erregulatzen duten arauekin bat.

d) Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak Europar Batasuneko beste estatu kide batean helbideratutako hartzaile ziurtatuei entregatzen dizkieten bidaltzaile ziurtatuak, produktu horien zerga sortzapena barruko lurralde eremuan gertatu denean. Itzulketak entregatutako produktuei dagozkien kuotak hartuko ditu, eta hura jasotzeko ezinbestekoa izango da zerga helmugako estatu kidean ordaintzea.

e) Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak, beren kabuz edo haien kontura, zuzenean edo zeharka bidaltzen edo garraiatzen dituzten enpresaburuak, produktu horien zerga sortzapena barruko lurralde eremuan gertatu denean eta jasotzaileak beste estatu kide batean helbideratuta daudenean, Batasunaren barruko urrutiko salmenten zirkulazio sistemaren esparruan. Itzulketak bidalitako edo garraiatutako produktuei dagozkien kuotak hartuko ditu, eta hura jasotzeko ezinbestekoa izango da zerga helmugako estatu kidean ordaintzea. Produktuak fabrika batetik edo gordailu fiskal batetik bidaltzen badira, itzulketa erregelamenduz ezarriko den konpentsazio automatikoko prozedura sinplifikatuaren bidez egin ahal izango da.

2. Foru dekretu arauemaile honetan aitortutako itzulketa kasu guztietan, itzultzen diren kuoten zenbatekoa jasandako kuoten zenbateko bera izango da. Dena den, zenbateko hori zehatz-mehatz zehazterik ez dagoenean, kuotak kalkulatuko dira itzulketa eskubidea dakarren eragiketaren data baino

ámbito territorial interno, en una fábrica o en un depósito fiscal, con el fin de ser posteriormente enviados a otro Estado miembro de la Unión Europea. La devolución abarcará a las cuotas correspondientes a los productos introducidos y queda condicionada a que se acredite la recepción en el Estado de destino de acuerdo con las normas que regulan la circulación intracomunitaria en régimen suspensivo.

d) Los expedidores certificados que entreguen productos objeto de los impuestos especiales de fabricación por los que se hubiera devengado el impuesto dentro del ámbito territorial interno a destinatarios certificados en otro Estado miembro de la Unión Europea. La devolución se extenderá a las cuotas correspondientes a los productos entregados y quedará condicionada al pago del impuesto en el Estado miembro de destino.

e) Los empresarios que envíen o transporten, directa o indirectamente, ellos mismos o por su cuenta, productos objetos de los impuestos especiales de fabricación por los que ya se hubiera devengado el impuesto dentro del ámbito territorial interno, con destino a personas domiciliadas en otro Estado miembro, en el ámbito del sistema de circulación intracomunitaria de ventas a distancia. La devolución se extenderá a las cuotas correspondientes a los productos enviados o transportados y queda condicionada al pago del impuesto en el Estado de destino. Si los productos se enviaran desde una fábrica o depósito fiscal, la devolución podrá efectuarse mediante el procedimiento simplificado de compensación automática que se establezca reglamentariamente.

2. En todos los supuestos de devolución reconocidos en este decreto foral normativo, el importe de las cuotas que se devuelvan será el mismo que el de las cuotas soportadas. No obstante, cuando no fuera posible determinar exactamente tal importe, las cuotas se determinarán aplicando el tipo

hiru hilabete lehenago indarrean zegoen tasa aplikatuta.

vigente tres meses antes de la fecha en que se realiza la operación que origina el derecho a la devolución.

3. Foru dekretu arauemaile honetan aurreikusitako kasu guztietan, itzulketa behin-behineko izaeraz baimendu ahal izango da. Behin-behineko likidazioak behin betiko bihurtuko dira Ikuskaritzak haien egiaztapena egiten duenean, edo itzulketarako eskubidea sortu duen eragiketaren egunetik hasita bost urteko epean, oraindik egiaztatu ez direnean.

3. La devolución del impuesto, en todos los supuestos contemplados en este decreto foral normativo, podrá autorizarse con carácter provisional. Las liquidaciones provisionales se convertirán en definitivas como consecuencia de la comprobación efectuada por la Inspección o bien cuando no hubieran sido comprobadas dentro del plazo de cinco años, contados a partir de la fecha en que se realiza la operación que origina el derecho a la devolución.

11. artikulua. Etendura araubidea azkentzea.

Artículo 11. Ultimación del régimen suspensivo.

Foru dekretu arauemaile honen 23., 28. eta 37. artikuluetan ezarritakoa eragotzi gabe, etendura araubidea kasu hauetan azkenduko da, erregelamenduz ezarriko diren baldintzak betez gero:

Sin perjuicio de lo establecido en los artículos 23, 28 y 37 de este decreto foral normativo, el régimen suspensivo se ultima, siempre que se cumplan las condiciones que se establezcan reglamentariamente:

a) Zergaren sortzapena dakarten kasuetako edozein gertatzen denean.

a) Por la realización de cualquiera de los supuestos que originan el devengo del impuesto.

b) Produktuak esportatzen direnean.

b) Mediante la exportación de los productos.

12. artikulua. Oinarrien zehaztapena.

Artículo 12. Determinación de las bases.

1. Foru dekretu arauemaile honen 40. artikuluan ezarritakoa eragotzi gabe, zerga oinarriak zuzeneko zenbatespena aplikatuta zehaztuko dira.

1. Sin perjuicio de lo establecido en el artículo 40 de este decreto foral normativo, la determinación de las bases imponibles se efectuará en régimen de estimación directa.

2. Zerga oinarrien zeharkako zenbatespena Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 52. artikuluan aurreikusitako kasuetan eta moduan aplikatu ahal izango da.

2. La estimación indirecta de bases imponibles será aplicable a los supuestos y en la forma previstos en el artículo 52 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

13. artikulua. Zerga tasak.

Artículo 13. Tipos impositivos.

1. Aplikatuko diren zerga tasak sortzapenaren unean indarrean daudenak izango dira.

1. Los tipos impositivos aplicables serán los vigentes en el momento del devengo.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, foru dekretu arauemaile honen 17.A).2 artikuluan aipatzen diren kasuetan, tasa aplikagarria produktuak bidaltzeko unean indarrean dagoena izango da.

2. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, en los supuestos a que se refiere el artículo 17.A).2 de este decreto foral normativo, el tipo aplicable será el vigente en el momento del envío de los productos.

14. artikulua. Jasanarazpena.

Artículo 14. Repercusión.

1. Subjektu pasiboek sortzen diren kuoten zenbatekoa jasanarazi beharko diete fabrikazio zerga berezien mende dauden produktuak eskuratzen dituztenei, eta horiek behartuta daude haiek jasatera.

1. Los sujetos pasivos deberán repercutir el importe de las cuotas devengadas sobre los adquirentes de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación, quedando estos obligados a soportarlas.

Foru dekretu arauemaile honen 50. artikuluko 4. apartatuan ezarritako moduan egiten diren gas naturaleko horniduretan, sortutako kuoten zenbatekoa azken erabiltzaileak komunikatutako behin-behineko portzentajearen arabera jasanarazi duten subjektu pasiboek, jasanarazitako kuoten zenbatekoa erregularizatu beharko dute gas naturalaren destinoaren behin betiko portzentajearen arabera, horren berri jakin eta gero, erregelamenduz ezarriko den prozedurari jarraituz.

En los suministros de gas natural efectuados en los términos del apartado 4 del artículo 50 de este decreto foral normativo, los sujetos pasivos que hayan repercutido el importe de las cuotas devengadas en función de un porcentaje provisional comunicado por el consumidor final, deberán regularizar el importe de las cuotas repercutidas conforme al porcentaje definitivo de destino del gas natural, una vez conocido, mediante el procedimiento que se establezca reglamentariamente.

2. Etendura araubidean egindako fabrikazio, eraldaketa edo biltegiratzea besteren konturakoa denean, subjektu pasiboak eragiketa norentzat egiten duen eta hari jasanarazi beharko dio sortutako kuoten zenbatekoa.

2. Cuando la fabricación, la transformación o el almacenamiento en régimen suspensivo se realicen por cuenta ajena, el sujeto pasivo deberá repercutir el importe de las cuotas devengadas sobre aquel para el que realiza la operación.

3. Ikuskapen aktetatik ondorioztatzen diren likidazioetan eta oinarrien zeharkako balioespenetan, ateratzen diren kuotak ez dira jasanaraziko.

3. No procederá la repercusión de las cuotas resultantes en los supuestos de liquidación que sean consecuencia de actas de inspección y en los de estimación indirecta de bases.

4. Fabrikazio zerga bereziei dagozkien zerga kuotak ordaindu dituzten subjektu pasiboek Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 75. eta 77. artikuluetan Ogasun

4. Los sujetos pasivos de los impuestos especiales de fabricación, que hayan efectuado el ingreso de las correspondientes cuotas tributarias, gozarán de los mismos derechos y garantías que a la Hacienda

Publikoari aitortzen dizkion eskubide eta berme berberak izango dituzte zerga kuota horiek jasatera behartuta daudenekiko, epemugara iritsi diren eta behartutako horiek ordaindu ez dituzten kredituetan integratutako kuota horien zenbatekoagatik.

Pública reconocen los artículos 75 y 77 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, frente a los obligados a soportar la repercusión de dichas cuotas tributarias y por el importe de estas integrado en los créditos vencidos y no satisfechos por tales obligados.

15. artikulua. Fabrikazioa, eraldaketa eta edukitza.

1. Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak fabriketan fabrikatuko dira, etendura araubidean.

2. Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, gordailu fiskalen barruan trazatzaileak edo markatzaileak desnaturalizatzeko edo gehitzeko eragiketak egin ahal izango dira, erregelamendu bidez zehaztuko diren beste eraldaketa eragiketa batzuk ere barne.

3. Aurreko apartatuetan ezarritakoa gorabehera, posible izango da fabriketatik eta gordailu fiskaletatik kanpo foru dekretu arauemaile honen ondorioetarako fabrikaziotzat joko ez diren eraldaketa eragiketak egitea fabrikazio zerga bereziei lotuta dauden eta zerga sortuta duten produktuetatik abiatuta, baldin eta eraldaketan erabilitako produktuei dagozkien kuoten batura lortutako produktuei legokiokeena baino txikiagoa ez bada.

4. Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen fabrikazioa, eraldaketa, manipulazioa, biltegiraketa edo salmenta, eta era berean, eragiketa guzti horiek egiteko erabiltzen diren establezimenduak, kontrol pean jarri ahal izango dira modu iraunkorrean.

5. Foru dekretu arauemaile honen 10. artikuluko 1. apartatuaren c) letran, 22. artikuluko c) letran, 40. artikuluko c) letran,

Artículo 15. Fabricación, transformación y tenencia.

1. La fabricación de productos objeto de impuestos especiales de fabricación se realizará en fábricas, en régimen suspensivo.

2. No obstante lo establecido en el apartado anterior, podrán efectuarse dentro de los depósitos fiscales las operaciones de desnaturalización o de adición de trazadores o marcadores, así como aquellas otras operaciones de transformación que se determinen reglamentariamente.

3. No obstante lo establecido en los apartados anteriores, podrán efectuarse fuera de fábricas y depósitos fiscales, sin tener la consideración de fabricación a efectos de este decreto foral normativo, operaciones de transformación a partir de productos objeto de los impuestos especiales de fabricación por los que ya se haya devengado el impuesto, siempre que la suma de las cuotas correspondientes a los productos utilizados no sea inferior a la que correspondería al producto obtenido.

4. Las actividades de fabricación, transformación, manipulación, almacenamiento o venta de los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación, así como los establecimientos donde éstas se realicen, podrán ser sometidas a intervención de carácter permanente.

5. Sin perjuicio de lo establecido en la letra c) del apartado 1 del artículo 10, en la letra c) del artículo 22, en el apartado 3 del

52. artikuluko d) letran eta 62. artikuluko b) letran ezarritakoa eragotzi gabe, produktuak berriro sartzen direnean jatorrizko establezimenduan hartzaileari ezin izan zaizkiolako entregatu bidalketa egin duen gordailuzain baimenduari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, eta salbuespena aplikatuta duten produktuen establezimenduak jarduera uzten duenean, ez da utziko fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak fabriketan eta gordailu fiskaletan sartzen, haien zerga sortzapena jada gertatu bada.

artículo 40, en la letra d) del artículo 52 y en la letra b) del artículo 62, de este decreto foral normativo, en aquellos supuestos de reintroducción de productos en el establecimiento de origen que no hayan podido ser entregados al destinatario por causas ajenas al depositario autorizado expedidor y en aquellos casos en los que se produzca el cese de actividad del establecimiento donde los productos se encuentren con aplicación de una exención, no se permitirá la entrada en las fábricas y los depósitos fiscales de productos objeto de los impuestos especiales de fabricación por los que ya se hubiera devengado el impuesto.

6. Fabriketan eta gordailu fiskaletan beherantz gertatzen diren diferentziek, izan lehengaietan izan produktu amaituetan, erregelamenduz ezarriko diren portzentajeak gainditzen badituzte, fabrikatutako eta fabrikatik edo gordailu fiskaletik irtendako produktutzat hartuko dira foru dekretu arauemaile honen ondorioetarako, baita establezimendu horietan autokontsumitutako produktutzat ere, kontrakoa frogatzen denean izan ezik.

6. Las diferencias en menos, tanto en primeras materias como en productos acabados, que excedan de los porcentajes que se establezcan reglamentariamente, que resulten en las fábricas y depósitos fiscales, tendrán la consideración, a efectos de este decreto foral normativo, salvo prueba en contrario, de productos fabricados y salidos de fábrica o depósito fiscal, o autoconsumidos en dichos establecimientos.

7. Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen zirkulazioa eta edukitza merkataritza helburuekin egiten bada, erregelamenduz ezarriko diren dokumentuen babesa izan beharko dute, eta horietan frogatu beharko da zerga Espainian ordainduta dagoela edo, salbuespen baten edo Batasunaren barruko zein barneko zirkulazio sistema baten babesean, etendura araubidea aplikatu zaiela, eta zerga sortuta dagoela; horrek ez du eragotziko, hala ere, foru dekretu arauemaile honen 44. artikuluko 3. apartatuan ezarritakoa.

7. La circulación y tenencia de productos objeto de los impuestos especiales de fabricación, con fines comerciales, deberá estar amparada por los documentos establecidos reglamentariamente que acrediten haberse satisfecho el impuesto en España o encontrarse en régimen suspensivo, al amparo de una exención o de un sistema de circulación intracomunitaria o interna con impuesto devengado, sin perjuicio de lo establecido en el apartado 3 del artículo 44 de este decreto foral normativo.

8. Artikulu honetako 7. apartatuan eta hurrengo 16. artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren produktuak merkataritza helburuetarako direla zehazteko, elementu hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

8. Con objeto de determinar que los productos a que se refiere el apartado 7 de este artículo y el apartado 1 del artículo 16 siguiente están destinados a fines comerciales, se tendrán en cuenta, entre otros, los siguientes elementos:

a) Zerga bereziei lotutako produktuen edukitzailearen merkataritza izaera eta produktu horiek bere esku izateko arrazoiak;

b) produktu horiek non dauden zerga bereziei lotuta edo, hala badagokio, zein garraiobide erabili den;

c) zerga bereziei lotutako produktuei buruzko agiri guztiak;

d) zerga bereziei lotutako produktuen izaera;

e) zerga bereziei lotutako produktuen kantitatea.

9. Aurreko apartatuko e) letra aplikatzeko, produktuak merkataritza helburuetarako direla joko da, aurkako frogarik ezean, honako kantitateak gainditzen badituzte:

a) Tabako laboreak:

1.a Zigarretak, 800 unitate.

2.a Zigarrotxoak, 400 unitate.

3.a Zigarroak, 200 unitate.

4. Gainerako tabako laboreak, kilogramo 1.

b) Edari alkoholdunak:

1.a Edari deribatuak, 10 litro.

2.a Tarteko produktuak, 20 litro.

3.a Ardoak eta edari hartzituak, 90 litro.

4.a Garagardoak, 110 litro.

10. Hidrokarburoen gaineko zergari lotutako produktuei dagokienez, ulertuko da produktu horiek merkataritza helburuekin edukitzen direla haien garraioa partikularrek edo haien konturako batzuek egiten dutenean garraio modu atipikoak erabilita. Garraio modu

a) Condición mercantil del tenedor de los productos sujetos a impuestos especiales y motivos por los que los tiene en su poder;

b) lugar en que se encuentran dichos productos sujetos a impuestos especiales o, en su caso, modo de transporte utilizado;

c) todo documento referente a los productos sujetos a impuestos especiales;

d) Naturaleza de los productos sujetos a impuestos especiales;

e) Cantidad de productos sujetos a impuestos especiales.

9. Para la aplicación de la letra e) del apartado anterior, se considerará que los productos se tienen con fines comerciales, salvo prueba en contrario, cuando las cantidades excedan de las siguientes:

a) Labores de tabaco:

1.º Cigarrillos, 800 unidades.

2.º Cigarritos, 400 unidades.

3.º Cigarros, 200 unidades.

4.º Las restantes labores del tabaco, 1 kilogramo.

b) Bebidas alcohólicas:

1.º Bebidas derivadas, 10 litros.

2.º Productos intermedios, 20 litros.

3.º Vinos y bebidas fermentadas, 90 litros.

4.º Cervezas, 110 litros.

10. Con respecto a los productos objeto del impuesto sobre hidrocarburos, se considerará que se tienen con fines comerciales siempre que el transporte de dichos productos se efectúe mediante formas atípicas realizadas por particulares o

atipikoak honako hauek izango dira: karburanteak ez garraiatzea ibilgailuen deposituan sartuta edo larrialdietako bidoi egokietan, edo erregai likidoak operadore ekonomikoen kontura erabilitako zisterna kamioietatik kanpo garraiatzea.

por cuenta de estos. Se considerarán formas de transporte atípicas, el transporte de carburantes que no se realice dentro del depósito de los vehículos ni en bidones de emergencia adecuados, así como el transporte de combustibles líquidos que no se realice en camiones cisterna utilizados por cuenta de operadores económicos.

11. Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuei emandako erabilera edo xedea justifikatzen ez bada, eta xede horren ondorioz salbuespen bat edo zerga tasa murriztu bat aplikatu bazaie, produktu horiek foru dekretu arauemaile honetan inolako zerga onurarik ez duten helburuetarako erabili direla joko da.

11. Cuando no se justifique el uso o destino dado a los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación por los que se ha aplicado una exención o un tipo impositivo reducido en razón de su destino, se considerará que tales productos se han utilizado o destinado en fines para los que no se establece en este decreto foral normativo beneficio fiscal alguno.

16. artikulua. Batasunaren barruko zirkulazioa.

Artículo 16. Circulación intracomunitaria.

1. Partikularrek, beren beharrak asetzeko, fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak eskuratzen badituzte Batasuneko beste estatu bateko lurraldean, bertan indarrean zegoen zerga ordainduta, eta beraiek garraiatzen badituzte, produktu horiek ez dira zergapetuko barruko lurralde eremuan indarrean dagoen zergarekin, eta eremu horretan zirkulatzeari eta edukitzeari ez zaio inolako baldintzarik ezarriko, betiere merkataritza helburuetarako erabiltzen ez badira.

1. Los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación, adquiridos por particulares en el territorio de otro Estado miembro, dentro del territorio de la Unión, en el que se ha satisfecho el impuesto vigente en el mismo, para satisfacer sus propias necesidades y transportados por ellos mismos, no estarán sometidos al impuesto vigente en el ámbito territorial interno y su circulación y tenencia por dicho ámbito no estará sujeta a condición alguna, siempre que no se destinen a fines comerciales.

2. Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak erabat suntsitzen edo ezin berreskuratzeko moduan galtzen badira osorik edo partez, ezusteko kasuetan edo ezinbestean, zergaren sortzapena gertatu den estatu kidea ez den beste baten lurraldean zehar garraiatzean, edo produktu horien suntsitzen badira estatu kide horretako agintari eskudunek horretarako baimena eman dutelako, estatu horretan ez da gertatuko zerga berezien sortzapena.

2. La destrucción total o pérdida irremediable, total o parcial, de los productos sujetos a impuestos especiales, durante su transporte en el territorio de un Estado miembro distinto del Estado miembro en que se ha producido el devengo, por caso fortuito o fuerza mayor, o bien como consecuencia de la autorización de las autoridades competentes de dicho Estado miembro para destruir dichos productos, no producirá el devengo de los impuestos especiales en dicho Estado miembro.

Produktuak erabat suntsituta edo ezin berreskuratzeko moduan galduta egongo

Los productos se considerarán totalmente destruidos o perdidos de forma irremediable

dira zerga bereziei lotutako produktu bezala dagoeneko erabili ezin direnean.

Produktuen berezko izaeragatik haien garraioan zehar galera partzial bat gertatzen bada zergaren sortzapena gertatu den estatu kidea ez den beste batean, zerga berezia ez da estatu kide horretan exijituko galeraren zenbatekoa erregelamenduz ezarritako portzentajearen azpitik dagoenean, estatu kideko agintari eskudunek iruzurra edo irregulartasuna dagoela frogatzen dutenean izan ezik.

3. Aurreko 1. apartatuan aurreikusitako kasuak eragotzi gabe, fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuek jatorria edo helmuga beste estatu kide bateko lurraldean dutenean, barruko lurralde eremuaren barruan zirkulatuko dute erregelamenduz ezarriko diren baldintzak betez, prozedura hauetako baten babesean:

a) Etendura araubidean, fabriken edo gordailu fiskalen artean.

b) Etendura araubidean, hartzaile erregistratu bati zuzenduta daudenean.

c) Etendura araubidean, gordailuzain baimendu baten izenean dagoen establezimendu batetik Batasunaren lurraldetik irteteko edozein tokitara, foru dekretu arauemaile honen 4. artikuluko 31. apartatuan definituta dagoen bezala.

d) Etendura araubidean, onuradunaren egoitzakoa ez den estatu kide bateko lurraldean finkatutako gordailuzain baimendu baten establezimendutik Kontseiluaren 2019ko abenduaren 19ko 2020/262/EB Zuzentarauak, zerga berezien araubide orokorrari buruzkoak, 11.1 artikuluan aipatzen dituen helmugetara.

cuando ya no puedan utilizarse como productos sujetos a impuestos especiales.

En caso de pérdida parcial debida a la naturaleza de los productos que se produzca durante su transporte en el territorio de un Estado miembro distinto del Estado miembro en que se haya producido el devengo, el impuesto especial no será exigible en dicho Estado miembro cuando la cuantía de la pérdida se sitúe por debajo del porcentaje reglamentario establecido, a menos que las autoridades competentes del Estado miembro prueben la existencia de fraude o de irregularidad.

3. Con independencia de los supuestos contemplados en el apartado 1 anterior, los productos objeto de impuestos especiales de fabricación con origen o destino en el territorio de otro Estado miembro circularán dentro del ámbito territorial interno, con cumplimiento de los requisitos que reglamentariamente se establezcan, al amparo de alguno de los siguientes procedimientos:

a) En régimen suspensivo entre fábricas o depósitos fiscales.

b) En régimen suspensivo con destino a un destinatario registrado.

c) En régimen suspensivo desde un establecimiento del que es titular un depositario autorizado a todo lugar de salida del territorio de la Unión tal como está definido en el apartado 31 del artículo 4 de este decreto foral normativo.

d) En régimen suspensivo desde el establecimiento de un depositario autorizado establecido en el territorio de un Estado miembro distinto del de la sede del beneficiario, a los destinos a los que se refiere el artículo 11.1 de la Directiva (UE) 2020/262 del Consejo de 19 de diciembre de 2019 por la que se establece el régimen general de los impuestos especiales.

e) Etendura araubidean, gordailuzain baimendu baten establezimendutik irteerako aduanara, baldin eta 2015/2447 (EB) Exekuzio Erregelamenduaren 329. artikuluko 5. apartatuarekin bat aurreikusten bada aduana hori, aldi berean, abiapuntuko aduana izango dela kanpo igarobidearen araubiderako, 2015/2446 (EB) Erregelamendu Delegatuaren 189. artikuluko 4. apartatuaren indarrez. Kasu horretan, etendura araubidea amaituko da produktuak kanpo igarobideraren araubidean sartzen direnean.

e) En régimen suspensivo desde el establecimiento del que es titular un depositario autorizado a la aduana de salida, cuando se prevea con arreglo al artículo 329, apartado 5, del Reglamento de Ejecución (UE) 2015/2447, que sea al mismo tiempo la aduana de partida para el régimen de tránsito externo cuando así se prevea en virtud del artículo 189, apartado 4, del Reglamento Delegado (UE) n.° 2015/2446. En este supuesto el régimen suspensivo finalizará cuando los productos sean incluidos en el régimen de tránsito externo.

f) Etendura araubidean, bidaltzaile erregistratu batek bidalitako produktuen inportazio tokitik produktu horiek araubide horretan jasotzea baimenduta dagoen toki batera. Artikulu honen ondorioetarako, «inportazio tokitzat» hartuko da 952/2013/EB Erregelamendukoen 201. artikuluaren arabera produktuak zirkulazio askean jartzeko izapidetzen diren lekua.

f) En régimen suspensivo desde el lugar de importación, expedidos por un expedidor registrado, a un lugar en el que se haya autorizado la recepción de productos en este régimen. A efectos del presente artículo se entenderá por «lugar de importación» el sitio en el que los productos se despachen a libre práctica con arreglo al artículo 201 del Reglamento (UE) n° 952/2013.

g) Etendura araubidean, gordailuzain baimendu baten establezimendutik zuzeneko entrega egiten den toki batera.

g) En régimen suspensivo, desde el establecimiento de un depositario autorizado a un lugar de entrega directa.

h) Etendura araubidetik kanpo, hartzaile ziurtatu bati zuzenduta daudenean.

h) Fuera de régimen suspensivo, con destino a un destinatario certificado.

i) Etendura araubidetik kanpo, urrutiko salmenten sistemaren barruan.

i) Fuera de régimen suspensivo, dentro del sistema de ventas a distancia.

4. Batasunaren barruko zirkulazioa etendura araubidean egingo da, bakar-bakarrik, erregelamenduz ezarriko diren baldintzen arabera tramitatu behar den administrazio agiri elektroniko batek babestuta egiten bada. Dena den, horrek ez du eragotziko zirkulazioa larrialdiko agiri laguntzaile batekin hastea sistema informatizatua erabilgarri ez dagoenean eta erregelamenduz ezarriko diren baldintzak beteta.

4. La circulación intracomunitaria en régimen suspensivo se realizará únicamente si tiene lugar al amparo de un documento administrativo electrónico tramitado de acuerdo con los requisitos que reglamentariamente se establezcan, sin perjuicio del inicio de la circulación en un documento de acompañamiento de emergencia en caso de indisponibilidad del sistema informatizado y con cumplimiento de las condiciones fijadas reglamentariamente.

17. artikulua. Irregulartasunak Batasunaren barruko zirkulazioan.

Artículo 17. Irregularidades en la circulación intracomunitaria.

Bi estatu kidetako lurraldeen arteko zirkulazioan, edo estatu kide bateko lurraldearen eta hirugarren herrialde edo lurralde baten artean egindakoan (baina beste estatu kide baten lurraldetik barna), gertatzen bada ezen fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen bidalketa bat (edo haren parte bat) ez dela iristen hartzailearen eskuetara Batasunaren lurraldean edo, esportazio kasuetan, bidalketa ez bada benetan ateratzen Batasunaren lurraldetik, eta horren arrazoiak ez badira foru dekretu arauemaile honen 6. artikuluan edo 16. artikuluko 1. eta 2. apartatuetan aipatutakoak (zerga hauei ez lotzea dakartenak), irregulartasun bat gertatu dela ulertuko da.

A) Zirkulazioa etendura araubidean.

1. Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen batasun barruko zirkulazio batean, etendura araubidean egindakoan, hau gertatzen bada:

a) Barruko lurralde eremuan izandako irregulartasun batek fabrikazio zerga berezien sortzapena dakarrela, zerga horiek Espainiako Zerga Administrazioak exijituko ditu.

b) Izandako irregulartasun batek fabrikazio zerga berezien sortzapena ekarri duela, ezinezkoa dela zehaztea irregulartasun hori zein estatu kidetan gertatu den eta barruko lurralde eremuan detektatzen dela, ondorioztatuko da irregulartasuna lurralde eremu horretan eta detektatu den unean gertatu dela, eta zerga bereziak Espainiako Zerga Administrazioak exijituko ditu.

2. Zerga bereziei lotuta dauden produktuak, barruko lurralde eremutik etendura araubidean zirkulatzen dutenak, ez badira iritsi helmugara eta haien zirkulazioan ez bada detektatu zerga berezien sortzapena dakarren ezein irregulartasunik, estatu kide igorlean irregulartasun bat gertatu dela joko

Si en el curso de una circulación entre el territorio de dos Estados miembros, o entre el territorio de un Estado miembro y un tercer país o territorio tercero a través del territorio de otro Estado miembro, una expedición de productos objeto de impuestos especiales de fabricación, o parte de ella, no es recibida por el destinatario de los productos en el territorio de la Unión o no abandona efectivamente el territorio de la Unión, si su destino era la exportación, por causas distintas a las que dan lugar a la no sujeción a estos impuestos, de acuerdo con lo establecido en el artículo 6 o en el artículo 16, apartados 1 y 2, de este decreto foral normativo, se considerará producida una irregularidad.

A) Circulación en régimen suspensivo.

1. En el caso de que, en el curso de una circulación intracomunitaria de productos objeto de impuestos especiales de fabricación en régimen suspensivo:

a) Se produzca una irregularidad en el ámbito territorial interno que dé lugar al devengo de los impuestos especiales de fabricación, dichos impuestos serán exigibles por la Administración tributaria española.

b) Se produzca una irregularidad que dé lugar al devengo de los impuestos especiales de fabricación, no sea posible determinar el Estado miembro en que se produjo y se detecte en el ámbito territorial interno, se considerará que la irregularidad se ha producido en dicho ámbito territorial y en el momento en que se ha observado, y los impuestos especiales serán exigibles por la Administración tributaria española.

2. Cuando productos sujetos a impuestos especiales que circulen en régimen suspensivo desde el ámbito territorial interno no hayan llegado a destino y no se haya observado durante la circulación irregularidad alguna que entrañe el devengo de los impuestos especiales, se considerará

da, eta zerga bereziak Espainiako Zerga Administrazioak exijituko ditu, salbu eta, zirkulazioa hasi eta lau hilabeteko epean, Administrazioari modu egokian frogatzen bazaio produktuak hartzaileari entregatu zaizkiola edo irregulartasuna barruko lurralde eremutik kanpo gertatu dela.

que se ha producido una irregularidad en el Estado miembro de expedición y los impuestos especiales serán exigibles por la Administración tributaria española excepto si, en un plazo de cuatro meses a partir del inicio de la circulación, se aporta la prueba, a satisfacción de dicha Administración, de que los productos han sido entregados al destinatario o que la irregularidad ha tenido lugar fuera del ámbito territorial interno.

3. Aurreko 1. apartatuko a) eta b) letretan aurreikusitako kasuetan, Espainiako Zerga Administrazioak irregulartasunen berri emango die estatu kide igorleko agintari eskudunei.

3. En los supuestos contemplados en las letras a) y b) del apartado 1 anterior, la Administración tributaria española informará, en su caso, a las autoridades competentes del Estado miembro de expedición.

4. Dena den, aurreko 1. apartatuko b) letran edo 2. apartatuan jasotako kasuetan, gertatzen bada zirkulazioa hasi ondorengo hiru urteko epea igaro baino lehen zehazten dela zer estatu kidetan (Espainia kenduta) gertatu den benetan irregulartasuna, zerga bereziak estatu kide horrek exijituko ditu. Horrelakoetan, Espainiako Zerga Administrazioak atzera bueltatuko ditu jasotako zerga bereziak, betiere behar den eran frogatzen bada zerga horiek irregulartasuna gertatu den estatu kidean jaso direla.

4. No obstante, si, en los supuestos contemplados en la letra b) del apartado 1 o en el apartado 2 anteriores, antes de la expiración de un período de tres años, a contar desde la fecha de comienzo de la circulación, llegara a determinarse el Estado miembro, distinto de España, en el que se ha producido realmente la irregularidad, los impuestos especiales serán exigibles por dicho Estado miembro. En ese caso, la Administración tributaria española procederá a la devolución de los impuestos especiales percibidos, una vez que se aporten pruebas de la percepción de tales impuestos en el Estado miembro en el que realmente se produjo la irregularidad.

5. Aurreko 1. apartatuko b) letran edo 2. apartatuan aipatu diren kasu berdinetan, presuntzioa egin bada Batasunaren gainerako lurralde eremuan irregulartasun bat gertatu dela, eta, azkenean, zirkulazioa hasi ondorengo hiru urteko epea igaro baino lehen, argitzen bada irregulartasun hori, benetan, barruko lurralde eremuan gertatu dela, zerga bereziak Espainiako Zerga Administrazioak exijituko ditu, eta zerga horiek hasiera batean jaso zituen estatu kideko agintari eskudunei horren berri emango die.

5. Si, en supuestos similares a los que se ha hecho referencia en la letra b) del apartado 1 o en el apartado 2 anteriores, habiéndose presumido que una irregularidad ha tenido lugar en el ámbito territorial de la Unión no interno, antes de la expiración de un período de tres años a contar desde la fecha de comienzo de la circulación, llegara a determinarse que dicha irregularidad se había producido realmente dentro del ámbito territorial interno, los impuestos especiales serán exigibles por la Administración tributaria española, que informará de ello a las autoridades competentes del Estado

miembro en que inicialmente se hubieran percibido dichos impuestos.

B) Zirkulazioa etendura araubidetik kanpo.

B) Circulación fuera del régimen suspensivo.

1. Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen batasunaren barruko zirkulazio batean, non produktuei dagokien zerga sortzapena Batasunaren gainerako lurralde eremuko estatu kide igorlean sortu baita, hau gertatzen bada:

1. En el caso de que, en el curso de una circulación intracomunitaria de productos objeto de impuestos especiales de fabricación por los que ya se haya devengado el impuesto en el Estado miembro de expedición situado en el ámbito territorial comunitario no interno:

a) Barruko lurralde eremuan izandako irregulartasun batek fabrikazio zerga berezien sortzapena dakarrela, zerga horiek Espainiako Zerga Administrazioak exijituko ditu.

a) Se produzca una irregularidad en el ámbito territorial interno que dé lugar al devengo de los impuestos especiales de fabricación, dichos impuestos serán exigibles por la Administración tributaria española.

b) Izandako irregulartasun batek fabrikazio zerga berezien sortzapena ekarri duela, ezinezkoa dela zehaztea irregulartasun hori zein estatu kidetan gertatu den eta barruko lurralde eremuan detektatzen dela, ondorioztatuko da irregulartasuna lurralde eremu horretan gertatu dela, eta zerga bereziak Espainiako Zerga Administrazioak exijituko ditu.

b) Se produzca una irregularidad que dé lugar al devengo de los impuestos especiales de fabricación, no sea posible determinar el Estado miembro en que se produjo y se observe en el ámbito territorial interno, se considerará que la irregularidad se ha producido en dicho ámbito territorial y los impuestos especiales serán exigibles por la Administración tributaria española.

2. Dena den, aurreko 1. apartatuko b) letran jasotako kasuetan, gertatzen bada zirkulazioa hasi ondorengo hiru urteko epea igaro baino lehen zehazten dela zer estatu kidetan (Espainia kenduta) gertatu den benetan irregulartasuna, zerga bereziak estatu kide horrek exijituko ditu. Horrelakoetan, Espainiako Zerga Administrazioak atzera bueltatuko ditu jasotako zerga bereziak, betiere behar den eran frogatzen bada zerga horiek irregulartasuna gertatu den estatu kidean jaso direla.

2. No obstante, si, en el supuesto contemplado en la letra b) del apartado 1 anterior, antes de la expiración de un periodo de tres años, a contar desde la fecha de adquisición de los productos, llegara a determinarse el Estado miembro, distinto de España, en el que se ha producido realmente la irregularidad, los impuestos especiales serán exigibles por dicho Estado miembro. En ese caso, la Administración tributaria española procederá a la devolución de los impuestos especiales percibidos, una vez que se aporten pruebas de la percepción de tales impuestos en el Estado miembro en el que realmente se produjo la irregularidad.

3. Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen zerga sortzapena barruko lurralde eremuan izan den kasuetan gertatzen bada ezen horiek lurralde eremu

3. En el caso de productos objeto de impuestos especiales de fabricación por los que ya se haya devengado el impuesto en el ámbito territorial interno que, habiendo sido

horretatik Batasunaren gainerako lurralde eremura bidali ondoren, irregulartasun bat antzematen dela barruko lurralde eremutik kanpo, eta horrek berekin badakar zerga bereziak ordaindu beharra irregulartasuna gertatu edo egiaztatu den estatu kidean, Espainiako Zerga Administrazioak bueltan itzuliko ditu jasotako zerga bereziak, betiere estatu kide horretan zerga horiek jaso direla behar den eran frogatu eta gero.

expedidos desde dicho ámbito con destino al ámbito territorial de la Unión no interno, sean objeto de una irregularidad fuera del ámbito territorial interno que dé lugar a que los impuestos especiales sean percibidos en el Estado miembro en el que dicha irregularidad haya sido producida o comprobada, la Administración tributaria española procederá a la devolución de los impuestos especiales percibidos, una vez que se aporten pruebas de la percepción de tales impuestos en dicho Estado miembro.

18. artikulua. Kudeaketako arau orokorrak.

1. Fabrikazio zerga berezien subjektu pasiboek eta haiek ordaintzera behartuta dauden gainerakoek behar diren zerga aitorpenak aurkeztu beharko dituzte, eta bidezko diren autolikidazioak egin, baita bermeak aurkeztu ere, beren zerga betebeharrei aurre egiteko.

2. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak formalki eguneratuko ditu foru dekretu arauemaile honen testuan NC kodeei egindako erreferentziak, nomenklatura konbinatuaren egituran aldaketak egonez gero.

3. Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktu suntsikorrak batera biltegiratzen diren kasuetan, haiei dagozkien zergak tasa desberdinak aplikatuta ordaindu badira, aurkakoa frogatzen ez den bitartean ulertuko da establezimenduan sartu diren lehenengo produktuak bertatik ateratzen diren lehenengoak direla.

4. Hurrengo apartatuan xedatutakoan izan ezik, fabrikazio zerga berezien subjektu pasiboek eta horiek ordaintzera behartuta dauden gainerakoek zerga zorra zehaztu eta ordaindu beharko dute Ogasun eta Finantza

Artículo 18. Normas generales de gestión.

1. Los sujetos pasivos y demás obligados al pago de los impuestos especiales de fabricación estarán obligados a presentar las correspondientes declaraciones tributarias y, en su caso, a practicar las autoliquidaciones que procedan, así como a prestar garantías para responder del cumplimiento de sus obligaciones tributarias.

2. La diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas procederá a la actualización formal de las referencias efectuadas a los códigos NC en el texto de este decreto foral normativo, si se produjeran variaciones en la estructura de la nomenclatura combinada.

3. Cuando se almacenen conjuntamente productos fungibles objeto de los impuestos especiales de fabricación por los que se hayan satisfecho los impuestos correspondientes con aplicación de tipos impositivos diferentes, se considerará, salvo prueba en contrario, que los primeros productos entrados en el establecimiento son los primeros que salen del mismo.

4. Salvo lo dispuesto en el apartado siguiente, los sujetos pasivos y demás obligados al pago de los impuestos especiales de fabricación deberán determinar e ingresar la deuda tributaria con el procedimiento, forma y plazos que

Departamentuko foru diputatuak ezarritako prozeduran, eran eta epeetan.

establezca la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas.

5. Inportazioetan edo sarrera irregularretan, zerga likidatuko da aduana zorrerako aurreikusita dagoen eran, aduanei buruzko araudian xedatutakoaren arabera.

5. En las importaciones o entradas irregulares, el impuesto se liquidará en la forma prevista para la deuda aduanera según lo dispuesto en la normativa aduanera.

6. Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak enkante publikoan saltzen direnean, haiekin merkaturatzeko lege gaitasuna dutenen alde baino ezingo dira adjudikatu, erregelamenduz ezarriko diren baldintzekin bat.

6. Cuando los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación sean vendidos en pública subasta, la adjudicación sólo podrá efectuarse en favor de las personas con aptitud legal para comerciar con ellos, de acuerdo con las condiciones que reglamentariamente se establezcan.

7. Erregelamendu bidez honako hauek ezarriko dira:

7. Reglamentariamente, se establecerán:

a) Subjektu pasiboek bermeak emateko modua eta zenbatekoak.

a) La forma y cuantías en que los sujetos pasivos deberán prestar garantías.

b) Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak fabrikatzen, eraldatzen, jasotzen, biltegiratzen, merkaturatzen eta bidaltzen dituzten establezimenduak nola kontrolatuko diren, haien etengabeko kontu-hartzea ere barne.

b) La forma en que se realizará el control, incluida la intervención permanente, de los establecimientos en que se fabriquen, transformen, reciban, almacenen, comercialicen y expidan productos objeto de los impuestos especiales de fabricación.

c) Zer beharkizun exijituko diren produktu hauen zirkulazioan eta, bereziki, zein baldintza bete beharko diren Batasunaren barruko zirkulazioa eta barruko lurralde eremukoa babestu behar duten dokumentuak erabiltzeko.

c) Los requisitos exigibles en la circulación de estos productos y, en particular, las condiciones de utilización de cualquiera de los documentos que deban amparar la circulación intracomunitaria e interna.

d) Etendura araubidean, fabrikazio eta eraldaketa prozesuetan, eta biltegiraketan eta garraioan onartzen diren galera portzentajeak.

d) Los porcentajes admisibles de pérdidas, en régimen suspensivo, en los procesos de fabricación y transformación, así como durante el almacenamiento y el transporte.

e) Fabrikazio zerga berezien itzulketa eskaerak aurkezteko epeak.

e) Los plazos en los que deberán presentarse las solicitudes de devolución de los impuestos especiales de fabricación.

19. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.

Artículo 19. Infracciones y sanciones.

1. Fabrikazio zerga berezien inguruko arau-hausteen eta zehapenen araubidean aplikatzekoak izango dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrean xedatutakoa, foru dekretu arauemaile honetan fabrikazio zerga bakoitzari buruz ezarritako arau espezifikoak, eta hurrengo apartatuetan jasotakoak.

Zehazki, foru dekretu arauemaile honetan xedatutakoaren arabera ezartzen diren zehapenak zergapekoaren zerga egoera erregularizatzearen ondorio badira, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 192. artikuluan aurreikusten den murriztapena aplikatuko da.

2. Zerga arloko arau-hausteak dira honako hauek:

a) Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak fabrikatzea eta inportatzea, foru dekretu arauemaile honetan eta berau garatzeko erregelamenduan ezarritako baldintzak eta betekizunak bete gabe.

b) Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuek merkataritza helburuekin zirkulatzea barruko lurralde eremuan, baldin eta zirkulazio hori dokumentu administratibo elektroniko batek babesteko obligazioa egon arren, agintari eskudunek horretarako eman behar duen erreferentziako kode administratiborik gabe zirkulatzen bada.

c) Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak merkataritza helburuekin edukitzea, sortutako zerga ordaindu dela, etendura araubidea aplikatu dela edo salbuetsita dagoela frogatu gabe.

d) Fabriketan eta gordailu fiskaletan, lehengaiek, fabrikazioan dauden produktuek edo produktu bukatuek beheranzko

1. El régimen de infracciones y sanciones en materia de impuestos especiales de fabricación se regirá por lo dispuesto en la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en las normas específicas que para cada uno de estos impuestos se establecen en este decreto foral normativo y en las contenidas en los siguientes apartados.

En particular, cuando las sanciones impuestas de acuerdo con lo previsto en este decreto foral normativo se deriven de la previa regularización de la situación tributaria del obligado, será aplicable la reducción prevista en el artículo 192 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. En todo caso, constituyen infracciones tributarias:

a) La fabricación e importación de productos objeto de los impuestos especiales de fabricación con incumplimiento de las condiciones y requisitos exigidos en este decreto foral normativo y en su desarrollo reglamentario.

b) La circulación de productos objeto de los impuestos especiales de fabricación con fines comerciales en el ámbito territorial interno cuando, debiendo estar amparada en un documento administrativo electrónico, carezca de un código administrativo de referencia asignado por las autoridades competentes para ello.

c) La tenencia de productos objeto de los impuestos especiales de fabricación con fines comerciales sin acreditar el pago del impuesto devengado, la aplicación del régimen suspensivo o de un supuesto de exención.

d) La existencia de diferencias en menos de materias primas, productos en curso de fabricación o productos terminados en

diferentziak izatea, diferentzia horiek erregelamenduz baimendutako portzentajeak gainditzea, eta izakinen zenbaketetan Administrazioak agerian jarritakoak izatea.

fábricas y depósitos fiscales que excedan de los porcentajes autorizados reglamentariamente, puestas de manifiesto en recuentos de existencias practicados por la Administración.

e) Zergapekoek ez betetzea foru dekretu arauemaile honetan eta berau garatzeko araudian ezarritako baldintzak eta betekizunak, bertan aurreikusitako salbuespenak edo tasa murriztuak aplikatzeko beharrezkoak direnean eta onura horien xede diren produktuak zertarako edo nola erabili diren justifikatzen ez denean.

e) El incumplimiento por los obligados tributarios de los requisitos y condiciones establecidos en este decreto foral normativo y en su normativa de desarrollo necesarios para la aplicación de las exenciones o tipos reducidos previstos en aquel, cuando no se justifique el uso o destino dado a los productos objeto de dichos beneficios.

3. Aurreko zenbakiko a), b) eta c) letretan aipatzen diren arau-hausteengatik produktuen kantitateei legozkiekeen kuoten 100eko 100eko isun proportzionala ezarriko da; kuota horiek arau-haustea agerian jarritako egunean indarrean zegoen tasa aplikatuta kalkulatuko dira, eta isuna 1.200 eurokoa izango da gutxienez.

3. Las infracciones a las que se refieren las letras a), b) y c) del número anterior se sancionarán con multa pecuniaria proporcional del 100 por 100 de las cuotas que corresponderían a las cantidades de los productos, calculadas aplicando el tipo vigente en la fecha de descubrimiento de la infracción, con un mínimo de 1.200 euros.

Aurreko zenbakiko d) letran aipatzen den arau-haustea egiteagatik, zerga bereziaren kuoten 100eko 50eko diruzko isuna ezarriko da. Diferentzia produktu bukatuetan egiaztatu bada, egiaztatutako diferentziari legozkiokeen kuoten gainean kalkulatuko da zehapena, eta diferentzia lehengaietan edo fabrikazioan dauden produktuetan egiaztatu bada, horietatik lortu zitezkeen produktu bukatuen kantitateari legozkiokeen kuoten gainean; kuota horiek arau-haustea agerian jarritako egunean indarra zegoen zerga tasa aplikatuta kalkulatuko dira, eta isuna 300 eurokoa izango da gutxienez.

La infracción a la que se refiere la letra d) del número anterior se sancionará con multa pecuniaria del 50 por 100 de las cuotas del impuesto especial que corresponderían a los productos terminados sobre los que se haya comprobado la diferencia o a los productos terminados que se hubieran podido obtener a partir de los productos en curso o las materias primas respecto de los cuales se haya comprobado la diferencia, calculadas aplicando el tipo impositivo vigente en la fecha de descubrimiento de la infracción, con un mínimo de 300 euros.

Aurreko zenbakiko e) letran aipatzen den arau-hausteagatik, legez edo erregelamenduz ezarritako baldintzak bete gabe utzi diren produktuei aplikatutako zerga onuraren 100eko 50eko isun proportzionala aplikatuko da.

La infracción a que se refiere la letra e) del número anterior se sancionará con multa pecuniaria proporcional del 50 por 100 del beneficio fiscal aplicado a los productos respecto de los cuales se hayan incumplido los requisitos y condiciones establecidas legal o reglamentariamente.

Aurreko zenbakiko a), b), c) eta e) letretan adierazitakoaren arabera dagokion

La sanción que corresponda conforme a lo señalado en las letras a), b), c) y e) del

zehapena 100eko 25 handituko da zerga arloko arau-hausteak errepikatzen direnean. Zirkunstantzia hori gertatzen dela joko da arau-hausleak, arau-hauste berria egin aurreko bi urteetan, ebazpen irmo baten bidez zehapena jaso badu bide administratiboan, aurreko 2. zenbakian ezarritako debekuetako edozein urratzeagatik.

número anterior se incrementará en el 25 por 100 cuando se produzca comisión repetida de infracciones tributarias. Esta circunstancia se apreciará cuando el infractor, dentro de los dos años anteriores a la comisión de la nueva infracción, hubiese sido sancionado por resolución firme en vía administrativa por infringir cualquiera de las prohibiciones establecidas en el número 2 anterior.

4. 2. apartatuan aipatutako zerga arloko arau-hausteak egiteagatik, zehapen hauek ere ezarri ahal izango dira:

4. Por la comisión de las infracciones tributarias citadas en el apartado 2, podrán imponerse, además, las siguientes sanciones:

a) Arau-hausleak bere titulartasun pean dituen establezimenduak aldi baterako ixtea, sei hilabetez –Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuaren erabakia beharko da–, edo establezimendu horiek behin betiko ixtea –kasu horretan, Diputatuen Kontseiluak erabakita–. Establezimendu bat behin betiko ixtea erabaki ahal izango da, baldin eta subjektu arau-hausleari, administrazio bidean emandako ebazpen irmo baten bidez, zehapena ezarri bazaio aurreko bi urteetan mota bereko arau-hauste bat egiteagatik, eta arau-hauste horren ondorioz establezimendua aldi baterako ixteko zehapena jarri bazaio.

a) El cierre temporal de los establecimientos de los que sean titulares los infractores, por un período de seis meses, que será acordado, en su caso, por la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, o el cierre definitivo de los mismos, que será acordado, en su caso, por el Consejo de Gobierno Foral. Podrá acordarse el cierre definitivo cuando el sujeto infractor hubiese sido sancionado por resolución firme en vía administrativa por la comisión de una infracción de la misma naturaleza dentro de los dos años anteriores que hubiese dado lugar a la imposición de la sanción de cierre temporal del establecimiento.

b) Salmenta automatikoko aparatuak sei hilabetez zigilatzea edo horiek behin betiko konfiskatzea, arau-hausteak gailu horien bitartez egiten direnean. Aparatu horiek behin betiko konfiskatzea erabaki ahal izango da, baldin eta subjektu arau-hausleari, administrazio bidean emandako ebazpen irmo baten bidez, zehazpena ezarri bazaio aurreko bi urteetan salmenta automatikoko aparatu horiekin izaera bereko arau-hauste bat egiteagatik, eta arau-hauste horrek gailu hori zigilatzeko zehapena ezartzea ekarri badu.

b) El precintado por un período de seis meses o la incautación definitiva de los aparatos de venta automática, cuando las infracciones se cometan a través de los mismos. Podrá acordarse la incautación definitiva cuando el sujeto infractor hubiese sido sancionado por resolución firme en vía administrativa por la comisión, por medio del aparato de venta automática, de una infracción de la misma naturaleza dentro de los dos años anteriores que hubiera dado lugar a la imposición de la sanción de precintado de dicho aparato.

Letra honetan aurreikusitako zehapenak ezartzearen ondorioetarako, arau-hausletzat hartuko dira bai salmenta automatikorako

A efectos de la imposición de las sanciones previstas en la presente letra, tendrán la consideración de sujetos infractores tanto el

aparatuaren titularra, bai hura kokatuta dagoen establezimenduaren titularra.

titular del aparato de venta automática como el titular del establecimiento donde se encuentra ubicado.

Hurrengo c) letran ezarritako kasuetan izan ezik, zehapen horiek ezartzea zehapen nagusia ezartzeko eskumena duen organoak erabakiko du.

Salvo en los casos establecidos en la letra c) siguiente, la imposición de estas sanciones será acordada por el órgano competente para la imposición de la sanción principal.

c) Hala ere, b) letran aurreikusitako zehapenak aurreko a) letran aurreikusitakoekin batera ezartzen direnean, salmenta automatikoko aparatua behin betiko konfiskatuko da, betiere establezimendua behin betiko ixtea erabakitzen bada. Zirkunstantzia hori gertatzen denean, a) letran aurreikusitako organoek erabakiko dute zehapenak ezartzea.

c) No obstante, cuando la imposición de las sanciones previstas en la letra b) concurra con la imposición de las previstas en la letra a) anterior, procederá la incautación definitiva del aparato de venta automática siempre que se acuerde el cierre definitivo del establecimiento. En los casos en que se produzca esta concurrencia, la imposición de las sanciones será acordada por los órganos previstos en la letra a).

5. Zerga arloko arau-haustea izango da fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuak merkataritza helburuekin zirkulatzea barruko lurralde eremuan zehar, baldin eta zirkulazio hori babestu behar duten agirietan funtsezko datuak aipatu gabe utzi edo okerrak badira, eta aurreko 2. apartatuan aipatzen den zerga arloko arau-haustea ez bada. Arau-hauste honengatik, zirkulazioan dauden produktuei legokiekeen kuotaren 100eko 10eko diruzko isun proportzionala ezarriko da, eta isuna 600 eurokoa izango da gutxienez.

5. Constituye infracción tributaria la circulación de productos objeto de los impuestos especiales de fabricación con fines comerciales en el ámbito territorial interno cuando, con relación a los documentos de circulación establecidos reglamentariamente para amparar esta circulación, existan omisiones o inadecuaciones con la realidad de datos esenciales del documento, y no constituya infracción tributaria de conformidad con lo previsto en el apartado 2 anterior. Esta infracción se sancionará con una multa pecuniaria proporcional del 10 por 100 de la cuota que correspondería a los productos en circulación, con un mínimo de 600 euros.

Honako datu hauek izango dira funtsezkoak zirkulazio agirietan:

Se consideran datos esenciales de los documentos de circulación los siguientes:

1.a Garraiatutako merkantziaren izaera eta kopurua zuzen identifikatzeko behar diren datuak.

1.º Los datos necesarios para la correcta identificación de la naturaleza y cantidad de la mercancía transportada.

2.a Bidaltzailea, hartzailea edo produktuak zuzen identifikatzeko behar diren datuak, zirkulazio agiriaren zenbakia barne.

2.º Los datos necesarios para la correcta identificación del expedidor, destinatario o de los productos, incluido el número de documento de circulación.

3.a Zirkulazio zigiluen kasuan, bakoitzaren zenbakia edo edukiera, eta horiek jarrita dauden ontziekiko korrespondentzia.

3.º En el caso de precintas de circulación, la numeración o capacidad de las mismas y su correspondencia con los recipientes sobre los que estén colocadas.

4.a Bidalketa noiz hasi den adierazten duen datua.

4.º El dato relativo a la fecha del inicio de la expedición.

6. Zerga arloko arau-haustea izango da edari alkoholdunak edo tabako laboreak merkataritza helburuekin edukitzea marka fiskalik ez dutenean edo, edukita ere, horiek erregelamenduz ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenean, salbu eta jokabide horri 2. apartatuan ezarritakoa aplikatzekoa bazaio.

6. Tendrá la consideración de infracción tributaria la tenencia, con fines comerciales, de bebidas alcohólicas o de labores del tabaco que no ostenten marcas fiscales o las ostenten sin cumplir los requisitos establecidos reglamentariamente al efecto, salvo cuando respecto de la misma conducta sea de aplicación lo establecido en el apartado 2.

Arau-hauste hori honela zehatuko da:

Esta infracción se sancionará:

a) 150 euroko isuna 1.000 zigarretako, eta gutxienez 600 euro arau-hauste bakoitzeko.

a) Con multa de 150 euros por cada 1.000 cigarrillos, con un importe mínimo de 600 euros por cada infracción.

b) 90 euroko isuna biltzeko tabako xehearen kilogramo bakoitzeko, eta gutxienez 600 euro arau-hauste bakoitzeko.

b) Con multa de 90 euros por cada kilogramo de picadura para liar, con un importe mínimo de 600 euros por cada infracción.

c) 10 euroko isuna edari litro bakoitzeko, eta gutxienez 600 euro arau-hauste bakoitzeko.

c) Con multa de 10 euros por cada litro de bebidas, con un importe mínimo de 600 euros por cada infracción.

Aurreko a), b) eta c) letretan ezarritako zehapenak 100eko 25 handituko dira, horrelako arau-hausteak errepikatuz gero. Arau-haustea errepikatutzat joko da baldin eta arau-hausleak, azken arau-haustea egin aurreko bi urteetan, ebazpen irmo baten bidez zehapena jaso badu bide administratiboan, zenbaki honetan aurreikusitako arau-hausteagatik egiteagatik.

Las sanciones establecidas en las letras a), b) y c) anteriores se graduarán incrementando el importe de la multa en un 25 por 100 en caso de comisión repetida de estas infracciones. La comisión repetida se apreciará cuando el infractor, dentro de los dos años anteriores a la comisión de la nueva infracción, hubiese sido sancionado en virtud de resolución firme en vía administrativa por la comisión de las infracciones contempladas en este número.

7. Zerga arloko arau-haustetzat hartuko da marka fiskal faltsuak, birsortuak edo berreskuratuak edukitzea. Arau-hauste horrengatik 10 euroko diruzko isun finkoa

7. Tendrá la consideración de infracción tributaria la tenencia de marcas fiscales falsas, regeneradas o recuperadas. Esta infracción se sancionará con multa

ezarriko da marka fiskal faltsu, birsortu edo berreskuratu bakoitzeko.

8. Zerga arloko arau-haustea izango da zergapekoek ez betetzea foru dekretu arauemaile honetan eta berau garatzeko araudian ezarritako baldintzak eta beharkizunak, zerga bereziei lotutako produktuen xedeagatik horiek beharrezkoak badira salbuespen kasu bat edo tasa murriztu bata aplikatzeko, eta, betiere, aurreko 2. apartatuan aurreikusitako arau-hausteetako bat egitea ez badakar.

Apartatu honetan tipifikatzen den arau-haustearengatik aplikatuko den zehapena, legez edo erregelamenduz ezarritako baldintzak bete gabe utzi diren produktuei aplikatutako zerga onuraren 100eko 10eko diruzko isuna izango da.

pecuniaria fija de 10 euros por cada marca fiscal falsa, regenerada o recuperada.

8. Constituye infracción tributaria el incumplimiento por los obligados tributarios de los requisitos y condiciones establecidos en este decreto foral normativo y en su normativa de desarrollo para la aplicación de un supuesto de exención o un tipo impositivo reducido en razón del destino de los productos objeto de los impuestos especiales, cuando no constituya una infracción tributaria de las previstas en el apartado 2 anterior.

La infracción tipificada en este apartado se sancionará con multa pecuniaria del 10 por 100 del beneficio fiscal aplicado a los productos respecto de los cuales se hayan incumplido los requisitos y condiciones establecidas legal o reglamentariamente.

II. KAPITULUA

Alkoholaren eta edari alkoholdunen gaineko zerga berezi guztietarako xedapen komunak

20. artikulua. Kontzeptuak eta definizioak.

Alkoholaren eta edari alkoholdunen gaineko zerga berezien ondorioetarako, kontzeptu hauek definitzen dira:

1. “Alkohola”. 2207 edo 2208 NC kodeetan sailkatutako alkohol etilikoa edo etanola.

2. Erabat desnaturalizatutako alkohola. Propio onesten diren substantzia desnaturalitzaileak erabakitzen den gutxieneko proportzioan dituen alkohola, usain, kolore eta zapore aldetik dauzkan ezaugarri organoleptikoak nabarmen aldatzen dituena, eta gizakiak ingestioz ezin kontsumitzea dakarrena.

CAPÍTULO II

Disposiciones comunes a todos los impuestos especiales sobre el alcohol y bebidas alcohólicas

Artículo 20. Conceptos y definiciones.

A efectos de los impuestos especiales sobre el alcohol y las bebidas alcohólicas, se considerará:

1. “Alcohol”. El alcohol etílico o etanol clasificado en los códigos NC 2207 ó 2208.

2. “Alcohol totalmente desnaturalizado”. El alcohol que contenga, como mínimo en la proporción que se determine, las sustancias desnaturalizantes que se aprueben al efecto y que alteren, en forma claramente perceptible, sus caracteres organolépticos de olor, color y sabor, haciéndolo impropio para el consumo humano por ingestión.

3. "Partzialki desnaturalizatutako alkohola". Propio onesten diren substantzia desnaturalizatzaileak erabakitzen den gutxieneko proportzioan dituen alkohola, gizakiak ingestioz ezin kontsumitzea dakarrena, eta aldez aurretik industria prozesu jakin batean erabiltzeko baimenduta dagoena, erregelamenduz ezartzen diren eran eta baldintzetan.

3. “Alcohol parcialmente desnaturalizado”. El alcohol que contenga, como mínimo en la proporción que se determine, las sustancias desnaturalizantes que se aprueben al efecto y que lo hagan impropio para el consumo humano por ingestión y cuya utilización en un proceso industrial determinado haya sido previamente autorizada, en la forma y con las condiciones que se establezcan reglamentariamente.

4. "Edari analkoholikoa". Bereganatutako alkohol gradu bolumetrikoa % 1,2tik gorakoa ez duen alkohola.

4. “Bebida analcohólica”. Aquella cuyo grado alcohólico volumétrico adquirido no sea superior a 1,2% vol.

5. “Ardogilea”. Ardoa egiteko jardueran bere kabuz aritzen den pertsona fisikoa, mahats lapetatik eratortzen den alkohola edo edari deribatua egiteko erabilitako mahaztiaren jabea ere badena.

5. “Cosechero”. La persona física que ejerza, en nombre propio, la actividad de elaborador de vino y sea propietario de las uvas a partir de cuyos orujos se obtiene un alcohol o bebida derivada.

6. "Artisau distilatzailea". Alanbike edo antzeko gailuak erabilita eta zuzeneko distilazio intermitente bidez edari deribatuak fabrikatzen dituen pertsona, urtean 10 hektolitro alkohol puru baino gehiago ekoizten ez duena.

6. “Destilador artesanal”. El fabricante de bebidas derivadas por destilación directa intermitente, mediante alambiques u otros aparatos de destilación similares, que obtenga una producción anual que no exceda de 10 hectolitros de alcohol puro.

7. "Garagardoaren jatorrizko muztioaren hasierako aterakin lehorra". Ehotutako maltatik eta ehotutako zein ehotu gabeko beste produktu batzuetatik sortzen den materia lehor naturala, liseriketa entzimatikoaren bidez muztioan dagoen kontzentratu azukreduna ematen duena. Alkoholaren hartziduraren bidez, muztio horretatik garagardoa sortuko litzateke.

7. “Extracto seco primitivo del mosto original de la cerveza”. La materia seca natural procedente de la molturación de la malta y de otros productos autorizados, molturados o no, que dan lugar por digestión enzimática al concentrado azucarado existente en un mosto del que se obtendría, mediante fermentación alcohólica, la cerveza.

8. "Bereganatutako alkohol gradu bolumetrikoa". 20º C-ko tenperaturan, dena delako produktuaren 100 bolumenetan dagoen alkohol puruko bolumen kopurua.

8. “Grado alcohólico volumétrico adquirido”. El número de volúmenes de alcohol puro, a la temperatura de 20ºC, contenido en 100 volúmenes del producto considerado a dicha temperatura.

9. “Plato gradua”. Garagardoaren hasierako muztioaren lehenbiziko aterakin lehorraren gramo kopurua, muztio horren 100 gramotan dagoena, 20º C-ko tenperaturan.

9. “Grado Plato”. La cantidad en gramos de extracto seco primitivo del mosto original de la cerveza contenido en 100 gramos de dicho mosto a la temperatura de 20ºC.

21. artikulua. Salbuespenak.

Foru dekretu arauemaile honen 9. artikuluan aipatutako eragiketez gain, honako hauek ere egongo dira salbuetsita, erregelamenduz ezarriko diren baldintzak betetzen badira:

1. Ozpina egiteko alkohola eta edari alkoholdunak fabrikatu eta inportatzea. Ozpina 2209 NC kodean sailkatuta dagoen produktua izango da.

Nekazaritza jatorriko alkohol distilatua erabiltzen den kasuetan, salbuespena aplikatzeko, alkohol horrek alkohol ozpina eman behar du markadore gisa, erregelamenduz exijitutako baldintzetan eta portzentajeetan.

2. Edari alkoholdunen inportazio hauek:

a) Hirugarren herrialdeetatik datozen hamazazpi urtetik gorako bidaiariek zuzenean egiten dituztenak, betiere honako muga kuantitatibo hauek gainditzen ez badituzte:

1.a. Litro bat alkohol edo edari deribatu; edo

2.a Bi litro tarteko produktu, ardo apardun eta edari hartzitu, eta

3.a Lau litro ardo bare eta hamasei litro garagardo.

b) Partikular batek hirugarren herrialde batetik beste partikular bati lantzean behin egindako bidalketa txikiak, tartean inolako ordainketarik ez badago eta muga kuantitatibo hauek gainditzen ez badira:

1.a Gehienez litro bat alkohol edo edari deribatu duen botila bat; edo

Artículo 21. Exenciones.

Además de las operaciones citadas en el artículo 9 de este decreto foral normativo, estará exenta, siempre que se cumplan las condiciones que reglamentariamente se establezcan:

1. La fabricación e importación de alcohol y de bebidas alcohólicas que se destinen a la producción de vinagre. Se entiende por vinagre, el producto clasificado en el código NC 2209.

La aplicación de la exención, en los casos de utilización de alcohol destilado de origen agrícola, queda condicionada a que dicho alcohol lleve incorporado, como marcador, vinagre de alcohol con cumplimento de las condiciones y en los porcentajes exigidos reglamentariamente.

2. Las siguientes importaciones de bebidas alcohólicas:

a) Las conducidas personalmente por los viajeros mayores de diecisiete años procedentes de países terceros, siempre que no superen los límites cuantitativos siguientes:

1.º Un litro de alcohol o bebidas derivadas; o

2.º Dos litros de productos intermedios o vinos espumosos y bebidas fermentadas, y

3.º Cuatro litros de vino tranquilo y dieciséis litros de cerveza.

b) Los pequeños envíos expedidos, con carácter ocasional, desde un tercer país , por un particular con destino a otro particular, sin que medie pago de ninguna clase y dentro de los siguientes límites cuantitativos:

1.º Una botella con un contenido máximo de un litro de alcohol o bebidas derivadas; o

2.a Gehienez litro bat tarteko produktu, ardo edo edari hartzitu edo edari apardun duen botila bat, eta

2.º Una botella con un contenido máximo de un litro de productos intermedios o vinos o bebidas fermentadas espumosos, y

3.a Bi litro ardo eta edari hartzitu bare.

3.º Dos litros de vinos y bebidas fermentadas tranquilos.

3. Zergarik gabeko dendetan saltzeko diren edari alkoholdunak, hain zuzen ere hegazkinez edo itsasontziz beste herrialde edo lurralde batera (Kanaria uharteak kenduta) doazen bidaiariek ekipaje pertsonalean eramaten dituztenak.

3. Las bebidas alcohólicas destinadas a ser entregadas por tiendas libres de impuestos y transportadas en el equipaje personal de los viajeros que se trasladen, por vía aérea o marítima, a un tercer país o territorio tercero distinto de las Islas Canarias.

22. artikulua. Itzulketak.

Artículo 22. Devoluciones.

10. artikuluan zehaztutako kasuetan ez ezik, honako hauetan ere aitortuko da zergaren itzulketarako eskubidea dagoela erregelamenduz ezarriko diren baldintzetan:

Se reconocerá el derecho a la devolución del impuesto, en las condiciones que reglamentariamente se establezcan, además de en los supuestos determinados en el artículo 10, en los siguientes:

a) Alkohola edo edari alkoholdunak elikagaietan eta edari analkoholikoetan gehitzen diren aromatizatzaileak prestatzeko erabiltzen direnean.

a) Cuando el alcohol o las bebidas alcohólicas se utilicen en la preparación de aromatizantes para la elaboración de productos alimenticios y bebidas analcohólicas.

b) Alkohola edo edari alkoholdunak elikagai beteak edo bestelakoak ekoizteko erabiltzen direnean, dela zuzenean, dela produktu erdilanduen osagai bezala, baldin eta alkohol edukia, kasu bakoitzean, ez bada 8,5 litro alkohol purutik gorakoa 100 kilo produktuko, bonboien kasuan, eta 5 litro alkohol purutik gorakoa 100 kilo produktuko, bestelako produktuen kasuan.

b) Cuando el alcohol o las bebidas alcohólicas se utilicen directamente, o como componentes de productos semielaborados, para la producción de alimentos rellenos u otros, siempre que el contenido de alcohol, en cada caso, no supere los 8,5 litros de alcohol puro por cada 100 kilogramos de producto, en el caso de los bombones y 5 litros de alcohol puro por cada 100 kilogramos de producto, en el caso de otro tipo de productos.

c) Pertsonen kontsumorako egokiak izateari utzi dioten edari alkoholdunak fabrikara edo gordailu fiskalera itzultzen direnean, eta horiek Zerga Administrazioaren kontrolpean suntsitzen direnean.

c) La devolución a fábrica o depósito fiscal, así como la destrucción bajo control de la Administración tributaria de bebidas alcohólicas que hayan dejado de ser adecuadas para el consumo humano.

23. artikulua. Xedapen bereziak Kanaria uharteei dagokienez.

Artículo 23. Disposiciones particulares en relación con Canarias.

1. Garagardoaren, tarteko produktuen eta alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergen eremu objektiboetako produktuak penintsulan eta Balear uharteetan sartzen badira, eta zerga horiei dagokien sortzapena Kanarietan gertatu bada, kontzeptu horiengatik likidatu eta ordaindu behar diren kuotak kalkulatuko dira produktuak sartzeko unean lurralde horietan dauden zerga tasen arteko diferentzia aplikatuta.

1. Cuando se introduzcan en la península e Illes Balears productos comprendidos en los ámbitos objetivos de los impuestos sobre la cerveza, sobre productos intermedios y sobre el alcohol y bebidas derivadas por los que se hubiesen devengado tales impuestos en Canarias, se liquidarán e ingresarán por dichos conceptos las cuotas resultantes de aplicar la diferencia de tipos impositivos existentes entre dichos territorios en el momento de la introducción.

2. Foru dekretu arauemaile honen 10. eta 43. artikuluetan ezarritakoa eragotzi gabe, tarteko produktuen eta alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergen xede diren produktuak penintsulatik eta Balear uharteetatik Kanarietara bidaltzen dituztenek eskubidea izango dute, erregelamenduz ezarriko diren baldintzen barruan, ordaindu dituzten kuotak osorik edo partez bueltan jasotzeko, bidalketa hasten den unean lurralde horietan dauden zerga tasen arteko diferentzia aplikatuta ateratzen diren kuoten zenbatekoagatik.

2. Sin perjuicio de lo establecido en los artículos 10 y 43 de este decreto foral normativo, tendrán derecho a la devolución, parcial o total, de las cuotas previamente satisfechas, siempre que se cumplan las condiciones que se establezcan reglamentariamente, los expedidores, desde la península e Illes Balears, de productos objeto de los impuestos sobre productos intermedios y sobre el alcohol y bebidas derivadas, con destino a Canarias, por el importe de las cuotas resultantes de aplicar la diferencia de tipos impositivos existentes entre dichos territorios en el momento del inicio de dicha expedición.

3. Garagardoaren gaineko zerga foru dekretu arauemaile honen 26. artikuluan ezarritako tasetan exijituko da Kanarietan.

3. El impuesto sobre la cerveza será exigible en Canarias a los tipos establecidos en el artículo 26 de este decreto foral normativo.

4. Tarteko produktuen gaineko zerga tasa hauen arabera exijituko da Kanarietan:

4. El impuesto sobre productos intermedios será exigible en Canarias a los siguientes tipos impositivos:

a) Tarteko produktuak, bereganatutako alkohol gradu bolumetrikoa 100eko 15etik gorakoa ez dutenak: 30,14 euro hektolitroko.

a) Productos intermedios con un grado alcohólico volumétrico adquirido no superior al 15 por 100 vol.: 30,14 euros por hectolitro.

b) Gainerako tarteko produktuak: 50,21 euro hektolitroko.

b) Los demás productos intermedios: 50,21 euros por hectolitro.

5. Kanarietan, alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga 750,36 euroko tasan exijituko da hektolitro alkohol puru bakoitzeko, foru dekretu arauemaile honen 40. eta 41. artikuluetan xedatutakoa eragotzi gabe.

5. El impuesto sobre el alcohol y bebidas derivadas se exigirá en Canarias al tipo de 750,36 euros por hectolitro de alcohol puro, sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 40 y 41 del presente decreto foral normativo.

6. Penintsulan eta Balear uharteetan kokatutako fabriketatik edo gordailu fiskaletatik Kanarietara etendura araubidetik kanpo zuzenean bidaltzen diren garagardoei, tarteko produktuei eta alkoholari eta edari deribatuei ere aurreko hiru apartatuetan aipatzen diren tasak aplikatuko zaizkie, hurrenez hurren.

6. Los tipos a que se refieren los tres apartados anteriores se aplicarán igualmente a la cerveza, los productos intermedios y al alcohol y bebidas derivadas, respectivamente, que se envíen, fuera del régimen suspensivo, directamente desde fábricas o depósitos fiscales situados en la península e Illes Balears, con destino a Canarias.

7. Zerga arloko arau-haustea izango da:

7. Constituirá infracción tributaria:

a) Artikulu honen 6. apartatuan aipatzen diren produktuak Kanarietan sartzea, foru dekretu arauemaile honetan eta berau garatzeko erregelamenduan ezarritako baldintzak eta betekizunak bete gabe. Arau-haustea lurraldean sartutako produktu kantitateei dagozkien kuotak hiru halako isunaz zehatuko da, eta kuota horiek kalkulatuko dira artikulu honen 4., 5. eta 6. apartatuetan aipatzen diren eta arau-haustea antzeman den egunean indarrean dauden tasak aplikatuta..

a) La introducción en Canarias de los productos a que se refiere el apartado 6 de este artículo, con incumplimiento de las condiciones y requisitos exigidos en este decreto foral normativo y en su reglamento. La infracción se sancionará con multa del tanto al triple de las cuotas que corresponderían a las cantidades de productos introducidos, calculadas aplicando los tipos a que se refieren los apartados 4, 5 y 6 de este artículo que estén vigentes en la fecha del descubrimiento de la infracción.

b) Artikulu honen 1. apartatuan aipatzen diren produktuak penintsulan eta Balear uharteetan sartzea, foru dekretu arauemaile honetan eta hura garatzeko erregelamenduan ezarritako baldintzak eta betekizunak bete gabe. Arau-haustea lurraldean sartutako produktu kantitateei dagozkien kuotak hiru halako isunaz zehatuko da, eta kuota horiek kalkulatuko dira produktuak bidaltzeko unean lurralde horietan dauden zerga tasen arteko diferentzia aplikatuta.

b) La introducción en la península e Illes Balears de los productos a que se refiere el apartado 1 de este artículo con incumplimiento de las condiciones y requisitos exigidos en este decreto foral normativo y en los reglamentos de desarrollo. La infracción se sancionará con multa del tanto al triple de las cuotas que corresponderían a las cantidades de productos introducidos, calculadas aplicando la diferencia de tipos impositivos existente entre dichos territorios en el momento del envío.

III. KAPITULUA

Garagardoaren gaineko zerga.

24. artikulua. Eremu objektiboa.

1. Garagardoaren gaineko zergaren eremu objektiboan sartzen dira garagardoa eta garagardoaren eta edari analkoholikoen

CAPÍTULO III

Impuesto sobre la cerveza

Artículo 24. Ámbito objetivo.

1. El ámbito objetivo del impuesto sobre la cerveza está integrado por la cerveza y por los productos constituidos por mezclas de

arteko nahasketak diren produktuak, 2206 NC kodean sailkatuak, baldin eta, bi kasuetan, bereganatutako alkohol gradu bolumetrikoa % 0,5etik gorakoa bada.

cerveza con bebidas analcohólicas, clasificados en el código NC 2206, siempre que, en ambos casos, su grado alcohólico volumétrico adquirido sea superior a 0,5% vol.

2. Foru dekretu arauemaile honen ondorioetarako, 2203 NC kodean sailkatutako produktu oro hartuko da garagardotzat.

2. A efectos del presente decreto foral normativo se entenderá por cerveza todo producto clasificado en el código NC 2203.

25. artikulua. Zerga oinarria.

Zergaren eremu objektiboaren barruan sartzen diren produktuen bolumena, 20ºC-ko tenperaturan neurtua eta produktu amaituko hektolitrotan adierazia, izango da oinarria.

Artículo 25. Base imponible.

La base estará constituida por el volumen de productos comprendidos dentro del ámbito objetivo del impuesto, expresado en hectolitros de producto acabado a la temperatura de 20ºC.

26. artikulua. Zerga tasak.

1. Zerga honen eremu objektiboan sartzen diren produktuei ondorengo epigrafeetan azaltzen diren zerga tasak aplikatuko zaizkie:

1.a) epigrafea. Gehienez 100eko 1,2ko alkohol gradu bolumetriko bereganatua duten produktuak: 0 euro hektolitroko.

1 b) epigrafea. 100eko 1,2tik gorako eta 100eko 2,8 bitarteko alkohol gradu bolumetriko bereganatua duten produktuak: 2,75 euro hektolitroko.

2. epigrafea. 100eko 2,8tik gorako alkohol gradu bolumetriko bereganatua eta 100eko 11tik beherako Plato gradua duten produktuak: 7,48 euro hektolitroko.

3. epigrafea. 11 eta 15 bitarteko Plato gradua duten produktuak: 9,96 euro hektolitroko.

4. epigrafea. 15etik gorako eta gehienez 19ko Plato gradua duten produktuak: 13,56 euro hektolitroko.

Artículo 26. Tipos impositivos.

1. El impuesto se exigirá, con respecto a los productos comprendidos dentro de su ámbito objetivo, conforme a los siguientes epígrafes:

Epígrafe 1.a). Productos con un grado alcohólico volumétrico adquirido no superior a 1,2 por 100 vol.: 0 euros por hectolitro.

Epígrafe 1.b). Productos con un grado alcohólico adquirido superior a 1,2 por 100 vol. y no superior a 2,8 por 100 vol.: 2,75 euros por hectolitro.

Epígrafe 2. Productos con un grado alcohólico volumétrico adquirido superior a 2,8 por 100 vol. y con un grado Plato inferior a 11: 7,48 euros por hectolitro.

Epígrafe 3. Productos con un grado Plato no inferior a 11 y no superior a 15: 9,96 euros por hectolitro.

Epígrafe 4. Productos con un grado Plato superior a 15 y no superior a 19: 13,56 euros por hectolitro.

5. epigrafea. 19tik gorako Plato gradua duten produktuak: 0,91 euro hektolitroko eta Plato gradu bakoitzeko.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoaren ondorioetarako, Plato gradua zehazterakoan 0,2 gradu bitarteko tolerantzia onartuko da.

Epígrafe 5. Productos con un grado Plato superior a 19: 0,91 euros por hectolitro y por grado Plato.

2. A efectos de lo establecido en el apartado anterior, en la determinación del grado Plato se admitirá una tolerancia de hasta 0,2 grados.

IV. KAPITULUA

Ardoaren eta edari hartzituen gaineko zerga

27. artikulua. Eremu objektiboa.

1. Zergaren eremu objektiboan sartzen dira ardo barea, ardo aparduna, edari hartzitu bareak eta edari hartzitu apardunak..

2. Foru dekretu arauemaile honen ondorioetarako, ardo baretzat hartuko dira 2204 eta 2205 NC kodeetan sailkatutako produktu guztiak, ardo apardunak izan ezik, honako hau dutenean:

a) 100eko 1,2tik gorako eta 100eko 15era bitarteko alkohol gradu bolumetriko bereganatua, baldin eta amaitutako produktuan dagoen alkohola bere osoan hartziduratik badator, edo

b) 100eko 15etik gorako eta 100eko 18ra bitarteko alkohol gradu bolumetriko bereganatua, baldin eta graduazioa artifizialki handitu gabe lortu badira eta amaitutako produktuan dagoen alkohola bere osoan hartziduratik badator.

3. Foru dekretu arauemaile honen ondorioetarako, ardo aparduntzat hartuko dira 2204.10, 2204.21.06, 2204.21.07, 2204.21.08, 2204.21.09 eta 2205 NC kodeetan sailkatutako produktu guztiak, baldin eta:

CAPÍTULO IV

Impuesto sobre el vino y bebidas fermentadas

Artículo 27. Ámbito objetivo.

1. El ámbito objetivo del impuesto está integrado por el vino tranquilo, el vino espumoso, las bebidas fermentadas tranquilas y las bebidas fermentadas espumosas.

2. A efectos de este decreto foral normativo tendrán la consideración de vinos tranquilos, todos los productos clasificados en los códigos NC 2204 y 2205, con excepción de los vinos espumosos, que tengan:

a) Un grado alcohólico volumétrico adquirido superior al 1,2% vol. e inferior o igual al 15% vol., siempre que el alcohol contenido en el producto acabado proceda en su totalidad de fermentación, o

b) Un grado alcohólico volumétrico adquirido superior al 15% vol. e igual o inferior al 18% vol., siempre que se hayan obtenido sin ningún aumento artificial de su graduación y que el alcohol contenido en el producto acabado proceda en su totalidad de fermentación.

3. A efectos de este decreto foral normativo tendrán la consideración de vinos espumosos, todos los productos clasificados en los códigos NC 2204.10, 2204.21.06, 2204.21.07, 2204.21.08, 2204.21.09 y 2205, siempre que:

a) Estekailuz edo lokarriz lotutako barrengorri erako tapoidun botiletan ontziraturik badaude, edo disolbaturiko anhidrido karbonikoaren ondorioz 3 bar-eko edo gorako gainpresioa badute, eta

a) Estén envasados en botellas con tapones en forma de champiñón sujetos por ataduras o ligaduras, o que tengan una sobrepresión debida al anhídrido carbónico disuelto igual o superior a 3 bares, y

b) 100eko 1,2tik gorako eta 100eko 15era bitarteko alkohol gradu bolumetriko bereganatua badute, eta amaitutako produktuan dagoen alkohola bere osoan hartziduratik badator.

b) Tengan un grado alcohólico volumétrico adquirido superior al 1,2% vol., e inferior o igual a 15% vol., siempre que el alcohol contenido en el producto acabado proceda en su totalidad de fermentación.

4. Foru dekretu arauemaile honen ondorioetarako, edari hartzitu baretzat hartuko dira 2204 eta 2205 NCkodeetan sailkatutako produktu guztiak, aurreko 2. eta 3. apartatuetan jaso gabeak, bai eta 2206 NC kodean sailkatutako produktuak ere, edari hartzitu apardunak eta garagardoaren gaineko zergaren eremu objektiboan sartutako produktuak izan ezik, honako hau dutenean:

4. A efectos de este decreto foral normativo tendrán la consideración de bebidas fermentadas tranquilas todos los productos clasificados en los códigos NC 2204 y 2205 no comprendidos en los apartados 2 y 3 anteriores, así como los productos clasificados en el código NC 2206, a excepción de las bebidas fermentadas espumosas y de los productos incluidos en el ámbito objetivo del Impuesto sobre la Cerveza, que tengan:

a) 100eko 1,2tik gorako eta 100eko 5,5era bitarteko alkohol gradu bolumetriko bereganatua, edo

a) Un grado alcohólico volumétrico adquirido superior a 1,2% vol., e inferior o igual a 5,5% vol., o

b) 100eko 5,5etik gorako eta 100eko 15era bitarteko alkohol gradu bolumetriko bereganatua, baldin eta amaitutako produktuan dagoen alkohola bere osoan hartziduratik badator.

b) Un grado alcohólico volumétrico adquirido superior a 5,5% vol. e igual o inferior a 15% vol., siempre que el alcohol contenido en el producto proceda en su totalidad de fermentación.

5. Foru dekretu arauemaile honen ondorioetarako, edari hartzitu aparduntzat hartuko dira 2206.00.31 eta 2206.00.39 NC kodeetan sailkatuta dauden produktu guztiak, bai eta 2204.10, 2204.21.06, 2204.21.07, 2204.21.08, 2204.21.09 2204.29.10 eta 2205 NC kodeetan sartutakoak ere, aurreko 2. eta 3. apartatuetan jaso gabeak, baldin eta:

5. A efectos de este decreto foral normativo tendrán la consideración de bebidas fermentadas espumosas todos los productos incluidos en los códigos NC 2206.00.31 y 2206.00.39, así como los productos incluidos en los códigos NC 2204.10, 2204.21.06, 2204.21.07, 2204.21.08, 2204.21.09 2204.29.10 y 2205, que no estén comprendidos en los apartados 2 y 3 anteriores, siempre que:

a) Estekailuz edo lokarriz lotutako barrengorri erako tapoidun botiletan ontziraturik badaude, edo disolbaturiko

a) Estén envasados en botellas con tapones en forma de champiñón sujetos por ataduras o ligaduras, o que tengan una sobrepresión

anhidrido karbonikoaren ondorioz 3 bar-eko edo gorako gainpresioa badute, eta

a) 100eko 1,2tik gorako eta 100eko 8,5era bitarteko alkohol gradu bolumetriko bereganatua badute, edo

b) 100eko 8,5etik gorako eta 100eko 15era bitarteko alkohol gradu bolumetriko bereganatua badute, eta amaitutako produktuan dagoen alkohola bere osoan hartziduratik badator.

debida al anhídrido carbónico disuelto igual o superior a 3 bares, y

b) Tengan un grado alcohólico volumétrico adquirido superior a 1,2% vol., e inferior o igual a 8,5% vol., o

c) Tengan un grado alcohólico volumétrico adquirido superior a 8,5% vol., e inferior o igual a 15% vol., siempre que el alcohol contenido en el producto proceda en su totalidad de fermentación.

28. artikulua. Sortzapena.

Foru dekretu arauemaile honen 7. eta 11. artikuluetan ezarritakoa eragotzi gabe, ardoaren eta edari hartzituen gaineko zergaren sortzapena, tarteko produktuen fabriketan etendura araubidean jasotzen den eta foru dekretu arauemaile honen 32. artikuluan aipatutako produktuen fabrikazioan erabiltzen den ardoari dagokionez, tarteko produktuak fabrikatik irteten direnean gertatuko da, eta etendura araubideak ez du aurrera jarraituko produktu horiek barruko lurralde eremuan kokatuta dauden beste fabriketan edo gordailu fiskaletan sartzen direnean ere.

Artículo 28. Devengo.

No obstante lo establecido en los artículos 7 y 11 de este decreto foral normativo, el devengo del impuesto sobre el vino y bebidas fermentadas, con respecto al vino recibido en régimen suspensivo en las fábricas de productos intermedios y utilizado en la fabricación de los productos a que se refiere el artículo 32 de este decreto foral normativo, se producirá en el momento de la salida de fábrica de dichos productos intermedios, sin que el régimen suspensivo pueda continuarse mediante su introducción en otras fábricas o depósitos fiscales situados dentro del ámbito territorial interno.

29. artikulua. Zerga oinarria.

Zerga honen eremu objektiboaren barruan sartzen diren produktuen bolumena, 20ºC-ko tenperaturan neurtua eta produktu amaituko hektolitrotan adierazia, izango da oinarria.

Artículo 29. Base imponible.

La base estará constituida por el volumen de productos comprendidos dentro del ámbito objetivo de este impuesto, expresado en hectolitros de producto acabado a la temperatura de 20ºC.

30. artikulua. Zerga tasak.

Epigrafe hauei jarraituz exijituko da zerga:

1. epigrafea. Ardo bareak. 0 euro hektolitroko.

2. epigrafea. Ardo apardunak. 0 euro hektolitroko.

Artículo 30. Tipos impositivos.

El impuesto se exigirá conforme a los siguientes epígrafes:

Epígrafe 1. Vinos tranquilos. 0 euros por hectolitro.

Epígrafe 2. Vinos espumosos. 0 euros por hectolitro.

3. epigrafea. Edari hartzitu bareak. 0 euro hektolitroko.

4. epigrafea. Edari hartzitu apardunak. 0 euro hektolitroko.

Epígrafe 3. Bebidas fermentadas tranquilas. 0 euros por hectolitro.

Epígrafe 4. Bebidas fermentadas espumosas. 0 euros por hectolitro.

V. KAPITULUA

Tarteko produktuen gaineko zerga.

31. artikulua. Eremu objektiboa.

Foru dekretu arauemaile honen ondorioetarako, tarteko produktutzat hartuko dira % 1,2tik gorako eta % 22ra bitarteko alkohol gradu bolumetriko bereganatua duten eta 2204, 2205 eta 2206 kodeetan sailkatuta dauden produktu guztiak, betiere, ez badira sartzen garagardoaren gaineko zergaren eremu objektiboan edo alkoholaren eta edari hartzituen gaineko zergari dagokionean.

32. artikulua. Zergari ez lotzeko kasuak.

Foru dekretu arauemaile honen 6. artikuluan aurreikusitako kasuetan ez ezik, honako honetan ere ez da geratuko eragiketa bat tarteko produktuen gaineko zergari lotuta: horrelako produktuak Moriles-Montilla, Tarragona, Priorato eta Terra Alta jatorri deiturekin fabrikatzen direnean, baldin eta gehitzen den alkoholak ez badu % 1etik gora handitzen bereganatutako alkohol gradu bolumetrikoa, eta fabrikazio hori erregelamenduz ezarriko diren baldintzen barruan egiten bada.

33. artikulua. Zerga oinarria.

Zerga honen eremu objektiboaren barruan sartzen diren produktuen bolumena, 20ºC-ko tenperaturan neurtua eta produktu amaituko hektolitrotan adierazia, izango da oinarria.

CAPÍTULO V

Impuesto sobre productos intermedios

Artículo 31. Ámbito objetivo.

A efectos de este decreto foral normativo, tendrán la consideración de productos intermedios todos los productos con un grado alcohólico volumétrico adquirido superior a 1,2% vol., e inferior o igual a 22% vol., clasificados en los códigos NC 2204, 2205 y 2206, y que no estén comprendidos dentro del ámbito objetivo del impuesto sobre la cerveza, ni en el del impuesto sobre el vino y bebidas fermentadas.

Artículo 32. Supuestos de no sujeción.

Además de los supuestos determinados en el artículo 6 de este decreto foral normativo, no estará sujeta al impuesto sobre productos intermedios, la fabricación de estos productos con las denominaciones de origen Moriles-Montilla, Tarragona, Priorato y Terra Alta, cuando la adición de alcohol se efectúe en una cuantía tal que su grado alcohólico volumétrico adquirido no aumente en más del 1% vol., siempre que tal fabricación se realice con cumplimiento de las condiciones que se establezcan reglamentariamente.

Artículo 33. Base imponible.

La base estará constituida por el volumen de productos comprendidos dentro del ámbito objetivo de este impuesto, expresado en hectolitros de producto acabado a la temperatura de 20ºC.

34. artikulua. Zerga tasa.

Foru dekretu arauemaile honen 23. artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe, honako zerga tasak aplikatuko dira:

1. a) Bereganatutako alkohol gradu bolumetrikoa 100eko 15etik gorakoa ez duten tarteko produktuak: 38,48 euro hektolitroko.

2. Gainerako tarteko produktuak: 64,13 euro hektolitroko.

Artículo 34. Tipo impositivo.

Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 23 de este decreto foral normativo, el impuesto se exigirá a los siguientes tipos impositivos:

1. Productos intermedios con un grado alcohólico volumétrico adquirido no superior al 15 por 100 vol.: 38,48 euros por hectolitro.

2. Los demás productos intermedios: 64,13 euros por hectolitro.

35. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.

Zerga arloko arau-hauste hauek bereizten dira:

a) Tarteko produktuen fabrika bateko izakinetan edo bertan erabilitako produktuetan goranzko diferentziak agertzea ardoaren edo edari hartzituen alkohol gradu bolumetriko bereganatuari dagokionez.

Zehapena kuotaren 100eko 100eko diruzko isun proportzionala izango da, eta kuota hori kalkulatuko da hektolitro alkohol purutan adierazitako diferentziari alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergarako ezarrita dagoen zerga tasa aplikatuta.

b) Fabrikatzen ari diren tarteko produktuetan, fabrikako izakinetan edo irtendakoetan beherazko diferentziak agertzea alkohol gradu bolumetriko bereganatuari dagokionez.

Zehapena kuotaren 100eko 100eko diruzko isun proportzionala izango da, eta kuota hori kalkulatuko da hektolitro alkohol purutan adierazitako diferentziari alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergarako ezarrita dagoen zerga tasa aplikatuta.

c) Tarteko produktuen fabriketan erregelamenduz baimendutako portzentajeak gainditzen dituzten

Artículo 35. Infracciones y sanciones.

Constituyen infracciones tributarias:

a) La existencia de diferencias en más en relación con el grado alcohólico volumétrico adquirido del vino o las bebidas fermentadas en existencias en una fábrica de productos intermedios o utilizados en la misma.

La sanción consistirá en multa pecuniaria proporcional del 100 por 100 de la cuota que correspondería a la diferencia expresada en hectolitros de alcohol puro, aplicando el tipo impositivo establecido para el impuesto sobre el alcohol y bebidas derivadas.

b) La existencia de diferencias en menos en relación con el grado alcohólico volumétrico adquirido de los productos intermedios en proceso de fabricación, en existencias en fábrica o salidos de ella.

La sanción consistirá en multa pecuniaria proporcional del 100 por 100 de la cuota que correspondería a la diferencia expresada en hectolitros de alcohol puro, aplicando el tipo impositivo establecido para el impuesto sobre el alcohol y bebidas derivadas.

c) La existencia de diferencia en más en primeras materias, distintas del alcohol y las bebidas derivadas, en fábricas de productos

diferentziak agertzea ardoa eta edari deribatuak ez diren lehengaietan.

Zehapena diruzko isun proportzional bat izango da, hain zuzen ere, lehengaiek xede dituzten produktuei dagokien kuotaren 100eko 100ekoa, eta presuntzio egingo da ezen, kontrako frogarik ezean, lehengaiek xede zituzten tarteko produktuen alkohol gradu bolumetriko bereganatua 100eko 15etik gorakoa zela.

intermedios, que excedan de los porcentajes autorizados reglamentariamente.

La sanción consistirá en multa pecuniaria proporcional del 100 por 100 de la cuota que correspondería a los productos intermedios a cuya fabricación fuesen a destinarse las primeras materias, presumiéndose que, salvo prueba en contrario, los productos intermedios a que iban a destinarse tendrían un grado alcohólico volumétrico adquirido superior al 15 por 100 vol.

VI. KAPITULUA

Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga

36. artikulua. Eremu objektiboa.

Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergaren eremu objektiboan honako hauek sartzen dira:

a) % 1,2tik gorako alkohol gradu bolumetriko bereganatua duten produktu guztiak, 2207 eta 2208 NC kodeetan sailkatuta daudenak, baita produktu horiek nomenklatura konbinatuko 22a ez den kapitulu batean sailkatutako produktu baten parte direnean ere.

b) 2204, 2205 eta 2206 NC kodeetan sailkatutako produktuak, % 22tik gorako alkohol gradu bolumetriko bereganatua dutenean.

c) Produktu solidoak edo disoluzioan dauden beste landare produktu batzuk dituen alkohola.

37. artikulua. Sortzapena.

Foru dekretu arauemaile honen 7. eta 11. artikuluetan ezarritakoa eragotzi gabe, alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergaren sortzapena, tarteko produktuen fabriketan etendura araubidean jasotzen den eta foru dekretu arauemaile honen 32.

CAPÍTULO VI

Impuesto sobre el alcohol y bebidas derivadas

Artículo 36. Ámbito objetivo.

El ámbito objetivo del impuesto sobre el alcohol y bebidas derivadas estará integrado por:

a) Todos los productos con un grado alcohólico volumétrico adquirido superior a 1,2% vol., clasificados en los códigos NC 2207 y 2208, incluso cuando dichos productos formen parte de un producto clasificado en un capítulo de la nomenclatura combinada distinto del 22.

b) Los productos clasificados en los códigos NC 2204, 2205 y 2206 con un grado alcohólico volumétrico adquirido superior al 22% vol.

c) El alcohol que contenga productos sólidos u otros productos vegetales en solución.

Artículo 37. Devengo.

No obstante lo establecido en los artículos 7 y 11 de este decreto foral normativo, el devengo del impuesto sobre el alcohol y bebidas derivadas, con respecto al alcohol recibido en régimen suspensivo en las fábricas de productos intermedios y utilizado

artikuluan aipatutako produktuen fabrikazioan erabiltzen den ardoari dagokionez, tarteko produktuak fabrikatik irteten direnean gertatuko da, eta etendura araubideak ez du aurrera jarraituko produktu horiek barruko lurralde eremuan kokatuta dauden beste fabrika edo gordailu fiskal batzuetan sartzen direnean ere.

en la fabricación de los productos a que se refiere el artículo 32 de este decreto foral normativo, se producirá en el momento de la salida de fábrica de dichos productos intermedios, sin que el régimen suspensivo pueda continuarse mediante su introducción en otras fábricas o depósitos fiscales situados dentro del ámbito territorial interno.

38. artikulua. Zerga oinarria.

Zergaren xede diren produktuetan dagoen alkohol puruko bolumena, 20ºC-ko tenperaturan neurtua eta hektolitrotan adierazia, izango da zergaren oinarria.

Artículo 38. Base imponible.

La base estará constituida por el volumen del alcohol puro, a la temperatura de 20ºC, expresado en hectolitros, contenido en los productos objeto de impuesto.

39. artikulua. Zerga tasa.

Zerga tasa 958,94 eurokoa izango da hektolitro alkohol puru bakoitzeko, foru dekretu arauemaile honen 23., 40. eta 41. artikuluetan xedatutakoa eragotzi gabe.

Artículo 39. Tipo impositivo.

El impuesto se exigirá al tipo de 958,94 euros por hectolitro de alcohol puro, sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 23, 40 y 41 de este decreto foral normativo.

40. artikulua. Artisau destilazioaren araubidea.

1. Artisau destilazioaren araubidea alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergaren zergapetze sistema sinplifikatu bat da, erregelamenduz zehaztuko diren baldintzak betez gero artisau destilatzaileek aplika dezaketena. Foru dekretu arauemaile honen I. tituluko I., II. eta VI. kapituluetan jasotzen diren xedapenak aplikatzekoak izango dira araubide honetan, artikulu honetan ezarritakoari kontra egiten ez dioten bitartean.

2. Lortutako edarien tributazioa.

Artisau destilazioaren sisteman lortutako edariek tarifa hauek izango dituzte:

a) Artisau destilazioaren araubideko lehen tarifa.

Artículo 40. Régimen de destilación artesanal.

1. El régimen de destilación artesanal es un sistema simplificado de imposición por el impuesto sobre el alcohol y bebidas derivadas, al que pueden optar por acogerse, en las condiciones que reglamentariamente se determinen, los destiladores artesanales. Serán de aplicación a este régimen, en tanto no se opongan a lo establecido en este artículo, las disposiciones de los capítulos I, II y VI del título I de este decreto foral normativo.

2. Tributación de las bebidas obtenidas.

Las bebidas obtenidas en régimen de destilación artesanal estarán sometidas a las tarifas siguientes:

a) Tarifa primera del régimen de destilación artesanal.

1.a Zerga egitatea. Destilagailuak erabiltzeko gaitasuna dago tarifa honi lotuta.

1.º Hecho imponible. Está sujeta a esta tarifa la capacidad de utilización de los aparatos de destilación.

2.a Sortzapena. Zerga Administrazioari destilatzeko baimena eskatzen zaion unean gertatuko da zergaren sortzapena.

2.º Devengo. El impuesto se devengará en el momento en que se solicite ante la Administración tributaria la correspondiente autorización para destilar.

3.a Subjektu pasiboa. Artisau destilatzailea izango da subjektu pasiboa, zergadun gisa.

3.º Sujeto pasivo. Será sujeto pasivo, en calidad de contribuyente, el destilador artesanal.

4.a Zerga oinarria. Zerga oinarria, hektolitro alkohol purutan adierazia, eragiketa honen emaitza izango da: destilazio aparatuaren galdararen edukiera adierazten duen litro kopurua bider 0,016 koefizientea, bider destilatu behar den lehen gaiaren alkohol gradu bolumetriko bereganatua, bateko hainbestetan adierazia, bider destilatzeko baimena eskatzen den egun kopurua.

4.º Base imponible. La base imponible, expresada en hectolitros de alcohol puro, estará constituida por el resultado de multiplicar el número de litros que expresa la capacidad de la caldera del aparato de destilación por el coeficiente 0,016, por el grado alcohólico volumétrico adquirido de la primera materia que se va a destilar —expresado en tanto por uno— y por el número de días para los que se solicita la autorización para destilar.

5.a) Karga tasa. Zerga 839,15 euroko tasan exijituko da hektolitro alkohol puru bakoitzeko. Zerga Kanarietan exijitu behar denean, tasa hori 653,34 eurokoa izango da hektolitro alkohol puru bakoitzeko. Zenbaki honetan xedatutakoak ez du ezertan eragozten foru dekretu arauemaile honen 41. artikuluan ezarritakoa.

5.º Tipo de gravamen. El impuesto se exigirá al tipo de 839,15 euros por hectolitro de alcohol puro. Cuando el impuesto sea exigible en Canarias, el tipo será de 653,34 euros por hectolitro de alcohol puro. Lo dispuesto en este número se entiende sin perjuicio de lo establecido en el artículo 41 de este decreto foral normativo.

b) Artisau destilazioaren araubideko bigarren tarifa.

b) Tarifa segunda del régimen de destilación artesanal.

1.a Zerga egitatea. Tarifa honen pean egongo da destilatzaile batek, araubide honen babesean, zuzeneko destilazio intermitente bidez edari deribatuak fabrikatzea, fabrikatzen den kantitateak lehen tarifako zerga oinarria eratzen duena gainditzen duenean.

1.º Hecho imponible. Estará sujeta a esta tarifa la fabricación de bebidas derivadas por destilación directa intermitente, efectuada por un destilador artesanal al amparo de este régimen, en cantidad que exceda de la que constituye la base imponible de su tarifa primera.

2.a Sortzapena. Tarifa honen xede diren edari deribatuak fabrikatzen diren unean gertatuko da zergaren sortzapena.

2.º Devengo. El impuesto se devengará en el momento de la fabricación de las bebidas derivadas objeto de esta tarifa.

3.a Subjektu pasiboa. Artisau destilatzailea izango da subjektu pasiboa, zergadun gisa.

3.º Sujeto pasivo. Será sujeto pasivo, en calidad de contribuyente, el destilador artesanal.

4.a Zerga oinarria. Araubide honetako lehen tarifako zerga oinarria gainditzen duten alkohol puru hektolitroak izango dira zerga oinarria.

4.º Base imponible. Estará constituida por el número de hectolitros de alcohol puro que exceda de la base imponible de la tarifa primera de este régimen.

5.a) Karga tasa. Zerga 839,15 euroko tasan exijituko da hektolitro alkohol puru bakoitzeko. Zerga Kanarietan exijitu behar denean, tasa hori 653,34 eurokoa izango da hektolitro alkohol puru bakoitzeko. Zenbaki honetan xedatutakoak ez du ezertan eragozten foru dekretu arauemaile honen 41. artikuluan ezarritakoa.

5.º Tipo de gravamen. El impuesto se exigirá al tipo de 839,15 euros por hectolitro de alcohol puro. Cuando el impuesto sea exigible en Canarias, el tipo será de 653,34 euros por hectolitro de alcohol puro. Lo dispuesto en este número se entiende sin perjuicio de lo establecido en el artículo 41 de este decreto foral normativo.

3. Zergaren itzulketa.

3. Devolución del impuesto.

Foru dekretu arauemaile honen 15. artikuluko 5. apartatuan ezarritakoa eragotzi gabe, artisau destilatzaileek zilegi izango dute beraiek ekoizten dituzten edariak edari deribatuen beste fabrika batzuen esku uztea, baina, kasu horietan, eskubidea izango dute horiengatik ordaindutako kuoten itzulketa jasotzeko, erregelamenduz ezarritako baldintzak betetzen badira.

No obstante lo establecido en el apartado 5 del artículo 15 de este decreto foral normativo, los destiladores artesanales podrán destinar las bebidas por ellos producidas a otras fábricas de bebidas derivadas, teniendo derecho en estos supuestos a la devolución de las cuotas satisfechas correspondientes, siempre que se cumplan los requisitos establecidos reglamentariamente.

4. Destilatzaile txikiek beste estatu kide batzuetan fabrikatutako edari deribatuak sartzea.

4. Introducción de bebidas derivadas fabricadas en otros Estados miembros por pequeños destiladores.

Beste estatu kide batzuetako ekoizle independenteek, urtean 10 hektolitro alkohol puru baino gehiago ekoizten ez dutenek, egindako edari deribatuei 839,15 euroko tasa aplikatuko zaie hektolitro alkohol puru bakoitzeko. Zerga Kanarietan exijitu behar denean, tasa hori 653,34 eurokoa izango da hektolitro alkohol puru bakoitzeko.

El tipo aplicable en relación con las bebidas derivadas fabricadas por productores independientes situados en otros Estados miembros que obtienen una producción anual que no exceda de 10 hectolitros de alcohol puro, será de 839,15 euros por hectolitro de alcohol puro. Cuando el impuesto sea exigible en Canarias, el tipo será de 653,34 euros por hectolitro de alcohol puro.

5. Arau-hausteak eta zehapenak.

5. Infracciones y sanciones.

a) Destilazioan erabiltzen diren lehengaien alkohol graduazioa destilatzeko baimen

a) Constituirá infracción tributaria la utilización en el proceso de destilación de

eskaeran adierazitakoa baino handiagoa izatea izango da zerga arloko arau-haustea. Arau-hauste horrengatik zehapen gisa ezarriko den isuna foru dekretu arauemaile honen 35. artikuluko a) letran ezarritako prozedurari jarraituz zehaztuko da, eta gutxienez 1.202,02 eurokoa izango da.

primeras materias con una graduación alcohólica superior a la declarada en la solicitud de autorización para destilar. La multa que se impondrá como sanción por esta infracción se determinará por el procedimiento establecido en la letra a) del artículo 35 de este decreto foral normativo y tendrá una cuantía mínima de 1.202,02 euros.

b) Zerga arloko arau-hausteak errepikatzen badira edo foru dekretu arauemaile honen 45. artikuluko zehapen bereziekin zigortzen diren arau-hausteak behin eta berriz egiten badira, artisau destilazioaren araubideaz baliatzeko debekua ere ezarri ahal izango da, dela aldi baterako dela behin betiko..

b) La comisión repetida de infracciones tributarias o de aquellas infracciones que se penalizan con las sanciones especiales a que se refiere el artículo 45 de este decreto foral normativo, podrá sancionarse, además, con la prohibición de disfrutar del régimen de destilaciones artesanales, temporal o definitivamente.

41. artikulua. Ardogileen araubidea.

Artisau destilazioaren araubidean lortutako edari deribatuak zuzenean bideratzen badira fabrikatik ardogileen kontsumora, erregelamenduz ezarriko den moduan eta baldintzetan, 226,36 euroko zerga tasa aplikatuko da hektolitro alkohol puru bakoitzeko. Zerga Kanarietan exijitu behar denean, tasa hori 175,40 eurokoa izango da hektolitro alkohol puru bakoitzeko. Tasa horien aplikazioak 16 litro alkohol pururen baliokidea den edari kantitatea izango du muga ardogileko eta urte bakoitzeko.

Artículo 41. Régimen de cosechero.

Cuando las bebidas derivadas obtenidas en régimen de destilación artesanal se destinen directamente desde fábrica al consumo de los cosecheros, en la forma y con las condiciones que se establezcan reglamentariamente, el tipo impositivo aplicable será de 226,36 euros por hectolitro de alcohol puro. Cuando el impuesto sea exigible en Canarias, el tipo aplicable será de 175,40 euros por hectolitro de alcohol puro. La aplicación de estos tipos se limitará a la cantidad de bebida equivalente a 16 litros de alcohol puro por cosechero y año.

42. artikulua. Salbuespenak.

Foru dekretu arauemaile honen 9. eta 21. artikuluetan aipatzen diren eragiketez gain, honako hauek ere egongo dira salbuetsita, erregelamenduz ezarriko diren baldintzetan:

Artículo 42. Exenciones.

Estarán exentas, en las condiciones que reglamentariamente se establezcan, además de las operaciones a que se refieren los artículos 9 y 21 de este decreto foral normativo, las siguientes:

1. Erabat desnaturalizatua izateko bideratuko den alkohola fabrikatzea eta inportatzea, bai eta erabat desnaturalizatutako alkohola inportatzea ere, erregelamenduz ezarriko den prozedurari jarraituz, edo, batasunaren barruko zirkulazio kasuetan, Europar

1. La fabricación e importación de alcohol que se destine a ser totalmente desnaturalizado, así como la importación de alcohol totalmente desnaturalizado, de acuerdo con el procedimiento que se establezca reglamentariamente o, en los supuestos de circulación intracomunitaria,

Batasuneko beste estatu bateko xedapenekin bat.

de acuerdo con las disposiciones de otro Estado miembro de la Unión Europea.

2. Partzialki desnaturalizatzeko bideratuko den alkohola fabrikatzea eta inportatzea, bai eta partzialki desnaturalizatutako alkohola inportatzea ere, erregelamenduz ezarriko den prozedurari jarraituz, gizakiak ingestioz kontsumitzea ez den beste helburu baimendu baterako erabiltzekoa denean.

2. La fabricación e importación de alcohol que se destine a ser parcialmente desnaturalizado, así como la importación de alcohol parcialmente desnaturalizado, mediante el procedimiento que se establezca reglamentariamente, para ser posteriormente utilizado en un fin previamente autorizado distinto del consumo humano por ingestión.

3. Aurreko apartatuetan aurreikusitako kasuetan, salbuespena aplikatzeko behar-beharrezkoa izango zirkulazio arloan ezarrita dauden betekizunak betetzea eta desnaturalizatutako alkoholari emandako erabilera edo xedea justifikatzea.

3. En los supuestos contemplados en los apartados anteriores, el beneficio de la exención quedará condicionado al cumplimiento de las obligaciones en materia de circulación y a la justificación del uso o destino dado al alcohol desnaturalizado.

4. Medikamentuen fabrikazioan erabiltzen den alkohola fabrikatu eta inportatzea, bi zuzentarau hauetan aipatzen diren medikamentuak direnean: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001eko azaroaren 6ko 2001/82/EE Zuzentaraua, animalientzako botiken batasuneko kodea ezartzen duena, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001eko azaroaren 6ko 2001/83/EE Zuzentaraua, gizakientzako botiken batasuneko kodea ezartzen duena.

4. La fabricación e importación de alcohol que se destine a la fabricación de medicamentos a que se refieren la Directiva 2001/82/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 6 de noviembre de 2001, por la que se establece un código comunitario sobre medicamentos veterinarios y la Directiva 2001/83/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 6 de noviembre de 2001, por la que se establece un código comunitario sobre medicamentos para uso humano.

5. Osasun zentroetan erabiltzekoa den alkohola fabrikatzea eta inportatzea.

5. La fabricación e importación de alcohol que se destine a su utilización en centros de atención médica.

6. Nomenklatura konbinatuko 22. kapitulutik kanpo sailkatuta dauden produktuak inportatzea, horietan zergaren xede diren produktuak daudenean, baldin eta barruko lurralde eremuan horiek fabrikatzeari foru dekretu arauemaile honetan ezarritako salbuespen edo itzulketa kasuren bat aplikagarri bazaio.

6. La importación de productos clasificados en un capítulo de la nomenclatura combinada distinto del 22 que contengan productos objeto del impuesto, cuando a su fabricación dentro del ámbito territorial interno le sea aplicable alguno de los supuestos de exención o de devolución establecidos en este decreto foral normativo.

7. Alkohola ofizialki aitortutako zentroetan fabrikatzea, irakaskuntza edo zientzia helburuetarako soil-soilik, betiere haietatik ateratzen ez bada.

7. La fabricación de alcohol en centros oficialmente reconocidos, con fines exclusivamente docentes o científicos, siempre que no salga de los mismos.

8. Behar den baimena lortu ondoren ikerketa zientifikora bideratzen den alkohola fabrikatu eta inportatzea.

8. La fabricación e importación de alcohol que se destine, previa la correspondiente autorización, a la investigación científica.

43. artikulua. Itzulketak.

Foru dekretu arauemaile honen 10. eta 22. artikuluetan aurreikusitako kasuetan ez ezik, zergaren itzulketarako eskubidea aitortuko da, halaber, erregelamenduz ezarriko diren baldintzetan, alkohol desnaturalizatua erabili ezin den fabrikazio prozesuetan alkohola erabiltzen denean, baldin eta alkohola prozesutik ateratzen den produktuari gehitzen ez bazaio.

Artículo 43. Devoluciones.

Además de en los supuestos previstos en los artículos 10 y 22 de este decreto foral normativo, se reconocerá el derecho a la devolución del impuesto, en las condiciones que reglamentariamente se determinen, en los supuestos de utilización de alcohol en procesos de fabricación en los que no sea posible la utilización de alcohol desnaturalizado y siempre que el alcohol no se incorpore al producto resultante del proceso.

44. artikulua. Kudeaketako arau bereziak.

1. Debekatu egiten da gailu eramangarriak erabiltzea alkohola fabrikatzeko.

2. Artikulu debekatuak izango dira, Kontrabandoaren errepresioari buruzko abenduaren 12ko 12/1995 Lege Organikoaren 1. artikuluko 7. apartatuan aurreikusitakoaren ondorioetarako, alkohola destilatu edo zuzentzeko balio duten aparatuak, horiek fabrikatu, merkaturatu, zirkulatu eta edukitzeko erregelamenduz ezarritako baldintzak betetzen ez direnean.

3. Foru dekretu arauemaile honen 15. artikuluko 7. apartatuan ezarritakoa eragotzi gabe, espezialitate farmazeutikoetan eta nomenklatura konbinatuko 22a ez diren kapituluetan sailkatutako produktuetan erabat edo partzialki desnaturalizatutako alkohola badute edo horiei alkohola gehitu bazaie eta, horregatik, foru dekretu arauemaile honen 22. eta 42. artikuluetan aurreikusitako salbuespen edo itzulketa kasuren bat aplikatu bada, espezialitate eta produktu horien zirkulazioak eta edukitzak ez du inolako baldintza formalik bete beharko zergari dagokionez.

Artículo 44. Normas particulares de gestión.

1. Queda prohibido el uso de aparatos portátiles para la fabricación de alcohol.

2. Tendrán la consideración de artículos prohibidos, a efectos de lo previsto en el apartado 7 del artículo 1 de la Ley Orgánica 12/1995, de 12 de diciembre, de represión del contrabando, los aparatos aptos para la destilación o rectificación de alcohol, cuando no se cumplan los requisitos establecidos reglamentariamente para su fabricación, comercio, circulación y tenencia.

3. No obstante lo establecido en el apartado 7 del artículo 15 de este decreto foral normativo, la circulación y tenencia de especialidades farmacéuticas y de productos clasificados en un capítulo de la nomenclatura combinada distinto del 22, que contengan alcohol total o parcialmente desnaturalizado o alcohol que les haya sido incorporado con aplicación de alguno de los supuestos de exención o devolución previstos en los artículos 22 y 42 de este decreto foral normativo, no estarán sometidas al cumplimiento de requisito formal alguno en relación con el impuesto.

45. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.

1. Ondoren adierazten diren kasuak zerga arloko arau-haustetzat hartuko dira, eta, horrelakoetan, bakoitzerako zehazten diren zehapen berezi hauek ezarriko dira:

a) Alkohola produzitzeko aparatuak abian jartzea erregelamenduz ezarritako izapideak bete gabe edo aitortutako lan denbora gaindituta. Arau-hauste honengatik ezarriko den zehapena produkzio bolumenari arau-haustea antzeman den unean indarrean dagoen zerga tasa aplikatuta aterako litzatekeen kuotaren 100eko 150eko diruzko isun proportzionala izango da. Ekoizpen bolumen hori, zeina hektolitro alkohol purutan adieraziko baita 20ºC-ko tenperaturan, azken lan aitorpenetik, halakorik bada, arau-haustea gertatu arte etengabe lan eginez, eta hiru hilabetetan gehienez, lortu litekeena izango da.

b) Zigiluak apurtzea alkohola produzitzen duten aparatuak funtzionamenduan jartzeko edo deposituen zigilua apurtzea alkohola hortik ateratzeko. Arau-hauste honengatik ezarriko den zehapena aurreko apartatuaren arabera kalkulatutako kuoten edo deposituaren edukiera osoari dagokionaren 100eko 100eko diruzko isun proportzionala izango da, salbu eta Administrazioari apurketa horren berri eman bazaio hura antzeman baino lehen.

c) Alkohol fabriketako lehengaietan goranzko diferentziak agertzea eta horiek erregelamenduz baimendutako portzentajeak gainditzea. Horrelakoetan, lehengai horiek erabiliz fabrikatu litekeen alkohol puruari legokiokeen kuotaren 100eko 100eko diruzko isun proportzionala ezarriko da.

Artículo 45. Infracciones y sanciones.

1. En los supuestos que a continuación se indican, que tendrán el carácter de infracciones tributarias, se impondrán las sanciones especiales que para cada uno se detallan:

a) La puesta en funcionamiento de los aparatos productores de alcohol incumpliendo los trámites reglamentariamente establecidos o expirado el plazo de trabajo declarado, se sancionará con multa pecuniaria proporcional del 150 por 100 de la cuota que resultaría de aplicar el tipo impositivo vigente en el momento del descubrimiento de la infracción al volumen de producción, expresado en hectolitros de alcohol puro a la temperatura de 20 °C, que pudiera obtenerse en trabajo ininterrumpido desde que expiró la última declaración de trabajo, si la hubiera, hasta la fecha del descubrimiento, con un máximo de tres meses.

b) La rotura de precintos que posibilite el funcionamiento de los aparatos productores de alcohol o su extracción de depósitos precintados, se sancionará con multa pecuniaria proporcional del 100 por 100 de las cuotas calculadas según el apartado anterior o de la correspondiente a la capacidad total del depósito, respectivamente, salvo que de dicha rotura se haya dado conocimiento a la Administración con anterioridad a su descubrimiento por ésta.

c) Las diferencias en más en primeras materias en fábricas de alcohol que excedan de los porcentajes autorizados reglamentariamente, se sancionarán con multa pecuniaria proporcional del 100 por 100 de la cuota que correspondería al alcohol puro que se pudiera fabricar utilizando dichas primeras materias.

d) Edari deribatuak botilaratzeko baimena duten establezimenduetan egindako zenbaketetan, botilen 1.000ko 0,5 baino gehiagotan marka edo ezaugarri fiskalik ez agertzea. Horrelakoetan, zehapen hau ezarriko da: marka horiekin merkaturatuko ziren edarien alkohol puruko bolumenari arau-haustea antzeman denean indarrean dagoen zerga tasa aplikatuta aterako liratekeen kuoten 100eko 150eko diruzko isun proportzionala. Kalkuluak egiteko, presuntzio egingo da edarien alkohol gradu bolumetrikoa 100eko 40 dela eta edariak edukiera handieneko ontzietan botilaratzen direla, marka motaren arabera.

d) La falta de marcas fiscales o de reconocimiento, superior al 0,5 por 1.000 de las utilizadas, en los recuentos efectuados en los establecimientos autorizados para el embotellado de bebidas derivadas, se sancionará con multa pecuniaria proporcional del 150 por 100 de las cuotas que resultarían de aplicar el tipo impositivo vigente en el momento del descubrimiento de la infracción al volumen de alcohol puro correspondiente a la cantidad de bebidas derivadas cuya circulación pudiese haber sido amparada por dichas marcas, supuestas las bebidas con un grado alcohólico volumétrico adquirido de 40 por 100 vol. y embotelladas en los envases de mayor capacidad según tipo de marca.

2. Erabat edo partzialki desnaturalizatutako alkoholak lehengoratzea zerga arloko arau-haustea izango da, eta, horrelakoetan, honako isuna ezarriko da, zerga kuota exijitzea hargatik eragotzi gabe: lehengoratutako alkohol bolumenari (hektolitro alkohol purutan adierazia, 20 ° C-ko tenperaturan) arau-haustea antzeman den unean indarrean zegoen zerga tasa aplikatuta ateratzen den zenbatekoaren hiru halako diruzko isun proportzionala. Horrez gain, lehengoratze hori egin den establezimendua ixteko zehapena ere ezarri ahal izango da, foru dekretu arauemaile honen 19. artikuluko 4. apartatuan aurreikusitakoaren arabera. Erabat edo partzialki desnaturalizatutako alkohola lehengoratu egin dela joko da zertarako edo nola erabili den justifikatzen ez denean.

2. La regeneración de alcoholes total o parcialmente desnaturalizados constituirá infracción tributaria que se sancionará, sin perjuicio de la exigencia de la cuota tributaria, con multa pecuniaria proporcional del triple de la cuantía resultante de aplicar al volumen de alcohol regenerado, expresado en hectolitros de alcohol puro, a la temperatura de 20 °C, el tipo impositivo vigente en el momento del descubrimiento de la infracción, pudiendo imponerse, además, la sanción del cierre del establecimiento en que se produjo dicha regeneración, de acuerdo con lo previsto en el apartado 4 del artículo 19 de este decreto foral normativo. Se considerará que el alcohol total o parcialmente desnaturalizado ha sido regenerado cuando no se justifique su uso o destino.

VII. KAPITULUA

CAPÍTULO VII

Hidrokarburoen gaineko zerga

Impuesto sobre hidrocarburos

46. artikulua. Eremu objektiboa.

Artículo 46. Ámbito objetivo.

1. Foru dekretu arauemaile honen ondorioetarako, hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboan produktu hauek sartzen dira:

1. A los efectos de este decreto foral normativo, se incluyen en el ámbito objetivo del impuesto sobre hidrocarburos los siguientes productos:

a) 2705, 2706, 2707, 2709, 2710, 2711, 2712 eta 2715 NC kodeetan sailkatutako produktuak.

b) 2901 eta 2902 NC kodeetan sailkatutako produktuak.

c) 3403 NC kodean sailkatutako produktuak.

d) 3811 NC kodean sailkatutako produktuak.

e) 3817 NC kodean sailkatutako produktuak.

f) Nekazaritzako eta landare jatorriko produktuetatik abiatuta ekoizten den alkohol etilikoa, 2207.20.00 NC kodean sailkatua, karburante gisa erabiltzen denean, dela bere horretan dela kimikoki aldatu edo eraldatuta.

g) Ondoren aipatzen diren produktuak, erregai edo karburante gisa erabiltzen direnean:

1.a 2905.11.00 NC kodean sailkatutako alkohol metilikoa, nekazaritzako edo landare jatorriko produktuetatik abiatuta lortutakoa, bere horretan nahiz kimikoki aldatuta edo eraldatuta erabiltzen bada.

2.a 1507tik 1518ra bitarteko NC kodeetan sailkatutako produktuak, bere horretan erabili edo kimikoki aldatuta edo eraldatuta erabili, bai eta 2710.20, 3826.00.10 eta 3826.00.90 NC kodeetan sailkatutakoak ere, beste horietatik abiatuta lortzen direnean.

2. Zergaren eremu objektiboaren barruan sartuko dira, halaber, aurreko apartatuan aipatuta ez egonik ere, karburante gisa, karburanteetarako gehigarri gisa edo karburante jakin batzuen amaierako bolumenaren handigarri gisa erabiltzeko diren produktuak.

3. Era berean, zergaren eremu objektiboaren barruan sartuko dira 1. apartatuan jaso ez

a) Los productos clasificados en los códigos NC 2705, 2706, 2707, 2709, 2710, 2711, 2712 y 2715.

b) Los productos clasificados en los códigos NC 2901 y 2902.

c) Los productos clasificados en el código NC 3403.

d) Los productos clasificados en el código NC 3811.

e) Los productos clasificados en el código NC 3817.

f) El alcohol etílico producido a partir de productos agrícolas o de origen vegetal clasificado en el código NC 2207.20.00, cuando se destine a un uso como carburante, como tal o previa modificación o transformación química.

g) Los productos que se indican a continuación cuando se destinen a un uso como combustible o como carburante:

1.º El alcohol metílico clasificado en el código NC 2905.11.00 y obtenido a partir de productos de origen agrícola o vegetal, ya se utilice como tal o previa modificación o transformación química.

2.º Los productos clasificados en los códigos NC 1507 a 1518, ya se utilicen como tales o previa modificación o transformación química, incluidos los productos clasificados en los códigos NC 2710.20, 3826.00.10 y 3826.00.90 obtenidos a partir de aquellos.

2. Estarán también incluidos en el ámbito objetivo del impuesto los productos no comprendidos en el apartado anterior destinados a ser utilizados como carburante, como aditivos para carburantes o para aumentar el volumen final de determinados carburantes.

3. Se comprenderán, igualmente, en el ámbito objetivo del impuesto aquellos

diren hidrokarburoak, salbu eta ikatza, lignitoa, zohikatza edo bestelako hidrokarburo solidoak, erregai gisa erabiltzeko direnean.

hidrocarburos no previstos en el apartado 1, a excepción del carbón, el lignito, la turba u otros hidrocarburos sólidos, destinados a ser utilizados como combustibles.

47. artikulua. Zergari ez lotzeko kasuak.

Artículo 47. Supuestos de no sujeción.

1. Autokontsumo eragiketak ez dira zergapeturik egongo honako hau gertatzea dakartenean:

1. No estarán sujetas al impuesto las operaciones de autoconsumo que impliquen:

a) Etendura araubidean dauden hidrokarburoak erregai edo karburantea ez den xedeetarako erabiltzea.

a) La utilización de hidrocarburos que se encuentren en régimen suspensivo, en usos distintos de los de carburante o combustible.

b) Hidrokarburoak erregai gisa erabiltzea hidrokarburoak etendura araubidean fabrikatzeko prozesuan.

b) La utilización de hidrocarburos como combustible en el proceso de fabricación, en régimen suspensivo, de hidrocarburos.

2. Batasunaren gainerako lurralde eremuan kontsumora jarrita dauden hidrokarburoak, ibilgailu automobil komertzialen depositu arruntetan bildu eta ibilgailu horien karburante gisa erabiltzeko direnak, eta edukiontzi berezietan bildu diren eta, garraioaldian zehar, edukiontzi horiek ekipatzen dituzten sistemen funtzionamendurako direnak, ez dira hidrokarburoen gaineko zergaren mende egongo barruko lurralde eremuan.

2. Los hidrocarburos ya puestos a consumo en el ámbito territorial comunitario no interno contenidos en los depósitos normales de vehículos automóviles comerciales y destinados a ser utilizados como carburantes de dichos vehículos, así como los contenidos en contenedores especiales y destinados al funcionamiento de los sistemas que equipan dichos contenedores en el curso del transporte, no estarán sometidos al impuesto sobre hidrocarburos en el ámbito territorial interno.

Prezeptu honetan eta foru dekretu arauemaile honen 51. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan jasotakoaren ondorioetarako, honako hauek bereizten dira:

A efectos de este precepto y de los apartados 5 y 6 del artículo 51 de este decreto foral normativo, se considerarán:

a) “Depositu arruntak”:

a) “Depósitos normales”:

- Aintzat hartutakoa bezalako garraiobideetan fabrikatzaileak modu iraunkorrean eratutako deposituak, zeinen kokapen iraunkorrak posible egiten baitu erregaia zuzenean erabiltzea bai ibilgailuen trakziorako, bai, egonez gero, hozte sistemek edo beste sistema batzuek garraio aldian zehar funtzionatzeko. Era berean, depositu arruntzat hartuko dira garraiobideetara egokitutako gas

- Los depósitos fijados de manera permanente por el constructor en todos los medios de transporte del mismo tipo que el medio de transporte considerado y cuya disposición permanente permita el uso directo del carburante, tanto para la tracción de los vehículos como, en su caso, para el funcionamiento, durante el transporte, de los sistemas de refrigeración u otros sistemas. Se consideran igualmente como depósitos

deposituak, gasa karburante gisa zuzenean erabiltzeko aukera ematen dutenean, bai eta garraiobideak izan ditzakeen beste sistema batzuetara egokitutako deposituak ere.

normales los depósitos de gas adaptados a medios de transporte que permitan la utilización directa del gas como carburante, así como los depósitos adaptados a otros sistemas de los que pueda estar equipado el medio de transporte.

- Aintzat hartutakoa bezalako edukiontzietan fabrikatzaileak modu iraunkorrean eratutako deposituak, haien kokapen iraunkorrak ahalbidetzen duenean karburantea zuzenean erabiltzea erabilera berezietarako edukiontziek dituzten hozte edo bestelako sistemek garraio aldian zehar funtziona dezaten.

- Los depósitos fijados de manera permanente por el constructor en todos los contenedores del mismo tipo que el contenedor de que se trate y cuya disposición permanente permita el uso directo del carburante para el funcionamiento, durante el transporte, de los sistemas de refrigeración u otros sistemas de los que estén equipados los contenedores para usos especiales.

b) “Edukiontzi bereziak”: hozkuntza, oxigenazio, isolamendu termiko edo antzeko sistemetara bereziki egokitutako gailuak dituzten edukiontziak.

b) “Contenedores especiales”: los contenedores equipados de dispositivos especialmente adaptados para los sistemas de refrigeración, oxigenación, aislamiento térmico u otros sistemas.

48. artikulua. Zerga oinarria.

1. Zergaren xede diren produktuen bolumena, 15ºC-ko tenperaturan neurtua eta mila litrokotan adierazia, izango da zerga oinarria. Hala ere, zerga tasa pisu edo energia unitateak erreferentzia hartuta zehazten diren produktuen kasuetan, hauetako bat izango da oinarria: produktuaren pisua, tonatan adierazia, edo energia ahalmena, gigajuliotan (GJ) adierazia.

2. Bolumena tenperaturaren arabera zehazteko, Nomenklaturaren Nazioarteko Erakundearen taulak erabiliko dira, ISO 91/1-1982 erreferentziarekin.

Artículo 48. Base imponible.

1. La base del impuesto estará constituida por el volumen de productos objeto del impuesto, expresados en miles de litros a la temperatura de 15 ºC. Sin embargo, para aquellos productos cuyo tipo impositivo se establece por referencia a unidades de peso o de energía, la base estará constituida por el peso del producto expresado en toneladas métricas, o por su poder energético expresado en gigajulios (GJ).

2. La determinación del volumen en función de la temperatura se efectuará mediante las tablas de la Organización Internacional de Nomenclatura con la referencia ISO 91/1-1982.

49. artikulua. Kontzeptuak eta definizioak.

1. Zerga honen ondorioetarako, definizio hauek ezartzen dira:

Artículo 49. Conceptos y definiciones.

1. A los efectos de este impuesto, se establecen las siguientes definiciones:

a) Gasolina berunduna: 2710.12.31, 2710.12.51 eta 2710.12.59 NC kodeetan sailkatutako produktuak, erabilera zeinahi dutela ere.

b) Berunik gabeko gasolina: 2710.12.41, 2710.12.45 eta 2710.12.49 NC kodeetan sailkatutako produktuak, erabilera zeinahi dutela ere.

c) Gainerako olio arinak: 2710.12.11tik 2710.12.90ra bitarteko NC kodeetan sailkatutako produktuak, gasolina berunduna edo berunik gabekoa ez badira. 2710.12.21 eta 2710.12.25 NC kodeetan sailkatutako produktuak direnean, horiek apartatu honetan sartzeagatik ondorioztatzen diren xedapenak handizkako merkataritza mugimenduei bakarrik aplikatuko zaizkie.

d) Kerosenoa: 2710.19.21 eta 2710.19.25 NC kodeetan sailkatutako produktuak.

e) Gainerako olio ertainak: 2710.19.11tik 2710.19.29ra bitarteko NC kodeetan sailkatutako produktuak, kerosenoa ez direnak. 2710.19.29 NC kodean sailkatutako produktuak direnean, horiek apartatu honetan sartzeagatik ondorioztatzen diren xedapenak handizkako merkataritza mugimenduei bakarrik aplikatuko zaizkie.

f) Gasolioa: 2710.19.31tik 2710.19.48ra eta 2710.20.11tik 2710.20.19ra bitarteko NC kodeetan sailkatutako produktuak.

g) Fuel-olioa: 2710.19.51tik 2710.19.68ra eta 2710.20.31tik 2710.20.39ra bitarteko NC kodeetan sailkatutako produktuak.

h) Petrolio gas likidotua (PGL): 2711.12.11tik 2711.19.00ra bitarteko NC kodeetan sailkatutako produktuak.

i) Gas naturala: 2711.11.00 eta 2711.21.00 NC kodeetan sailkatutako produktuak.

a) Gasolina con plomo: los productos clasificados, con independencia de su destino, en los códigos NC 2710.12.31, 2710.12.51 y 2710.12.59.

b) Gasolina sin plomo: los productos clasificados, con independencia de su destino, en los códigos NC 2710.12.41, 2710.12.45 y 2710.12.49.

c) Los demás aceites ligeros: los productos clasificados en los códigos NC 2710.12.11 a 2710.12.90 que no sean gasolina con plomo o gasolina sin plomo. Cuando se trate de productos clasificados en los códigos NC 2710.12.21 y 2710.12.25, las disposiciones que se derivan de su inclusión en este apartado sólo serán aplicables a los movimientos comerciales al por mayor.

d) Queroseno: los productos clasificados en los códigos NC 2710.19.21 y 2710.19.25.

e) Los demás aceites medios: los productos clasificados en los códigos NC 2710.19.11 a 2710.19.29 que no sean queroseno. Cuando se trate de productos clasificados en el código NC 2710.19.29, las disposiciones que se derivan de su inclusión en este apartado sólo serán aplicables a los movimientos comerciales al por mayor.

f) Gasóleo: los productos clasificados en los códigos NC 2710.19.31 a 2710.19.48 y 2710.20.11 a 2710.20.19.

g) Fuelóleo: los productos clasificados en los códigos NC 2710.19.51 a 2710.19.68 y 2710.20.31 a 2710.20.39.

h) Gas licuado de petróleo (GLP): los productos clasificados en los códigos NC 2711.12.11 a 2711.19.00.

i) Gas natural: los productos clasificados en los códigos NC 2711.11.00 y 2711.21.00.

j) Bioetanola: 46.1 artikuluko f) letran aipatzen diren produktuak.

k) Biometanola: 46.1.g) artikuluko 1. ordinalean aipatzen diren produktuak.

l) Biodiesela: 46.1.g) artikuluko 2. ordinalean aipatzen diren produktuak.

m) Biokarburanteak: biometanola eta biodiesela, karburante gisa erabiltzen direnean, eta bioetanola.

n) Bioerregaiak: biometanola eta biodiesela, erregai gisa erabiltzen direnean.

ñ) Kontrolpean dauden beste hidrokarburo batzuk: 2707.10, 2707.20, 2707.30, 2707.50, 2901.10, 2902.20, 2902.30, 2902.41, 2902.42, 2902.43 eta 2902.44 NC kodeetan sailkatutako produktuak.

o) Artikulu honen barruan definitutzat hartuko dira Kontseiluaren 2003ko urriaren 27ko 2003/96/EE Zuzentarauak, energia eta elektrizitate produktuak Erkidegoan zergapetzeko araubidea berregituratzen duenak, 20.2 artikuluan jasotakoagatik 2008/118/EE Zuzentarauaren kontrol eta zirkulazio xedapenak aplikagarri dituzten produktu guztiak (Kontseiluaren 2008ko abenduaren 16ko 2008/118/EE Zuzentaraua, zerga berezien araubide orokorra ezarri eta 92/12/EE Zuzentaraua indargabetzen duena).

2. Zerga honen ondorioetarako, honako hau ulertuko da:

a) Karburante gisa erabiltzea: hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboko produktu bat errekuntzarako erabiltzea edozein motatako motorretan.

b) Erregai gisa erabiltzea: hidrokarburo bat berokuntzarako erabiltzea errekuntza bidez, karburante erabilera izan gabe.

j) Bioetanol: los productos a que se refiere la letra f) del artículo 46.1.

k) Biometanol: los productos a que se refiere el ordinal 1.º del artículo 46.1.g).

l) Biodiesel: los productos a que se refiere el ordinal 2.º del artículo 46.1.g).

m) Biocarburantes: el biometanol y el biodiesel, cuando se utilicen como carburantes, y el bioetanol.

n) Biocombustibles: el biometanol y el biodiesel cuando se utilicen como combustibles.

ñ) Otros hidrocarburos sometidos a control: los productos clasificados en los códigos NC 2707.10, 2707.20, 2707.30, 2707.50, 2901.10, 2902.20, 2902.30, 2902.41, 2902.42, 2902.43 y 2902.44.

o) Se considerará definido en este artículo cualquier otro producto al que, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 20.2 de la Directiva 2003/96/CE del Consejo, de 27 de octubre de 2003, por la que se reestructura el régimen comunitario de imposición de los productos energéticos y de la electricidad, resulten de aplicación las disposiciones de control y circulación previstas en la Directiva 2008/118/CE, del Consejo, de 16 de diciembre de 2008, relativa al régimen general de los impuestos especiales, y por la que se deroga la Directiva 92/12/CEE.

2. A efectos de este impuesto se considerará:

a) Uso como carburante: la utilización de un producto comprendido en el ámbito objetivo del impuesto sobre hidrocarburos con fines de combustión en cualquier tipo de motor.

b) Uso como combustible: la utilización de un hidrocarburo mediante combustión con fines de calefacción, que no constituya uso como carburante.

50. artikulua. Zerga tasak.

1. Karga tasa aplikagarria tasa orokorraren eta tasa bereziaren baturatik aterako da. Epigrafeetan tasa orokorra eta tasa berezia zehazten ez badira, karga tasa epigrafean zehazten dena izango da. Tasa horiek hurrengo tarifa eta epigrafeetan agertzen direnak dira:

— 1. tarifa:

1.1 epigrafea. Gasolina berundunak: 433,79 euro 1.000 litroko (tasa orokorra) eta 72 euro 1.000 litroko (tasa berezia).

1.2.1 epigrafea. 98 O.I. (oktanaje indizea) edo handiagoa duten berunik gabeko gasolinak: 431,92 euro 1.000 litroko (tasa orokorra) eta 72 euro 1.000 litroko (tasa berezia).

1.2.2 epigrafea. Berunik gabeko gainerako gasolinak: 400,69 euro 1.000 litroko (tasa orokorra) eta 72 euro 1.000 litroko (tasa berezia).

1.3 epigrafea. Erabilera orokorreko gasolioak: 307 euro 1.000 litroko (tasa orokorra) eta 72 euro 1.000 litroko (tasa berezia).

1.4 epigrafea. Foru dekretu arauemaile honen 54. artikuluko 2. apartatuan aurreikusitako erabileretan karburante gisa erabiltzekoak diren gasolioak eta, oro har, erregai gisa erabiltzekoak direnak: 78,71 euro 1.000 litroko (tasa orokorra) eta 18 euro 1.000 litroko (tasa berezia).

1.5 epigrafea. Fuel-olioak: 14 euro tonako (tasa orokorra) eta 3 euro tonako (tasa berezia).

1.6 epigrafea. Erabilera orokorreko PGLak: 57,47 euro tonako.

Artículo 50. Tipos impositivos.

1. El tipo de gravamen aplicable se formará mediante la suma del tipo general y del tipo especial. Para los epígrafes en los que no se determinen un tipo general y un tipo especial, el tipo de gravamen será el establecido en el epígrafe. Dichos tipos son los que se indican en las tarifas y epígrafes que figuran a continuación:

— Tarifa 1.ª:

Epígrafe 1.1 Gasolinas con plomo: 433,79 euros por 1.000 litros de tipo general y 72 euros por 1.000 litros de tipo especial.

Epígrafe 1.2.1 Gasolinas sin plomo de 98 I.O. o de octanaje superior: 431,92 euros por 1.000 litros de tipo general y 72 euros por 1.000 litros de tipo especial.

Epígrafe 1.2.2 Las demás gasolinas sin plomo: 400,69 euros por 1.000 litros de tipo general y 72 euros por 1.000 litros de tipo especial.

Epígrafe 1.3 Gasóleos para uso general: 307 euros por 1.000 litros de tipo general y 72 euros por 1.000 litros de tipo especial.

Epígrafe 1.4 Gasóleos utilizables como carburante en los usos previstos en el apartado 2 del artículo 54 de este decreto foral normativo y, en general, como combustible: 78,71 euros por 1.000 litros de tipo general y 18 euros por 1.000 litros de tipo especial.

Epígrafe 1.5 Fuelóleos: 14 euros por tonelada de tipo general y 3 euros por tonelada de tipo especial.

Epígrafe 1.6 GLP para uso general: 57,47 euros por tonelada.

1.8 epigrafea. Karburantea ez den erabileretara zuzendutako PGLak: 15 euro tonako.

Epígrafe 1.8 GLP destinados a usos distintos a los de carburante: 15 euros por tonelada.

1.9 epigrafea. Erabilera orokorreko gas naturala: 1,15 euro gigajulioko..

Epígrafe 1.9 Gas natural para uso general: 1,15 euros por gigajulio.

1.10.1 epigrafea. Karburantea ez den erabileretara zuzendutako gas naturala, eta motor finkoetan karburante gisa erabiltzeko gas naturala: 0,65 euro gigajulioko.

Epígrafe 1.10.1 Gas natural destinado a usos distintos a los de carburante, así como el gas natural destinado al uso como carburante en motores estacionarios: 0,65 euros por gigajulio.

1.10.2 epigrafea. Erabilera profesionaletara zuzendutako gas naturala, betiere energia elektrikoa zuzenean edo zeharka produzitzeko edo kogenerazioz sortzeko prozesuetan erabiltzen ez bada: 0,15 euro gigajulioko.

Epígrafe 1.10.2 Gas natural destinado a usos con fines profesionales siempre y cuando no se utilicen en procesos de cogeneración y generación directa o indirecta de energía eléctrica: 0,15 euros por gigajulio.

Epigrafe honetan aurreikusten denaren ondorioetarako, erabilera profesionaletara zuzendutako gas naturaltzat hartuko da planta eta instalazio industrialetan kontsumitzeko egiten diren gas naturaleko hornidurak. Kanpoan geratzen da energia termiko erabilgarria ekoizteko erabiltzen dena, haren amaierako aprobetxamendua planta edo instalazio industrialak ez diren establezimendu edo lokaletan egiten denean. Era berean, erabilera profesionaletara zuzendutako gas naturaltzat hartuko da nekazaritzako laboreetan erabilitako gas naturala.

A efectos de lo previsto en este epígrafe se considera gas natural destinado a usos con fines profesionales los suministros de gas natural efectuados para su consumo en plantas e instalaciones industriales, con exclusión del que se utilice para producir energía térmica útil cuyo aprovechamiento final se produzca en establecimientos o locales que no tengan la condición de plantas o instalaciones industriales. Asimismo, tendrá la consideración de gas natural destinado a usos con fines profesionales el gas natural utilizado en cultivos agrícolas.

1.11 epigrafea. Erabilera orokorreko kerosenoa: 306 euro 1.000 litroko (tasa orokorra) eta 72 euro 1.000 litroko (tasa berezia).

Epígrafe 1.11 Queroseno para uso general: 306 euros por 1.000 litros de tipo general y 72 euros por 1.000 litros de tipo especial.

1.12 epigrafea. Karburantea ez den erabileretara zuzendutako kerosenoa: 78,71 euro 1.000 litroko.

Epígrafe 1.12 Queroseno destinado a usos distintos de los de carburante: 78,71 euros por 1.000 litros.

1.13 epigrafea. Karburante gisa erabiltzekoak diren bioetanola eta biometanola:

Epígrafe 1.13 Bioetanol y biometanol para uso como carburante:

a) 98 O.I. edo handiagoa duten berunik gabeko gasolinekin nahastutako bioetanola

a) Bioetanol y biometanol mezclado con gasolinas sin plomo de 98 I.O. o de octanaje

eta biometanola: 431,92 euro 1.000 litroko (tasa orokorra) eta 72 euro 1.000 litroko (tasa berezia).

b) Berunik gabeko gainerako gasolinekin nahastutako edo nahastu gabeko bioetanola eta biometanola: 400,69 euro 1.000 litroko (tasa orokorra) eta 72 euro 1.000 litroko (tasa berezia).

1.14 epigrafea. Karburante gisa erabiltzeko biodiesela: 307 euro 1.000 litroko (tasa orokorra) eta 72 euro 1.000 litroko (tasa berezia).

1.15 epigrafea. 54. artikuluko 2. apartatuan aurreikusitako erabileretan karburante gisa eta, oro har, erregai gisa erabiltzekoa den biodiesela, eta erregai gisa erabiltzekoa den biometanola: 78,71 euro 1.000 litroko (tasa orokorra) eta 18 euro 1.000 litroko (tasa berezia).

— 2. tarifa:

2.1 epigrafea. Harrikatz mundrunak eta 2706 NC kodean sailkatutako gainerako produktuak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

2.2 epigrafea. Bentzolak eta 2707.10, 2707.20, 2707.30 eta 2707.50 NC kodeetan sailkatutako gainerako produktuak: 1.1 epigraferako ezarritako tasa.

2.3 epigrafea. 2707.91.00 NC kodean sailkatutako kreosota olioak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

2.4 epigrafea. Olio gordinak eta 2707 NC kodean sailkatuta dauden gainerako produktuak, 2.2 eta 2.3 epigrafeetan jaso gabeak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

2.5 epigrafea. Gas naturaleko olio gordin kondentsatuak, erabilera orokorrekoak, 2709 NC kodean sailkatuak: 1.11 epigraferako ezarritako tasa.

2.6 epigrafea. Gas naturaleko olio gordin kondentsatuak, karburantea ez den

superior: 431,92 euros por 1.000 litros de tipo general y 72 euros por 1.000 litros de tipo especial.

b) Bioetanol y biometanol, mezclado con las demás gasolinas sin plomo o sin mezclar: 400,69 euros por 1.000 litros de tipo general y 72 euros por 1.000 litros de tipo especial.

Epígrafe 1.14 Biodiésel para uso como carburante: 307 euros por 1.000 litros de tipo general y 72 euros por 1.000 litros de tipo especial.

Epígrafe 1.15 Biodiésel para uso como carburante en los usos previstos en el apartado 2 del artículo 54 y, en general, como combustible, y biometanol para uso como combustible: 78,71 euros por 1.000 litros de tipo general y 18 euros por 1.000 litros de tipo especial.

— Tarifa 2.ª:

Epígrafe 2.1. Alquitranes de hulla y demás productos clasificados en el código NC 2706: el tipo establecido para el epígrafe 1.5.

Epígrafe 2.2. Benzoles y demás productos clasificados en los códigos NC 2707.10, 2707.20, 2707.30 y 2707.50: el tipo establecido para el epígrafe 1.1.

Epígrafe 2.3. Aceites de creosota clasificados en el código NC 2707.91.00: el tipo establecido para el epígrafe 1.5.

Epígrafe 2.4. Aceites brutos y demás productos clasificados en el código NC 2707 y no comprendidos en los epígrafes 2.2 y 2.3: el tipo establecido para el epígrafe 1.5.

Epígrafe 2.5. Aceites crudos condensados de gas natural, clasificados en el código NC 2709, para uso general: el tipo establecido para el epígrafe 1.11.

Epígrafe 2.6. Aceites crudos condensados de gas natural, clasificados en el código NC

erabileretara zuzenduak, 2709 NC kodean sailkatuak: 1.12 epigraferako ezarritako tasa.

2709, destinados a usos distintos a los de carburante: el tipo establecido para el epígrafe 1.12.

2.7 epigrafea. 2709 NC kodean sailkatutako gainerako produktuak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

Epígrafe 2.7. Los demás productos clasificados en el código NC 2709: el tipo establecido para el epígrafe 1.5.

2.8 epigrafea. Gasolina bereziak eta 2710.12.11, 2710.12.15, 2710.12.21, 2710.12.25, 2710.12.70 eta 2710.12.90 NC kodeetan sailkatutako beste produktu batzuk, haien xedea edozein dela: 1.1 epigraferako ezarritako tasa.

Epígrafe 2.8. Gasolinas especiales y demás productos clasificados, con independencia de su destino, en los códigos NC 2710.12.11, 2710.12.15, 2710.12.21, 2710.12.25, 2710.12.70 y 2710.12.90: el tipo establecido para el epígrafe 1.1.

2.9 epigrafea. Erabilera orokorreko olio ertainak, 2710.19.11, 2710.19.15 eta 2710.19.29 NC kodeetan sailkatutako kerosenoak ez direnak, horien xedea edozein dela: 1.11 epigraferako ezarritako tasa.

Epígrafe 2.9. Aceites medios distintos de los querosenos clasificados, con independencia de su destino, en los códigos NC 2710.19.11, 2710.19.15 y 2710.19.29, para uso general: el tipo establecido para el epígrafe 1.11.

2.10 epigrafea. Karburantea ez den erabileretara zuzendutako olio ertainak, 2710.19.11, 2710.19.15 eta 2710.19.29 NC kodeetan sailkatutako kerosenoak ez direnak, horien xedea edozein dela: 1.12 epigraferako ezarritako tasa.

Epígrafe 2.10. Aceites medios distintos de los querosenos clasificados, con independencia de su destino, en los códigos NC 2710.19.11, 2710.19.15 y 2710.19.29 y destinados a usos distintos a los de carburante: el tipo establecido para el epígrafe 1.12.

2.11 epigrafea. 2710.19.71, 2710.19.75, 2710.19.81, 2710.19.83, 2710.19.85, 2710.19.87, 2710.19.91, 2710.19.93, 2710.19.99 eta 2710.20.90 NC kodeetan sailkatutako olio astunak eta prestakinak, horien xedea edozein dela: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

Epígrafe 2.11 Aceites pesados y preparaciones clasificados, con independencia de su destino, en los códigos NC 2710.19.71, 2710.19.75, 2710.19.81, 2710.19.83, 2710.19.85, 2710.19.87, 2710.19.91, 2710.19.93, 2710.19.99 y 2710.20.90: el tipo establecido para el epígrafe 1.5.

2.12 epigrafea. 2711.29.00 NC kodean sailkatutako hidrokarburo gaseosoak eta 2705 NC kodean sailkatutako produktuak, erabilera orokorrekoak: 1.9 epigraferako ezarritako tasa.

Epígrafe 2.12. Hidrocarburos gaseosos clasificados en el código NC 2711.29.00 y productos clasificados en el código NC 2705, para uso general: el tipo establecido para el epígrafe 1.9.

2.13.1 epigrafea. 2711.29.00 NC kodean sailkatutako hidrokarburo gaseosoak eta 2705 NC kodean sailkatutako produktuak, baita biogasa ere, karburantea ez den erabileretarako edo motor geldikorretan

Epígrafe 2.13.1. Hidrocarburos gaseosos clasificados en el código NC 2711.29.00 y productos clasificados en el código NC 2705, así como el biogás, destinados a usos distintos a los de carburante, o a usos como

erregai gisa erabiltzeko zuzenduak: 1.10.1 epigraferako ezarritako tasa.

carburante en motores estacionarios: el tipo establecido para el epígrafe 1.10.1.

2.13.2 epigrafea. 2711.29.00 NC kodean sailkatutako hidrokarburo gaseosoak eta 2705 kodean sailkatutako produktuak, baita biogasa ere, helburu profesionaletara bideratzen direnean, betiere elektrizitatea produzitzeko edo koproduzitzeko prozesuetan erabiltzen ez badira: 1.10.2 epigraferako ezarritako tasa.

Epígrafe 2.13.2. Hidrocarburos gaseosos clasificados en el código NC 2711.29.00 y productos clasificados en el código NC 2705, así como el biogás, destinados a usos con fines profesionales siempre y cuando no se utilicen en procesos de generación y cogeneración eléctrica: el tipo establecido para el epígrafe 1.10.2.

Azken bi epigrafe horien aplikaziorako, "biogas" gisa hartzen da biomasatik edo hondakinen zatiki biodegradagarritik sortutako erregai gaseosoa, gas naturalaren antzeko kalitatea lortzeraino purifikatu eta bioerregai gisa erabili daitekeena, edo egurretik sortutako gasa.

Para la aplicación de estos dos últimos epígrafes se considera "biogás" el combustible gaseoso producido a partir de la biomasa y/o a partir de la fracción biodegradable de los residuos y que puede ser purificado hasta alcanzar una calidad similar a la del gas natural, para uso como biocarburante, o el gas producido a partir de madera.

2.14 epigrafea. Baselina eta 2712 NC kodean sailkatutako gainerako produktuak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

Epígrafe 2.14. Vaselina y demás productos clasificados en el código NC 2712: el tipo establecido para el epígrafe 1.5.

2.15 epigrafea. 2715 kodean sailkatutako nahastura bituminosoak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

Epígrafe 2.15. Mezclas bituminosas clasificadas en el código NC 2715: el tipo establecido para el epígrafe 1.5.

2.16 epigrafea. Osaera kimiko jakineko hidrokarburoak, zergaren eremu objektiboan sartu eta 2901 eta 2902 NC kodeetan sailkatuta daudenak: 1.1 epigraferako ezarritako tasa.

Epígrafe 2.16. Hidrocarburos de composición química definida, incluidos en el ámbito objetivo del impuesto y clasificados en los códigos NC 2901 y 2902: el tipo establecido para el epígrafe 1.1.

2.17 epigrafea. 3403 NC kodean sailkatutako prestakinak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

Epígrafe 2.17. Preparaciones clasificadas en el código NC 3403: el tipo establecido para el epígrafe 1.5.

2.18 epigrafea. 3811 kodean sailkatutako prestakin antidetonatzaileak eta gehigarriak: 1.1 epigraferako ezarritako tasa.

Epígrafe 2.18. Preparaciones antidetonantes y aditivos clasificados en el código NC 3811: el tipo establecido para el epígrafe 1.1.

2.19 epigrafea. 3817 NC kodean sailkatutako alkilbentzeno nahasturak eta alkilnaftaleno nahasturak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

Epígrafe 2.19. Mezclas de alquilbencenos y mezclas de alquilnaftalenos clasificadas en el código NC 3817: el tipo establecido para el epígrafe 1.5.

2.20 epigrafea. 2710.91.00 eta 2710.99.00 NC kodeetan sailkatutako olioen hondakinak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

Epígrafe 2.20. Desechos de aceites clasificados en los códigos NC 2710.91.00 y 2710.99.00: el tipo establecido para el epígrafe 1.5.

2. Foru dekretu arauemaile honen 46. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan jasotzen diren produktuei zergaren 1. tarifan hidrokarburoei dagozkien zerga tasak aplikatuko zaizkie, hidrokarburo horiek erabiltzeko gaitasuna beste horiek dutenaren baliokidea bada foru dekretu arauemaile honen 54. artikuluko 1. apartatuan erabilerari buruz aipatzen den baimen espedientetik ondorioztatzen denaren arabera.

2. A los productos comprendidos en los apartados 2 y 3 del artículo 46 de este decreto foral normativo se les aplicarán los tipos impositivos correspondientes a aquellos hidrocarburos comprendidos en la tarifa 1.ª del impuesto cuya capacidad de utilización resulte equivalente, según se deduzca del expediente de autorización de utilización a que se refiere el apartado 1 del artículo 54 de este decreto foral normativo.

3. Foru dekretu arauemaile honen 8. artikuluko 7. apartatuan ezarritakoa eragotzi gabe, artikulu honetan zehazten diren zerga tasak aplikatzeko, erregelamenduz aurreikusitako baldintzak bete beharko dira, eta horien artean egongo dira, hala dagokionean, trazatzaileak eta markatzaileak gehitzea, produktuei eman behar zitzaien erabilera benetan ematea edo ordainbide espezifikoak baliatzea.

3. Sin perjuicio de lo establecido en el apartado 7 del artículo 8 de este decreto foral normativo, la aplicación de los tipos impositivos fijados en este artículo quedará condicionada al cumplimiento de los requisitos que se hayan previsto reglamentariamente, incluidos, en su caso, la adición de trazadores y marcadores, la utilización realmente dada a los productos o el empleo de medios de pago específicos.

4. Hornidura puntu bakarreko instalazioei gas naturala hornitzen zaienean erregai gisa erabiltzeko, izan erabilera profesionaletarako izan beste erabilera batzuetarako, artikulu honen 1. apartatuko 1.10.1 eta 1.10.2 epigrafeetan arautzen diren zerga tasak erabilera bakoitzean erabilitako portzentajearen arabera aplikatuko dira, erregelamenduz ezarriko den prozedurari jarraituz.

4. En los suministros de gas natural a instalaciones con un único punto de suministro y destinado a ser utilizado como combustible tanto a usos profesionales, como a otros usos, se aplicarán los tipos impositivos regulados en los epígrafes 1.10.1 y 1.10.2 del apartado 1 de este artículo en función del porcentaje utilizado en cada uno de los distintos usos, conforme al procedimiento que se establezca reglamentariamente.

50 bis artikulua. Biokarburante eta bioerregaietarako zerga tasak.

Artículo 50 bis. Tipos impositivos para biocarburantes y biocombustibles.

1. Biokarburante eta bioerregaiei foru dekretu arauemaile honen 50. artikuluko 1. apartatuan ezarritako 1. tarifako 1.13tik 1.15era bitarteko epigrafeetan zehaztu diren zerga tasak aplikatuko zaizkie. Tasa horiek biokarburante edo bioerregaiaren

1. Los biocarburantes y biocombustibles tributarán por este impuesto a los tipos impositivos establecidos en los epígrafes 1.13 a 1.15 de la tarifa 1.ª establecida en el apartado 1 del artículo 50 de este decreto foral normativo. Dichos tipos se aplicarán

bolumenari baino ez zaio aplikatuko, eta, beraz, beste produktu batzuekin nahastuta etorriz gero, produktu horien bolumenari ez zaio aplikatuko.

exclusivamente sobre el volumen de biocarburante o de biocombustible sin que puedan aplicarse sobre el volumen de otros productos con los que pudieran utilizarse mezclados.

2.Petrolio produktuen eta biokarburante eta bioerregaien ekoizpen kostuen bilakaera konparatiboak gomendagarri egiten duen guztietan, posible izango da, esandako zirkunstantzia horiek aintzat hartuta, 1.13tik 1.15era bitarteko epigrafeetan aurreikusitako zerga tasen zenbatekoa foru arau mailako xedapen baten bidez finkatzea, eta hala badagokio, zenbateko positiboko karga tasak ere ezarri ahal izango dira.

2. Siempre que la evolución comparativa de los costes de producción de los productos petrolíferos y de los biocarburantes y biocombustibles así lo aconseje, por disposición con rango de norma foral se podrá fijar el importe de los tipos impositivos previstos en los epígrafes 1.13 a 1.15 en atención a las referidas circunstancias, estableciendo, en su caso, tipos de gravamen de importe positivo.

51. artikulua. Salbuespenak

Foru dekretu arauemaile honen 9. artikuluan aipatzen diren eragiketez gain, salbuetsita egongo dira, erregelamenduz ezarriko diren baldintzetan eta foru dekretu arauemaile honen 53. artikuluko 4. apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe, honako eragiketak:

1. Gas naturala eta zergaren eremu objektiboan sartuta dauden 2. tarifako produktuak fabrikatzea eta inportatzea, karburante edo erregaiaz besteko erabileretara zuzentzen direnean.

2. Zergaren eremu objektiboan sartzen diren produktuak fabrikatzea eta inportatzea, xede hau dutenean:

a) Karburante gisa erabiltzea aire nabigazioan, aisiako abiazio pribatua kenduta.

b) Karburante gisa erabiltzea itsas nabigazioan, arrantza barne, aisiako nabigazio pribatua kenduta.

c) Zentral elektrikoetan elektrizitatea ekoiztea edo zentral konbinatuetan

Artículo 51. Exenciones

Además de las operaciones a que se refiere el artículo 9 de este decreto foral normativo, estarán exentas, en las condiciones que reglamentariamente se establezcan y sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 4 del artículo 53 de este decreto foral normativo, las siguientes operaciones:

1. La fabricación e importación de gas natural y de productos incluidos en el ámbito objetivo del impuesto comprendidos en su tarifa 2.ª, que se destinen a ser utilizados en usos distintos a los de carburante o combustible.

2. La fabricación e importación de productos incluidos en el ámbito objetivo del impuesto que se destinen a:

a) Su utilización como carburante en la navegación aérea, con excepción de la aviación privada de recreo.

b) Su utilización como carburante en la navegación, incluida la pesca, con excepción de la navegación privada de recreo.

c) La producción de electricidad en centrales eléctricas o a la producción de electricidad o

elektrizitatea edo elektrizitatea eta beroa batera ekoiztea.

a la cogeneración de electricidad y de calor en centrales combinadas.

Salbuespen hau aplikatzearen ondorioetarako, definizio hauek ezartzen dira:

A los efectos de la aplicación de esta exención se consideran:

"Zentral elektrikoa": energia elektrikoa produzitzeko eratutako instalazioa, Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 26ko 24/2013 Legearen aplikazio eremuaren barruan jarduten duena, eta ezarri eta funtzionatzeko lege horren IV. tituluan ezartzen diren baimenak jaso dituena.

"Central eléctrica": la instalación cuya actividad de producción de energía eléctrica queda comprendida en el ámbito de aplicación de la Ley 24/2013, de 26 de diciembre, del Sector Eléctrico, y cuyo establecimiento y funcionamiento hayan sido autorizados con arreglo a lo establecido en el título IV de dicha ley.

"Zentral konbinatua": elektrizitatea ekoizteko edo energia elektrikoa eta aprobetxamendu energetikorako erabili ahalko den beroa batera ekoizteko eratutako instalazioa, Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen aplikazio eremuaren barruan jarduten duena, eta ezartzeko eta funtzionatzeko lege horren IV. tituluan ezartzen diren baimenak jaso dituena.

"Central combinada": la instalación cuya actividad de producción de electricidad o de cogeneración de energía eléctrica y calor útil para su posterior aprovechamiento energético queda comprendida en el ámbito de aplicación de la Ley 24/2013, de 26 de diciembre, del Sector Eléctrico, y cuyo establecimiento y funcionamiento han sido autorizados con arreglo a lo establecido en el título IV de dicha ley.

Salbuespen hau aplikatzeko, ezinbestekoa izango da elektrizitatea ekoizten duten zentral elektrikoen edo zentral konbinatuen titularrak baimena eskatzea aldez aurretik kudeaketa bulegoari eta bulegoak baimen hori ematea.

La aplicación de esta exención deberá ser solicitada previamente a la oficina gestora por el titular de las centrales de producción eléctrica o de las centrales combinadas de cogeneración de electricidad y autorizada por dicha oficina.

d) Trenbideko garraioan karburante gisa erabiltzea.

d) Su utilización como carburante en el transporte por ferrocarril.

e) Aireontzi eta itsasontziak eraiki, aldatu eta probatzeko edo bertan mantenimendu lanak egiteko erabiltzea.

e) Su utilización en la construcción, modificación, pruebas y mantenimiento de aeronaves y embarcaciones.

f) Bide nabigagarriak eta portuak dragatzeko erabiltzea.

f) Su utilización en operaciones de dragado de vías navegables y puertos.

g) Labe garaietan injektatzea, kimikoki erreduzitzeko, erregai nagusi gisa erabiliko den ikatzari gehituta, baita injekzio horretatik, bigarren ondorio gisa, berokuntzarako aprobetxatuko den errekuntza bat lortzen denean ere.

g) Su inyección en altos hornos con fines de reducción química, añadidos al carbón que se utilice como combustible principal, incluso si de dicha inyección se deriva, secundariamente, una combustión aprovechada con fines de calefacción.

2. apartatu honetan aipatzen diren kasuetan gasolioaren erabilerari dagokion salbuespena aplikatzeko, ezinbesteko baldintza izango da, autokontsumo eragiketa lotuen kasuan izan ezik, gasolioak tasa murriztua aplikatzeko erregelamenduz exijitzen diren trazatzaileak eta markatzaileak eramatea.

La aplicación de la exención con respecto a la utilización de gasóleo en los supuestos a que se refiere el presente apartado 2 quedará condicionada, salvo en el supuesto de operaciones de autoconsumo sujetas, a que el gasóleo lleve incorporados los trazadores y marcadores exigidos reglamentariamente para la aplicación del tipo reducido.

3. Biokarburanteak edo bioerregaiak fabrikatu edo inportatzea, gutxiago kutsatzen duten produktuen garapen teknologikorako proiektu pilotuen esparruan. Salbuespena biokarburanteari edo bioerregaiari bakarrik aplikatuko zaio, inoiz ez haiekin nahastuta etor daitezkeen beste produktu batzuei.

3. La fabricación o importación de biocarburantes o biocombustibles, en el campo de los proyectos piloto para el desarrollo tecnológico de productos menos contaminantes. La exención sólo alcanzará al biocarburante o al biocombustible sin que pueda aplicarse respecto de otros productos con los que pudieran utilizarse mezclados.

Apartatu honen eta foru dekretu arauemaile honen 52. artikuluko c) letraren ondorioetarako, «gutxiago kutsatzen duten produktuen garapen teknologikorako proiektu pilotutzat» hartuko dira adierazitako produktuen ekoizpenari edo erabilerari buruzko proiektu esperimentalak, denboran mugatuak, ekoizpenaren edo erabileraren bideragarritasun teknikoa edo teknologikoa frogatzera bideratuak, emaitzen geroko ustiapen industriala kanpoan utzita. Baldintza horiek betetzat jo ahal izango dira baita erregelamenduz ezarritakoa baino handiagoa ez den produktu kantitate txiki bati eragiten dioten proiektuei dagokienez ere.

A los efectos de este apartado y de la letra c) del artículo 52 de este decreto foral normativo, tendrán la consideración de «proyectos piloto para el desarrollo tecnológico de productos menos contaminantes» los proyectos de carácter experimental y limitados en el tiempo, relativos a la producción o utilización de los productos indicados y dirigidos a demostrar la viabilidad técnica o tecnológica de su producción o utilización, con exclusión de la ulterior explotación industrial de sus resultados. Podrá considerarse acreditado el cumplimiento de estas condiciones respecto de los proyectos que afecten a una cantidad reducida de productos que no exceda de la que se determine reglamentariamente.

4. 2705 NC kodean sailkatutako produktuak eta biogasa fabrikatu eta inportatzea, elektrizitatea produzitzeko edo elektrizitatea eta beroa kogenerazioz sortzeko edo horiek sortu diren instalazioetan autokontsumitzeko erabiltzen badira.

4. La fabricación e importación de los productos clasificados en el código NC 2705 y del biogás, que se destinen a la producción de electricidad o a la cogeneración de electricidad y calor o a su autoconsumo en las instalaciones donde se hayan generado.

Salbuespen hau aplikatzeko, beharrezkoa da elektrizitatea produzitzen duen edo energia elektrikoa eta aprobetxamendu energetikorako erabiliko den bero erabilgarria kogenerazioz ekoizten duen instalazioak Sektore Elektrikoari buruzko

A los efectos de la aplicación de esta exención, la producción de electricidad o la cogeneración de electricidad y calor, deben realizarse en una instalación cuya actividad de producción de energía eléctrica o de cogeneración de energía eléctrica y calor útil

abenduaren 26ko 24/2013 Legearen aplikazio eremuaren barruan jardutea, eta haren establezimendua eta funtzionamendua baimenduta egotea lege horren IV. tituluan ezarritakoaren arabera.

para su posterior aprovechamiento energético queda comprendida en el ámbito de aplicación de la Ley 24/2013, de 26 de diciembre, del Sector Eléctrico, y cuyo establecimiento y funcionamiento hayan sido autorizados con arreglo a lo establecido en el título IV de dicha ley.

5. Turismo ibilgailuetako depositu arruntetan dagoen karburantea, baita depositu eramangarrietan bildutakoa ere, inportatzea, ibilgailu bakoitzeko 10 litro gehienez, karburanteen edukitza eta garraio gaietan indarrean dagoen araudia aplikatzea eragotzi gabe.

5. La importación de carburantes contenidos en los depósitos normales de los automóviles de turismo, así como el contenido en depósitos portátiles hasta un máximo de 10 litros por vehículo, sin perjuicio de la aplicación de la normativa vigente en materia de tenencia y transporte de carburantes.

6. Ibilgailu komertzialen eta edukiontzi berezien depositu arruntetan dauden karburanteak inportatzea, 200 litroraino gehienez.

6. La importación de carburantes contenidos en los depósitos normales de vehículos automóviles comerciales y de contenedores especiales, con un máximo de 200 litros.

52. artikulua. Itzulketak.

Artículo 52. Devoluciones.

Zergarengatik ordaindutako kuoten itzulketarako eskubidea egongo da, erregelamenduz ezarriko diren baldintzetan, foru dekretu arauemaile honen 10. artikuluan jasotako kasuetan ez ezik, baita honako hauetan ere:

Se reconocerá el derecho a la devolución de las cuotas satisfechas por el impuesto, en las condiciones que se establezcan reglamentariamente, además de en los supuestos contemplados en el artículo 10 de este decreto foral normativo, en los siguientes:

a) Ustiapen industrialen titularrek zergaren xede diren produktuak zuzenean edo zeharka kontsumitzen dituztenean, gas naturala izan ezik, produktu horiei 1. tarifan ezarrita dauden tasak aplikatzen bazaizkie eta karburante edo erregai gisa erabiltzen ez badira.

a) El consumo, directo o indirecto, de productos objeto del impuesto a los que sean de aplicación los tipos establecidos en su tarifa 1.ª, excepto el gas natural, en usos distintos a los de combustible y carburante, por los titulares de explotaciones industriales.

b) Aisiako nabigazio pribatua ez den nabigazioan aritzen diren ontziei gasolioa hornitzen zaienean. Itzulketa jasotzeko, ezinbestekoa izango da hornitutako gasolioak tasa murriztua aplikatzeko erregelamenduz exijitzen diren trazatzaileak eta markatzaileak eramatea.

b) El avituallamiento de gasóleo a embarcaciones que realicen navegación distinta de la privada de recreo. La devolución queda condicionada a que el gasóleo suministrado lleve incorporados los trazadores y marcadores exigidos reglamentariamente para la aplicación del tipo reducido.

c) Gutxiago kutsatzen duten produktuak teknologikoki garatzeko proiektu pilotuetan zergaren xede diren produktuak erabiltzen direnean, bereziki, errekurtso berriztagarrietatik lortutako erregai eta karburanteei dagozkienean.

c) La utilización de productos objeto del impuesto en proyectos piloto para el desarrollo tecnológico de productos menos contaminantes, en particular, de los combustibles y carburantes obtenidos a partir de recursos renovables.

d) Zergaren xede diren produktuak fabrikara edo gordailu fiskalera itzultzen direnean nahi gabe beste batzuekin nahasteagatik edo kutsatuta gertatzeagatik.

d) La devolución a fábrica o depósito fiscal de productos objeto del impuesto que accidentalmente hayan resultado mezclados con otros o contaminados.

52 bis artikulua. Itzulketa partziala erabilera profesionaleko gasolioagatik.

Artículo 52 bis. Devolución parcial por el gasóleo de uso profesional.

1. 2. apartatuan aipatzen diren ibilgailuen titularrek bertan ezartzen diren beharkizunak betetzen badituzte, eskubidea izango dute ordaindutako edo jasandako hidrokarburoen gaineko zergaren itzulketa partziala jasotzeko, ibilgailu horien motorrean karburante gisa erabili den erabilera orokorreko gasolioari dagokionez.

1. Los titulares de los vehículos citados en el apartado 2 que cumplan los requisitos establecidos en el mismo tendrán derecho a una devolución parcial del impuesto sobre hidrocarburos satisfecho o soportado respecto del gasóleo de uso general que haya sido utilizado como carburante en el motor de aquéllos.

2. 1. apartatuan aipatzen diren ibilgailuak hauek dira:

2. Los vehículos a que se refiere el apartado 1 son los siguientes:

a) Merkantziak errepidez garraiatzeko soilik erabiltzen diren motordun ibilgailuak edo akoplaturiko ibilgailu multzoak, garraio hori inoren edo norberaren kontura egiten denean eta ibilgailuen gehieneko pisu baimendua 7,5 tonakoa edo handiagoa denean.

a) Los vehículos de motor o conjuntos de vehículos acoplados destinados exclusivamente al transporte de mercancías por carretera, por cuenta ajena o por cuenta propia, y con un peso máximo autorizado igual o superior a 7,5 toneladas.

b) Bidaiarien garraio erregularrean edo noizean behingoan erabiltzen diren ibilgailu motordunak, Kontseiluaren 1970eko otsailaren 6ko 70/156/EEE Zuzentarauak, ibilgailu motordunen eta horien atoien homologazioari buruz estatu kideek dituzten legeriak hurbiltzekoak, ezartzen dituen M2 edo M3 kategorietan sartzen direnean.

b) Los vehículos de motor destinados al transporte de pasajeros, regular u ocasional, incluidos en las categorías M2 o M3 de las establecidas en la Directiva 70/156/CEE del Consejo, de 6 de febrero de 1970, relativa a la aproximación de las legislaciones de los Estados miembros sobre la homologación de los vehículos a motor y de sus remolques.

c) Taxiak. Ondorio horietarako, taxitzat hartzen da udal lizentziapean eta taximetroaz hornituta bidaiarien zerbitzu publikora bideratuta dagoen turismoa.

c) Los taxis. A estos efectos se entiende por taxi el turismo destinado al servicio público de viajeros bajo licencia municipal y provisto de aparato taxímetro.

3. Aurreko apartatuan aipatutako ibilgailuen titularrek jarduera horretan aritzeko gaitzen duen administrazio titulua eduki beharko dute, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko uztailaren 30eko 16/1987 Legean eta hura garatzeko araudian aurreikusitakoaren arabera. Era berean, aipatutako titularrek agintari autonomikoek edo toki mailakoek eman beharreko lizentziak eta baimenak eduki beharko dituzte.

3. Los titulares de los vehículos mencionados en el apartado anterior deberán hallarse en posesión del correspondiente título administrativo que, en su caso, habilite para el ejercicio de la actividad, de acuerdo con lo previsto en la Ley 16/1987, de 30 de julio, de Ordenación de los Transportes Terrestres, y en su normativa de desarrollo. Igualmente, los indicados titulares deberán hallarse en posesión de los permisos y autorizaciones precisos para el ejercicio de su actividad que deban expedir las autoridades autonómicas o locales.

Titularrak ez badira Espainiako lurraldean egoiliarrak eta Europar Batasunaren gainerako lurraldean baldin badute egoitza edo establezimendu iraunkorra, kasuan kasuko estatu kideko araudiak dagokion jardueran aritzeko ezartzen dituen administrazio baimenak eduki beharko dituzte.

Cuando se trate de titulares no residentes en territorio español con residencia o establecimiento permanente en el resto del territorio de la Unión Europea, deberán hallarse en posesión de las autorizaciones administrativas que establezca la normativa del respectivo Estado miembro para el ejercicio de la actividad correspondiente.

4. Itzulketaren oinarria interesdunak erosi eta aurreko 2. apartatuan aipatutako ibilgailuetan karburante gisa erabili den gasolio bolumena izango da. Hala kalkulatzen den oinarria mila litrokotan adieraziko da.

4. La base de la devolución estará constituida por el volumen de gasóleo que haya sido adquirido por el interesado y destinado a su utilización como carburante en los vehículos mencionados en el apartado 2 anterior. La base así determinada se expresará en miles de litros.

5. (edukirik gabe).

5. (sin contenido).

6. a) Itzulketa tasa, 1.000 litroko eurotan adierazia, eragiketa hau eginez lortzen den zenbateko positiboa izango da: 1.3 epigrafean jasota dagoen tasa orokorra ken 306 euro, eta tasa berezia ken 48 euro (itzulketarako eskubidea sortzen den unean indarrean dauden tasak behar dute izan).

6. a) El tipo de la devolución, expresado en euros por 1.000 litros, será el importe positivo resultante de restar la cantidad de 306 euros del tipo general del epígrafe 1.3 y la cantidad de 48 euros del tipo especial, vigentes en el momento de generarse el derecho a la devolución.

b) Itzulketa tasa foru arau mailako xedapen bidez aldatu ahal izango da.

b) El tipo de la devolución podrá ser modificado por disposición con rango de norma foral.

c) Gehienez itzuli daitekeen zenbatekoa ezin izango da izan 50.000 litroko kopuruari urtean eta ibilgailu bakoitzeko legokiokeena baino handiagoa, taxien kasuan izan ezik.

c) La cuantía máxima de la devolución a percibir no excederá de la que correspondería a 50.000 litros por vehículo y año, salvo que se trate de taxis, en cuyo

Izan ere, taxiak badira, urte eta taxi bakoitzeko 5.000 litroko kopuruari legokiokeena itzuliko da gehienez.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak muga horiek zatikatzea erabaki ahalko du, urtebetetik beherako epealdietan aplikatzeko.

7. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakiko du zer prozedura aplikatuko den itzulketa egiteko, eta haren barruan alderdi hauek hartu ahal izango dira kontuan, besteak beste:

a) Interesdunek erregistro espezifiko batean inskribatu behar izatea eta, itzulketa kudeatu eta egiaztatzeko garrantzitsuak direnean, haien jardueraren datuak jasotzen dituzten zerga aitorpenak aurkeztera behartuta egotea.

b) Interesdunek ordainbide espezifikoak erabili behar izatea itzulketa eskaera eragingo duen gasolioa erosteko. Hala ezartzen den kasuetan, itzulketa eskaera eragingo duen gasolioa erosteko ordainbide espezifikoak erabili behar izatea itzulketa eskatzeko erabiltzen den zerga aitorpentzat hartuko da.

c) Aipatutako ordainbide espezifikoak jaulkitzen dituzten entitateek eta horiek onartzen dituzten gasolio saltzaileek itzulketa eskatzen dutenek horrelako ordainbideak erabiltzaileari buruzko informazioa eman behar izatea Zerga Administrazioari.

8. Aurreko 7. apartatuan aipatutako ordainbide espezifikoak erabiltzen badira gasolio erosketa bat simulatzeko eta horrekin bidegabeki sortzen bada artikulu honetan araututako itzulketa eskubidea, zerga arloko arau-hauste bat egingo da, eta simulatutako erosketaren zenbatekoa hiru halako diruzko isun proportzionalarekin

caso la cuantía máxima de la devolución no excederá de la que correspondería a 5.000 litros por taxi y año.

Por la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas se podrá disponer el fraccionamiento de estos límites para su aplicación en relación con períodos de tiempo inferiores al año.

7. El procedimiento para la práctica de la devolución se establecerá por la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas y podrá comprender, entre otros, los siguientes aspectos:

a) La obligación de que los interesados se inscriban en un registro específico y de que presenten declaraciones tributarias comprensivas de los datos de su actividad que sean relevantes para la gestión y comprobación de la devolución.

b) La obligación de que los interesados utilicen medios de pago específicos para la adquisición del gasóleo respecto del cual soliciten la devolución. En los casos en que se establezca, la utilización obligatoria de medios de pago específicos para la adquisición del gasóleo respecto del cual se solicite la devolución tendrá la consideración de declaración tributaria por medio de la cual se solicita la devolución.

c) La obligación, para las entidades emisoras de los referidos medios de pago específicos y para los vendedores de gasóleo que los acepten, de proporcionar a la Administración tributaria la información derivada de la utilización de éstos por los solicitantes de la devolución.

8. La utilización de los medios de pago específicos a que se refiere el apartado 7 anterior con objeto de simular una adquisición de gasóleo que indebidamente generase el derecho a la devolución regulada en este artículo constituirá infracción tributaria y será sancionada con multa pecuniaria proporcional del triple del

zigortuko da (gutxienez 3.000 euro). Horrelako arau-hausteak egiteak dakarren erantzukizuna egoztearen ondorioetarako, ulertuko da autoreak aipatutako ordainbideen titularrak direla, ordainbidea lapurtu eta behar bezala salatzen denean izan ezik.

importe de la adquisición simulada, con un importe mínimo de 3.000 euros. A los efectos de la imputación de la responsabilidad por la comisión de estas infracciones, tendrán la consideración de autores los titulares de los referidos medios de pago, salvo en el caso de sustracción de los mismos debidamente denunciada.

9. Artikulu honetan araututako itzulketa eskaera eragiten duen gasolioa 2. apartatuan aipatu diren ibilgailuen motorretan, eta horietan bakarrik, erabili daiteke. Debekatuta dago beste edozeinetan erabiltzea. Debeku horri kasurik ez egitea zerga arloko arau-haustea izango da, eta foru dekretu arauemaile honen 55. artikuluan aurreikusitakoaren arabera zehatuko da.

9. La utilización de gasóleo por el que se solicite la devolución regulada en este artículo en motores distintos de los de los vehículos mencionados en el apartado 2 está prohibida. La inobservancia de esta prohibición constituirá una infracción tributaria que será sancionada de acuerdo con lo previsto en el artículo 55 del presente decreto foral normativo.

Aurreko apartatuan ezarritakoak ez du eragotziko itzulketa eskaera eragingo duen gasolioa hornitzen dutenei behar diren erantzukizunak exijitzea hura jasotzen dutenek horretarako baimenik ez dutenean.

Lo establecido en el apartado anterior se entiende sin perjuicio de las responsabilidades en que incurran quienes suministren gasóleo por el que se solicite la devolución a personas no autorizadas para recibirlo.

10. Foru dekretu arauemaile honen 8.6 eta 15.11 artikuluetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, itzulketa eskatzea dakarren gasolioa bere erabileragatik tasa murriztua aplikatu zaion gasoliotzat hartuko da.

10. A efectos de la aplicación de lo previsto en los artículos 8.6 y 15.11 del presente decreto foral normativo, el gasóleo por el que se solicite la devolución tendrá la consideración de gasóleo al que se ha aplicado un tipo reducido en razón de su destino.

52 ter artikulua. Itzulketa partziala nekazaritzan eta abeltzaintzan erabilitako gasolioagatik.

Artículo 52 ter. Devolución parcial por el gasóleo empleado en la agricultura y ganadería.

1. a) Nekazariei eskubidea aitortzen zaie gasolio erosketetan ordaindu edo jasan dituzten hidrokarburoen gaineko zergaren kuoten itzulketa jasotzeko, aurreko urte naturalean egin dituzten erosketa horiek foru dekretu arauemaile honen 50.1 artikuluko 1.4 epigrafean ezarritako zerga tasaren arabera zergapetu badira.

1. a) Se reconoce el derecho a la devolución de las cuotas del impuesto sobre hidrocarburos satisfechas o soportadas por los agricultores con ocasión de las adquisiciones de gasóleo que haya tributado al tipo de epígrafe 1.4 del artículo 50.1 de este decreto foral normativo que hayan efectuado durante el año natural anterior.

b) Itzuli beharreko kuoten zenbatekoa honela kalkulatuko da: aipatutako epealdian nekazaritzan —barazkigintza, abeltzaintza

b) El importe de las cuotas a devolver será igual al resultado de aplicar el tipo de 63,71 euros por 1.000 litros sobre una base

eta basogintza barne— benetan erabilitako gasolio bolumena, mila litrokotan adierazia, hartuko da, eta bolumen horri 63,71 euroko tasa aplikatuko zaio 1.000 litro bakoitzeko.

2. Itzulketa honen ondorioetarako, nekazaritzat hartuko dira adierazitako epealdian foru dekretu arauemaile honen 50.1 artikuluko 1.4 epigrafeko tasan tributatzen duen gasolioa erabiltzeko eskubidea izan duten pertsonak edo entitateak, hura karburante gisa erabili badute nekazaritzan –barazkigintza, abeltzaintza eta basogintza barne–, eta gainera, jarduera horietan aritzeari begira, kasuan kasuko erregistroan izena emanda egon badira.

3. Itzulketa Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakiko duen prozedurari jarraituz egingo da, eta gerta daiteke haren ondorioz interesdunak behartuta geratzea zerga aitorpenak aurkeztera, baita zentsu arlokoak ere.

53. artikulua. Kudeaketako arau bereziak.

1. Foru dekretu arauemaile honen 4. artikuluko 17. apartatuan ezarritakoa eragotzi gabe, fabrikatzat hartuko dira:

a) Foru dekretu arauemaile honen 49. artikuluko 1. apartatuan definitutako produktu zergapetuei tratamendu jakin bat emateko erabiltzen diren establezimenduak, nomenklatura konbinatuaren 27. kapituluko 5. ohar osagarrian ezarritako kontzeptuaren arabera.

b) Zergaren 1. tarifako produktu zergapetuei eraldaketa kimiko bat emateko erabiltzen diren establezimenduak, beren titularrek eskatzen badute. Ondorio horietarako, “eraldaketa kimikotzat” hartuko da

constituida por el volumen de gasóleo efectivamente empleado en la agricultura, incluida la horticultura, ganadería y silvicultura durante el período indicado, expresado en miles de litros.

2. A los efectos de esta devolución, se consideran agricultores las personas o entidades que, en el periodo indicado, hayan tenido derecho a la utilización de gasóleo que tributa al tipo del epígrafe 1.4 del artículo 50.1 de este decreto foral normativo, lo hayan empleado como carburante en la agricultura, incluida la horticultura, ganadería y silvicultura, y que, además, hayan estado inscritos, en relación con el ejercicio de dichas actividades, en el censo correspondiente.

3. La devolución se llevará a cabo por el procedimiento que establezca la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas y podrá comprender la obligación de que los interesados presenten declaraciones tributarias, incluso de carácter censal.

Artículo 53. Normas particulares de gestión.

1. Sin perjuicio de lo establecido en el apartado 17 del artículo 4 de este decreto foral normativo, tendrán la consideración de fábrica:

a) Los establecimientos en que se sometan los productos objeto del impuesto definidos en el apartado 1 del artículo 49 de este decreto foral normativo a un tratamiento definido, según el concepto establecido en la nota complementaria número 5 del capítulo 27 de la nomenclatura combinada.

b) Siempre que lo soliciten sus titulares, los establecimientos en que se sometan productos objeto del impuesto, comprendidos en la tarifa 1.ª del mismo, a una transformación química. A estos efectos, se entenderá por «transformación química» cualquier operación que tenga por

produktuaren molekulak eraldatzea helburu duen edozein eragiketa.

2. Foru dekretu arauemaile honen 4. artikuluko 18. apartatuan ezarritakoa eragotzi gabe, zergaren xede den produktu baten erabiltzaileak establezimendu berean hura berriro erabiltzeko egiten dituen eragiketak ez dira hartuko fabrikazio eragiketatzat, produktuagatik ordaindutako zerga berriro erabilitako produktuari dagokiona baino txikiagoa ez bada.

3. Foru dekretu arauemaile honen 4. artikuluko 17. apartatuan ezarritakoa gorabehera, zergaren xede diren produktuen kantitate txikiak modu osagarrian lortzen dituzten establezimenduak ez dira fabrikatzat hartuko. Erregelamenduz prozedura sinplifikatu bat ezarriko da kasu horietan zerga likidatu eta ordaintzeko.

4. Gas naturala eta hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboan sartuta dauden produktuak, foru dekretu arauemaile honen 49.1 artikuluko definizioetan jasogabeak, zirkulatu, eduki eta erabiltzeak ez du berariazko beharkizun formalik izango zerga horri dagokionez, baina horrek ez du eragotziko 6. apartatuan xedatutakoa betetzea eta haien sorburua eta jatorria justifikatzea zuzenbidean onartutako frogabideak erabilita.

5. Foru dekretu arauemaile honen 51.1 artikuluan ezarritako salbuespena aplikatzen zaien 2. tarifako produktuei eta gas naturalari dagokienez, arau partikular hauek beteko dira:

a) Artikulu honen 1. apartatuko a) letran xedatutakoa eragotzi gabe, 2. tarifan jasotako produktuak lortzea tarifa horretan sartuta dauden eta etendura araubidea amaitua duten beste produktu batzuetatik abiatuta, ez da fabrikaziotzat hartuko. Dena den, horrek ez du kentzen foru dekretu

objeto la transformación molecular del producto que se somete a la misma.

2. No obstante lo establecido en el apartado 18 del artículo 4 de este decreto foral normativo, no tendrán la consideración de fabricación las operaciones mediante las cuales el usuario de un producto objeto del impuesto vuelva a utilizarlo en el mismo establecimiento, siempre que el impuesto satisfecho por el mismo no sea inferior al que corresponda al producto reutilizado.

3. No obstante lo establecido en el apartado 17 del artículo 4 de este decreto foral normativo, no tendrán la consideración de fábrica los establecimientos en los que se obtengan, de forma accesoria, pequeñas cantidades de productos objeto del impuesto. Reglamentariamente se establecerá un procedimiento simplificado para la liquidación y pago del impuesto en estos supuestos.

4. La circulación, tenencia y utilización de gas natural y la de los productos incluidos en el ámbito objetivo del impuesto sobre hidrocarburos y no comprendidos en las definiciones del artículo 49.1 de este decreto foral normativo, no estará sometida a requisitos formales específicos en relación con dicho impuesto, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 6 y de la obligación de justificar su origen y procedencia por los medios de prueba admisibles en derecho.

5. En relación con los productos comprendidos en la tarifa 2.ª y con el gas natural a los que se aplique la exención establecida en el artículo 51.1 de este decreto foral normativo, se observarán las siguientes reglas particulares:

a) Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 1.a) del presente artículo, no tendrá la consideración de fabricación la obtención de productos comprendidos en la tarifa 2.ª, a partir de otros igualmente incluidos en dicha tarifa por los que ya se hubiera ultimado el régimen suspensivo. Ello

arauemaile honen 51.1 artikuluan aurreikusitako salbuespena aplikatzeko bete beharrekoak izan daitezkeen beharkizunak bete behar izatea.

no obstará el cumplimiento de los requisitos que, en su caso, resulten exigibles en relación con la aplicación de la exención prevista en el artículo 51.1 de este decreto foral normativo.

b) Gas naturala edo apartatu honetan aipatzen diren 2. tarifako produktuak erregai edo karburante gisa geroko une batean erabiltzen badira, helburu horietarako erabili edo merkaturatzen dituenari exijituko zaio zerga, erregelamenduz ezarriko den prozedurari jarraituz.

b) Cuando el gas natural o los productos comprendidos en la tarifa 2.ª a los que se refiere este apartado se destinen de forma sobrevenida a un uso como combustible o carburante, el impuesto será exigible a quien los destine o comercialice con destino a tales fines con arreglo al procedimiento que reglamentariamente se establezca.

6. Gas naturalaren batasun barruko trukeetan honako erregelak hartuko dira kontuan:

6. En los intercambios intracomunitarios de gas natural se observarán las siguientes reglas:

a) Foru dekretu arauemaile honen 16. artikuluko 2., 3. eta 4. apartatuetan aipatzen diren prozedurak ez dira aplikatuko.

a) No serán de aplicación los procedimientos a que se refieren los apartados 2, 3 y 4 del artículo 16 de este decreto foral normativo.

b) Batasunaren gainerako lurralde eremutik iristen den gas naturala zuzenean jasotzen bada barruko lurralde eremuan kokatuta dagoen gordailu fiskal batean –gasbideak eta gasbide sareak barne direla, foru dekretu arauemaile honen 4.10 artikuluan ezarritakoaren arabera–, gas hori etendura araubidean jasotzen dela joko da eta, oro har, aplikatzekoak izango dira foru dekretu arauemaile honek araubide horren pean dauden fabrikazio zerga berezien produktuetarako aurreikusitako arauak.

b) Cuando la recepción, en el ámbito territorial interno, de gas natural procedente del ámbito territorial comunitario no interno se produzca directamente en un depósito fiscal, incluidos los gasoductos y redes de gasoductos de conformidad con lo establecido en el artículo 4.10 de este decreto foral normativo, dicha recepción se entenderá efectuada en régimen suspensivo y serán de aplicación, con carácter general, las normas previstas en este decreto foral normativo para los productos objeto de los impuestos especiales de fabricación que se hallen al amparo de dicho régimen.

c) Aurreko letran adierazitakoak diren kasuetan, Batasunaren gainerako lurralde eremutik iristen den gas naturala barruko lurralde eremuan jasotzen bada, jasotzaileei foru dekretu arauemaile honen 4. artikuluko 11. apartatuan aipatzen diren operadore erregistratuei dagokien araubidea aplikatuko zaie, artikulu honen 4. apartatuan ezarritakoa eragotzi gabe.

c) En los supuestos, distintos de los señalados en la letra anterior, de recepción en el ámbito territorial interno de gas natural procedente del ámbito territorial comunitario no interno, los receptores estarán sometidos al mismo régimen que los destinatarios registrados a que se refiere el apartado 11 del artículo 4 de este decreto foral normativo, sin perjuicio de lo establecido en el apartado 4 de este artículo.

d) Gas naturala barruko lurralde eremutik Batasunaren gainerako lurralde eremura bidaltzen denean, bidaltzaileek frogatu beharko dute, hala eskatzen zaienean, hartzailea helmugako estatu kidean erregistratutako enpresa bat dela, estatu kide horretako araudiaren arabera, eta hartzaile horrek gas naturala jaso duela.

d) En los envíos de gas natural efectuados desde el ámbito territorial interno con destino al ámbito territorial comunitario no interno, los expedidores deberán acreditar, cuando sean requeridos para ello, que el destinatario es una empresa registrada al efecto en el Estado miembro de destino de que se trate, con arreglo a la normativa que dicho Estado miembro establezca y que el gas natural ha sido recibido por el destinatario.

54. artikulua. Erabiltzeko debekuak eta mugak.

1. Foru dekretu arauemaile honen 46. artikuluko 2. apartatuan aipatutako produktuak karburante gisa erabiltzea edo artikulu horretako 3. apartatuan aipatutako hidrokarburoak erregai moduan erabiltzea debekatuta dago, non eta Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ez duen erabilera hori espresuki baimentzen interesdunek eskatuta hasiko den espediente bat ebatzi eta gero. Espediente horretan zehaztuko da zergaren 1. tarifako zein hidrokarburok duen espedientearen xede den produktuaren erabilera baliokidea.

2. Gasolioa karburante gisa erabiltzea, zergaren 1. tarifako 1.4 epigrafean ezarritako tasa aplikatuta, motor guztietan baimentzen da, honako motorrak direnean izan ezik:

a) Artefaktu edo gailuei propultsioa emateko erabilitako motorrak, bide eta terreno publikoetatik zirkulatzeko baimenduta daudenean, nahiz eta ibilgailu bereziak izan ez.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa hala izanik ere, nekazaritzan (barazkigintza, abeltzaintza eta basogintza barne direla) erabiltzen diren traktore eta makinen motorretan zergaren gasolioa erabili ahal izango da 1. tarifako 1.4 epigrafean jasotzen den tasa aplikatuta, bide eta terreno

Artículo 54. Prohibiciones y limitaciones de uso.

1. La utilización como carburante de los productos a que se refiere el apartado 2 del artículo 46 de este decreto foral normativo, o como combustible de los hidrocarburos a que se refiere el apartado 3 de dicho artículo, está prohibida, salvo que haya sido expresamente autorizada por la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas como consecuencia de la resolución de un expediente que se iniciará a petición de los interesados y en el que se determinará cual es el hidrocarburo de los contenidos en la tarifa 1.ª del impuesto cuya utilización resulta equivalente a la del producto objeto del expediente.

2. La utilización de gasóleo como carburante, con aplicación del tipo establecido en el epígrafe 1.4 de la tarifa 1.ª del impuesto, queda autorizada en todos los motores, excepto en los siguientes:

a) Motores utilizados en la propulsión de artefactos o aparatos que hayan sido autorizados para circular por vías y terrenos públicos, aun cuando se trate de vehículos especiales.

No obstante lo establecido en el párrafo anterior, podrá utilizarse gasóleo con aplicación del tipo establecido en el epígrafe 1.4 de la tarifa 1.ª del impuesto en los motores de tractores y maquinaria agrícola, autorizados para circular por vías y terrenos públicos, empleados en la agricultura,

publikoetatik zirkulatzeko baimenduta daudenean.

b) Artefaktu edo gailuei propultsioa emateko erabiltzen diren motorrak, baldin eta beren ezaugarriengatik eta konfigurazio objektiboagatik, bide eta terreno publikoetatik zirkulatzeko baimendu baldin badaitezke bereziak ez diren ibilgailu gisa, nahiz eta baimen hori benetan jaso ez.

c) Itsasontzi eta aisiako ontziei propultsioa emateko erabiltzen diren motorrak.

Aurreko a) eta b) apartatuetan aurreikusitako kasuak aplikatzearen ondorioetarako, «ibilgailuak» eta «ibilgailu bereziak» Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, II. eranskinean definitutakoak izango dira. Ondorio horietarako ere, «bide eta terreno publikoak» izango dira Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bateginak, urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak, 2. artikuluan aipatutakoak.

Foru dekretu arauemaile honen 51.2 eta 52.b) artikuluetan aurreikusitako kasuetatik kanpo, eta apartatu honen arabera baimendutakoak ere alde batera utzita, debekatuta egongo da gasolioa karburante gisa erabiltzea, erregelamenduz ezarritako eran trazatzaileak eta markatzaileak gehitu zaizkionean.

3. Fuelolioak motor geldikorretan eta itsasontzi eta trenen motorretan bakarrik erabili ahal izango dira karburante gisa.

4. Kerosenoa ezingo da karburante gisa erabili, baldin eta foru dekretu arauemaile honen 50.1 artikuluko 1. tarifaren 1.12 epigrafeari eta 2. tarifako 2.10 epigrafeari dagozkien tasa murriztuak aplikatzeko

incluida la horticultura, la ganadería y la silvicultura.

b) Motores utilizados en la propulsión de artefactos o aparatos que, por sus características y configuración objetiva, sean susceptibles de ser autorizados para circular por vías y terrenos públicos como vehículos distintos de los vehículos especiales, aunque no hayan obtenido efectivamente tal autorización.

c) Motores utilizados en la propulsión de buques y embarcaciones de recreo.

A los efectos de la aplicación de los casos previstos en las letras a) y b), se considerarán «vehículos» y «vehículos especiales» los definidos como tales en el anexo II del Reglamento General de Vehículos aprobado por el Real Decreto 2822/1998, de 23 de diciembre. A los mismos efectos, se considerarán «vías y terrenos públicos» las vías o terrenos a que se refiere el artículo 2 del texto refundido de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, aprobado por el Real Decreto Legislativo 6/2015, de 30 de octubre.

Fuera de los casos previstos en el artículo 51.2 y en el artículo 52.b) de este decreto foral normativo, y de los autorizados conforme a este apartado, estará prohibida la utilización como carburante de gasóleo al que, conforme a lo que reglamentariamente se establezca, le hubieran sido incorporados los correspondientes trazadores y marcadores.

3. La utilización de los fuelóleos como carburante estará limitada a los motores fijos y a los de embarcaciones y ferrocarriles.

4. Estará prohibida la utilización como carburante del queroseno que lleve incorporados los trazadores y marcadores establecidos reglamentariamente para la aplicación del tipo reducido correspondiente a los epígrafes 1.12 de la tarifa 1.ª y 2.10 de

erregelamenduz ezarritako trazatzaile eta markatzaileak gehitu bazaizkio.

5. (edukirik gabe)

6. Artikulu honetan ezartzen diren debeku eta mugak zergaren 1. tarifan jasotako olio mineralen pareko erabilera duten ekoizkinei ere aplikatuko zaizkie. aurreko 1. apartatuan ezarritakoarekin bat.

la tarifa 2.ª previstos en el artículo 50.1 de este decreto foral normativo.

5. (sin contenido)

6. Las prohibiciones y limitaciones establecidas en este artículo se extienden a los productos cuya utilización resulte equivalente a la de los aceites minerales comprendidos en la tarifa 1.ª del impuesto, de acuerdo con lo establecido en el apartado 1 anterior.

55. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.

1. Foru dekretu arauemaile honen 54. artikuluan ezarritako erabilera debekuak eta mugak ez betetzea zerga arloko arau-haustea izango da. Arau-hauste horiek artikulu honetan xedatutakoaren arabera zehatuko dira, baina horrek ez du eragotziko zerga arloko beste arau-hauste batzuk egiteagatik foru dekretu arauemaile honen 19. artikuluan xedatutakoaren arabera bidezkoak izan litezkeen bestelako zehapenak ere ezartzea.

2. Arau-hauste horiek egiteak dakarren erantzukizuna egozteari begira, hauek hartuko dira autoretzat:

a) Beharrezko baimena izan gabe, foru dekretu arauemaile honen 46. artikuluko 3. apartatuan aipatzen diren hidrokarburoak erregai gisa erabiltzen dituztenak.

b) Ibilgailu autopropultsatuen, itsasontzien eta makinen titularrak, haien deposituetan beren funtzionamendurako espresuki baimenduta ez dauden karburanteak erabiltzen edo biltzen dituztenean, baita horiek titularrak berak gidatzen edo eramaten ez dituenean ere, apartatu honetako hurrengo letran eta 3. paragrafoan jasotako kasuetan izan ezik.

Artículo 55. Infracciones y sanciones.

1. Constituirá infracción tributaria la inobservancia de las prohibiciones y limitaciones de uso que se establecen en el artículo 54 de este decreto foral normativo. Dichas infracciones se sancionarán con arreglo a lo que se dispone en el presente artículo, con independencia de las sanciones que pudieran proceder, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 19 de este decreto foral normativo, por la posible comisión de otras infracciones tributarias.

2. A efectos de la imputación de la responsabilidad por la comisión de estas infracciones, tendrán la consideración de autores:

a) Los que utilicen como combustible, sin la debida autorización, los hidrocarburos a que se refiere el apartado 3 del artículo 46 de este decreto foral normativo.

b) Los titulares de vehículos autopropulsados, embarcaciones y maquinarias que utilicen o contengan en sus depósitos carburantes no autorizados expresamente para su funcionamiento, aun cuando los mismos no sean conducidos o patroneados por el propio titular, salvo en los supuestos contemplados en la letra siguiente de este apartado y en el apartado 3.

c) Aurreko letran aipatutako ibilgailu eta itsasontzien errentariak, tartean gidari edo patroirik gabeko alokairu kontratua dagoenean, baldin eta arau-haustea kontratuaren datatik makina, ibilgailua edo itsasontzia titularrari itzuli bitarteko epean antzematen bada.

c) Los arrendatarios de los vehículos y embarcaciones a que se refiere la letra anterior, cuando medie contrato de alquiler sin conductor o patrón, si la infracción se descubriere en el período comprendido entre la fecha del contrato y la devolución de la maquinaria, vehículo o embarcación a su titular.

3. Lapurreta kasuetan, salaketaren egunetik berreskurapenaren egunera bitartean antzematen diren arau-hausteak ezingo zaizkie egotziko ibilgailu edo itsasontzien titularrei.

3. En los casos de sustracción, no serán imputables a los titulares de los vehículos o embarcaciones las infracciones descubiertas en el período que medie entre la fecha de la denuncia y su recuperación.

4. Autoreari edo autore bakoitzari honako zehapen hau ezarriko zaio:

4. La sanción que se imponga al autor o a cada uno de los autores consistirá:

a) Arau-haustea egin duen ibilgailuaren, makinaren edo itsasontziaren motorrak 10 ZP bitarteko potentzia fiskala badu, eta itsasontzien kasuan, potentzia hori 220 kW bitartekoa bada, 1.200 euroko diruzko isun finkoa.

a) Cuando el motor del vehículo, artefacto o embarcación con el que se ha cometido la infracción tenga hasta 10 CV de potencia fiscal o hasta 220 kW en el caso del motor o motores de las embarcaciones, en multa pecuniaria fija de 1.200 euros.

b) 10 ZPtik gorako eta 25 bitarteko zaldi potentzia duten motorren kasuan, edo 220 KWtik gorako eta 550 bitartekoetan –itsasontzien kasuan–, 3.600 euroko diruzko isun finkoa.

b) En motores de más de 10 hasta 25 CV de potencia fiscal o de más de 220 hasta 550 kW en el caso del motor o motores de las embarcaciones, en multa pecuniaria fija de 3.600 euros.

b) 25 ZPtik gorako eta 50 bitarteko zaldi potentzia duten motorren kasuan, edo 550 KWtik gorako eta 1.100 bitartekoetan –itsasontzien kasuan–, 7.200 euroko diruzko isun finkoa.

c) En motores de más de 25 hasta 50 CV de potencia fiscal o de más de 550 hasta 1.100 kW en el caso del motor o motores de las embarcaciones, en multa pecuniaria fija de 7.200 euros.

d) 50 ZPtik gorako potentzia fiskala duten motorren kasuan, edo 110 kWtik gorako potentzia fiskala dutenetan –itsasontzien kasuan–, 12.000 euroko diruzko zigor finkoa.

d) En motores de más de 50 CV de potencia fiscal o de más de 110 kW en el caso del motor o motores de las embarcaciones, en multa pecuniaria fija de 12.000 euros.

e) Aurreko 2. apartatuko a) letran jasotako kasuetan, zehapena 1.200 euroko diruzko isun finkoa izango da.

e) En los supuestos contemplados en el párrafo a) del apartado 2 anterior, la sanción consistirá en multa pecuniaria fija de 1.200 euros.

5. Arau-hauste mota hori behin eta berriz errepikatzen bada, aurreko apartatu

5. En los casos de comisión repetida de esta clase de infracciones se duplicarán los

adierazitako zenbatekoak bikoiztu egingo dira.

Zirkunstantzia hori gertatzen dela joko da arau-hausleak, arau-hauste berria egin aurreko bi urteetan, ebazpen irmo baten bidez zehapena jaso badu bide administratiboan, aurreko artikuluan ezarritako debekuetako edozein urratzeagatik.

6. Foru dekretu arauemaile honen 50. artikuluko 1. tarifako 1.10.2 epigrafean zehaztutako zerga tasa aplikatuta egiten diren gas naturaleko horniduretan, zerga arloko arau-haustea izango da subjektu pasiboei datu faltsuak edo okerrak ematea, horrek dagozkionak baino kuota txikiagoak jasanaraztea eragiten duenean.

Zehapenaren oinarria jasanarazi behar ziren kuoten eta benetan jasanarazitakoen arteko diferentzia izango da.

Zehapena 100eko 50eko diruzko isun proportzionala izango da.

importes establecidos en el apartado anterior.

Esta circunstancia se apreciará cuando el infractor, dentro de los dos años anteriores a la comisión de la nueva infracción, hubiera sido sancionado por resolución firme en vía administrativa por infringir cualquiera de las prohibiciones establecidas en el artículo anterior.

6. En los suministros de gas natural realizados con aplicación del tipo impositivo establecido en el epígrafe 1.10.2 de la tarifa 1.ª del artículo 50 de este decreto foral normativo, constituye infracción tributaria comunicar datos falsos o inexactos a los sujetos pasivos, cuando de ello se derive la repercusión de cuotas inferiores a las procedentes.

La base de la sanción será la diferencia entre las cuotas que se hubieran debido repercutir y las efectivamente repercutidas.

La sanción consistirá en multa pecuniaria proporcional del 50 por 100.

VIII. KAPITULUA

Tabako laboreen gaineko zerga

56. artikulua. Eremu objektiboa.

Zerga honen ondorioetarako, honako hauek dira tabako laboreak:

1. Zigarroak eta zigarrotxoak.

2. Zigarretak.

3. Tabako xehea.

4. Erretzeko gainerako tabakoak.

57. artikulua. Zergari ez lotzeko kasuak.

CAPÍTULO VIII

Impuesto sobre las labores del tabaco

Artículo 56. Ámbito objetivo.

A efectos de este impuesto tienen la consideración de labores del tabaco:

1. Los cigarros y los cigarritos.

2. Los cigarrillos.

3. La picadura para liar.

4. Los demás tabacos para fumar.

Artículo 57. Supuestos de no sujeción.

Foru dekretu arauemaile honen 6. artikuluan jasotako kasuez gain, zergapetu gabe geratuko da, erregelamenduz ezarriko den eran eta baldintzetan, fabrika eta gordailu fiskalen barruan Zerga Administrazioaren kontrolpean suntsitzen diren tabako laboreen fabrikazioa eta inportazioa.

Además de los supuestos contemplados en el artículo 6 de este decreto foral normativo, no estará sujeta al impuesto la fabricación ni la importación de labores del tabaco que se destruyan bajo el control de la Administración tributaria, en la forma y con las condiciones que se establezcan reglamentariamente, en el interior de las fábricas y depósitos fiscales.

58. artikulua. Zerga oinarria.

1. Oinarria honako hau izango da:

a) Tasa proportzionalak aplikatzeko, penintsulan edo Balear uharteetan kokatutako tabako eta tinbre saltokietan laboreek duten balioa, jendaurreko gehieneko salmenta prezioaren arabera kalkulatua, zerga guztiak barne.

b) Tasa espezifikoak aplikatzeko, unitate kopurua.

2. Aurreko apartatuko a) letran ezarritakoaren ondorioetarako, fabrikatzaileek eta inportatzaileek, tabako laboreak merkaturatu aurretik, komunikatu beharko dituzte, erregelamenduz ezarriko den eran, haietarako finkatu dituzten gehieneko salmenta prezioak eta horietan sartzen dituzten aldaketak.

Artículo 58. Base imponible.

1. La base estará constituida:

a) Para la aplicación de los tipos proporcionales, por el valor de las labores, calculado según su precio máximo de venta al público, en expendedurías de tabaco y timbre situadas en la península o Illes Balears, incluidos todos los impuestos.

b) Para la aplicación de los tipos específicos, por el número de unidades.

2. A efectos de lo establecido en la letra a) del apartado anterior, los fabricantes e importadores comunicarán, en la forma que se establezca reglamentariamente, previamente a su comercialización los precios máximos de venta al público por ellos establecidos para las distintas labores de tabaco, así como las modificaciones que en dichos precios introduzcan.

59. artikulua. Kontzeptuak eta definizioak.

1. Zerga honen ondorioetarako, eta, betiere, eraldatu gabe erretzekoak badira eta, beren ezaugarriengatik eta kontsumitzaileengan eragin ditzaketen espektatiba arruntengatik, horretarako bakarrik zuzenduta badaude, honako hauek hartuko dira zigarro edo zigarrotxotzat:

a) Tabako naturalez osatutako kanpo geruza bat duten tabako biribilkiak.

b) Tripa irabiatua nahastuta duten tabako biribilkiak, zigarroen ohiko koloreko tabako

Artículo 59. Conceptos y definiciones.

1. A efectos de este impuesto, tendrán la consideración de cigarros o cigarritos, siempre que sean susceptibles de ser fumados sin transformación y estén destinados exclusivamente a ello, dadas sus propiedades y las expectativas normales de los consumidores:

a) Los rollos de tabaco provistos de una capa exterior de tabaco natural.

b) Los rollos de tabaco con una mezcla de tripa batida y provistos de una capa exterior

berreginarekin eratutako kanpo geruza bat dutenak, filtroa barne, halakorik badago, baina ez ahokoa –ahokoa duten zigarroen kasuan–, baldin eta haien masa unitarioa, filtrorik eta ahokorik gabe, 2,3 eta 10 gramo bitartekoa bada, eta haren perimetroa, luzeraren heren batean gutxienez, 34 milimetrokoa edo handiagoa bada.

de tabaco reconstituido del color normal de los cigarros que cubre íntegramente el producto, incluido el filtro si lo hubiera, pero no la boquilla en el caso de los cigarros con boquilla, cuando su masa unitaria sin filtro ni boquilla sea igual o superior a 2,3 gramos y no supere los 10 gramos y su perímetro, al menos en un tercio de su longitud, sea igual o superior a 34 milímetros.

Labore horiek zigarroak edo zigarrotxoak izango dira, unitateko pisua 3 gramotik gorakoa den edo ez kontuan hartuta.

Estas labores tendrán la consideración de cigarros o cigarritos según que su peso exceda o no de 3 gramos por unidad.

2. Orobat, zigarro edo zigarrotxotzat hartuko dira tabakoa ez diren sustantziez partzialki osatutako produktuak ere, aurreko apartatuko gainerako irizpideei erantzuten dietenean.

2. Tendrán igualmente la consideración de cigarros o cigarritos los productos constituidos parcialmente por sustancias distintas del tabaco, pero que respondan a los demás criterios del apartado anterior.

3. Zerga honen ondorioetarako, zigarretatzat hartuko dira beren jatorrizko forman erre daitezkeen tabako biribilkiak, aurreko apartatuetan ezarritako eran definitutako zigarroak edo zigarrotxoak ez badira.

3. A efectos de este impuesto, se considerarán cigarrillos los rollos de tabaco que puedan fumarse en su forma original y que no sean cigarros ni cigarritos con arreglo a lo establecido en los apartados anteriores.

Orobat, zigarretatzat hartuko dira industriala ez den manipulazio sinple baten bidez zigarreta zorroetan sartu edo erretzeko paper orrietan biltzen diren tabako biribilkiak.

Igualmente tendrán la consideración de cigarrillos los rollos de tabaco que mediante una simple manipulación no industrial se introducen en fundas de cigarrillos o se envuelven en hojas de papel de fumar.

Zergaren aplikazioaren ondorioetarako, aurreko paragrafoan aipatutako tabako biribilkia bi zigarretatzat hartuko da haren luzera 8 zentimetrotik gorako eta 11 bitartekoa denean, hiru zigarretatzat luzera hori 11 zentimetrotik gorako eta 14 bitartekoa denean, eta horrela hortik aurrera progresio berari jarraituz.

El rollo de tabaco a que refiere el párrafo anterior será considerado, a efectos de la aplicación del impuesto, como dos cigarrillos cuando tenga una longitud superior a 8 centímetros, sin sobrepasar los 11 centímetros, y como tres cigarrillos cuando tenga una longitud superior a 11 centímetros, sin sobrepasar 14 centímetros, y así sucesivamente con la misma progresión.

Luzera neurtzeko, filtroa eta ahokoa ez dira kontuan hartuko.

Para la medición de la longitud no se tendrá en cuenta ni el filtro ni la boquilla.

4. Zerga honen ondorioetarako, erretzeko tabakoa edo tabako xehea honako hau izango da:

4. A efectos de este impuesto, tendrá la consideración de tabaco para fumar o picadura:

a) Moztutako edo beste era batera zatitutako tabakoa, haritua edo plantxan prentsatua, aurreko apartatuetan sartzen ez dena eta geroko eraldaketa industrialik gabe erre daitekeena.

a) El tabaco cortado o fraccionado de otro modo, hilado o prensado en plancha, no incluido en los apartados anteriores y que sea susceptible de ser fumado sin transformación industrial ulterior.

b) Txikizka saltzeko egokitutako tabako hondakinak, zigarro, zigarrotxo edo zigarreta ez direnak, erre badaitezke. Ondorio horietarako, tabako hondakinak izango dira tabako hostoen hondarrak eta tabakoaren tratamendutik edo tabako laboreen fabrikaziotik eratorritako azpiproduktuak.

b) Los desechos de tabaco acondicionado para la venta al por menor que no sean cigarros, cigarritos ni cigarrillos y que sean susceptibles de ser fumados. A estos efectos, se considerarán desechos de tabaco los restos de hojas de tabaco y los subproductos derivados del tratamiento del tabaco o de la fabricación de labores de tabaco.

5. Zerga honen ondorioetarako, aurreko apartatuko definizioaren ildotik, erretzeko tabakoa biltzeko tabako xehetzat joko da, tabako partikulen 100eko 25 baino gehiagok 1,5 milimetrotik beherako ebaki zabalera dutenean.

5. A efectos de este impuesto, tendrá la consideración de picadura para liar el tabaco para fumar tal como se define en el apartado anterior, siempre que más del 25 por 100 en peso de las partículas de tabaco presenten un ancho de corte inferior a 1,5 milímetros.

Halaber, erretzeko tabakoa, zigarretak biltzeko saltzen denean, tabako xehetzat joko da, baldin eta tabako partikulen 100eko 25 baino gehiagok 1,5 milimetroko edo hortik gorako ebaki zabalera dutenean.

Tendrá igualmente la consideración de picadura para liar el tabaco para fumar en el que más del 25 por 100 en peso de las partículas de tabaco presenten un ancho de corte igual o superior a 1,5 milímetros, vendido o destinado a la venta para liar cigarrillos.

6. Era berean, erretzeko zigarreta eta tabakotzat hartuko dira trafikoa debekatua ez duten substantziez guztiz edo partzialki osatuta dauden produktuak, tabakoa ez izan arren aurreko 3. eta 4. apartatuetan ezarritako gainerako irizpideei erantzuten dietenean. Hala ere, tabakorik ez duten produktuak ez dira halakotzat hartuko medikuntzarako baino ez direla erabiltzen frogatzen denean.

6. Tendrán igualmente la consideración de cigarrillos y tabaco para fumar los productos constituidos exclusiva o parcialmente por sustancias de tráfico no prohibido que no sean tabaco pero que respondan a los restantes criterios establecidos en los apartados 3 y 4 anteriores. No obstante, los productos que no contengan tabaco no tendrán esta consideración cuando se justifique que tienen una función exclusivamente medicinal.

7. Zerga honen ondorioetarako, fabrikatzailetzat hartuko da tabakoa tabako labore bihurtzen duena, eta labore hori egokitu ondoren jendaurreko salmentara bideratzen dituena.

7. A efectos de este impuesto, tendrá la consideración de fabricante la persona que transforma el tabaco en labores del tabaco acondicionadas para su venta al público.

60. artikulua. Zerga tasak.

1. Tarifa honen arabera exijituko da zerga:

1. epigrafea. Zigarroak eta zigarrotxoak: hurrengo paragrafoa aplikagarria den kasuetan izan ezik, zigarro eta zigarrotxoak 100eko 15,8ko tasan zergapetuko dira.

Zergaren zenbatekoa ezin da izan 41,5 euroko tasa bakarretik beherakoa 1.000 unitateko, eta 44,5 eurora igoko da zigarro eta zigarrotxoei 1.000 unitateko ezartzen zaien jendaurreko salmenta prezioa 215 eurotik beherako denean.

2. epigrafea. Zigarretak: hurrengo paragrafoa aplikagarria den kasuetan izanik ezik, zigarretei tasa hauek aplikatuko zaizkie aldi berean:

a) Tasa proportzionala: 100eko 51.

b) Tasa espezifikoa: 24,7 euro 1.000 zigarretako.

Zergaren zenbatekoa ezin da izan 131,5 euroko tasa bakarretik beherakoa 1.000 unitateko, eta 141 euroraino igoko da zigarretei 1.000 unitateko ezartzen zaien jendaurreko salmenta prezioa 196 eurotik beherako denean.

3. epigrafea. Biltzeko tabako xehea: hurrengo paragrafoa aplikagarria den kasuetan izan ezik, biltzeko tabako xeheari tasa hauek aplikatuko zaizkio aldi berean:

a) Tasa proportzionala: 100eko 41,5.

b) Tasa espezifikoa: 23,5 euro kilogramoko.

Zergaren zenbatekoa ezin da izan 98,75 euroko tasa bakarretik beherakoa kilogramoko, eta 102,75 euroraino igoko da

Artículo 60. Tipos impositivos.

1. El impuesto se exigirá conforme a la siguiente tarifa:

Epígrafe 1. Cigarros y cigarritos: excepto en los casos en que resulte aplicable el párrafo siguiente, los cigarros y cigarritos estarán gravados al tipo del 15,8 por 100.

El importe del impuesto no puede ser inferior al tipo único de 41,5 euros por cada 1.000 unidades, y se incrementará hasta 44,5 euros cuando a los cigarros y cigarritos se les determine un precio de venta al público inferior a 215 euros por cada 1.000 unidades.

Epígrafe 2. Cigarrillos: excepto en los casos en que resulte aplicable el párrafo siguiente, los cigarrillos estarán gravados simultáneamente a los siguientes tipos impositivos:

a) Tipo proporcional: 51 por 100.

b) Tipo específico: 24,7 euros por cada 1.000 cigarrillos.

El importe del impuesto no puede ser inferior al tipo único de 131,5 euros por cada 1.000 cigarrillos, y se incrementará hasta 141 euros cuando a los cigarrillos se les determine un precio de venta al público inferior a 196 euros por cada 1.000 cigarrillos.

Epígrafe 3. Picadura para liar: excepto en los casos en que resulte aplicable el párrafo siguiente, la picadura para liar estará gravada simultáneamente a los siguientes tipos impositivos:

a) Tipo proporcional: 41,5 por 100.

b) Tipo específico: 23,5 euros por kilogramo.

El importe del impuesto no puede ser inferior al tipo único de 98,75 euros por cada kilogramo, y se incrementará hasta 102,75

tabako xeheari kilogramoko ezartzen zaion jendaurreko salmenta prezioa 165 eurotik beherako denean.

4. epigrafea. Gainerako tabako laboreak: 100eko 28,4.

Gainerako tabako laboreei 22 euroko tasa bakarra aplikatuko zaie kilogramoko, aurreko paragrafoan ezarritako tasa aplikatzetik ateratzen den kuota tasa bakar honen zenbatekoa baino txikiagoa denean.

2. Artikulu honen ondorioetarako, epigrafe bakoitzaren kasuan jendaurreko salmenta prezioa penintsulako eta Balear uharteetako tabako eta tinbre saltokietan jendaurrean dagoen gehieneko salmenta prezioa izango da, zerga guztiak barne.

euros cuando a la picadura para liar se le determine un precio de venta al público inferior a 165 euros por kilogramo.

Epígrafe 4. Las demás labores del tabaco: 28,4 por 100.

Las demás labores del tabaco estarán gravadas al tipo único de 22 euros por kilogramo cuando la cuota que resultaría de la aplicación del tipo establecido en el párrafo anterior sea inferior a la cuantía de este tipo único.

2. A los efectos de este artículo, por precio de venta al público para cada epígrafe se entenderá el precio máximo de venta al público, en expendedurías de tabaco y timbre situadas en la Península o Illes Balears, incluidos todos los impuestos.

61. artikulua. Salbuespenak.

1. Foru dekretu arauemaile honen 9. artikuluan aipatzen diren eragiketez gain, salbuetsita egongo dira, erregelamenduz ezarriko diren baldintzetan, tabako laboreen fabrikazioa eta inportazioa, xede hau ematen zaienean:

a) Fabriketan eta gordailu fiskaletan desnaturalizatzea, gero industrian edo nekazaritzan erabiltzeko.

b) Analisi zientifikoak edo laboreen kalitateari buruzkoak egitea bai fabriketan bai gordailu fiskaletan.

2. Salbuetsita egongo dira, halaber, tabako laboreen inportazio hauek:

a) Hirugarren herrialdeetatik datozen hamazazpi urtetik gorako bidaiariek zuzenean egiten dituztenak, betiere honako muga kuantitatibo hauek gainditzen ez badituzte:

1.a 200 zigarreta, edo

2.a 100 zigarrotxo, edo

Artículo 61. Exenciones.

1. Estarán exentas, con las condiciones que se establezcan reglamentariamente, además de las operaciones a que se refiere el artículo 9 de este decreto foral normativo, la fabricación e importación de las labores del tabaco que se destinen a:

a) Su desnaturalización en fábricas y depósitos fiscales para su posterior utilización en fines industriales o agrícolas.

b) La realización de análisis científicos o relacionados con la calidad de las labores, desde fábricas o depósitos fiscales.

2. Estarán igualmente exentas las siguientes importaciones de labores del tabaco:

a) Las conducidas personalmente por viajeros mayores de diecisiete años procedentes de terceros países, siempre que no superen los límites cuantitativos siguientes:

1.º 200 cigarrillos, o

2.º 100 cigarritos, o

3.a 50 zigarrotxo, edo

4a. Gainerako tabako laboreen 250 gramo.

b) Partikular batek hirugarren herrialde batetik beste partikular bati lantzean behin egindako bidalketa txikiak, tartean inolako ordainketarik ez badago eta muga kuantitatibo hauek gainditzen ez badira:

1.a 50 zigarreta, edo

2.a 25 zigarrotxo, edo

3.a 10 zigarro, edo

4.a. Gainerako tabako laboreen 50 gramo.

3. Hirugarren herrialde edo lurralde batera airez edo itsasoz doazen bidaiariei zergarik gabeko dendetan saltzeko diren tabako laboreak, beren ekipaje pertsonalean daramatzatenean.

62. artikulua. Itzulketak.

Tabako laboreen gaineko zergarengatik ordaindutako kuoten itzulketarako eskubidea egongo da, erregelamenduz ezarriko den eran eta baldintzetan, foru dekretu arauemaile honen 10. artikuluan jasotako kasuetan ez ezik, baita honako hauetan ere:

a) Tabako laboreak Zerga Administrazioaren kontrolpean suntsitzen direnean.

b) Tabako laboreak fabrikara itzultzen direnean bertan birziklatzeko.

63. artikulua. Kudeaketako arau bereziak.

Gordailuzain baimenduek, hartzaile erregistratuek, hartzaile ziurtatuek edo urrutiko salmenten sistemako hartzaileek, eta horiek bakarrik, jaso ditzakete tabako laboreak Batasuneko beste estatu batzuetatik, baina, kasu guztietan, horiek

3.º 50 cigarros, o

4.º 250 gramos de las restantes labores.

b) Los pequeños envíos expedidos, con carácter ocasional, desde un tercer país por un particular con destino a otro particular, sin que medie pago de ninguna clase y dentro de los siguientes límites cuantitativos:

1.º 50 cigarrillos, o

2.º 25 cigarritos, o

3.º 10 cigarros, o

4.º 50 gramos de las restantes labores.

3. Las labores del tabaco destinadas a ser entregadas por tiendas libres de impuestos y transportadas en el equipaje personal de los viajeros que se trasladen, por vía aérea o marítima, a un tercer país o territorio

Artículo 62. Devoluciones.

Se reconocerá el derecho a la devolución de las cuotas previamente satisfechas por el impuesto sobre las labores del tabaco, en la forma y con las condiciones que reglamentariamente se establezcan, además de en los supuestos a que se refiere el artículo 10 de este decreto foral normativo, en los siguientes:

a) La destrucción de las labores del tabaco bajo control de la Administración tributaria.

b) La devolución de las labores del tabaco a fábrica para su reciclado.

Artículo 63. Normas particulares de gestión.

La recepción de labores del tabaco procedentes de otros Estados miembros de la Unión quedará restringida a los depositarios autorizados, destinatarios registrados, destinatarios certificados o destinatarios en el sistema de ventas a

nahitaezkoa dute tabako merkatuaren araudian ezarritako baldintzak betetzea.

distancia que reúnan, en todos los casos, las condiciones previstas en la normativa reguladora del mercado de tabacos.

IX. KAPITULUA

Elektrizitatearen gaineko zerga (edukirik gabe)

64. artikulua (edukurik gabe)

CAPÍTULO IX

Impuesto sobre la electricidad (sin contenido)

Artículo 64 (sin contenido)

II. TITULUA

Zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia

65. artikulua. Zerga egitatea.

1. Zergari lotuta egongo dira:

a) Beren kabuz mugitzeko motorra duten ibilgailuak, berriak zein erabiliak, lehen aldiz matrikulatzea Espainian behin betiko, jarraian aipatzen direnak izan ezik:

1.a Kontseiluaren 1970eko otsailaren 6ko 70/156/EEE Zuzentarauak, ibilgailu motordunen eta horien atoien homologazioari buruz estatu kideek dituzten legeriak hurbiltzeari buruzkoak, 2007ko otsailaren 6an indarrean duen eranskineko testuan aipatzen diren N1, N2 eta N3 kategorietan jasotako ibilgailuak, zergari ez lotzeko beste kasu batzuetan sartuta ez daudenean. Gainera, N1 kategoriakoen kasuan, nahitaezkoa da horiek jarduera ekonomiko bati atxikita egotea modu esanguratsuan. Ibilgailua jarduera ekonomiko bati modu esanguratsuan lotuta dagoela joko da, subjektu pasiboak, Gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko ……..ren …(e)ko ../…. Foru Dekretu Arauemailearen 95. artikuluan jasotakoari jarraituta, gutxienez 100eko 50eko kenkaria aplika dezakeenean

TÍTULO II

Impuesto especial sobre determinados medios de transporte

Artículo 65. Hecho imponible.

1. Estarán sujetas al impuesto:

a) La primera matriculación definitiva en España de vehículos, nuevos o usados, provistos de motor para su propulsión, excepto la de los que se citan a continuación:

1.º Los vehículos comprendidos en las categorías N1, N2 y N3 establecidas en el texto vigente al día 30 de junio de 2007 del anexo II de la Directiva 70/156/CEE, del Consejo, de 6 de febrero de 1970, relativa a la aproximación de las legislaciones de los Estados miembros sobre la homologación de vehículos a motor y de sus remolques, que no estén incluidos en otros supuestos de no sujeción y siempre que, cuando se trate de los comprendidos en la categoría N1, se afecten significativamente al ejercicio de una actividad económica. La afectación a una actividad económica se presumirá significativa cuando, conforme a lo previsto en el artículo 95 del Decreto Foral Normativo ../…., de .. de …….., del Impuesto sobre el Valor Añadido, el sujeto pasivo tuviera derecho a deducirse al menos el 50 por 100 de las cuotas del impuesto sobre el valor

erosketa edo inportazioa dela eta BEZean jasan edo ordaindutako kuotengatik. Ondorio horietarako, berdin izango da foru dekretu arauemaile horretan jasotako arauetatik eratorritako kenkarirako eskubidean beste edozein murriztapen aplikatzen den ala ez.

añadido soportadas o satisfechas con ocasión de la adquisición o importación del vehículo, sin que a estos efectos sea relevante la aplicación de cualquier otra restricción en el derecho a la deducción derivada de las normas contenidas en dicho decreto foral normativo.

Dena den, ibilgailu horiek etxebizitza gisa erabiltzeko egokitzen direnean, Espainian egiten zaien behin betiko lehen matrikulazioa zergari lotuta egongo da.

No obstante, estará sujeta al impuesto la primera matriculación definitiva en España de estos vehículos cuando se acondicionen para ser utilizados como vivienda.

2.a Aurreko 1. zenbakian aipatutako testuan aurreikusten diren M2 eta M3 kategorietan sartutako ibilgailuak, eta tranbiak.

2.º Los vehículos comprendidos en las categorías M2 y M3 establecidas en el mismo texto al que se refiere el número 1.º anterior y los tranvías.

3.a Objektiboki aintzat hartuta, industrian, merkataritzan, nekazaritzan, medikuntzan edo zientzian bakarrik aplikatzekoak direnak, betiere haien serieko modeloak edo banaka hartutako ibilgailuak behar bezala homologatu baditu Zerga Administrazioak. Ondorio horietarako, ulertuko da ibilgailuak aplikazio horietarako bakarrik bideratuta daudela horietan baldintza hauek betetzen direnean: bakar-bakarrik bi eserleku izatea (gidariarena eta aldamenekoarena), ez izatea ez eserleku gehigarririk ez eserlekuak ainguratzeko euskarririk, zamarako espazioan alboetako leihorik ez egotea eta espazio horrek barruko bolumenaren 100eko 50 baino gehiago hartzea.

3.º Los que, objetivamente considerados, sean de exclusiva aplicación industrial, comercial, agraria, clínica o científica, siempre que sus modelos de serie o los vehículos individualmente hubieran sido debidamente homologados por la Administración tributaria. A estos efectos, se considerará que tienen exclusivamente alguna de estas aplicaciones los vehículos que dispongan únicamente de dos asientos (para el conductor y el ayudante), en ningún caso posean asientos adicionales ni anclajes que permitan su instalación y el espacio destinado a la carga no goce de visibilidad lateral y sea superior al 50 por 100 del volumen interior.

4.a Bi edo hiru gurpileko ziklomotorrak eta kuadriziklo arinak.

4.º Los ciclomotores de dos o tres ruedas y los cuadriciclos ligeros.

5.a Motozikletak eta kuatrizikloak ez diren hiru gurpileko ibilgailuak, bi kasuetan zilindrada ez bada 250 zentrimetro kubikotik gorakoa, barne errekuntzako motorren kasuan, edo gehieneko potentzia garbia 16 kW-tik gorakoa ez denean, gainerako motorretan.

5.º Las motocicletas y los vehículos de tres ruedas que no sean cuatriciclos siempre que, en ambos casos, su cilindrada no exceda de 250 centímetros cúbicos, si se trata de motores de combustión interna, o su potencia máxima neta no exceda de 16 kW, en el resto de motores.

6.a Mugikortasuna mugatua duten pertsonentzako ibilgailuak.

6.º Los vehículos para personas con movilidad reducida.

7.a Ibilgailu bereziak, betiere 70.1 artikuluko 4. epigrafean definitzen diren "quad" motako ibilgailuak ez badira.

7.º Los vehículos especiales, siempre que no se trate de los vehículos tipo “quad” definidos en el epígrafe 4.º del artículo 70.1.

8.a Ibilgailu misto moldagarriak, karrozeriaren sabaiaren parte estrukturaletik lurreraino duten altura osoa 1.800 milimetrotik gorakoa denean, betiere lur orotako ibilgailuak ez badira eta jarduera ekonomiko bati atxikita badaude modu esanguratsuan. Ibilgailua jarduera ekonomiko bati modu esanguratsuan lotuta dagoela joko da, subjektu pasiboak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari ……..ren …(e)..ko ../…. Foru Dekretu Arauemailearen 95. artikuluan jasotakoari jarraituta, gutxienez 100eko 50eko kenkaria aplika dezakeenean erosketa edo inportazioa dela eta BEZean jasan edo ordaindutako kuotengatik. Ondorio horietarako, berdin izango da foru dekretu arauemaile horretan jasotako arauetatik eratorritako kenkarirako eskubidean beste edozein murriztapen aplikatzen den ala ez.

8.º Los vehículos mixtos adaptables cuya altura total desde la parte estructural del techo de la carrocería hasta el suelo sea superior a 1.800 milímetros, siempre que no sean vehículos todo terreno y siempre que se afecten significativamente al ejercicio de una actividad económica. La afectación a una actividad económica se presumirá significativa cuando, conforme a lo previsto en el artículo 95 del Decreto Foral Normativo ../…., de .. de …….., del Impuesto sobre el Valor Añadido, el sujeto pasivo tuviera derecho a deducirse al menos el 50 por 100 de las cuotas del impuesto sobre el valor añadido soportadas o satisfechas con ocasión de la adquisición o importación del vehículo, sin que a estos efectos sea relevante la aplicación de cualquier otra restricción en el derecho a la deducción derivada de las normas contenidas en dicho decreto foral normativo.

Dena den, ibilgailu horiek etxebizitza gisa erabiltzeko egokitzen direnean, Espainian egiten zaien behin betiko lehen matrikulazioa zergari lotuta egongo da.

No obstante, estará sujeta al impuesto la primera matriculación definitiva en España de estos vehículos cuando se acondicionen para ser utilizados como vivienda.

9.a Indar armatuek, Estatuko, autonomia erkidegoetako eta toki korporazioetako segurtasun indarrek eta kidegoek, bai eta aduanako zaintzaileek ere, defentsa, zaintza eta segurtasun eginkizunetan erabiltzeko direnak.

9.º Los destinados a ser utilizados por las Fuerzas Armadas, por los Cuerpos y Fuerzas de Seguridad del Estado, de las Comunidades Autónomas y de las Corporaciones Locales, así como por el Resguardo Aduanero, en funciones de defensa, vigilancia y seguridad.

10.a Anbulantziak eta, dauzkaten ezaugarriengatik, autobide eta errepideetan zaintza eta sorospen lanetarako bakarrik erabil daitezkeen ibilgailuak.

10.º Las ambulancias y los vehículos que, por sus características, no permitan otra finalidad o utilización que la relativa a la vigilancia y socorro en autopistas y carreteras.

b) Aisiarako edo ur kiroletarako itsasontzi edo ur ontziak, izan berriak izan erabiliak, lehen aldiz matrikulatzea itsasontzien matrikula erregistro arruntean edo berezian, haien luzera zortzi metrokoa baino

b) La primera matriculación de embarcaciones y buques de recreo o de deportes náuticos, nuevos o usados, que tengan más de ocho metros de eslora, en el registro de matrícula de buques, ordinario o

handiagoa denean, edo, erregistro horretan inskribatu ezin badira, kasuan kasuko kirol federazioan lehen aldiz matrikulatzea.

especial o, en caso de no ser inscribibles en dicho registro, la primera matriculación en el registro de la correspondiente federación deportiva.

Foru dekretu arauemaile honen 70.1 artikuluko 4. epigrafean definitutako ur motoen lehen matrikulazioa beti egongo da zergari lotuta, edozein luzera dutela ere.

Estará sujeta en todo caso, cualquiera que sea su eslora, la primera matriculación de las motos náuticas definidas en el epígrafe 4.º del artículo 70.1 de este decreto foral normativo.

Aintzat hartuko den luzera apirilaren 27ko 544/07 Errege Dekretuak 2007ko ekainaren 30ean indarrean duen testuan halakotzat definitzen duena izango da (544/2007 Errege Dekretua, itsasontzien matrikula erregistroko zazpigarren zerrendan aisiako urontziak estatu baten banderapean jarri eta matrikulatzea arautzen duena).

La eslora a considerar será la definida como tal en la versión vigente al día 30 de junio de 2007 del Real Decreto 544/2007, de 27 de abril, por el que se regula el abanderamiento y matriculación de las embarcaciones de recreo en la Lista séptima del Registro de matrícula de buques.

Aisiarako edo ur kiroletarako urontzi eta ontzitzat hartzen dira honako hauek:

Tienen la consideración de embarcaciones y buques de recreo o de deportes náuticos:

1.a Itsasontzien matrikula erregistro arrunt edo bereziko seigarren edo zazpigarren zerrendan inskribatzen diren itsasontziak edo, hala badagokio, kasuan kasuko kirol federazioaren erregistroan izena emandakoak.

1.º Las embarcaciones que se inscriban en las listas sexta o séptima del registro de matrícula de buques, ordinario o especial o, en su caso, en el registro de la correspondiente federación deportiva.

2. Aurreko 1. paragrafoan aipatutakoak ez diren itsasontziak, aisiako nabigazio pribaturako erabiliak, foru dekretu arauemaile honen 4. artikuluko 13. apartatuan definitutako eran.

2.º Las embarcaciones distintas de las citadas en el párrafo 1.º anterior que se destinen a la navegación privada de recreo, tal como se define en el apartado 13 del artículo 4 de este decreto foral normativo.

c) Hegazkinak, hegazkin txikiak eta motor mekanikoz hornitutako gainerako aireontziak, berriak zein erabiliak, lehen aldiz matrikulatzea aireontzien erregistroan, jarraian aipatzen direnak izan ezik:

c) La primera matriculación de aviones, avionetas y demás aeronaves, nuevas o usadas, provistas de motor mecánico, en el registro de aeronaves, excepto la de las que se citan a continuación:

1.a Beren ezaugarri teknikoengatik, nekazaritza edo basogintzako lanetarako edo gaixoak eta zaurituak garraiatzeko bakarrik erabili daitezkeen aireontziak.

1.º Las aeronaves que, por sus características técnicas, sólo puedan destinarse a trabajos agrícolas o forestales o al traslado de personas enfermas y heridas.

2.a Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak emandako ziurtagiriaren arabera,

2.º Las aeronaves cuyo peso máximo al despegue no exceda de 1.550 kilogramos

aireratzeko unean gehienez 1.550 kilogramo pisatzen duten aireontziak.

según certificado expedido por la Dirección General de Aviación Civil.

d) Aurreko apartatuetan aipatutako garraiobideak Espainian zirkulatu edo erabiltzea zergari lotuta egongo da, baldin eta Espainian erabiltzen hasi ondorengo 30 egunen barruan oraindik ez bada eskatu horiek Gipuzkoan behin betiko matrikulatzea, foru dekretu arauemaile honen lehen xedapen gehigarrian aurreikusitakoarekin bat. Epe hori 60 egunekoa izango da, garraiobideak Espainian erabiltzearen arrazoia titularraren ohiko bizilekua lurralde espainiarrera aldatzea denean, betiere foru dekretu arauemaile honen 66. artikuluko 1.n) apartatuan jasotako salbuespena aplikatzekoa bada.

d) Estará sujeta al impuesto la circulación o utilización en España de los medios de transporte a que se refieren los apartados anteriores, cuando no se haya solicitado su matriculación definitiva en el Territorio Histórico de Gipuzkoa conforme a lo previsto en la disposición adicional primera de este decreto foral normativo, dentro del plazo de los 30 días siguientes al inicio de su utilización en España. Este plazo se extenderá a 60 días cuando se trate de medios de transporte que se utilicen en España como consecuencia del traslado de la residencia habitual de su titular al territorio español siempre que resulte de aplicación la exención contemplada en el apartado 1.n) del artículo 66 del presente decreto foral normativo.

Ondorio horietarako, ulertuko da ibilgailuak data hauetan hasi direla Espainian zirkulatzen edo erabiltzen:

A estos efectos, se considerarán como fechas de inicio de su circulación o utilización en España las siguientes:

1.a Aldi baterako inportazio araubidean edo matrikula turistikoei aplikatutakoan egon diren garraiobideak badira, araubide horiek utzi edo iraungitzen diren egunean.

1.º Si se trata de medios de transporte que han estado acogidos a los regímenes de importación temporal o de matrícula turística, la fecha de abandono o extinción de dichos regímenes.

2.a Gainerako kasuetan, garraiobidea Espainian sartzen den egunean. Data hori ez bada ezagutzen modu sinesgarrian, erabileraren hasiera datatzat bi hauetako azkena hartuko da:

2.º En el resto de los casos, la fecha de la introducción del medio de transporte en España. Si dicha fecha no constase fehacientemente, se considerará como fecha de inicio de su utilización la que resulte ser posterior de las dos siguientes:

— Garraiobidearen eskurapen data.

— Fecha de adquisición del medio de transporte.

— Interesduna Espainian egoiliartuta dagoela edo Espainian kokatutako establezimendu baten titular dela irizten den data.

— Fecha desde la cual se considera al interesado residente en España o titular de un establecimiento situado en España.

2. a) Aurreko 1.a) apartatuan eta foru dekretu arauemaile honen 70. artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren ibilgailuak mugatu

2. a) La delimitación y determinación de los vehículos a que se refieren el apartado 1.a) anterior y el apartado 1 del artículo 70 de

eta zehazteko, aintzat hartzekoak izango dira, apartatu horietan espresuki jasota ez dagoen guztian, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrak II. eranskinean jasotzen dituen definizioak eta kategoriak (2007ko ekainaren 30ean indarrean duen testuari jarraituta).

este decreto foral normativo, se efectuará, en lo no previsto expresamente en dichos preceptos, con arreglo a las definiciones y categorías contenidas en la versión vigente al día 30 de junio de 2007 del anexo II del Reglamento General de Vehículos, aprobado por el Real Decreto 2822/1998, de 23 de diciembre.

b) Foru dekretu arauemaile honen ondorioetarako, garraiobide berritzat joko dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko ...aren (e)ko... ... /... Foru Dekretu Arauemailean ezarritakoaren arabera halakotzat hartzen direnak, lehen matrikulazioa Kanarietan egin arren.

b) A efectos de este decreto foral normativo, se considerarán nuevos aquellos medios de transporte que tengan tal consideración conforme a lo establecido en el Decreto Foral Normativo ../…., de .. de …….., del Impuesto sobre el Valor Añadido, aunque la primera matriculación se produzca en Canarias.

c) Aurreko 1.a) apartatuko 9. eta 10. zenbakietan aipatzen diren ez-zergapetze kasuak aplikatzeko, Zerga Administrazioak aldez aurretik onartu beharko ditu erregelamenduz erabakiko den eran. Zerga egitatea garraiobideak Espainian zirkulatzea edo erabiltzea denean, ez-zergapetze kasu horiek aplikatzeko, beharrezkoa izango da, gainera, aldez aurreko onarpen hori foru dekretu arauemaile honen 65.1.d) artikuluan ezarritako epeen barruan eskatzea.

c) La aplicación de los supuestos de no sujeción a que se refieren los números 9.º y 10.º del apartado 1.a) anterior, estará condicionada a su previo reconocimiento por la Administración tributaria en la forma que se determine reglamentariamente. Cuando el hecho imponible sea la circulación o utilización de medios de transporte en España, la aplicación de estos supuestos de no sujeción estará condicionada, además, a que la solicitud para el referido reconocimiento previo se presente dentro de los plazos establecidos en el artículo 65.1.d) de este decreto foral normativo.

Zergari ez lotzeko gainerako kasuetan, beharrezkoa izango da Zerga Administrazioari aitorpen bat aurkeztea Ogasun eta Finantza Departamentuko diputatuak egoki iritzitako tokian, moduan, epean eta inprimakietan. Zerga Administrazioak homologatutako ibilgailuak paragrafo honetan aurreikusitakotik kanpo geratzen dira.

En los demás supuestos de no sujeción será necesario presentar una declaración ante la Administración tributaria en el lugar, forma, plazo e impresos que determine la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas. Se exceptúan de lo previsto en este párrafo los vehículos homologados por la Administración tributaria.

3. Zerga egitatea egin eta lau urte pasatu baino lehen aldaketarik baldin badago foru dekretu honetan aurreikusitako ez-zergapetze edo salbuespen kasuak eragiten dituzten zirkunstantzia edo baldintzetan, aldaketa hori gertatu den momentuagatik autolikidatu eta ordaindu beharko da zerga

3. La modificación, antes de transcurridos cuatro años desde la realización del hecho imponible, de las circunstancias o requisitos determinantes de los supuestos de no sujeción o de exención previstos en el presente decreto foral normativo, dará lugar a la autoliquidación e ingreso del impuesto

berezia, non eta aldaketa hori egin ondoren ez den aplikatzekoa foru dekretu arauemaile honetan jasotzen diren ez-zergapetze edo salbuespen kasuetakoren bat. Garraiobidearen eskualdaketak matrikulazio alorrean eskumena duen organoaren aurrean ondorioak izan ditzan, ondoko hau egin beharko da, kasuan kasu: zerga ordaindu dela aipatutako organoari frogatu, zergapetu gabe edo salbuetsita egotearen aitorpena hari aurkeztu, kudeaketa organoak behar bezala diligentziatua beti, edo, bestela, Zerga Administrazioak aldez aurretik jotzea aplikagarritzat ez- zergapetze edo salbuespen kasua.

especial con referencia al momento en que se produzca dicha modificación, salvo que tras la modificación resulte aplicable un supuesto de no sujeción o de exención de los previstos en este decreto foral normativo. Para que la transmisión del medio de transporte que en su caso se produzca surta efectos ante el órgano competente en materia de matriculación, será necesario, según el caso, acreditar ante dicho órgano el pago del impuesto, o bien presentar ante el mismo la declaración de no sujeción o exención debidamente diligenciada por el órgano gestor, o el reconocimiento previo de la Administración tributaria para la aplicación del supuesto de no sujeción o de exención.

Aurreko paragrafoan aipatzen den epea bi urtera murriztuko da, garraiobideen behin betiko lehen matrikulazioa salbuetsita egon denean foru dekretu arauemaile honen 66. artikuluko 1. apartatuaren b) eta c) letretan xedatutakoari jarraituz.

El período al que se refiere el párrafo anterior de este apartado se reducirá a dos años cuando se trate de medios de transporte cuya primera matriculación definitiva hubiera estado exenta en virtud de lo dispuesto en las letras b) y c) del apartado 1 del artículo 66 de este decreto foral normativo.

Era berean, apartatu honetako aurreko paragrafoetan aipatutako autolikidazioa eta ordainketa ez dira exijituko, aldatutako zirkunstantzia baldin bada garraiobidea zergaren aplikazio lurraldetik kanpora bidaltzen dela behin betiko. Horrelakoetan, bidalketa frogatu beharko da bidezko erregistroan baja eman izanaren ziurtagiria, matrikulazio alorrean eskumena duen organo eskudunak emana, aurkeztuta.

Asimismo, la autoliquidación e ingreso a que se refieren los párrafos anteriores de este apartado no será exigible cuando la modificación de las circunstancias consista en el envío del medio de transporte fuera del territorio de aplicación del impuesto con carácter definitivo, lo que se acreditará mediante la certificación de la baja en el registro correspondiente expedida por el órgano competente en materia de matriculación.

Gertatzen bada zergaren aplikazio lurraldetik kanpora behin betiko bidali den garraiobide bat, aurreko paragrafoan edo foru dekretu arauemaile honen 66.3. artikuluan xedatutakoa aplikatuta joan dena, berriro sartzen dela zergaren aplikazio lurraldean, garraiobide hori zirkulatu edo erabiltzeko baimena matrikulazio arloan eskumena duen organoak ematea behin betiko lehen matrikulaziotzat hartuko da zerga honen ondorioetarako.

La expedición de un permiso de circulación o utilización por el órgano competente en materia de matriculación para un medio de transporte que se reintroduzca en el territorio de aplicación del impuesto tras haber sido enviado fuera del mismo con carácter definitivo y acogido a lo dispuesto en el párrafo anterior o en el apartado 3 del artículo 66 de este decreto foral normativo, tendrá la consideración de primera matriculación definitiva a efectos de este impuesto.

4. Garraiobideen behin betiko lehen matrikulazioa ez da egongo zergari lotuta, baldin eta haien zirkulazioa eta erabilera foru dekretu arauemaile honen 65. artikuluko 1. apartatuaren d) letrari jarraituz zergapetu badira, eta, gainera, ezarritako epeen barruan:

4. No estará sujeta al impuesto la primera matriculación definitiva de los medios de transporte cuya circulación o utilización haya estado sujeta al impuesto con arreglo a lo establecido en la letra d) del apartado 1 del artículo 65 de este decreto foral normativo, siempre que dentro de los plazos establecidos:

a) dagokion zerga autolikidatu edo ordaindu bada, edo

a) El impuesto correspondiente a esa sujeción haya sido objeto de autoliquidación e ingreso, o bien,

b) dagokion zerga Zerga Administrazioak likidatu badu eta kasuan kasuko zenbatekoa ordaindu bada, edo

b) el impuesto correspondiente a esa sujeción haya sido objeto de liquidación por parte de la Administración tributaria e ingresado el importe correspondiente, o bien,

c) Zerga Administrazioak aurrez onartu badu ez-zergapetze edo salbuespen kasu bat aplikatzekoa dela, hala aurreikusita dauden kasuetan, edo

c) la Administración tributaria haya reconocido previamente la procedencia de la aplicación de un supuesto de no sujeción o de exención, en los casos en que así esté previsto, o bien,

d) Zerga Administrazioari zergan salbuesteari buruzko aitorpen bat aurkeztu bazaio, hala aurreikusitako kasuetan.

d) se haya presentado una declaración ante la Administración tributaria relativa a una exención del impuesto, en los casos en que así esté previsto.

66. artikulua. Salbuespenak, itzulketak eta murriztapenak.

Artículo 66. Exenciones, devoluciones y reducciones.

1. Garraiobideen behin betiko lehen matrikulazioa edo, hala badagokio, horiek Espainian zirkulatzea edo erabiltzea, zergatik salbuetsita egongo da honako garraiobideak direnean:

1. Estará exenta del impuesto la primera matriculación definitiva o, en su caso, la circulación o utilización en España, de los siguientes medios de transporte:

a) Indarrean dagoen legeriaren arabera taxi, autotaxi edo autoturismoak diren ibilgailu automobilak.

a) Los vehículos automóviles considerados como taxis, autotaxis o autoturismos por la legislación vigente.

b) Kontraprestazio bidez gidariak trebatzeko ez beste ezertarako erabiltzen diren ibilgailu automobilak.

b) Los vehículos automóviles que se afecten efectiva y exclusivamente al ejercicio de la actividad de enseñanza de conductores mediante contraprestación.

c) Alokatzeko ez beste ezertarako erabiltzen diren ibilgailu automobilak.

c) Los vehículos automóviles que se afecten efectiva y exclusivamente al ejercicio de actividades de alquiler.

Ondorio horietarako, automobilak alokatzeko jarduerarik ez dagoela joko da automobil horiek Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko ……aren (e)..ko …/ Foru Dekretu Arauemailearen 79. artikuluan jasotako eran lotuta dauden pertsonei lagatzen zaizkienean, edo, lagapena pertsona edo entitate berberari egiten zaionean hiru hilabetetik gorako epean, hamabi hilabete jarraituen barruan.

A estos efectos no se entenderá que existe actividad de alquiler de automóviles respecto de aquéllos que sean objeto de cesión a personas vinculadas en los términos previstos en el artículo 79 del Decreto Foral Normativo ../…., de .. de …….., del Impuesto sobre el Valor Añadido, o por tiempo superior a tres meses a una misma persona o entidad, durante un periodo de doce meses consecutivos.

Ondorio horietarako, errentamendu-salmenta kontratuak edo horiekin parekatuak, eta erosteko aukera ematen duten errentamenduak ez dira automobilen alokairutzat hartuko.

A estos efectos, no tendrán la consideración de alquiler de automóviles los contratos de arrendamiento-venta y asimilados ni los de arrendamiento con opción de compra.

d) Desgaitasuna duten pertsonen izenean beraiek bakarrik erabiltzeko matrikulatutako ibilgailu automobilak, baldintza hauek betetzen badira:

d) Los vehículos automóviles matriculados a nombre de personas con discapacidad para su uso exclusivo, siempre que concurran los siguientes requisitos:

1.a Gutxienez lau urte igarotzea antzeko baldintzetan beste ibilgailu bat matrikulatu zenetik. Dena den, ibilgailuen erabateko ezbeharra gertatzen denean, baldintza hori ez da exijituko behar bezala frogatzen bada.

1.º Que hayan transcurrido al menos cuatro años desde la matriculación de otro vehículo en análogas condiciones. No obstante, este requisito no se exigirá en supuestos de siniestro total de los vehículos, debidamente acreditado.

2.a Matrikulatu ondorengo lau urteko epearen barruan ibilgailua ez eskualdatzea «inter vivos» egintzen bitartez.

2.º Que no sean objeto de una transmisión posterior por actos «inter vivos» durante el plazo de los cuatro años siguientes a la fecha de su matriculación.

e) Matrikula diplomatikoaren araubide pean matrikulazio berezia duten ibilgailuak, erregelamenduz ezarriko diren muga eta baldintzekin, titularrak honako hauek direnean:

e) Los vehículos que sean objeto de matriculación especial, en régimen de matrícula diplomática, dentro de los límites y con los requisitos que se determinen reglamentariamente, a nombre de:

1.a Espainian egoitza iraunkorra duten eta bertan akreditatuta dauden misio diplomatikoak, eta agente diplomatikoak.

1.º Las Misiones diplomáticas acreditadas y con sede permanente en España, y de los agentes diplomáticos.

2.a Espainiako Estatuarekin egoitza akordio bat sinatu duten nazioarteko erakundeak eta

2.º Las organizaciones internacionales que hayan suscrito un Acuerdo de Sede con el

estatutu diplomatikoa duten bertako funtzionarioak.

Estado español y de los funcionarios de las mismas con estatuto diplomático.

3.a Karrerako bulego kontsularrak eta atzerriko nazionalitatea duten karrerako funtzionario kontsularrak.

3.º Las oficinas consulares de carrera y de los funcionarios consulares de carrera de nacionalidad extranjera.

4.a Misio diplomatikoetako eta nazioarteko erakundeetako langile tekniko eta administratiboak, eta bulego kontsularretako karrerako funtzionarioak, nazionalitatez espainiarrak ez direnean eta Espainian egoitza iraunkorrik ez dutenean.

4.º El personal técnico y administrativo de las misiones diplomáticas y las organizaciones internacionales, así como de los empleados consulares de las Oficinas Consulares de carrera, siempre que se trate de personas que no tengan la nacionalidad española ni tengan residencia permanente en España.

Aurreko 2. eta 4. zenbakietan ezarritakoa hala izanik ere, erakunde horiek sortzeko izenpetzen diren nazioarteko hitzarmenetan edo haien egoitza akordioetan beste muga edo baldintza batzuk ezartzen badira, erakunde horiei, estatutu diplomatikoa duten bertako funtzionarioei eta bertan lan egiten duen pertsonal tekniko-administratiboari horiek aplikatuko zaizkie.

No obstante lo establecido en los números 2.º y 4.º anteriores, cuando los convenios internacionales por los que se crean tales organizaciones o los acuerdos de sede de las mismas establezcan otros límites o requisitos, serán éstos los aplicables a dichas organizaciones, a sus funcionarios con estatuto diplomático, y a su personal técnico-administrativo.

f) Beste Estatu kide batean matrikulatutako ibilgailu automobilak, beste Estatu kide batean finkatutako pertsonek edo erakundeek Espainian egoiliartutako pertsona fisiko baten eskura jarritakoak, betiere, baldintza hauek betetzen badira:

f) Los vehículos automóviles matriculados en otro Estado miembro, puestos a disposición de una persona física residente en España por personas o entidades establecidas en otro Estado miembro, siempre que se cumplan los siguientes requisitos:

1.a Eskura jartze hori pertsona fisiko egoiliarrarekin dagoen lan harremanaren ondorioz gertatzea, harreman hori soldatapekoa izan ala ez.

1.º Que la puesta a disposición se produzca como consecuencia de la relación laboral que se mantenga con la persona física residente, ya sea en régimen de asalariado o no.

2.a Ibilgailuaren xedea ez izatea zergaren aplikazio lurraldean nagusiki erabiltzea modu iraunkorrean

2.º Que no se destine el vehículo a ser utilizado esencialmente en el territorio de aplicación del impuesto con carácter permanente.

Ondorio horietarako, ulertuko da ibilgailuaren xedea ez dela zergaren aplikazio lurraldean nagusiki erabiltzea modu iraunkorrean, Espainian egoiliartuta dagoen pertsona baten eskura jartzen denean, haren lantokia mugakidea den beste Estatu kide batean dagoenean, eta

A estos efectos se considera que el vehículo no se destina a ser utilizado esencialmente en el territorio de aplicación del impuesto con carácter permanente cuando es puesto a disposición de un residente en España cuyo centro de trabajo está en otro Estado miembro limítrofe y lo utiliza para ir al mismo

ibilgailua egunero erabiltzen duenean lantokirako joan-etorriak egiteko, oporraldiak aintzat hartu gabe.

diariamente y volver, sin perjuicio de los periodos vacacionales.

g) Aisiarako eta ur kiroletarako urontzi eta itsasontziak, alokatzeko ez beste ezertarako erabiltzen direnean.

g) Las embarcaciones y los buques de recreo o de deportes náuticos, que se afecten efectiva y exclusivamente al ejercicio de actividades de alquiler.

Salbuespen hau aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da ibilgailuen alokairurako ezarritako mugak eta beharkizunak betetzea. Edonola ere, alokairu jarduerarik ez dagoela ulertuko da titularrak ontzia errentan emateko lagatzen duenean, betiere baldin eta titularrak edo hari lotutako pertsona batek erabilera eskubide oso edo partzial bat jasotzen badu edozein titulu bidez, dela ontzi horren gainean dela lagapen hartzaileak edo hari lotutako beste pertsona batek duenaren gainean. Apartatu hau aplikatzeari begira, lotutako pertsonak izango dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko ……aren …(e)ko …/… Foru Dekretu Arauemailearen 79. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.

Esta exención quedará condicionada a las limitaciones y al cumplimiento de los requisitos establecidos para el alquiler de vehículos. En todo caso, se entenderá que no existe actividad de alquiler cuando la embarcación sea cedida por el titular para su arrendamiento, siempre que dicho titular o una persona a él vinculada reciba por cualquier título un derecho de uso total o parcial sobre la referida embarcación o sobre cualquier otra de la que sea titular el cesionario o una persona vinculada al cesionario. Para la aplicación de este párrafo se consideran personas vinculadas aquéllas en las que concurren las condiciones previstas en el artículo 79 Decreto Foral Normativo ../…., de .. de …….., del Impuesto sobre el Valor Añadido.

h) Aisiarako eta ur kiroletarako urontzi eta itsasontziak, titularrak Merkataritzako Nabigazioaren Zuzendaritza Nagusiak ofizialki aitortutako kirol eskola nautikoak badira eta ontziak nola gobernatu irakasteko ez beste ezertarako erabiltzen badira.

h) Las embarcaciones y los buques de recreo o de deportes náuticos cuya titularidad corresponda a escuelas deportivas náuticas reconocidas oficialmente por la Dirección General de la Marina Mercante y destinadas efectiva y exclusivamente al ejercicio de la actividad de enseñanza para el gobierno de las mismas.

Dena den, aisiarako edo ur kiroletarako urontzi eta itsasontziek ez dute galduko salbuespenerako eskubide hori, baldin eta, salbuetsita egonik, aldi berean irakaskuntzarako eta alokairurako erabiltzen badira, betiere, artikulu honen 1. apartatuko g) letraren bigarren paragrafoan zehaztutako baldintzen barruan.

No obstante, no perderán el derecho a la exención las embarcaciones y los buques de recreo o de deportes náuticos que gozando de esta exención se destinen tanto a la actividad de enseñanza como a la de alquiler, siempre que se cumplan los requisitos establecidos en el segundo párrafo de la letra g) del apartado 1 de este artículo.

i) Duten konfigurazioagatik, arraun edo pala bidez soilik mugiaraz daitezkeen urontziak, bai eta kategoria olinpikoko belaontziak ere.

i) Las embarcaciones que por su configuración solamente puedan ser

impulsadas a remo o pala, así como los veleros de categoría olímpica.

j) Estatuak, autonomia erkidegoek, lurralde historikoetako erakunde publikoek, toki korporazioek edo enpresa nahiz organismo publikoek matrikulatutako aireontziak.

j) Las aeronaves matriculadas por el Estado, Comunidades Autónomas, las Instituciones públicas de los Territorios Históricos, Corporaciones locales o por empresas u organismos públicos.

k) Abiazio Zibileko Zuzendaritza Orokorrak ofizialki aitortutako eskolen titulartasuneko aireontziak, pilotuen irakaskuntza eta prestakuntza aeronautikorako edo horien birziklatze profesionalerako ez beste ezertarako erabiltzen direnean.

k) Las aeronaves cuya titularidad corresponda a escuelas reconocidas oficialmente por la Dirección General de Aviación Civil y destinadas efectiva y exclusivamente a la educación y formación aeronáutica de pilotos o a su reciclaje profesional.

l) Aire nabigazioko enpresen titulartasuneko aireontziak, betiere haien erabilera ezin bada sailkatu aisiako abiazio pribatu gisa, foru dekretu arauemaile honen 4. artikuluko 4. apartatuan ezarritakoaren arabera.

l) Las aeronaves cuya titularidad corresponda a empresas de navegación aérea, siempre que su utilización no pueda calificarse de aviación privada de recreo con arreglo a lo previsto en el número 4 del artículo 4 de este decreto foral normativo.

Aire nabigazioko enpresei errentan eman zaizkien eta haien izenean matrikulatuta dauden aireontzien kasuan, salbuespena ez da aplikatuko errentatzailea edo hari lotutako pertsonak, denak batera hartuta, aireontziaren amaierako erabiltzaileak badira hegazkinak urtebeteko epean egindako hegaldi orduen 100eko 5etik gorako portzentajean. Apartatu hau aplikatzeari begira, lotutako pertsonak izango dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko ……aren …(e)ko …/… Foru Dekretu Arauemailearen 79. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.

En el caso de aeronaves arrendadas a empresas de navegación aérea, la exención no será aplicable cuando el arrendador o personas vinculadas a éste resulten en su conjunto usuarios finales de la aeronave en un porcentaje superior al 5 por 100 de las horas de vuelo realizadas por ésta durante un período de doce meses consecutivos. Para la aplicación de este párrafo se consideran personas vinculadas aquéllas en las que concurren las condiciones previstas en el artículo 79 del Decreto Foral Normativo ../…., de .. de …….., del Impuesto sobre el Valor Añadido.

m) Aire nabigazioko enpresei bakarrik alokairuan lagatzeko matrikulatu diren aireontziak, betiere haien erabilera ezin bada sailkatu aisiako abiazio pribatu gisa, foru dekretu arauemaile honen 4. artikuluko 4. apartatuan ezarritakoaren arabera.

m) Las aeronaves matriculadas para ser cedidas en arrendamiento exclusivamente a empresas de navegación aérea siempre que su utilización no pueda calificarse de aviación privada de recreo con arreglo a lo previsto en el número 4 del artículo 4 de este decreto foral normativo.

Salbuespena ez da aplikatuko aireontzia bere izenean matrikulatuta daukan pertsona edo hari lotutakoak, denak batera hartuta,

La exención no será aplicable cuando la persona a cuyo nombre se matricule la aeronave o las personas vinculadas a ella

aireontziaren amaierako erabiltzaileak badira hegazkinak urtebeteko epean egindako hegaldi orduen 100eko 5etik gorako portzentajean. Apartatu hau aplikatzeari begira, lotutako pertsonak izango dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko ……aren …(e)ko …/… Foru Dekretu Arauemailearen 79. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.

resulten en su conjunto usuarios finales de la aeronave en un porcentaje superior al 5 por 100 de las horas de vuelo realizadas por ésta durante un período de doce meses consecutivos. Para la aplicación de este párrafo se consideran personas vinculadas aquéllas en las que concurren las condiciones previstas en el artículo 79 del Decreto Foral Normativo ../…., de .. de …….., del Impuesto sobre el Valor Añadido.

n) Titularrak ohiko bizilekua atzerritik Gipuzkoako Lurralde Historikora aldatzeagatik matrikulatzen edo erabiltzen diren garraiobideak. Salbuespena aplikatzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

n) Los medios de transporte que se matriculen o se utilicen como consecuencia del traslado de la residencia habitual de su titular desde el extranjero al Territorio Histórico de Gipuzkoa. La aplicación de la exención quedará condicionada al cumplimiento de los siguientes requisitos:

1.a Interesdunek aldaketa egin aurreko hamabi hilabete jarraituetan gutxienez eduki behar izan dute ohiko bizilekua lurralde espainiarretik kanpo.

1.º Los interesados deberán haber tenido su residencia habitual fuera del territorio español al menos durante los doce meses consecutivos anteriores al traslado.

2.a Garraiobide horiek jatorrizko herrialdean zerga baldintza normaletan erosiak edo inportatuak beharko dute izan, herrialde hartatik ateratzeagatik sorrarazitako kuoten inolako salbuespenik edo itzulketarik izan gabe.

2.º Los medios de transporte deberán haber sido adquiridos o importados en las condiciones normales de tributación en el país de origen o procedencia y no se deberán haber beneficiado de ninguna exención o devolución de las cuotas devengadas con ocasión de su salida de dicho país.

Baldintza hau betetzat joko da garraiobideen eskurapena edo inportazioa araubide diplomatiko edo kontsularrean jasota dauden salbuespenak aplikatuta egin denean, edo jatorrizko estatuan egoitza duten nazioarteko erakundeetako kideen alde erosi edo inportatu direnean, erakunde horiek sortzeko nazioarteko hitzarmenek egoitza akordioen bidez ezartzen dituzten muga eta baldintzekin.

Se considerará cumplido este requisito cuando los medios de transporte se hubiesen adquirido o importado al amparo de las exenciones establecidas en los regímenes diplomático o consular o en favor de los miembros de los organismos internacionales reconocidos y con sede en el Estado de origen, con los límites y condiciones fijados por los convenios internacionales por los que se crean dichos organismos por los acuerdos de sede.

3.a Interesdunak gutxienez lehengo egoitza utzi aurreko sei hilabeteetan erabili behar izan ditu garraiobideak egoitza horretan.

3.º Los medios de transporte deberán haber sido utilizados por el interesado en su antigua residencia al menos seis meses antes de la fecha en que haya abandonado aquélla.

4.a Matrikulazioa foru dekretu arauemaile honen 65.1.d) artikuluan aurreikusitako epean eskatu beharko da.

4.º La matriculación deberá solicitarse en el plazo previsto en el artículo 65.1.d) de este decreto foral normativo.

5. Salbuespen hau aplikatzen zaien garraiobideak ezin dira eskualdatu matrikulatu eta hurrengo hamabi hilabeteetan. Baldintza hau ez betetzeak zerga ordainaraztea ekarriko du berekin, ez betetzea gertatu den eguna erreferentzia hartuta.

5.º Los medios de transporte a los que se aplique esta exención no deberán ser transmitidos durante el plazo de doce meses posteriores a la matriculación. El incumplimiento de este requisito determinará la exacción del impuesto referida a la fecha en que se produjera dicho incumplimiento.

ñ) Beste estatu kide batean matrikulatutako garraiobideak, Espainian egoiliartutako pertsonek edo entitateek beste estatu kide bateko hornitzaile bati gehienez hiru hilabetez alokatuak, baldin eta apartatu honetako c) letran ezarritako salbuespena aplikatu ezin bazaie.

ñ) Los medios de transporte matriculados en otro Estado miembro y que sean alquilados a un proveedor de otro Estado miembro por personas o entidades residentes en España durante un periodo no superior a tres meses, siempre que no les resulte de aplicación la exención prevista en la letra c) de este apartado.

2. Aurreko apartatuko a), b), c), d), f), g), h), k), m) eta ñ) letretan aipatutako salbuespenak aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da Zerga Administrazioak salbuespen horiek aurrez onartzea erregelamenduz ezarriko den eran. Bereziki, d) letran aipatzen den salbuespenaren kasuan, beharrezkoa izango da desgaitasuna edo balioezintasuna frogatzea Foru Aldundiko organo eskudunak, autonomia erkidegoetakoak, Gizarte Zerbitzuetako Institutu Nazionalak edo kudeaketa entitate eskudunek emandako ziurtagiria aurkeztuta.

2. La aplicación de las exenciones a que se refieren las letras a), b), c), d), f), g), h), k), m) y ñ) del apartado anterior estará condicionada a su previo reconocimiento por la Administración tributaria en la forma que se determine reglamentariamente. En particular, cuando se trate de la exención a que se refiere la letra d) será necesaria la previa certificación de la discapacidad o de la invalidez por el órgano competente de la Diputación Foral, por el correspondiente de las Comunidades Autónomas, por el Instituto Nacional de Servicios Sociales o por las entidades gestoras competentes.

Aurreko apartatuko e) letran aipatutako salbuespena aplikatzeko, ezinbestekoa izango da Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioak haren bidezkotasuna aurrez ziurtatzea.

La aplicación de la exención a que se refiere la letra e) del apartado anterior requerirá la previa certificación de su procedencia por el Ministerio de Asuntos Exteriores y de Cooperación.

Gainerako salbuespen kasuetan, Zerga Administrazioari aitorpen bat aurkeztu beharko zaio Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak erabakitako tokian, eran, epean eta inprimakian.

En los demás supuestos de exención será necesario presentar una declaración ante la Administración tributaria en el lugar, forma, plazo e impreso que determine la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Zerga egitatea garraiobideak Espainian zirkulatzea edo erabiltzea denean, aurreko apartatuan aurreikusi diren salbuespenak aplikatzeko, beharrezkoa izango da aldez aurreko onarpenerako eskaera edo kasuan kasuko aitorpena foru dekretu arauemaile honen 65.1.d) artikuluan ezarritako epeen barruan aurkeztea.

Cuando el hecho imponible sea la circulación o utilización de medios de transporte en España, la aplicación de las exenciones establecidas en el apartado anterior estará condicionada a que la solicitud de su reconocimiento previo o la presentación de la correspondiente declaración se efectúe dentro de los plazos establecidos en el artículo 65.1.d) de este decreto foral normativo.

3. Garraiobideen birsalmentan profesionalki jarduten duten enpresaburuek eskubidea izango dute, zerga egitatea gertatu denetik lau urte igaro baino lehen zergaren aplikazio lurraldetik kanpo behin betiko bidali dituzten garraiobideei dagokienez, bidalketaren unean garraiobideagatik ordaindutako kuotaren zatiaren itzulketa jasotzeko. Garraiobidea zergaren aplikazio lurraldetik kanpora behin betiko bidali dela frogatzeko, kasuan kasuko erregistroan baja eman izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, matrikulazio alorrean eskumena duen organo eskudunak emana.

3. Los empresarios dedicados profesionalmente a la reventa de medios de transporte tendrán derecho, respecto de aquéllos que acrediten haber enviado con carácter definitivo fuera del territorio de aplicación del impuesto antes de que hayan transcurrido cuatro años desde la realización del hecho imponible, a la devolución de la parte de la cuota satisfecha correspondiente al valor del medio de transporte en el momento del envío. El envío con carácter definitivo fuera del territorio de aplicación del impuesto del medio de transporte se acreditará mediante la certificación de la baja en el registro correspondiente expedida por el órgano competente en materia de matriculación.

Aurreko paragrafoan aipatzen den itzulketan erregela hauek aplikatuko dira:

En la devolución a que se refiere el párrafo anterior se aplicarán las siguientes reglas:

a) Garraiobidea zergaren aplikazio lurraldetik kanpora bidaltzearen arrazoia salmenta irmo batek izan behar du.

a) El envío fuera del territorio de aplicación del impuesto habrá de efectuarse como consecuencia de una venta en firme.

b) Itzulketaren oinarria garraiobideak bidali zen momentuan zuen merkatu balioa izango da, eta ezin izango du gainditu foru dekretu arauemaile honen 69. artikuluko b) apartatuan aipatzen diren balorazio taulen aplikaziotik ateratzen den balioa.

b) La base de la devolución estará constituida por el valor de mercado del medio de transporte en el momento del envío, sin que pueda exceder del valor que resulte de la aplicación de las tablas de valoración a que se refiere el apartado b) del artículo 69 de este decreto foral normativo.

c) Itzulketaren tasa zerga likidatzeko unean aplikatu zena izango da.

c) El tipo de la devolución será el aplicado en su momento para la liquidación del impuesto.

d) Itzulketaren zenbatekoa ez da inoiz izango ordaindutako kuota baino handiagoa.

d) El importe de la devolución no será superior, en ningún caso, al de la cuota satisfecha.

e) Garraiobidea birsaltzen duen enpresaburuak eskatu behar du itzulketa, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakitako tokian, moduan, epeetan eta inprimakietan.

e) La devolución se solicitará por el empresario revendedor en el lugar, forma, plazos e impresos que establezca la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas.

4. Zerga oinarria, foru dekretu arauemaile honen 69. artikuluan aurreikusitako eran kalkulatua, 100eko 50 murriztuko da ibilgailu automobilen edukiera homologatua bost eta bederatzi plaza bitartekoa denean, gidariarena barne bi kasuetan, eta indarrean dagoen legerian familia ugaritzat hartzen direnek ez bestek erabiltzeko direnean, betiere baldintza hauek betetzen badira:

4. La base imponible del impuesto, determinada conforme a lo previsto en el artículo 69 de este decreto foral normativo, será objeto de una reducción del 50 por 100 de su importe respecto de los vehículos automóviles con una capacidad homologada no inferior a cinco plazas y no superior a nueve, incluida en ambos casos la del conductor, que se destinen al uso exclusivo de familias calificadas de numerosas conforme a la normativa vigente, con los siguientes requisitos:

a) Ibilgailuaren behin betiko lehen matrikulazioa familiako aitaren edo amaren izenean edo, bestela, bien izenean egin behar da.

a) La primera matriculación definitiva del vehículo deberá tener lugar a nombre del padre o de la madre de las referidas familias o, bien, a nombre de ambos conjuntamente.

b) Gutxienez lau urte igaro behar dira aurreko a) letran aipatutako pertsonen izenean eta murriztapen horren babesean beste ibilgailu bat matrikulatu denetik. Dena den, ibilgailuen erabateko ezbeharra gertatzen den kasuetan, baldintza hori ez da exijituko ezbeharra behar bezala frogatzen bada.

b) Deberán haber transcurrido al menos cuatro años desde la matriculación de otro vehículo a nombre de cualquiera de las personas citadas en la letra a) anterior y al amparo de esta reducción. No obstante, este requisito no se exigirá en supuestos de siniestro total de los vehículos debidamente acreditados.

c) Murriztapen hori aplikatuta matrikulatzen den ibilgailua ezingo da gero «inter vivos» eskualdatu matrikulazio egunaren ondorengo lau urteetan.

c) El vehículo automóvil matriculado al amparo de esta reducción no podrá ser objeto de una transmisión posterior por actos “inter vivos” durante el plazo de los cuatro años siguientes a la fecha de su matriculación.

d) Murriztapen hau aplikatzeko nahitaezkoa izango da Zerga Administrazioak hura aldez aurretik onartzea erregelamenduz ezarriko den eran. Nolanahi ere, Zerga Administrazioari familia ugaria izateari

d) La aplicación de esta reducción está condicionada a su reconocimiento previo por la Administración tributaria en la forma que se determine reglamentariamente. Será necesario, en todo caso, la presentación ante la Administración tributaria de la

buruzko ziurtagiria aurkeztu beharko zaio, erakunde eskudunak emana.

certificación acreditativa de la condición de familia numerosa expedida por el organismo competente.

5. Tributuaren zerga oinarria, foru dekretu arauemaile honen 69. artikuluan aurreikusitakoaren arabera kalkulatua, 100eko 30 murriztuko da ibilgailu hauek direnean:

5. La base imponible del impuesto, determinada conforme a lo previsto en el artículo 69 de este decreto foral normativo, será objeto de una reducción del 30 por 100 de su importe respecto de los siguientes vehículos:

a) Abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Erregelamendu Orokorraren II. eranskinean (2007ko ekainaren 30ean indarrean zegoen testua aintzat hartuta) "autokarabana" bezala definitutako ibilgailuak.

a) Vehículos definidos como «autocaravanas» en la versión vigente al día 30 de junio de 2007 del Anexo II del Reglamento General de Vehículos, aprobado por el Real Decreto 2822/1998, de 23 de diciembre.

b) Etxebizitza gisa erabiltzeko egokitutako ibilgailuak, foru dekretu arauemaile honen 65. artikuluko 1.a) apartatuko 1. zenbakiaren azken paragrafoan eta apartatu horretako 8. zenbakiaren azken paragrafoan aipatuak.

b) Vehículos acondicionados para ser utilizados como vivienda a los que se refieren el último párrafo del número 1.º y el último párrafo del número 8.º, ambos del apartado 1.a) del artículo 65 de este decreto foral normativo.

67. artikulua. Subjektu pasiboak.

Artículo 67. Sujetos pasivos.

Zergaren subjektu pasiboak dira:

Serán sujetos pasivos del impuesto:

a) Garraiobidearen behin betiko lehen matrikulazioa euren izenean egiten duten pertsonak edo entitateak.

a) Las personas o entidades a cuyo nombre se efectúe la primera matriculación definitiva del medio de transporte.

b) Foru dekretu arauemaile honen 65. artikuluko 1. apartatuaren d) letran aurreikusitako kasuetan, foru dekretu arauemaile honen lehen xedapen gehigarrian aipatzen diren pertsonak edo entitateak.

b) En los casos previstos en la letra d) del apartado 1 del artículo 65 de este decreto foral normativo, las personas o entidades a que se refiere la disposición adicional primera de este decreto foral normativo.

c) Foru dekretu arauemaile honen 65. artikuluko 3. apartatuan aurreikusitako kasuetan, garraiobidea euren izenean matrikulatua duten pertsonak edo entitateak.

c) En los casos previstos en el apartado 3 del artículo 65 de este decreto foral normativo, las personas o entidades a cuyo nombre se encuentre matriculado el medio de transporte.

68. artikulua. Sortzapena.

Artículo 68. Devengo.

1. Garraiobidearen lehen behin betiko matrikulazioa egiteko eskaera subjektu

1. El impuesto se devengará en el momento en el que el sujeto pasivo presente la

pasiboak aurkezten duen unean sortuko da zerga.

2. Foru dekretu arauemaile honen 65. artikuluko 1. apartatuaren d) letran aurreikusitako kasuetan, sortzapena letra horretan aipatzen den epea amaitu eta hurrengo egunean gertatuko da.

3. Foru dekretu arauemaile honen 65. artikuluko 3. apartatuan aurreikusitako kasuetan, zerga sortuko da ez zergapetzea edo zergaz salbuestea eragin zuten zirkunstantziak edo baldintzak aldatzen diren unean.

69. artikulua. Zerga oinarria.

Zerga oinarria honako hau izango da:

a) Garraiobide berrietan, garraiobidearen erosketa dela eta balio erantsiaren gaineko zergaren edo beste zerga baliokide baten ondorioetarako zerga oinarri gisa kalkulatutako zenbatekoa. Bi horien faltan, eskuratzaileak ordaindutako kontraprestazioaren zenbateko osoa izango da zerga oinarria, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko ……aren ..(e)ko ../… Foru Dekretu Arauemailearen 78. artikuluaren arabera zehaztua. Hala ere, azken kasu horretan, garraiobidearen saltzaileak Kanarietako zeharkako zerga orokorrarengatik zuzenean ordaindu edo jasandako kuotak ez dira zerga oinarrian sartuko.

b) Garraiobide erabilietan, zergaren sortzapenaren datan duten merkatu balioa.

Aurretik atzerrian matrikulatuta egon diren garraiobideak lehen aldiz matrikulatzen badira Espainian behin betiko, ibilgailu erabili gisa, merkatu baliotik gutxituko du, haren barruan egonez gero, zeharkako zergengatik exijigarriak izango ziren kuoten zenbateko erresiduala. Aldiz, garraiobidea ibilgailu berri gisa egon bada Espainian lehen aldiz matrikulatuta, kuota horiek ez dira kengarriak

solicitud de la primera matriculación definitiva del medio de transporte.

2. En los casos previstos en la letra d) del apartado 1 del artículo 65 de este decreto foral normativo, el impuesto se devengará el día siguiente a la finalización del plazo al que alude dicha letra.

3. En los casos previstos en el apartado 3 del artículo 65 de este decreto foral normativo, el impuesto se devengará en el momento en que se produzca la modificación de las circunstancias o requisitos que motivaron la no sujeción o exención del impuesto.

Artículo 69. Base imponible.

La base imponible estará constituida:

a) En los medios de transporte nuevos por el importe que con ocasión de la adquisición del medio de transporte se haya determinado como base imponible a efectos del impuesto sobre el valor añadido, de un impuesto equivalente o a falta de ambos por el importe total de la contraprestación satisfecha por el adquirente, determinada conforme al artículo 78 del Decreto Foral Normativo ../…., de .. de …….., del Impuesto sobre el Valor Añadido. No obstante, en este último caso no formarán parte de la base imponible las cuotas del impuesto general indirecto canario satisfechas o soportadas directamente por el vendedor del medio de transporte.

b) En los medios de transporte usados, por su valor de mercado en la fecha de devengo del impuesto.

Cuando se trate de medios de transporte que hubieran estado previamente matriculados en el extranjero y que sean objeto de primera matriculación definitiva en España teniendo la condición de usados, del valor de mercado se minorará, en la medida en que estuviera incluido en el mismo, el importe residual de las cuotas de los impuestos indirectos que habrían sido

izango. Horretarako, zenbateko erresiduala zehazteko, garraiobide erabiliak sortzapenaren unean duen merkatu balioari portzentaje hau aplikatuko zaio: garraiobidea berria izan balitz, zerga horien kuotek haren salmenta prezioan, zergak barne, egingo zuten portzentaje bera.

exigibles, sin ser deducibles en el caso de que el medio de transporte hubiera sido objeto de primera matriculación definitiva en España hallándose en estado nuevo. A estos efectos, el citado importe residual se determinará aplicando sobre el valor de mercado del medio de transporte usado en el momento del devengo un porcentaje igual al que, en su día, hubieran representado las cuotas de tales impuestos en el precio de venta, impuestos incluidos, del indicado medio de transporte en estado nuevo.

Merkatu balioa zehazteko, subjektu pasiboek Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak onesten dituen batez besteko salmenta prezioak erabili ahal izango dituzte, hain zuzen ere, zergaren sortzapenaren unean indarrean daudenak. Aurreko paragrafoan aipatutako gutxipena aplikaziozkoa denean, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ezarriko du zer prozedura erabili behar den zeharkako zergengatik jasandako kuoten zenbateko erresidualak batez besteko prezio horietan hartzen duen zatia kalkulatzeko.

Los sujetos pasivos podrán utilizar, para determinar el valor de mercado, los precios medios de venta aprobados al efecto por la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas que estuviesen vigentes en la fecha de devengo del impuesto. En los casos en que sea aplicable la minoración a que se refiere el párrafo anterior, la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas establecerá el procedimiento para determinar la parte de dichos precios medios que corresponde al importe residual de las cuotas de los impuestos indirectos soportadas.

Subjektu pasiboek aitortzen duten merkatu balioa aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren arabera kalkulatu bada, Zerga Administrazioak ezingo du balio hori egiaztatu Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 56. artikuluan aurreikusitako beste bitartekoak erabilita.

Cuando los sujetos pasivos declaren un valor de mercado determinado conforme a lo previsto en el párrafo anterior, la Administración tributaria no podrá comprobar por los otros medios previstos en el artículo 56 de la Norma Foral 2/2005 de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, el valor así declarado.

70. artikulua. Zerga tasa.

1. Aplikatzekoak diren zerga tasak zehazteko, ondorengo epigrafeak ezarri dira:

1. epigrafea.

a) Gehienez 120 g/km-ko CO2 emisio ofizialak egiten dituzten ibilgailuak; quad motako ibilgailuak eta 6., 7., 8. eta 9.

Artículo 70. Tipo impositivo.

1. Para la determinación de los tipos impositivos aplicables se establecen los siguientes epígrafes:

Epígrafe 1.º

a) Vehículos cuyas emisiones oficiales de CO2 no sean superiores a 120 g/km, con excepción de los vehículos tipo «quad» y de

zenbakietan adierazitako ibilgailuak izan ezik.

b) Motor bakarreko ibilgailuak, motor hori barne errekuntzakoa ez denean, "quad" motako ibilgailuak izan ezik.

2. epigrafea. 120 g/km-tik gorako eta 160 g/km-tik beherako CO2 emisio ofizialak egiten dituzten ibilgailuak, “quad” motako ibilgailuak eta 9. epigrafean jasotako ibilgailuak izan ezik.

3. epigrafea. Gutxienez 160 g/km-ko eta 200 g/km-tik beherako CO2 emisio ofizialak egiten dituzten ibilgailuak, “quad” motako ibilgailuak eta 9. epigrafean jasotako ibilgailuak izan ezik.

4. epigrafea.

a) 200 g/km-ko edo hortik gorako CO2 emisio ofizialak egiten dituzten ibilgailuak, quad motako ibilgailuak eta 9. epigrafean adierazitako ibilgailuak izan ezik.

b) CO2 emisioak neurtzea beharrezkoa duten ibilgailuak, emisio horiek egiaztaturik ez daudenean.

c) N1 eta N2 kategorietako ibilgailuak, etxebizitza gisa egokituta daudenean.

d) “Quad” motako ibilgailuak. «Quad» motako ibilgailutzat hartzen da lau gurpil edo gehiagoko ibilgailua, eskuleku bidezko direkzio sistemaz hornituta dagoena, gidaria hankalatraba eserita daramana, eta errepidetik kanpo ibiltzeko egokia den trakzio sistema bat duena.

e) Uretako motoak. "Uretako mototzat" hartzen da motor batek mugiarazitako urontzia, pertsona batek edo gehiagok, zutik edo belauniko, kroskoaren ertzen gainean, eta ez barruan, gidatzeko diseinatua.

los vehículos comprendidos en los epígrafes 6.º, 7.º, 8.º y 9.º.

b) Vehículos provistos de un solo motor que no sea de combustión interna, con excepción de los vehículos tipo «quad».

Epígrafe 2.º: Vehículos cuyas emisiones oficiales de CO2 sean superiores a 120 g/km y sean inferiores a 160 g/km, con excepción de los vehículos tipo «quad» y de los vehículos comprendidos en el epígrafe 9.º

Epígrafe 3.º: Vehículos cuyas emisiones oficiales de CO2 no sean inferiores a 160 g/km y sean inferiores a 200 g/km, con excepción de los vehículos tipo «quad» y de los vehículos comprendidos en el epígrafe 9.º

Epígrafe 4.º:

a) Vehículos cuyas emisiones oficiales de CO2 sean iguales o superiores a 200 g/km, con excepción de los vehículos tipo «quad» y de los vehículos comprendidos en el epígrafe 9.º.

b) Vehículos respecto de los que sea exigible la medición de sus emisiones de CO2, cuando estas no se acrediten.

c) Vehículos comprendidos en las categorías N2 y N3 acondicionados como vivienda.

d) Vehículos tipo «quad». Se entiende por vehículo tipo «quad» el vehículo de cuatro o más ruedas, con sistema de dirección mediante manillar en el que el conductor va sentado a horcajadas y que está dotado de un sistema de tracción adecuado a un uso fuera de carretera.

e) Motos náuticas. Se entiende por «moto náutica» la embarcación propulsada por un motor y proyectada para ser manejada por una o más personas sentadas, de pie o de rodillas, sobre los límites de un casco y no dentro de él.

5. epigrafea.	Epígrafe 5.º:
a) 1., 2., 3., 4., 6., 7., 8. edo 9. epigrafeetan jaso ez diren ibilgailuak.	a) Vehículos no comprendidos en los epígrafes 1.º, 2.º, 3.º, 4.º, 6.º, 7.º, 8.º o 9.º.
b) Aisiarako edo ur kiroletarako urontzi eta itsasontziak, ur motoak izan ezik.	b) Embarcaciones y buques de recreo o de deportes náuticos, con excepción de las motos náuticas.
c) Hegazkinak, hegazkin txikiak eta gainerako aireontziak.	c) Aviones, avionetas y demás aeronaves.
6. epigrafea. 9. epigrafeko c) letran sartu gabeko motozikletak, CO2 emisio ofizialak 100 g/km-tik gorakoak ez direnean.	Epígrafe 6.º: Motocicletas no comprendidas en la letra c) del epígrafe 9.º cuyas emisiones oficiales de CO2 no sean superiores a 100 g/km.
7. epigrafea. 9. epigrafeko c) letran sartu gabeko motozikletak, CO2 emisio ofizialak 100 g/km-tik gorakoak eta 120 g/km-koak edo txikiagoak direnean.	Epígrafe 7.º: Motocicletas no comprendidas en la letra c) del epígrafe 9.º cuyas emisiones oficiales de CO2 sean superiores a 100 g/km y sean inferiores o iguales a 120 g/km.
8. epigrafea. 9. epigrafeko c) letran sartu gabeko motozikletak, CO2 emisio ofizialak 120 g/km-tik gorakoak eta 140 g/km-tik beherakoak direnean.	Epígrafe 8.º: Motocicletas no comprendidas en la letra c) del epígrafe 9.º cuyas emisiones oficiales de CO2 sean superiores a 120 g/km y sean inferiores a 140 g/km.
9. epigrafea.	Epígrafe 9.º:
a) Epigrafe honetako c) letran sartu gabeko motozikletak, CO2 emisio ofizialak 140 g/km-koak edo handiagoak direnean.	a) Motocicletas no comprendidas en la letra c) de este epígrafe cuyas emisiones oficiales de CO2 sean iguales o superiores a 140 g/km.
b) Epigrafe honetako c) letran sartu gabeko motozikletak, CO2 emisio ofizialak egiaztatu gabe daudenean.	b) Motocicletas no comprendidas en la letra c) de este epígrafe cuyas emisiones oficiales de CO2 no se acrediten.
c) 74 kW-ko edo hortik gorako EEE potentzia (100 zp) duten motozikletak, gehieneko potentzia garbiaren eta masaren arteko erlazioa, ibilgailua martxan dagoela, eta kw/kg-tan adierazia, 0,66koa edo handiagoa denean, CO2 emisio ofizialak edozein direla ere.	c) Motocicletas que tengan una potencia CEE igual o su-perior a 74Kw (100 cv), y una relación potencia neta máxima, masa del vehículo en orden de marcha, expresada en kw/kg igual o superior a 0,66, cualesquiera que sean sus emisiones oficiales de CO2.
2. Zerga tasa hauek aplikatuko dira:	2. Los tipos impositivos aplicables serán los siguientes:

1. eta 6. epigrafeak: 100eko 0.

2. eta 7. epigrafeak: 100eko 4,75.

3. eta 8. epigrafeak: 100eko 9,75.

4. eta 9. epigrafeak: 100eko 14,75.

5. epigrafea: 100eko 12.

3. Zerga tasa sortzapenaren unean indarrean dagoena da.

4. Zergaren sortzapena Ceutan eta Melillan gertatu bada eta garraiobidea behin betiko inportatzen bada penintsulara, Balear uharteetara edo Kanarietara, zerga likidatzeko aplikatuko diren zerga tasak aurreko 2. apartatuko a) edo b) paragrafoetan adierazitako tasak koefiziente hauekin biderkatuta kalkulatuko dira:

a) Behin betiko inportazioa zerga egitatea gertatu eta lehen urtearen barruan egiten bada: 1,00.

b) Behin betiko inportazioa zerga egitatea gertatu eta bigarren urtearen barruan egiten bada: 0,67.

c) Behin betiko inportazioa zerga egitatea gertatu eta hirugarren edo laugarren urtearen barruan egiten bada: 0,42.

Apartatu honetan jasotako kasuetan, zerga oinarria garraiobidearen aduanako balioa izango da.

5. Zerga Kanarietan sortuta daukan garraiobidea behin betiko sartzen bada penintsulan edo Balear uharteetan zerga egitatea gertatu eta hurrengo lehen urtearen barruan, titularrak autolikidatu eta ordaindu beharko ditu Kanarietako Autonomia Erkidegoan aplikatzen den zerga tasaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatu beharrekoaren arteko aldeari dagozkion kuotak. Horrelakoetan, aintzat hartuko den

Epígrafes 1.º y 6.º: 0 por 100.

Epígrafe 2.º y 7.º: 4,75 por 100.

Epígrafe 3.º y 8.º: 9,75 por 100.

Epígrafe 4.º y 9.º: 14,75 por 100.

Epígrafe 5.º: 12 por 100.

3. El tipo impositivo aplicable será el vigente en el momento del devengo.

4. Cuando el devengo del impuesto haya tenido lugar en Ceuta y Melilla y el medio de transporte sea objeto de importación definitiva en la península e Illes Balears o en Canarias, se liquidará el impuesto a los tipos impositivos resultantes de multiplicar los tipos indicados en los párrafos a) o b) del apartado 2 anterior, según proceda, por los coeficientes siguientes:

a) Si la importación definitiva tiene lugar dentro del primer año siguiente a la realización del hecho imponible: 1,00.

b) Si la importación definitiva tiene lugar dentro del segundo año siguiente a la realización del hecho imponible: 0,67.

c) Si la importación definitiva tiene lugar dentro del tercer o cuarto año siguientes a la realización del hecho imponible: 0,42.

En los casos previstos en este apartado la base imponible estará constituida por el valor en aduana del medio de transporte.

5. Cuando el medio de transporte por el que se haya devengado el impuesto en Canarias sea objeto de introducción, con carácter definitivo, en la península e Illes Balears, dentro del primer año siguiente a la realización del hecho imponible, el titular deberá autoliquidar e ingresar las cuotas correspondientes a la diferencia entre el tipo impositivo aplicable en la Comunidad Autónoma de Canarias y el tipo que corresponda aplicar en el Territorio Histórico

zerga oinarria garraiobideak lurralde horietan sartzean duen balioa izango da.

de Gipuzkoa, sobre una base imponible que estará constituida por el valor del medio de transporte en el momento de la introducción.

Apartatu honetako aurreko paragrafoan esandakoa ez da aplikagarria izango sartzen den garraiobideagatik dagoeneko zerga ordaindu bada Kanarietan, eta bertan aplikatu den zerga tasa ez bada izan sartzeko unean Gipuzkoako Lurralde Historikoan garraiobide horretarako indarrean dagoena baino txikiagoa.

Lo dispuesto en el párrafo anterior de este apartado no será aplicable cuando, en relación con el medio de transporte objeto de la introducción, ya se hubiera exigido el impuesto en Canarias con aplicación de un tipo impositivo no inferior al vigente en el Territorio Histórico de Gipuzkoa para dicho medio de transporte en el momento de la introducción.

6. Artikulu honetako 4. eta 5. paragrafoen arabera bidezkoak diren likidazio eta autolikidazioak ez dira exijigarriak izango garraiobidearen titularrak behin betiko inportazioaren edo behin betiko sarreraren lurraldera aldatzen duenean bizilekua.

6. Las liquidaciones y autoliquidaciones que procedan en virtud de los apartados 4 y 5 de este artículo no serán exigibles en los casos de traslado de la residencia del titular del medio de transporte al territorio en el que tienen lugar, según el caso, la importación definitiva o la introducción definitiva.

Apartatu honetan xedatutakoa aplikatzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

La aplicación de lo dispuesto en este apartado está condicionada al cumplimiento de los siguientes requisitos:

a) Ohiko bizilekua tokiz aldatu aurreko hamabi hilabete jarraituetan gutxienez, interesdunek Ceutan, Melillan edo Kanarietan eduki behar izan dute bizileku hori, kasuan kasu.

a) Los interesados deberán haber tenido su residencia habitual en Ceuta y Melilla o en Canarias, según el caso, al menos durante los doce meses consecutivos anteriores al traslado.

b) Garraiobideek Ceuta, Melilla edo Kanarietako tributazio baldintza normaletan izan behar dute eskuratuak, lurralde horietatik irteteagatik inolako salbuespenik edo zerga itzulketarik izan gabe.

b) Los medios de transporte deberán haber sido adquiridos en las condiciones normales de tributación existentes, según el caso, en Ceuta y Melilla o en Canarias, y no se deberán haber beneficiado de ninguna exención o devolución con ocasión de su salida de dichos territorios.

c) Interesdunak bizileku hori utzi aurreko sei hilabeteetan gutxienez erabili behar izan du garraiobidea bizileku zaharrean.

c) Los medios de transporte deberán haber sido utilizados por el interesado en su antigua residencia durante un período mínimo de seis meses antes de haber abandonado dicha residencia.

d) Apartatu honetan aipatzen diren garraiobideak ezingo dira eskualdatu horiek inportatu edo sartu ondorengo hamabi hilabeteetan. Baldintza hori betetzen ez

d) Los medios de transporte a que se refiere el presente apartado no deberán ser transmitidos durante el plazo de los doce meses posteriores a la importación o

bada, bidezko likidazio edo autolikidazioa egin beharko da, ez-betetzea gertatu den unea erreferentzia hartuta.

introducción. El incumplimiento de este requisito determinará la práctica de la correspondiente liquidación o autoliquidación con referencia al momento en que se produjera dicho incumplimiento.

7. CO2 emisio ofizialak ibilgailuaren fabrikatzaileak edo inportatzaileak horretarako propio emandako ziurtagiriaren bidez frogatuko dira, salbu eta emisio horiek ibilgailuaren azterketa teknikoaren txartelean edo ibilgailuari buruz indibidualki luzatzen den beste edozein agiri ofizial batean jasotzen direnean.

7. Las emisiones oficiales de CO2 se acreditarán, en su caso, por medio de un certificado expedido al efecto por el fabricante o importador del vehículo excepto en los casos en que dichas emisiones consten en la tarjeta de inspección técnica o en cualquier otro documento de carácter oficial expedido individualmente respecto del vehículo de que se trate.

70 bis artikulua. Zergaren kuota.

Artículo 70 bis. Cuota del impuesto.

1. Zerga kuota kalkulatuko da zerga oinarriari foru dekretu arauemaile honen 70. artikuluan araututako karga tasak aplikatuta.

1. La cuota tributaria será el resultado de aplicar a la base imponible los tipos impositivos regulados en el artículo 70 de este decreto foral normativo.

2. Nolanahi ere, hurrengo kasuetan zerga kuota garraiobideak zergaren aplikazio lurraldean erabiltzen diren hilabete edo hilabete zatiki bakoitzeko finkatuko da:

2. No obstante, la cuota tributaria se fijará por cada mes o fracción de mes que los medios de transporte se destinen a ser utilizados en el territorio de aplicación del impuesto en los siguientes supuestos:

a) Beste Estatu kide batean matrikulatutako ibilgailu automobilen kasuan, beste Estatu kide batean ezarrita dauden pertsonek edo entitateek ibilgailu horiek Espainian egoiliartutako pertsona fisiko baten eskura jarri dituztenean, betiere, baldintza hauek betetzen badira:

a) Cuando se trate de vehículos automóviles matriculados en otro Estado miembro, puestos a disposición de una persona física residente en España por personas o entidades establecidas en otro Estado miembro, siempre que se cumplan los siguientes requisitos:

1.a Eskura jartze hori pertsona fisiko egoiliarrarekin dagoen lan harremanaren ondorioz gertatzea, harreman hori soldatapekoa izan ala ez.

1.º Que la puesta a disposición se produzca como consecuencia de la relación laboral que se mantenga con la persona física residente, ya sea en régimen de asalariado o no.

2.a Ibilgailua nagusiki zergaren aplikazio lurraldean modu iraunkorrean erabiltzeko izatea.

2.º Que se destine el vehículo a ser utilizado esencialmente en el territorio de aplicación del impuesto con carácter permanente.

b) Beste estatu kide batean matrikulatutako garraiobideen kasuan, horiek Espainian egoiliartutako pertsonek edo entitateek beste

b) Cuando se trate de medios de transporte matriculados en otro Estado miembro y que sean alquilados a un proveedor de otro

estatu kide bateko hornitzaile bati alokatzen dizkiotenean hiru hilabetetik gorako epe baterako.

Zehazki, zerga kuota kalkulatuko da 1. apartatuaren arabera zehaztutako zenbatekoa portzentaje hauekin biderkatuta:

Lehen 12 hilabeteetan: 100eko 3.

13 eta 24 hilabete bitartean: 100eko 2.

25 hilabete baino gehiago: 100eko 1.

Apartatu honetan ezarritakoaren arabera zehaztutako zerga kuotaren zenbatekoa ezingo da izan 1. paragrafoaren arabera kalkulatutako zenbatekoa baino handiagoa.

Estado miembro por personas o entidades residentes en España durante un periodo superior a tres meses.

En concreto, la cuota tributaria será el resultado de multiplicar el importe determinado conforme al apartado 1 por los siguientes porcentajes:

Los 12 primeros meses: 3 por 100.

De los 13 a los 24 meses: 2 por 100.

De los 25 meses en adelante: 1 por 100.

El importe de la cuota tributaria determinada conforme a lo establecido en este apartado no podrá ser superior al importe de la misma calculada conforme al apartado 1.

71. artikulua. Zergaren likidazioa eta ordainketa.

1. Subjektu pasiboak zerga autolikidatu eta ordaindu beharko du Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakitzen dituen toki, modu, epe eta inprimakietan.

Zerga kuota foru dekretu arauemaile honen 70 bis artikuluko 2. apartatuan ezarritakoaren arabera zehaztu bada, eta Zerga Administrazioko organoek egoki irizten badute, dagokion autolikidazioarekin batera bermatu beharko da zerga kuota foru dekretu arauemaile honen 70 bis artikuluko 1. apartatuaren arabera kalkulatu izan balitz ordaindu beharko zen zenbatekoa, eta hori kreditu entitate edo elkarren bermerako sozietate baten abal solidarioa edo kauzio ziurtagiria aurkeztuz egingo da.

Bermearen zenbatekoa itzuliko da garraiobidea zergaren aplikazio lurraldetik kanpora bidali dela frogatzen denean.

Artículo 71. Liquidación y pago del impuesto.

1. El impuesto deberá ser objeto de autoliquidación e ingreso por el sujeto pasivo en el lugar, forma, plazos e impresos que establezca la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Cuando la cuota tributaria se haya determinado conforme a lo establecido en el apartado 2 del artículo 70 bis de este decreto foral normativo, y los órganos de la Administración tributaria lo consideren necesario, junto con la correspondiente autoliquidación se garantizará el importe restante que hubiese correspondido ingresar si la cuota tributaria se hubiese determinado conforme a lo establecido en el apartado 1 del artículo 70 bis de este decreto foral normativo, mediante aval solidario de entidad de crédito o sociedad de garantía recíproca o mediante certificado de seguro de caución.

El importe de la garantía será devuelto cuando se acredite que el medio de transporte se ha enviado fuera del territorio de aplicación del impuesto.

Garraiobidea aitortutakoa baino denbora luzeagoan erabiltzen bada zergaren aplikazio lurraldean subjektu pasiboak hori erregularizatu gabe, zerga kuota likidatuko da foru dekretu arauemaile honen 70 bis artikuluko 1. apartatuan xedatutako eran kalkulatuta eta aurretik ordaindutako zenbatekoa gutxituta.

La utilización del medio de transporte dentro del territorio de aplicación del impuesto durante un periodo de tiempo superior al declarado, sin que hubiera sido objeto de regularización por el sujeto pasivo, dará lugar a la liquidación de la cuota tributaria del impuesto calculada de acuerdo con lo establecido en el apartado 1 del artículo 70 bis de este decreto foral normativo, minorada en el importe previamente ingresado.

2. Zerga Administrazioak autolikidazioa bisatu beharko du, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ezarriko duen eran, organo eskudunaren aurrean behin betiko matrikulatu baino lehen.

2. La autoliquidación deberá ser visada por la Administración tributaria, en la forma que establezca la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, con carácter previo a la matriculación definitiva ante el órgano competente.

Autolikidaziotik ondorioztatzen den kuota txikiagoa bada Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak onetsitako batez besteko salmenta prezioak aplikatuta aterako litzatekeena baino, autolikidazioa bisatu aurretik Zerga Administrazioak zilegi izango du zerga oinarri gisa adierazi den zenbatekoa edo balioa egiaztatzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 56. artikuluan aurreikusitakoarekin bat. Aplikatuko diren batez besteko prezioak interesdunak Zerga Administrazioari bisatua eskatzen dion unean indarrean daudenak izango dira. Posible izango da, orobat, aitortutako zenbateko edo balioa aurrez egiaztatzea, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ez duenean oraindik onetsi batez besteko salmenta preziorik autolikidazioaren xede den garraiobideari dagokionez.

Cuando la cuota resultante de la autoliquidación sea inferior a la que resultaría de aplicar los precios medios de venta aprobados por la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, la Administración tributaria, con carácter previo al otorgamiento del visado, podrá proceder a la comprobación del importe o valor consignado como base imponible de acuerdo con lo previsto en el artículo 56 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Los precios medios a considerar serán los vigentes en el momento en que el interesado solicite el visado ante la Administración tributaria. También podrá procederse a la comprobación previa del importe o valor declarado cuando no exista precio medio de venta aprobado por la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas para el medio de transporte al que se refiera la autoliquidación presentada.

Egiaztapena egiteko gehieneko epea 60 egunekoa izango da, garraiobidearen dokumentazioa Zerga Administrazioaren eskura jartzen denetik aurrera. Epe horretan egiaztapena egiten ez bada, zergapekoak

El plazo máximo para efectuar la comprobación será de 60 días contados a partir de la puesta a disposición de la documentación del medio de transporte ante la Administración tributaria. El transcurso del

aitortutako zenbateko edo balioari behin-behineko bisatua emango zaio. Epea zenbatzeko, aplikatzekoa izango da martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 100. artikuluaren 2. apartatuan jasotakoa. Bisatua behin-behineko izaeraz eman ahal izango da, zenbatekoa edo balioa aurrez egiaztatu gabe, autolikidazioa aurkezten den unean berean, eta horretarako kode elektroniko bat jaulki ahal izango da.

citado plazo sin que se haya realizado la comprobación, determinará el otorgamiento provisional del visado sobre la base del importe o valor declarado por el obligado tributario. A efectos del cómputo del plazo, resultará de aplicación lo dispuesto en el apartado 2 del artículo 100 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa. El visado podrá otorgarse con carácter provisional, sin previa comprobación del importe o valor, en el momento de la presentación de la autoliquidación, lo que podrá efectuarse mediante la emisión de un código electrónico.

Bisatua behin-behinik emateak ez du eragotziko Administrazioak geroago autolikidazioa bere elementu guztietan egiaztatzea.

El otorgamiento del visado con carácter provisional no impedirá la posterior comprobación administrativa de la autoliquidación en todos sus elementos.

3. Garraiobidearen behin betiko matrikulazioa egiteko, zerga ordaindu dela frogatu beharko da edo, hala badagokio, ez dagoela zergari lotuta edo salbuetsita dagoela.

3. Para efectuar la matriculación definitiva del medio de transporte, deberá acreditarse el pago del impuesto o, en su caso, el reconocimiento de la no sujeción o de la exención.

72. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.

Artículo 72. Infracciones y sanciones.

Zerga honi dagozkion arau hausteak kalifikatu eta zehatzeko, aintzat hartuko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrean eta aplikazio orokorrekoak diren gainerako arauetan ezarritakoa.

Las infracciones tributarias en este impuesto se calificarán y sancionarán conforme a lo establecido en la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa y demás normas de general aplicación.

73. artikulua (edukirik gabe)

Artículo 73. (sin contenido)

74. artikulua (edukirik gabe)

Artículo 74. (sin contenido)

III. TITULUA

Ikatzaren eta elektrizitatearen gaineko zerga bereziak

TÍTULO III

Impuestos especiales sobre el carbón y sobre la electricidad

I. KAPITULUA

Ikatzaren gaineko zerga berezia

75. artikulua. Eremu objektiboa.

1. Zerga honen ondorioetarako, ikatztzat hartuko dira Kontseiluaren 1987ko uztailaren 23ko 2.658/87 (EEE) Erregelamenduko aduana zergen eta estatistiken nomenklaturan («nomenklatura konbinatua, aurrerantzean») 2701, 2702, 2704, 2708, 2713 eta 2714 kodeen barruan jasota dauden produktuak.

2. Nomenklatura konbinatuaren egituran aldaketak gertatzen direnean, foru dekretu arauemaile honen 18.2 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

76. artikulua. Aplikazioaren lurralde eremua.

1. Ikatzaren gaineko zerga berezia foru dekretu arauemaile honetan xedatutakoaren arabera exijituko da Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoak ez du deusetan eragotziko nazioarteko hitzarmen eta itunduetan ezarritakoa.

77. artikulua. Zerga egitatea.

1. Ikatza kontsumora jartzea egongo da zergapetuta.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, ikatza "kontsumora jarriko da" eragiketa hauek egiten direnean:

a) Ikatza produzitu edo erauzi ondoren, edo inportatu edo batasunaren barruan eskuratu ondoren, lurralde eremuan egiten den lehen salmenta edo entrega. Era berean, lehen salmenta edo entregatzat joko dira ikatza

CAPÍTULO I

Impuesto especial sobre el carbón

Artículo 75. Ámbito objetivo.

1. A los efectos de este impuesto, tienen la consideración de carbón los productos comprendidos en los códigos 2701, 2702, 2704, 2708, 2713 y 2714 de la nomenclatura arancelaria y estadística establecida por el Reglamento (CEE) núm. 2.658/87 del Consejo, de 23 de julio de 1987, en lo sucesivo “Nomenclatura combinada”.

2. Cuando se produzcan variaciones en la estructura de la Nomenclatura combinada, será de aplicación lo previsto en el artículo 18.2 de este decreto foral normativo.

Artículo 76. Ámbito territorial de aplicación.

1. El impuesto especial sobre el carbón se exigirá en el Territorio Histórico de Gipuzkoa de acuerdo con lo dispuesto en el presente decreto foral normativo.

2. Lo dispuesto en el apartado anterior se entenderá sin perjuicio de lo establecido en convenios y tratados internacionales.

Artículo 77. Hecho imponible.

1. Está sujeta al impuesto la puesta a consumo de carbón.

2. A los efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, tienen la consideración de «puesta a consumo» las siguientes operaciones:

a) La primera venta o entrega de carbón efectuada en el ámbito territorial tras la producción o extracción, importación o adquisición intracomunitaria de carbón. Tendrán, asimismo, la consideración de

eskuratu ondoren enpresaburuek gero egiten dituzten salmentak edo entregak, xedea ikatz hori birsaltzea bada eta eskuratzeko unean foru dekretu arauemaile honen 79.1 artikuluan araututako salbuespena aplikatu bazaie..

b) Ikatzaren autokontsumoa. Xedapen honen ondorioetarako, autokontsumotzat hartuko da aurreko letran aipatutako ekoizle edo erauzleek, inportatzaileek, batasun barruko eskuratzaileek edo enpresaburuek ikatza erabiltzea edo kontsumitzea.

3. Ikatza kontsumora jarri dela joko da ekoiztu, inportatu edo erositako ikatza zertan erabili den subjektu pasiboek frogatzen ez dutenean.

78. artikulua. Zergari ez lotzeko kasuak.

1. Ikatz salmentak edo entregak ez dira zergari lotuta egongo, ekoizleak, erauzleak, inportatzaileak edo batasun barruko eskuratzaileak ikatza zergaren aplikazio lurralde eremutik kanpora zuzenean bidali beharra badakarte.

2. Aurreko 1. apartatuan jasotakoa eraginkorra izan dadin, baldintza hauek bete behar dira:

a) Ikatza foru dekretu arauemaile honen 4.7 artikuluan definituta dagoen “Batasunaren lurraldera” bidaltzen bada –-foru dekretu arauemaile honen 76. artikuluan definitutakoa ez lurralde eremu batera–, ikatza bidali duen enpresaburuak frogatu behar du, hala eskatzen bazaio, hura jaso duena kasuan kasuko estatu kidean erregistratutako enpresa bat dela, estatu kide horretako araudiarekin bat etorriz, eta hartzaileak ikatza jaso duela. Kanarietako Autonomia Erkidegora egiten diren ikatz igorpenetan hurrengo letran xedatutakoa aplikatuko da.

primera venta o entrega las ventas o entregas subsiguientes que realicen los empresarios que destinen el carbón a su reventa y les haya sido aplicable al adquirirlo la exención regulada en el artículo 79.1 de este decreto foral normativo.

b) El autoconsumo de carbón. A los efectos de este precepto, tendrá la consideración de autoconsumo la utilización o consumo del carbón realizado por los productores o extractores, importadores, adquirentes intracomunitarios o empresarios a que se refiere la letra anterior.

3. Se presumirá que el carbón ha sido objeto de puesta a consumo cuando los sujetos pasivos no justifiquen el destino dado al carbón producido, importado o adquirido.

Artículo 78. Supuestos de no sujeción.

1. No estarán sujetas al impuesto las ventas o entregas de carbón que impliquen su envío directo por el productor, extractor, importador o adquirente intracomunitario a un destino fuera del ámbito territorial de aplicación del impuesto.

2. La efectividad de lo establecido en el apartado 1 quedará condicionada al cumplimiento de los siguientes requisitos:

a) Si el envío tiene lugar con destino al «territorio de la Comunidad» definido en el apartado 7 del artículo 4 de este decreto foral normativo, distinto del ámbito territorial definido en el artículo 76 de este decreto foral normativo el empresario remitente deberá acreditar, cuando sea requerido para ello, que el receptor del carbón es una empresa registrada al efecto en el Estado miembro de que se trate, con arreglo a la normativa que dicho Estado miembro establezca y que el carbón ha sido recibido por el destinatario. Los envíos de carbón con destino a la Comunidad Autónoma de

Canarias se regirán por lo dispuesto en la letra siguiente.

b) Ikatza zergaren lurralde eremutik kanpo bidaltzen bada, aurreko letran adierazi ez den leku batera, bidaltzen duen enpresaburuak ikatzaren esportazioa frogatu beharko du, aduana agiriaren bitartez, edo, bestela, Kanarietako Autonomia Erkidegora igorri duela justifikatu.

b) Si el envío tiene lugar con un destino fuera del ámbito territorial de aplicación del impuesto diferente del indicado en la letra anterior, el empresario remitente deberá acreditar la exportación del carbón mediante la correspondiente documentación aduanera o, en su caso, su envío a la Comunidad Autónoma de Canarias.

3. Ekoizleek edo erauzleek beren ekoizpen edo erauzpen instalazioetan ikatza autokontsumitzea ez da zergapetuko, jarduera horiekin zuzenean lotuta egiten denean.

3. No estará sujeto al impuesto el autoconsumo de carbón efectuado por sus productores o extractores dentro de las instalaciones de producción o extracción y directamente vinculado a la realización de estas actividades.

79. artikulua. Salbuespenak.

Artículo 79. Exenciones.

1. Salbuetsita egongo da ikatza zergaren aplikazio lurralde eremuan birsaltzen duten enpresaburuei egiten zaien lehen salmenta edo entrega.

1. Estará exenta la primera venta o entrega efectuada a empresarios que destinen el carbón a su reventa en el ámbito territorial de aplicación del impuesto.

2. Salbuetsita egongo da eskuratutako ikatza zergaren aplikazio lurralde eremutik kanpo bidaltzen duten enpresaburuei egiten zaien lehen salmenta edo entrega. Salbuespen hori eraginkorra izan dadin, foru dekretu arauemaile honen 78. artikuluko 2. apartatuan ezarritako baldintzak bete beharko dira.

2. Estará exenta la primera venta o entrega efectuada a empresarios que destinen el carbón adquirido a su envío con un destino fuera del ámbito territorial de aplicación del impuesto. La efectividad de esta exención quedará condicionada al cumplimiento de los requisitos establecidos en el apartado 2 del artículo 78 de este decreto foral normativo.

Dena den, hala eskuratutako ikatza zergaren aplikazio lurralde eremuaren barruan kontsumitzeko erabiltzen bada, lehen salmenta edo entrega ikatzari xede hori ematen zaion unean egiten dela joko da.

No obstante, si el carbón así adquirido fuera destinado a su consumo en el ámbito territorial interno de aplicación del impuesto, se considerará realizada la primera venta o entrega en el momento en que se efectúe la aplicación del carbón a ese destino.

3. Ikatza kontsumora jartzeko eragiketak salbuetsita egongo dira ondoko erabileretarako baliatzea dakartenean:

3. Estarán exentas del impuesto las operaciones que constituyan puesta a consumo de carbón cuando impliquen el empleo de este en los usos siguientes:

a) (edukirik gabe)

a) (sin contenido)

b) Erredukzio kimikoa, eta prozesu elektrolitikoak eta metalurgikoak.

b) Reducción química y procesos electrolíticos y metalúrgicos.

c) Prozesu mineralogikoak. Prozesu mineralogikotzat hartzen dira Kontseiluaren 1990eko urriaren 9ko 3037/90/EEE Erregelamenduaren NACE nomenklaturako DI 26 kodean sailkatutakoak ("metalezkoak ez diren beste produktu mineral batzuen industriak").

c) Procesos mineralógicos. Se consideran procesos mineralógicos los clasificados bajo el código DI 26, «industrias de otros productos minerales no metálicos», de la nomenclatura NACE, establecida por el Reglamento (CEE) n.º 3037/90 del Consejo, de 9 de octubre de 1990.

d) Erregai gisa, etxe eta egoitzetako kontsumorako. Ikatzari erabilpen hori ematen zaiola joko da industriatik kanpoko amaierako kontsumitzaileei saltzen edo entregatzen zaienean.

d) Como combustible en el ámbito del consumo doméstico y residencial. Se presumirá que el carbón se destina a esta utilización cuando sea objeto de venta o entrega a consumidores finales no industriales.

e) Errekuntza ez dakarren edozein prozesu.

e) Cualquier uso que no suponga combustión.

4. 2. apartatuan ezarritakoa gorabehera, artikulu honetan jasotako salbuespenak aplikatzeko, erregelamenduz ezarriko diren baldintzak bete beharko dira.

4. Sin perjuicio de lo establecido en el apartado 2, la aplicación de las exenciones recogidas en este artículo estará sujeta al cumplimiento de las condiciones que reglamentariamente se establezcan.

80. artikulua. Itzulketak.

Artículo 80. Devoluciones.

1. Ikatza zergaren aplikazio lurralde eremutik kanpo bidaltzen duten enpresaburuek eskubidea izango dute zerga horregatik aurrez ordaindu dituzten kuoten itzulketa jasotzeko.

1. Tendrán derecho a la devolución de las cuotas del impuesto especial sobre el carbón previamente satisfechas las empresarias o los empresarios que envíen el carbón a un destino fuera del ámbito territorial de aplicación del impuesto.

2. Itzulketa aplikatzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

2. La aplicación de la devolución quedará condicionada al cumplimiento de los siguientes requisitos:

a) Ikatza benetan bidali dela frogatu behar da foru dekretu arauemaile honen 78. artikuluko 2. apartatuan xedatutakoaren arabera.

a) La realidad del envío se acreditará conforme a lo dispuesto en el apartado 2 del artículo 78 de este decreto foral normativo.

b) Autolikidazioaren interesdunaren alea aurkeztu beharko da itzultzeko eskatzen diren kuotak aurrez ordaindu direla frogatzeko. Dena den, ikatza bidaltzen duen enpresaburua ez bada subjektu pasiboa edo

b) El ingreso previo de las cuotas cuya devolución se reclama se acreditará con el ejemplar para el interesado de la correspondiente autoliquidación. No obstante, cuando el empresario que realice

ordainketa egitera behartutakoa, dirusarrera hori frogatuko da kuota horiek enpresaburuari jasanarazi zaizkiola erakusten duen faktura aurkeztuta.

el envío no tenga la condición de sujeto pasivo o responsable obligado al pago, dicho ingreso se acreditará por medio de la factura en la que conste la repercusión de las cuotas sobre el referido empresario.

3. Itzultzen diren kuoten zenbatekoa jasandako kuoten zenbateko berdina izango da. Dena den, zenbateko hori zehatz-mehatz zehazterik ez dagoenean, kuotak kalkulatuko dira itzulketa eskubidea dakarren eragiketaren data baino hiru hilabete lehenago indarrean zegoen tasa aplikatuta.

3. El importe de las cuotas que se devuelvan será el mismo que el de las cuotas soportadas. No obstante, cuando no fuera posible determinar exactamente tal importe, las cuotas se determinarán aplicando el tipo vigente tres meses antes de la fecha en que se realiza la operación que origina el derecho a la devolución.

4. Itzulketa behin-behineko izaeraz baimendu ahal izango da. Behin-behineko likidazioak behin betiko bihurtuko dira Zerga Ikuskaritzak haien egiaztapena egiten duenean, edo itzulketarako eskubidea sortu duen eragiketaren egunetik hasita lau urteko epean, oraindik egiaztatu ez direnean.

4. La devolución podrá autorizarse con carácter provisional. Las devoluciones provisionales se convertirán en definitivas como consecuencia de la comprobación efectuada por la inspección de los tributos o bien cuando no hubieran sido comprobadas dentro del plazo de cuatro años, contados a partir de la fecha en que se realiza la operación que origina el derecho a la devolución.

81. artikulua. Subjektu pasiboak.

1. Zergari lotuta dauden salmentak edo entregak edo autokontsumo eragiketak egiten dituzten ekoizle edo erauzleak, inportatzaileak edo batasun barruko eskuratzaileak eta enpresaburu birsaltzaileak dira zergaren subjektu pasiboak.

2. Foru dekretu arauemaile honen 79.2 artikuluko bigarren paragrafoan araututako kasuetan, ikatza eskuratu ondoren zergaren aplikazio lurralde eremuan kontsumitzeko bideratzen duten enpresaburuak izango dira subjektu pasiboak.

Artículo 81. Sujetos pasivos.

1. Son sujetos pasivos del impuesto los productores o extractores, importadores o adquirentes intracomunitarios de carbón y los empresarios revendedores que realicen las ventas o entregas o las operaciones de autoconsumo sujetas al impuesto.

2. En los supuestos regulados en el segundo párrafo del artículo 79.2 de este decreto foral normativo, serán sujetos pasivos los empresarios adquirentes de carbón que lo destinen a su consumo en el ámbito territorial de aplicación del impuesto.

82. artikulua. Sortzapena.

1. Ikatza eskuratzaileen esku jartzen den unean edo, kasua bada, autokontsumoa egiten denean, gertatuko da zergaren sortzapena.

Artículo 82. Devengo.

1. El impuesto se devengará en el momento de la puesta del carbón a disposición de los adquirentes o, en su caso, en el de su autoconsumo.

2. Foru dekretu arauemaile honen 77. artikuluko 3. apartatuan aurreikusitako kasuetan, ikatzari emandako xedea justifikatu gabe dagoela egiaztatzen den unean sortuko da zerga.

3. Foru dekretu arauemaile honen 79.2 artikuluko bigarren paragrafoan araututako kasuetan, zerga sortuko da ikatza zergaren aplikazio lurraldean kontsumitzeko erabiltzen den unean.

83. artikulua. Zerga oinarria.

1. Zerga oinarria zergapetutako eragiketen xede den ikatzaren energia ahalmena izango da, gigajuliotan (GJ) adierazia.

2. Zerga oinarria zuzeneko zenbatespenaren araubidea aplikatuta zehaztuko da. Zerga oinarriaren zeharkako zenbatespena Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrean aurreikusitako kasuetan eta moduan aplikatu ahal izango da.

84. artikulua. Zerga tasak.

1. Epigrafe hauei jarraituz exijituko da zerga:

1.1 epigrafea: helburu profesionaletara bideraturiko ikatza, betiere energia elektrikoa sortzeko edo kogenerazioz produzitzeko prozesuetan erabiltzen ez bada: 0,15 euro gigajulioko.

Epigrafe honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, helburu profesionaletara bideraturiko ikatztzat hartuko da planta eta instalazio industrialetan kontsumitzeko egiten diren ikatz hornidurak. Kanpoan geratzen da energia termiko erabilgarria ekoizteko erabiltzen dena, haren amaierako aprobetxamendua planta edo instalazio industrialak ez diren establezimendu edo lokaletan egiten denean. Era berean, helburu profesionaletara bideratutako

2. En los supuestos previstos en el apartado 3 del artículo 77 de este decreto foral normativo, el impuesto se devengará en el momento en que se constate la falta de justificación del destino dado al carbón.

3. En los supuestos regulados en el segundo párrafo del artículo 79.2 de este decreto foral normativo, el impuesto se devengará en el momento en que se destine el carbón a su consumo en el ámbito territorial de aplicación del impuesto.

Artículo 83. Base imponible.

1. La base imponible del impuesto estará constituida por el poder energético del carbón objeto de las operaciones sujetas, expresado en gigajulios (GJ).

2. La determinación de la base imponible se efectuará en régimen de estimación directa. La estimación indirecta de la base imponible será aplicable a los supuestos y en la forma previstos en la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Artículo 84. Tipos impositivos.

1. El impuesto se exigirá con arreglo a los siguientes epígrafes:

Epígrafe 1.1: Carbón destinado a usos con fines profesionales siempre y cuando no se utilice en procesos de cogeneración y generación directa o indirecta de energía eléctrica: 0,15 euros por gigajulio.

A efectos de lo previsto en este epígrafe, se considera carbón destinado a usos con fines profesionales los suministros de carbón efectuados para su consumo en plantas e instalaciones industriales, con exclusión del que se utilice para producir energía térmica útil cuyo aprovechamiento final se produzca en establecimientos o locales que no tengan la condición de plantas o instalaciones industriales. Asimismo, tendrá la consideración de carbón destinado a usos

ikatztzat hartuko da nekazaritza laboreetan erabiltzen dena.

1.2 epigrafea: beste erabilera batzuetara bideratutako ikatza: 0,65 euro gigajulioko.

2. Energia elektrikoaren eta energia termiko erabilgarriaren kogenerazio instalazio batean erabiltzera bideraturiko ikatz horniduretan, instalazio hori Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen garapen araudian aipatzen den errendimendu elektriko baliokidea betetzen duela egiaztatzera behartuta badago, artikulu honen 1. apartatuko 1.1 eta 1.2 epigrafeetan araututako zerga tasak aplikatuko dira, alternadore borneetan neurtutako energia produkzioari eta energia termiko erabilgarriari egotzi behar zaien ikatz portzentajearen arabera, erregelamenduz ezarriko den prozedurari jarraituz.

con fines profesionales, el carbón utilizado en cultivos agrícolas.

Epígrafe 1.2: Carbón destinado a otros usos: 0,65 euros por gigajulio.

2. En los suministros de carbón destinado a ser utilizado en una planta de cogeneración de energía eléctrica y energía térmica útil, sujeta al requisito de acreditación del cumplimiento del rendimiento eléctrico equivalente a que se refiere la normativa de desarrollo de la Ley 24/2013, de 26 de diciembre, del Sector Eléctrico, se aplicarán los tipos impositivos regulados en los epígrafes 1.1 y 1.2 del apartado 1 de este artículo en función del porcentaje de carbón que corresponda imputar a la producción de electricidad medida en bornes de alternador y a la energía térmica útil, conforme al procedimiento que se establezca reglamentariamente.

85. artikulua. Zerga jasanaraztea.

1. Hala dagokionean, subjektu pasiboek sortutako kuoten zenbatekoa jasanarazi beharko diete ikatza eskuratzen dutenei, eta eskuratzaileak kuota horiek jasatera behartuta daude.

Foru dekretu arauemaile honen 84. artikuluko 2. apartatuan jasotako eran egindako ikatz horniduretan, subjektu pasiboek, sortutako kuoten zenbatekoa jasanarazteko, kontuan hartu badute elektrizitatea eta energia termiko erabilgarria batera sortzeko zentralen titularrek adierazitako behin-behineko portzentajea, jasanarazitako kuoten zenbatekoa erregularizatu beharko dute ikatzari emandako erabileraren behin betiko portzentajea aplikatuta, behin hura ezagutu eta gero, erregelamenduz ezarriko den prozedurari jarraituz.

2. Zergapetutako eragiketa faktura edo antzeko agiri batean dokumentatu behar bada indarrean dagoen araudiarekin bat,

Artículo 85. Repercusión del impuesto.

1. Los sujetos pasivos deberán, en su caso, repercutir el importe de las cuotas devengadas sobre los adquirentes de carbón, y estos quedarán obligados a soportarlas.

En los suministros de carbón efectuados en los términos del apartado 2 del artículo 84 de este decreto foral normativo, los sujetos pasivos que hayan repercutido el importe de las cuotas devengadas en función de un porcentaje provisional comunicado por los titulares de centrales de cogeneración de electricidad y energía térmica útil, deberán regularizar el importe de las cuotas repercutidas conforme al porcentaje definitivo de destino del carbón, una vez conocido, mediante el procedimiento que se establezca reglamentariamente.

2. Cuando, con arreglo a la normativa vigente, la operación gravada deba documentarse en factura o documento

sortutako kuotak bertan jasotzen diren beste kontzeptu guztietatik berezita jasanaraziko dira. Eragiketak ez badaude zergari lotuta edo salbuetsita badaude, agiri horretan zirkunstantzia hori aipatuko da, eta onura hori foru dekretu arauemaile honen zer artikuluren arabera aplikatzen den adierazi beharko da.

equivalente, la repercusión de las cuotas devengadas se efectuará en dicho documento separadamente del resto de conceptos comprendidos en ella. Cuando se trate de operaciones no sujetas o exentas, se hará mención de dicha circunstancia en el referido documento, con indicación del precepto de este decreto foral normativo en que se basa la aplicación de tal beneficio.

86. artikulua. Kudeaketako arauak

1. Hiru hilean behin, subjektu pasiboak behartuta daude sortutako kuoten autolikidazioa aurkeztera eta, harekin batera, baita zerga zorra ordaintzera ere. Betebehar hori ez da exijituko dena delako epealdian ordaindu beharreko kuotarik sortu ez denean.

2. Subjektu pasiboak behartuta daude, halaber, urteko aitorpen laburtzaile bat aurkeztera zergaren eremu objektiboan sartutako produktuekin lotuta egindako eragiketengatik.

3. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ezarriko du zein eredutan, zein epetan eta zer baldintzatan aurkeztu beharko diren aurreko apartatuetan aipatzen diren aitorpenak.

Artículo 86. Normas de gestión.

1. Los sujetos pasivos estarán obligados a presentar trimestralmente una autoliquidación comprensiva de las cuotas devengadas, así como a efectuar, simultáneamente, el pago de la deuda tributaria. Esta obligación no será exigible cuando en el período de que se trate no resulten cuotas a ingresar.

2. Los sujetos pasivos estarán obligados igualmente a presentar una declaración resumen anual de las operaciones realizadas en relación con los productos comprendidos en el ámbito objetivo del impuesto.

3. La diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas establecerá los modelos, plazos, requisitos y condiciones para la presentación de las declaraciones a que se refieren los apartados anteriores.

87. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.

1. Foru dekretu arauemaile honen 84. artikuluko 1.1 epigrafean ezarritako zerga tasa aplikatuta egiten diren ikatz horniduretan, zerga arloko arau-haustea izango da subjektu pasiboei datu faltsuak edo okerrak ematea, horrek dagozkionak baino kuota txikiagoak jasanaraztea eragiten duenean.

Artículo 87. Infracciones y sanciones.

1. En los suministros de carbón realizados con aplicación del tipo impositivo establecido en el epígrafe 1.1 del artículo 84 de este decreto foral normativo, constituye infracción tributaria comunicar datos falsos o inexactos a los sujetos pasivos, cuando de ello se derive la repercusión de cuotas inferiores a las procedentes.

Zehapenaren oinarria jasanarazi behar ziren kuoten eta benetan jasanarazitakoen arteko diferentzia izango da.

La base de la sanción será la diferencia entre las cuotas que se hubieran debido repercutir y las efectivamente repercutidas.

Zehapena 100eko 50eko diruzko isun proportzionala izango da.

La sanción consistirá en multa pecuniaria proporcional del 50 por 100.

2. Zerga arloko arau-haustea izango da subjektu pasiboek ez betetzea foru dekretu arauemaile honetan eta berau garatzeko araudian ezarrita dauden baldintzak eta betekizunak, bertan aurreikusitako salbuespenak edo tasa murriztuak aplikatzeko beharrezkoak direnean eta onura horien xede den ikatza zertarako edo nola erabili den justifikatzen ez denean.

2. Constituye infracción tributaria el incumplimiento por los sujetos pasivos del impuesto de los requisitos y condiciones establecidas en este decreto foral normativo y en su normativa de desarrollo necesarios para la aplicación de las exenciones o tipos reducidos previstos en aquélla, cuando no se justifique el uso o destino dado al carbón objeto de dichos beneficios.

Zehapenaren oinarria hauxe izango da: legez edo erregelamenduz ezarritako baldintzak eta betekizunak bete gabe dituen ikatzari aplikatutako zerga onuraren zenbatekoa.

La base de la sanción será el importe del beneficio fiscal aplicado al carbón respecto del cual se hayan incumplido los requisitos y condiciones establecidas legal o reglamentariamente.

Zehapena 100eko 50eko diruzko isun proportzionala izango da.

La sanción consistirá en multa pecuniaria proporcional del 50 por 100.

3. Zerga arloko arau-haustea izango da subjektu pasiboek ez betetzea foru dekretu arauemaile honetan eta berau garatzeko araudian ezarrita dauden baldintzak eta betekizunak, bertan aurreikusitako salbuespenak edo tasa murriztuak aplikatzeko beharrezkoak direnean eta horrek aurreko 1. eta 2. apartatuetan aurreikusitako arau-hausteetako bat egitea ez dakarrenean.

3. Constituye infracción tributaria el incumplimiento por los sujetos pasivos del impuesto de los requisitos y condiciones establecidos en este decreto foral normativo y en su normativa de desarrollo necesarios para la aplicación de las exenciones o tipos reducidos previstos en aquélla, cuando no constituya una infracción de las previstas en los apartados 1 y 2 anteriores.

Zehapenaren oinarria hauxe izango da: legez edo erregelamenduz ezarritako baldintzak eta betekizunak bete gabe dituen ikatzari aplikatutako zerga onuraren zenbatekoa.

La base de la sanción será el importe del beneficio fiscal aplicado al carbón respecto del cual se hayan incumplido los requisitos y condiciones establecidas legal o reglamentariamente.

Zehapena 100eko 10eko diruzko isun proportzionala izango da.

La sanción consistirá en multa pecuniaria proporcional del 10 por 100.

4. Zerga honi dagozkion gainerako arau-hausteak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru

4. El resto de infracciones tributarias en este impuesto se calificarán y sancionarán conforme a lo dispuesto en la Norma Foral

Arau Orokorrean xedatutakoari jarraituz kalifikatu eta zehatuko dira.

88. artikulua. (Edukirik gabe)

II. KAPITULUA

Elektrizitatearen gaineko zerga berezia

89. artikulua. Izaera.

Elektrizitatearen gaineko zerga berezia elektrizitatearen kontsumoa zergapetzen duen zeharkako tributu bat da, kontsumorako energia elektrikoa hornitzea eta ekoizleek sortutako elektrizitatea beraiek kontsumitzea fase bakarrean kargatzen dituena.

90. artikulua. Eremu objektiboa.

Elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren eremu objektiboa Kontseiluaren 1987ko uztailaren 23ko 2.658/87/EEE Erregelamenduko aduana zergen eta estatistiken nomenklaturako 2716 NC kodean sailkatutako energia elektrikoa da.

91. artikulua. Aplikazioaren lurralde eremua.

1. Elektrizitatearen gaineko zerga berezia foru dekretu arauemaile honetan xedatutakoaren arabera exijituko da Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoak ez du deusetan eragotziko nazioarteko hitzarmen eta itunduetan ezarritakoa.

92. artikulua. Zerga egitatea.

1. Zergapetuta egongo dira:

a) Pertsona edo entitate bati energia elektrikoa hornitzea berak kontsumitzeko. Alde horretatik, ulertuko da energia

2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Artículo 88. (Sin contenido)

CAPÍTULO II

Impuesto especial sobre la electricidad

Artículo 89. Naturaleza.

El impuesto especial sobre la electricidad es un tributo de naturaleza indirecta que recae sobre el consumo de electricidad y grava, en fase única, el suministro de energía eléctrica para consumo, así como el consumo por los productores de aquella electricidad generada por ellos mismos.

Artículo 90. Ámbito objetivo.

El ámbito objetivo del impuesto especial sobre la electricidad está constituido por la energía eléctrica clasificada en el código NC 2716 de la nomenclatura arancelaria y estadística establecida por el Reglamento (CEE) n.º 2.658/87 del Consejo, de 23 de julio de 1987.

Artículo 91. Ámbito territorial de aplicación.

1. El impuesto sobre la electricidad se exigirá en el Territorio Histórico de Gipuzkoa de acuerdo con lo dispuesto en el presente decreto foral normativo.

2. Lo dispuesto en el apartado anterior se entenderá sin perjuicio de lo establecido en convenios y tratados internacionales.

Artículo 92. Hecho imponible.

1. Está sujeto al impuesto:

a) El suministro de energía eléctrica a una persona o entidad que adquiere la electricidad para su propio consumo,

elektrikoa hornitzen dela bai sare elektrikorako sarbide sarien zerbitzua ematen denean eta bai elektrizitatea entregatzen denean.

entendiéndose por suministro de energía eléctrica tanto la prestación del servicio de peajes de acceso a la red eléctrica como la entrega de electricidad.

Energia ibilgailuak kargatzeko eskuratzen duten pertsona fisiko edo juridikoak beti izango dira kontsumitzaile zerga honen ondorioetarako.

A los efectos de este impuesto, siempre tendrán la condición de consumidores las personas físicas o jurídicas que adquieren la energía para la prestación de servicios de recarga energética de vehículos.

b) Energia elektrikoaren ekoizleek sortutako elektrizitatea beraiek kontsumitzea.

b) El consumo por los productores de energía eléctrica de aquella electricidad generada por ellos mismos.

2. Foru dekretu arauemaile honetan agertzen diren eta substantibitate propioa duten kontzeptu eta terminoei dagokienez, bertan definitutakoetan izan ezik, sektore elektrikoaren estatuko araudian xedatutakoari jarraituko zaio.

2. Respecto a los conceptos y términos con sustantividad propia que aparecen en el presente decreto foral normativo, salvo los definidos en ella, se estará a lo dispuesto en la normativa del sector eléctrico de carácter estatal.

93. artikulua. Zergapetu gabeko kasua.

Artículo 93. Supuesto de no sujeción.

Zergapetu gabe egongo da, beraiek produzitutako energia elektrikoa denean, guztira 100 kilowattetik (kW) gorako potentziarik ez duten sorgailuek edo sorgailu multzoek egiten duten kontsumoa.

No estará sujeto al impuesto el consumo por los generadores o conjunto de generadores de potencia total no superior a 100 kilovatios (kW) de la energía eléctrica producida por ellos mismos.

94. artikulua. Salbuespenak.

Artículo 94. Exenciones.

Salbuetsita egongo dira, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan, honako hauek:

Estará exenta en las condiciones que reglamentariamente se establezcan:

1. Harreman diplomatiko edo kontsularren esparruan hornitzen den energia elektrikoa.

1. La energía eléctrica suministrada en el marco de las relaciones diplomáticas o consulares.

2. Espainian nazioarteko erakunde gisa aitortutako erakundeei eta erakunde horietako kideei hornitutako energia elektrikoa, erakunde horiek eratzeko nazioarteko hitzarmenetan edo egoitza akordioetan zehaztutako mugetan eta baldintzetan.

2. La energía eléctrica suministrada a organizaciones internacionales reconocidas como tales en España y por los miembros de dichas organizaciones, dentro de los límites y en las condiciones que se determinen en los convenios internacionales constitutivos de dichas organizaciones o en los acuerdos de sede.

3. Espainia ez den beste edozein estatutako indar armatuei hornitutako energia elektrikoa, estatu hori Ipar Atlantikoko Tratatuko kide bada, edo haren zerbitzuko langile zibilek edo haien jantokietan eta kantinetan kontsumitutakoa.

3. La energía eléctrica suministrada a las fuerzas armadas de cualquier Estado, distinto de España, que sea parte del Tratado del Atlántico Norte o por el personal civil a su servicio, o en sus comedores y cantinas.

4. Hirugarren herrialde batzuekin edo nazioarteko erakundeekin formalizatutako akordio baten esparruan hornitutako energia elektrikoa, baldin eta akordio hori onartzen edo baimentzen bada balio erantsiaren gaineko zergaren salbuespen gaietan.

4. La energía eléctrica suministrada en el marco de un acuerdo celebrado con países terceros u organizaciones internacionales, siempre que dicho acuerdo se admita o autorice en materia de exención del impuesto sobre el valor añadido.

5. Teknologia berriztagarriak, kogenerazioa eta hondakinak erabiliz energia elektrikoa produzitzen duten instalazioen titularrek kontsumitutako energia elektrikoa, potentzia instalatua 50 megawattetik (MW) gorakoa ez denean.

5. La energía eléctrica consumida por los titulares de las instalaciones de producción de energía eléctrica de tecnología renovable, cogeneración y residuos cuya potencia instalada no supere los 50 megavatios (MW).

6. Erregai pilen bidez sortuta kontsumitzen den energia elektrikoa.

6. La energía eléctrica consumida que haya sido generada por pilas de combustibles.

7. Elektrizitatea ekoizteko instalazioetan jarduera hori gauzatzeko kontsumitutako energia elektrikoa, baita energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioei jarduera horiek gauzatzeko hornitutako energia elektrikoa ere.

7. La energía eléctrica consumida en las instalaciones de producción de electricidad para la realización de dicha actividad, así como la energía eléctrica suministrada a las instalaciones de producción, transporte y distribución de energía eléctrica para la realización en las mismas de estas actividades.

8. Itsasontzietan kontsumitzen den energia elektrikoa, ontzian bertan sortu delako.

8. La energía eléctrica consumida en las embarcaciones por haber sido generada a bordo de las mismas.

9. Autokontsumo modalitatean, soberako ordu energiarekin konpentsatu daitekeen energia elektriko hornitua, soberakinaren konpentsazioa energia elektrikoaren autokontsumoaren baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen dituen apirilaren 5eko 244/2019 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera egiten denean.

9. La energía eléctrica suministrada que sea objeto de compensación con la energía horaria excedentaria, en la modalidad de autoconsumo con excedentes acogida a compensación, conforme a lo establecido en el Real Decreto 244/2019, de 5 de abril, por el que se regulan las condiciones administrativas, técnicas y económicas del autoconsumo de energía eléctrica.

10. Espainia ez den beste edozein estatu kidetako indar armatuei hornitutako energia elektrikoa, indar horiek edo haien zerbitzuko

10. La energía eléctrica suministrada a las fuerzas armadas de cualquier Estado miembro distinto de España, para uso de

langile zibilek erabiltzeko edo haien jantokiak edo kantinak hornitzeko denean, baldin eta indar horiek, segurtasun eta defentsa politika erkidearen esparruan, Batasunaren jarduera bat gauzatu behar badute defentsa ahalegin bati atxikita.

dichas fuerzas o del personal civil a su servicio, o para el abastecimiento de sus comedores o cantinas, siempre que dichas fuerzas estén afectadas a un esfuerzo de defensa realizado para llevar a cabo una actividad de la Unión en el ámbito de la política común de seguridad y defensa.

95. artikulua. Sortzapena.

Zerga une hauetan sortuko da:

a) Foru dekretu arauemaile honen 92. artikuluko 1. apartatuaren a) letran aurreikusitako kasuan, fakturazio aldi bakoitzean hornitutako energia elektrikoari dagokion prezioaren zatia exijigarria den unean.

b) Foru dekretu arauemaile honen 92. artikuluko 1. apartatuaren b) letran aurreikusitako kasuan, kontsumitzen den unean.

Artículo 95. Devengo.

El impuesto se devengará:

a) En el supuesto previsto en la letra a) del apartado 1 del artículo 92 de este decreto foral normativo, en el momento en que resulte exigible la parte del precio correspondiente a la energía eléctrica suministrada en cada período de facturación.

b) En el supuesto previsto en la letra b) del apartado 1 del artículo 92 de este decreto foral normativo, en el momento de su consumo.

96. artikulua. Zergadunak.

1. Honako hauek dira zerga honen zergadunak:

a) Foru dekretu arauemaile honen 92. artikuluko 1. apartatuaren a) letran aurreikusitako kasuan, Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legean xedatutakoaren arabera behar bezala gaituta egonik kontsumitzaileari energia elektrikoa hornitzen diotenak, artikulu honetako 3. apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe.

b) Foru dekretu arauemaile honen 92. artikuluko 1. apartatuaren b) letran aurreikusitako kasuan, eurek sortutako energia elektrikoa kontsumitzen dutenak.

2. Irregulartasunen bat somatzen bada erabileragatik salbuetsi eta murriztutako elektrizitateari emandako erabileraren justifikazioan, hornitzaileak behartuta egongo dira zerga zorra eta jar litezkeen

Artículo 96. Contribuyentes.

1. Son contribuyentes del impuesto:

a) En el supuesto previsto en la letra a) del apartado 1 del artículo 92 de este decreto foral normativo, aquellos que, debidamente habilitados de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 24/2013, de 26 de diciembre, del Sector Eléctrico, realicen suministros de energía eléctrica al consumidor, sin perjuicio de lo establecido en el apartado 3 de este artículo.

b) En el supuesto previsto en la letra b) del apartado 1 del artículo 92 de este decreto foral normativo, aquellos que consuman la energía eléctrica generada por ellos mismos.

2. En los supuestos de irregularidades en relación con la justificación del uso o destino dado a la electricidad que se ha beneficiado de una exención o de una reducción en razón de su destino, los suministradores

zehapenak ordaintzera, harik eta horniketa hori kudeaketa bulegoak baimendutako edo zerga onura horiek jasotzeko gaitutako kontsumitzaile bati egin zitzaiola frogatu arte.

estarán obligados al pago de la deuda tributaria del impuesto y de las sanciones que pudieran imponerse, en tanto no justifiquen que el suministro se efectuó a un consumidor autorizado por la oficina gestora o, en su caso, facultado para gozar de dichos beneficios fiscales.

3.Artikulu honetako hurrengo apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe, ez-zergapetze kasu bat, salbuespen bat edo murriztapen bat aplikatuta egiten diren elektrizitate horniduretan, zergadun izaera hartuko dute, zerga zuzen jasanarazi gabe jasotako elektrizitate kantitateagatik, erregelamendu bidez zehaztutako epeetan eta terminoetan erregularizazioaren datu zehatzak hornitzaileari jakinarazi ez izateagatik, zerga onura horiek bidegabeki eskuratu dituzten kontsumitzaileek.

3. Sin perjuicio de lo establecido en el apartado siguiente de este artículo, en los suministros de electricidad realizados al amparo de una no sujeción, exención o de una reducción, tendrán la condición de contribuyentes, por la cantidad de electricidad recibida sin la correcta repercusión del impuesto, aquellos consumidores que, por no haber comunicado al suministrador los datos exactos de la regularización en los plazos y términos establecidos reglamentariamente, se hayan beneficiado indebidamente de dichos beneficios fiscales.

4. Kontsumitzaileei hornidura puntu bakarrarekin egindako elektrizitate horniduretan, hornitutako energiaren parte bat salbuetsita badago foru dekretu arauemaile honen 94.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontsumitzaileak izango dira zergadunak. Halaber, zergadunak izango dira artikulu honen 1. apartatukoa) letran aipatutakoak, euren kontsumorako eskuratutako elektrizitateagatik.

4. En los suministros de energía eléctrica efectuados a consumidores con un único punto de suministro en los que una parte de la energía suministrada está exenta en virtud de lo establecido en el artículo 94.7 de este decreto foral normativo, tendrán la condición de contribuyentes los consumidores. También tendrán la condición de contribuyentes, aquellos a los que hace referencia la letra a) del apartado 1 de este artículo por la electricidad adquirida para su consumo.

97. artikulua. Zerga oinarria.

Honako hau izango da zerga oinarria: Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko ……..aren ..(e)ko ../…. Foru Dekretu Arauemailearen 78. eta 79. artikuluetan ezarritakoaren arabera, balio erantsiaren gaineko zergaren aplikazio lurraldean loturarik gabeko pertsonen artean egindako energia elektrikoaren kostu bidezko hornidura batek zerga horren zergaren ondorioetarako zehaztuko zen zerga

Artículo 97. Base imponible.

Estará constituida por la base imponible que se habría determinado a efectos del impuesto sobre el valor añadido, excluidas las cuotas del propio impuesto sobre la electricidad, para un suministro de energía eléctrica efectuado a título oneroso dentro del territorio de aplicación del impuesto sobre el valor añadido entre personas no vinculadas, conforme a lo establecido en los artículos 78 y 79 del Decreto Foral

oinarria, elektrizitatearen gaineko zergaren beraren kuotak kenduta.

Normativo /…., de .. de …….., del Impuesto sobre el Valor Añadido.

98. artikulua. Oinarri likidagarria.

1. Oinarri likidagarria kalkulatuko da zerga oinarriari 100eko 85eko murriztapena aplikatuta. Dena den, murriztapen hori aplikatuko da, erregelamenduz ezarriko diren baldintzak eta betekizunak beteta betiere, erabiltzen den energia elektrikoak erabilera hauetako bat duenean:

a) Erredukzio kimikoa eta prozesu elektrolitikoak.

b) Prozesu mineralogikoak. Prozesu mineralogikotzat hartzen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 20ko 1893/2006 (EE) Erregelamenduaren 23. dibisioan sailkatutakoak. Erregelamendu horren bidez, jarduera ekonomikoen nomenklatura estatistikoa (NACEren 2. berrikuspena) ezarri eta Kontseiluaren 3037/90/EEE Erregelamendua eta alderdi estatistiko espezifikoei buruzko EEren zenbait erregelamendu aldatzen dira.

c) Prozesu metalurgikoak. Prozesu metalurgikotzat hartuko dira metala ekoizteko eta prestatzeko prozesuak, eta, produktu metalikoen ekoizpenaren barruan, forjaketa, prentsa, trokelaketa eta tenkaketa piezak, eraztun ijeztuak eta mineral hautsen produktuak ekoiztea, gainazalak tratatzea, eta galdaketa, beroketa, kontserbazio eta distentsio termotratamenduak edo beste termotratamendu batzuk egitea helburu dutenak.

d) Industria jarduerak, haien elektrizitate kostua produktu baten kostuaren 100eko 50 baino handiagoa denean.

Ondorio horietarako, produktu baten kostua honako hauen batura izango da: erositako ondasun eta zerbitzuen kostu osoa, laneskuaren kostua eta kapital finkoaren

Artículo 98. Base liquidable.

1. La base liquidable será el resultado de practicar, en su caso, sobre la base imponible una reducción del 85 por 100 que será aplicable, siempre que se cumplan los requisitos y condiciones que reglamentariamente se establezcan, sobre la cantidad de energía eléctrica que se destine a alguno de los siguientes usos:

a) Reducción química y procesos electrolíticos.

b) Procesos mineralógicos. Se consideran procesos mineralógicos los clasificados en la división 23 del Reglamento (CE) n.º 1893/2006 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 20 de diciembre de 2006, por el que se establece la nomenclatura estadística de actividades económicas NACE Revisión 2 y por el que se modifica el Reglamento (CEE) n.º 3037/90 del Consejo y determinados Reglamentos de la CE sobre aspectos estadísticos específicos.

c) Procesos metalúrgicos. Se consideran procesos metalúrgicos los relativos a la producción de metal y su preparación, así como, dentro de la producción de productos metálicos, la producción de piezas de forjado, prensa, troquelado y estiramiento, anillos laminados y productos de mineral en polvo, y tratamiento de superficies y termotratamiento de fundición, calentamiento, conservación, distensión u otros termotratamientos.

d) Actividades industriales cuyo coste de electricidad represente más del 50 por 100 del coste de un producto.

A estos efectos, el coste de un producto se define como la suma de las compras totales de bienes y servicios más los costes de mano de obra más el consumo del capital

kontsumoa. Kostua unitateko kalkulatzen da, batekoz beste.

fijo. El coste se calcula por unidad en promedio.

Elektrizitatearen kostua elektrizitatearen benetako erosketa balioa da, edo haren ekoizpen kostua, enpresan bertan sortzen bada, zerga guztiak barne, BEZ kengarria izan ezik.

El coste de la electricidad se define como el valor de compra real de la electricidad o el coste de producción de electricidad, si se genera en la propia empresa, incluidos todos los impuestos, con la excepción del impuesto sobre el valor añadido deducible.

e) Nekazaritzako ureztapenak.

e) Riegos agrícolas.

f) Industria jarduerak, haien elektrizitate erosketak edo kontsumoa gutxienez ekoizpen balioaren 100eko 5 baino gehiago direnean.

f) Actividades industriales cuyas compras o consumo de electricidad representen al menos el 5 por 100 del valor de la producción.

Ondorio horietarako, kontzeptu hauek ezartzen dira:

A estos efectos se entiende por:

- “Elektrizitate erosketak edo kontsumoa”: erositako edo kontsumitutako energia elektrikoaren kostu erreala, zerga guztiak barne, BEZ kengarria izan ezik.

- ‘‘Compras o consumo de electricidad’’: el coste real de la energía eléctrica adquirida o consumida incluidos todos los impuestos, con la excepción del impuesto sobre el valor añadido deducible.

- "Ekoizpenaren balioa": negozio zifraren zenbatekoa da, eta horri izakinen, fabrikatzen ari diren produktuen eta produktu amaituen bariazioa gehituko zaio.

- “Valor de la producción”: estará constituido por el importe de la cifra de negocios, al que se adicionará la variación de existencias, de productos en curso y de productos terminados.

2. Oinarri likidagarria kalkulatuko da zerga oinarriari 100eko 100eko murriztapena aplikatuta, hala badagokio. Murriztapen hori aplikatzeko, erregelamenduz ezarriko diren baldintzak eta betekizunak bete beharko dira, eta portuan atrakatuta dauden itsasontziei hornitutako elektrizitate kantitatearen gainean izango da aplikagarria, betiere, aisiako ontzi pribatuak ez badira.

2. La base liquidable será el resultado de practicar, en su caso, sobre la base imponible una reducción del 100 por 100 que será aplicable, siempre que se cumplan los requisitos y condiciones que reglamentariamente se establezcan, sobre la cantidad de energía eléctrica suministrada a las embarcaciones atracadas en puerto que no tengan la condición de embarcaciones privadas de recreo.

Ondorio horietarako, «aisiako ontzi pribatu»tzat joko dira jabeak edo beste pertsona fisiko zein juridiko batek –errentamenduz edo beste edozein tituluz baliatuta azken hori–, erabiltzen dituen ontziak, erabilera horren helburuak merkataritzakoak ez direnean eta, batik bat,

A estos efectos se entenderá por «embarcaciones privadas de recreo», las embarcaciones utilizadas por su propietario o por la persona física o jurídica que las pueda utilizar en virtud de arrendamiento o por cualquier otro medio, para fines no comerciales y, en particular, para fines

haien xedea ez denean bidariak edo salgaiak garraiatzea, kostu bidezko zerbitzuak ematea edo agintari publikoek adierazitako premietara bideratzea.

3. Oinarri likidagarria kalkulatuko da zerga oinarriari 100eko 100eko murriztapena aplikatuta, hala badagokio. Murriztapen hori aplikatzeko, erregelamenduz ezarriko diren baldintzak eta betekizunak bete beharko dira, eta trenbideko garraioan hornitu edo kontsumitutako elektrizitate kantitatearen gainean izango da aplikagarria.

99. artikulua. Zerga tasa.

1. Artikulu honen 2. apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe, zerga 100eko 5,11269632ko tasan exijituko da.

2. 1. apartatuan finkatutako zerga tasaren aplikaziotik ondorioztatzen diren kuotak ezingo dira izan ondoko zenbatekoak baino txikiagoak:

a) 0,5 euro megawatt eta ordu bakoitzeko (MWh), baldin eta hornitutako edo kontsumitutako elektrizitatea industria erabileratarako, aisiako ontzi pribatuak ez diren ontzi porturatuen xedeetarako edo trenbideko garraioetarako erabiltzen bada.

b) 1 euro megawatt eta ordu bakoitzekoko (MWh), hornitutako elektrizitatea beste xede batzuetarako erabiltzen bada.

Apartatu honetan aurreikusitako baldintza betetzen ez denean, a) eta b) letretan adierazitako zenbatekoak 1. apartatuan ezarritakoaren ordez aplikatzeko zerga tasatzat hartuko dira, eta epealdian izandako hornidura edo kontsumo osoaren gainean aplikatuko dira (kontsumoa edo hornidura orduko megawatt-etan adierazita).

3. Aurreko 2. apartatuan aurreikusitakoaren ondorioetarako, honako hauek industria erabileretarako bideratuta daudela joko da:

distintos del transporte de pasajeros o mercancías o de la prestación de servicios a título oneroso, o que no se destinen a necesidades determinadas por las autoridades públicas.

3. La base liquidable será el resultado de practicar, en su caso, sobre la base imponible una reducción del 100 por 100 que será aplicable, siempre que se cumplan los requisitos y condiciones que reglamentariamente se establezcan, sobre la cantidad de energía eléctrica suministrada o consumida en el transporte por ferrocarril.

Artículo 99. Tipo impositivo.

1. Sin perjuicio de lo establecido en el apartado 2 de este artículo, el impuesto se exigirá al tipo del 5,11269632 por 100.

2. Las cuotas íntegras resultantes de la aplicación del tipo impositivo fijado en el apartado 1 no podrán ser inferiores a las cuantías siguientes:

a) 0,5 euros por megavatio-hora (MWh), cuando la electricidad suministrada o consumida se utilice en usos industriales, en embarcaciones atracadas en puerto que no tengan la condición de embarcaciones privadas de recreo o en el transporte por ferrocarril.

b) 1 euro por megavatio-hora (MWh), cuando la electricidad suministrada o consumida se destine a otros usos.

Cuando se incumpla la condición prevista en este apartado, las cuantías indicadas en las letras a) y b) tendrán la consideración de tipos impositivos aplicables en lugar del establecido en el apartado 1 y se aplicarán sobre el suministro o consumo total del periodo expresado en megavatio-hora (MWh).

3. A efectos de lo previsto en el apartado 2, se consideran destinados a usos industriales:

a) Goi tentsioan edo industria instalazioetan egindakoak.

b) Behe tentsioan egindakoak, nekazaritzako ureztapenetarako badira.

4. 2. apartatuan ezarritakoa ezin izango zaie aplikatu foru dekretu arauemaile honen 98. artikuluko 1. apartatuaren a), b), c) eta d) letretan ezarritako kasuei.

a) Los efectuados en alta tensión o en plantas e instalaciones industriales.

b) Los efectuados en baja tensión con destino a riegos agrícolas.

4. Lo dispuesto en el apartado 2 no será de aplicación para los supuestos previstos en las letras a), b), c) y d) del apartado 1 del artículo 98 de este decreto foral normativo.

100. artikulua. Kuota osoa.

Kuota osoa lortuko da oinarri likidagarriari aurreko artikuluaren arabera dagokion zerga tasa aplikatuta.

Artículo 100. Cuota íntegra.

La cuota íntegra es la cantidad resultante de aplicar a la base liquidable el tipo impositivo que corresponda de acuerdo con el artículo anterior.

101. artikulua. Jasanarazpena.

1. Zergadunek oso-osorik jasanarazi beharko diote zergaren zenbatekoa zergapetutako eragiketa egiten zaionari, eta azken hori behartuta egongo da hura jasatera, jasanarazpena foru dekretu arauemaile honetan xedatutakoarekin bat eginda badago, haien artean dauden estipulazioak zeinahi direla ere.

Zergadunek, sortutako kuotak jasanarazteko, foru dekretu arauemaile honen 98. artikuluan aipatutako murriztapenen onuradunek komunikatutako behin-behineko portzentaje bat erabili badute, edo zerga ez badute jasanarazi zergapetu gabeko kasu baten edo salbuespen baten onuradunek hasieran komunikatutako datuetatik abiatuta, jasanarazitako edo jasanarazi behar zituzten kuoten zenbatekoa erregularizatu beharko dute, erregelamenduz ezarriko den prozedurari jarraituz, hornidura horien datu zehatzak zein diren erregelamendu horretan ezarritako eran jakinarazten zaienean.

2. Sortutako kuotak fakturan jasanaraziko dira, bertan jasotzen diren gainerako kontzeptuetatik bereizita. Eragiketa

Artículo 101. Repercusión.

1. Los contribuyentes deberán repercutir íntegramente el importe del impuesto sobre aquel para quien realice la operación gravada, quedando este obligado a soportarla siempre que la repercusión se ajuste a lo dispuesto en este decreto foral normativo, cualesquiera que fueran las estipulaciones existentes entre ellos.

Los contribuyentes que hayan repercutido el importe de las cuotas devengadas, en función de un porcentaje provisional comunicado por los beneficiarios de las reducciones a que hace referencia el artículo 98 de este decreto foral normativo o no hayan efectuado la repercusión del impuesto en función de los datos inicialmente comunicados por los beneficiarios de una no sujeción o exención, deberán regularizar, mediante el procedimiento que se establezca reglamentariamente, el importe de las cuotas repercutidas o que debieran haber repercutido, una vez le sean comunicados los datos exactos de dichos suministros conforme a lo establecido en el reglamento.

2. La repercusión de las cuotas devengadas se efectuará en la factura separadamente del resto de conceptos comprendidos en

salbuetsita badago edo oinarri likidagarriari murriztapena aplikatu bazaio, fakturan zirkunstantzia horren berri jasoko da, onura zer artikuluren arabera aplikatu den adierazita.

ella. Cuando se trate de operaciones exentas o con reducción en la base liquidable, se hará mención de dichas circunstancias en el referido documento con indicación del precepto aplicable.

3. Sortutako kuotak ez dira jasanaraziko foru dekretu arauemaile honen 92.1 artikuluko b) letran aurreikusitako kasuetan, kontsumitzaileak zergadun izaera duenean. Gauza bera gertatuko da, likidazioak ikuskapen akten ondorioz egiten direnean eta oinarriak kalkulatzeko zeharkako zenbatespena aplikatzen denean.

3. No procederá la repercusión de las cuotas resultantes en los supuestos previstos en la letra b) del artículo 92.1 de este decreto foral normativo, cuando el consumidor tenga la condición de contribuyente, ni en los supuestos de liquidación que sean consecuencia de actas de inspección y en los de estimación indirecta de bases.

102. artikulua. Kudeaketako arauak.

Artículo 102. Normas de gestión.

1. Zerga honen zergadunak behartuta daude dagozkien autolikidazioak aurkeztera eta, aldi berean, zerga zorra ordaintzera.

1. Los contribuyentes por este impuesto estarán obligados a presentar las correspondientes autoliquidaciones, así como a efectuar, simultáneamente, el pago de la deuda tributaria.

Aurreko paragrafoan aipatutako autolikidazioak aurkezteko prozedura eta epea Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ezarriko ditu.

La diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas establecerá el procedimiento y plazo para la presentación de las autoliquidaciones a que se refiere el párrafo anterior.

2. Zerga honen autolikidazioak aurkeztu behar dituztenek, artikulu honen 4. apartatuan aipatzen diren ordezkariek, eta foru dekretu arauemaile honen 94. artikuluko 5., 6. eta 7. apartatuetan araututako salbuespenen eta haren 98. artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren murriztapenen onuradunek zerga berezien lurralde erregistroan inskribatzeko eskatu beharko dute.

2. Los obligados a presentar autoliquidaciones por este impuesto, los representantes a los que hace referencia el apartado 4 de este artículo, así como los beneficiarios de las exenciones reguladas en los apartados 5, 6 y 7 del artículo 94 de este decreto foral normativo y de las reducciones a las que hace referencia el apartado 1 del artículo 98 de mismo decreto foral normativo, deberán solicitar la inscripción en el registro territorial correspondiente de impuestos especiales.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak zerga honen zergapekoen erroldak izango duen egitura finkatuko du, baita zergapeko horiek lurralde erregistroan inskribatzeko prozedura eta epea ere.

Por la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas se establecerá la estructura del censo de obligados tributarios por este impuesto, así como el procedimiento y plazo para la inscripción de estos en el registro territorial.

3. Aurreko bi apartatuetan ezarritakoa hala izanik ere, erregelamenduz, beharrezkotzat jotzen diren informazio aitorpenak aurkezteko eta beste betebehar formal batzuk betetzeko betekizunak eta baldintzak ezarriko dira.

3. No obstante lo establecido en los dos apartados anteriores, reglamentariamente se establecerán los requisitos y condiciones para la presentación de las declaraciones informativas que se consideren necesarias y para el cumplimiento de otras obligaciones de carácter formal.

4. Zergadunak ez badaude Espainiako lurraldean finkatuta Kontseiluaren 2006ko azaroaren 28ko 2006/112/EE Zuzentarauak, balio erantsiaren gaineko zergaren sistema erkideari buruzkoak, 358. artikuluan xedatutakoaren arabera, Espainian egoiliartutako pertsona fisiko edo juridiko bat izendatu beharko dute zerga honekiko betebeharrei dagokienez Zerga Administrazioaren aurrean ordezkatu ditzan; izendapen hori, behar bezala frogatu beharko dena, zerga egitatea gertatu baino lehen edo, beranduenik, zerga egitatearen unean egin beharko dute.

4. Los contribuyentes no establecidos en territorio español, de acuerdo con lo establecido en el artículo 358 de la Directiva 2006/112/CE del Consejo, de 28 de noviembre de 2006, relativa al sistema común del Impuesto sobre el Valor Añadido, vendrán obligados a nombrar una persona física o jurídica con residencia en España para que les represente ante la Administración tributaria en relación con sus obligaciones por este impuesto, y a realizar dicho nombramiento, debidamente acreditado, con anterioridad o, a más tardar, en el momento de realización del hecho imponible.

103. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.

1. Zergapetu gabeko kasu bat, salbuespen bat edo murriztapen bat aplikatuta egindako elektrizitate horniduretan, zerga arloko arau-haustea izango da erregelamenduz ezarritako epeetan datu zehatzen berri ez ematea, horrek kuotarik ez jasanaraztea edo jasanarazitako kuotak behar baino txikiagoak izatea dakarrenean.

Zehapenaren oinarria jasanarazi behar ziren kuoten eta benetan jasanarazitakoen arteko diferentzia izango da.

Zehapena 100eko 15eko diruzko isun proportzionala izango da.

Horrelako kasuetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 192. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Artículo 103. Infracciones y sanciones.

1. En los suministros de electricidad realizados con aplicación de una no sujeción, exención o de una reducción, constituye infracción tributaria no comunicar en los plazos establecidos reglamentariamente los datos exactos, cuando de ello se derive la no repercusión o la repercusión de cuotas inferiores a las procedentes.

La base de la sanción será la diferencia entre las cuotas que se hubieran debido repercutir y las efectivamente repercutidas.

La sanción consistirá en multa pecuniaria proporcional del 15 por 100.

En estos supuestos resultará de aplicación lo dispuesto en el artículo 192 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Artikulu honetan ezarritako zehapena ez da aplikatuko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 195. artikuluan ezarritako ara-haustea egiteagatik (autolikidazio batetik ondorioztatzen den zerga zorra ez ordaintzeagatik) zilegi den zehapena aplikatzea dagokionean.

La sanción establecida en este artículo no se aplicará cuando proceda la imposición de la sanción por la comisión de la infracción tributaria por dejar de ingresar la deuda tributaria que debiera resultar de una autoliquidación establecida en el artículo 195 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. Aurreko artikuluko 4. apartatuan aipatutako betebeharra ez betetzea zerga arloko arau-hauste bat izango da eta zehapena 1.000 euroko diruzko isun finkoa izango da.

2. El incumplimiento de la obligación a que se refiere el apartado 4 del artículo anterior constituirá una infracción tributaria y la sanción consistirá en multa pecuniaria fija de 1.000 euros.

3. Zerga arloko arau-haustea da zergadunek ez betetzea foru dekretu arauemaile honetan eta berau garatzen duen araudian ezartzen diren baldintzak eta betekizunak, bertan aurreikusitako salbuespenak edo tasa murriztuak aplikatzeko beharrezkoak direnean eta onura horien xede den elektrizitatea zertarako edo nola erabiltzen den justifikatzen ez denean.

3. Constituye infracción tributaria el incumplimiento por los contribuyentes del impuesto de los requisitos y condiciones establecidos en este decreto foral normativo y en su normativa de desarrollo necesarios para la aplicación de las exenciones o reducciones en la base imponible previstas en aquélla, cuando no se justifique el uso o destino dado a la electricidad objeto de dichos beneficios.

Zehapenaren oinarria hauxe izango da: legez edo erregelamenduz ezarritako baldintzak eta betekizunak bete gabe dituen energia elektrikoari aplikatutako zerga onuraren zenbatekoa.

La base de la sanción será el importe del beneficio fiscal aplicado a la energía eléctrica respecto de la cual se hayan incumplido los requisitos y condiciones establecidas legal o reglamentariamente.

Zehapena 100eko 50eko diruzko isun proportzionala izango da.

La sanción consistirá en multa pecuniaria proporcional del 50 por 100.

4. Zerga arloko arau-haustea izango da zergadunek ez betetzea foru dekretu arauemaile honetan eta berau garatzeko araudian salbuespenak edo tasa murriztuak aplikatzeko ezarrita dauden baldintzak eta betekizunak, ez-betetze hori aurreko apartatuetan aurreikusitako arau-hausteetako bat egitea ez dakarrenean.

4. Constituye infracción tributaria el incumplimiento por los contribuyentes del impuesto de los requisitos y condiciones establecidos en este decreto foral normativo y en su normativa de desarrollo necesarios para la aplicación de las exenciones o reducciones en la base imponible previstas en aquélla, cuando no constituya una infracción de las previstas en los apartados anteriores.

Zehapenaren oinarria hauxe izango da: legez edo erregelamenduz ezarritako baldintzak eta betekizunak bete gabe dituen

La base de la sanción será el importe del beneficio fiscal aplicado a la energía eléctrica respecto de la cual se hayan

energia elektrikoari aplikatutako zerga onuraren zenbatekoa.

Zehapena 100eko 10eko diruzko isun proportzionala izango da.

5. Zerga honi dagozkion gainerako arau-hausteak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera kalifikatu eta zehatuko dira, hargatik kendu gabe aurreko artikuluan ezarritakoa.

incumplido los requisitos y condiciones establecidas legal o reglamentariamente.

La sanción consistirá en multa pecuniaria proporcional del 10 por 100.

5. Las demás infracciones tributarias relativas a este impuesto serán calificadas y sancionadas de conformidad con lo dispuesto en la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, sin perjuicio de lo establecido en el artículo anterior.

Lehen xedapen gehigarria.

1. Foru dekretu arauemaile honetan aipatzen diren garraiobideak, berriak zein erabiliak, behin betiko matrikulatu beharko dira Espainian, bertan egoiliartuta dauden edo Espainian kokatutako establezimenduen titular diren pertsonek edo entitateek Espainiako lurraldean erabiltzeko direnean.

2. Garraiobideen matrikulazioari buruzko araudi espezifikoan ezarritakoa eragotzi gabe, aurreko apartatuan jasotako obligazioa betetzea ez da exijituko baldin eta, foru dekretu arauemaile honen 65. artikuluko 1. zenbakiaren d) letran zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaz ezarritako betekizunari dagokionez, eta prezeptu horretan ezarritako epeen barruan:

a) Zerga autolikidatu edo ordaindu bada, edo

b) Zerga Administrazioari zergapetu gabeko kasu baten edo salbuespen baten aplikazioa onartzea aurrez eskatu bazaio, hala aurreikusita dauden kasuetan, edo

c) Zerga Administrazioari zerga salbuespen baten inguruko aitorpen bat aurkeztu bazaio.

Disposición adicional primera.

1. Deberán ser objeto de matriculación definitiva en España los medios de transporte, nuevos o usados, a que se refiere el presente decreto foral normativo, cuando se destinen a ser utilizados en el territorio español por personas o entidades que sean residentes en España o que sean titulares de establecimientos situados en España.

2. Sin perjuicio de lo establecido en la normativa específica reguladora de la matriculación de medios de transporte, no será exigible el cumplimiento de la obligación prevista en el apartado anterior cuando, en relación con la exigencia del impuesto especial sobre determinados medios de transporte establecida en la letra d) del número 1 del artículo 65 de este decreto foral normativo y dentro de los plazos establecidos en dicho precepto:

a) Se haya autoliquidado e ingresado el impuesto, o bien.

b) Se haya solicitado de la Administración tributaria el reconocimiento previo de la aplicación de un supuesto de no sujeción o de exención del impuesto, en los casos en que así esté previsto, o bien.

c) Se haya presentado una declaración ante la Administración tributaria relativa a una exención del impuesto.

3. Garraiobideen matrikulazioari buruzko araudi espezifikoan ezarritakoa eragotzi gabe, aurreko 1. apartatuan aurreikusitako obligazioa ez da bete beharko, halaber, matrikulazio horri dagokion zerga Zerga Administrazioak likidatu duenean eta zenbatekoa ordainduta dagoenean.

3. Sin perjuicio de lo establecido en la normativa específica reguladora de la matriculación de medios de transporte, tampoco será exigible el cumplimiento de la obligación prevista en el apartado 1 anterior cuando el impuesto correspondiente a esa sujeción haya sido objeto de liquidación por parte de la Administración tributaria e ingresado el importe correspondiente.

4. Aurreko apartatuetan aipatutako obligazioa ez dela betetzen egiaztatzen denean, Zerga Administrazioko organoek edo trafikoari, bide segurtasunari, nabigazioari edo aire nabigazioari buruzko arloan eskumena duten organoek bost eguneko epea emango diote zergapekoari, hura bete dezan edo kreditu entitate baten edo elkarrekiko bermedun sozietate baten abal solidarioa edo kauzio aseguru baten ziurtagiria aurkeztu dezan, zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren ordainketa bermatzeko. Epe hori igarotzen bada behin betiko matrikulazioa egin gabe edo abal edo ziurtagiri hori aurkeztu gabe, organo horiek garraiobidea ibilgetuko dute egoera administratibo eta tributarioa erregularizatu dela frogatu arte. Dena den, ibilgetze hori bertan behera geratuko da zergapekoak abal solidarioa edo aseguruaren ziurtagiria esandako terminoetan aurkezten duenean.

4. Cuando se constate el incumplimiento de la obligación a que se refieren los apartados anteriores, los órganos de la Administración tributaria o los órganos competentes en materia de tráfico, seguridad vial, navegación o navegación aérea darán al obligado tributario un plazo de cinco días para cumplirla o para presentar aval solidario de entidad de crédito o sociedad de garantía recíproca o certificado de seguro de caución que garantice el pago del impuesto especial sobre determinados medios de transporte. Transcurrido ese plazo sin que se produzca la matriculación definitiva o sin que se presente dicho aval o certificado, dichos órganos procederán a la inmovilización del medio de transporte hasta que se acredite la regularización de su situación administrativa y tributaria. No obstante, la inmovilización será levantada en el caso de que el obligado tributario presente aval solidario o certificado de seguro en los términos indicados.

Bigarren xedapen gehigarria.

98. artikuluko 2. apartatuan ezarritakoa eraginkortasunez aplikatzeko, ezinbestekoa izango da Batasunaren ordenamenduarekin bateragarria izatea.

Disposición adicional segunda.

La aplicación efectiva de lo establecido en el apartado 2 del artículo 98 quedará condicionada a su compatibilidad con el ordenamiento comunitario.

Xedapen indargabetzailea.

1. Indarrik gabe geratzen dira foru dekretu arauemaile honetan xedatutakoarekin bat ez datozen xedapen guztiak.

Bereziki, honako xedapen hauek indargabetu dira:

Disposición derogatoria.

1. Quedan derogadas cuantas disposiciones se opongan a lo dispuesto en el presente decreto foral normativo.

En particular, quedan derogadas las siguientes disposiciones:

- 20/1998 Foru Dekretua, martxoaren 3koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean xedatutakora egokitzen duena.

- Martxoaren 20ko 2/2002 Foru Araua, Zenbait Hidrokarburoen Txikizkako Salmenten gaineko Zergari buruzkoa.

2. Foru dekretu arauemaile hau indarrean jartzen denetik aurrera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko araudian martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuari, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean xedatutakora egokitzen duenari, edo aipatu den zerga berezien legeari egiten zaizkion erreferentzia guztiak foru dekretu arauemaile honi egindakotzat joko dira.

Azken xedapenetako lehena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu arauemaile hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Azken xedapenetako bigarrena. Arauak emateko ahalmena.

Diputatuen Kontseiluak eta Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak, bakoitzak bere eskumenen esparruan, beharrezkoak diren xedapen guztiak emango dituzte foru dekretu arauemaile hau garatu eta betearazteko.

- El Decreto Foral 20/1998, de 3 de marzo, por el que se adapta la normativa tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa a lo dispuesto en la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales.

- La Norma Foral 2/2002, de 20 de marzo, del Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos.

2. A partir de la entrada en vigor del presente decreto foral normativo, las referencias realizadas en la normativa del Territorio Histórico de Gipuzkoa al Decreto Foral 20/1998, de 3 de marzo, por el que se adapta la normativa tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa a lo dispuesto en la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales, o a esta última ley deberán entenderse realizadas al presente decreto foral normativo.

Disposición final primera. Entrada en vigor.

El presente decreto foral normativo entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Disposición final segunda. Habilitación normativa.

El Consejo de Gobierno Foral y la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, en el ámbito de sus respectivas competencias, dictarán cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y ejecución del presente decreto foral normativo.

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	Foru Diputatuaren O.I. Zerga Berezien FD-Arauemailea

MEMORIA: Foru Dekretu Arauemaile proiektua, Zerga Bereziena.

SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak, maiatzaren 13ko 12/1981 Legearen bidez onetsiak, lehen kapituluko 6. sekzioan zeharkako zergak zituen hizpide, eta horien artean zerga bereziak. Bertan jasotzen zenez, zerga bereziak, enpresen trafikoaren gaineko zergaren errekargu probintziala barne, Estatuak une bakoitzean ezarritako oinarrizko printzipio, arau substantibo, zerga egitate, sortzapen, oinarri, tasa eta tarifa berberak aplikatuta arautzen ziren.

Aurreko paragrafoan xedatutakotik kanpo geratzen zen ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga. Izan ere, zerga hori araudi autonomoko tributu itundutzat hartzen zen, sozietate eragiketetan, kanbio letretan eta ordezko balioa edo igorpen funtzio bat duten agirietan izan ezik, horiek araudi erkidearen arabera arautzekoak baitziren.

Bestalde, hogeita hamabigarren artikuluak ezartzen zuen ezen, alkohol etilikoak eta edari alkoholdunak eta petrolioa, horien eratorriak eta antzekoak zergapetzen zituztenak kenduta, gainerako zerga bereziak foru aldundiek exijitu behar zituztela, erregela hauen arabera: telefonoaren erabileraren gaineko zerga Euskal Autonomia Erkidegoan ordainaraztea foru aldundiei zegokien, eta hura likidatu eta biltzea, berriz, Compañia Telefónicari, mila bederatziehun eta hirurogeita zazpiko martxoaren 2ko testu bateginak berrogeita laugarren artikuluan xedatutako eran; Telefonicaren ardura zen, orobat, likidazioaren zenbatekoa zuzenean ingresatzea foru aldundi eskudunean; edari

MEMORIA: Proyecto de Decreto Foral Normativo de Impuestos Especiales.

INTRODUCCIÓN

El Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por la ley 12/1981, de 13 de mayo, contenía en la sección 6.ª de su capítulo primero la concertación de los impuestos indirectos, entre los que se encontraban los impuestos especiales, estableciendo que los mismos, incluido el recargo provincial sobre el Impuesto de Tráfico de Empresas, se regían por los mismos principios básicos, normas sustantivas, hechos imponibles, exenciones, devengos, bases, tipos y tarifas que los establecidos en cada momento por el Estado.

Se exceptuaba de lo dispuesto en el párrafo precedente, el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, que tenía el carácter de tributo concertado de normativa autónoma, salvo en las operaciones societarias, letras de cambio y documentos que suplan a las mismas o realicen función de giro, que se regían por la normativa común.

Por su parte, su artículo treinta y dos establecía que, excepto los que gravaban los alcoholes etílicos y bebidas alcohólicas y el petróleo, sus derivados y similares, los impuestos especiales se exigían por las respectivas Diputaciones Forales con arreglo a las siguientes reglas: correspondía a las respectivas Diputaciones Forales la exacción del impuesto sobre el uso del teléfono en el País Vasco, liquidando y recaudando por la Compañía Telefónica en la forma dispuesta en el artículo cuarenta y cuatro del texto refundido de dos de marzo de mil novecientos sesenta y siete, e ingresando directamente su rendimiento en la Diputación Foral competente; el impuesto sobre bebidas refrescantes se exigía en el

freskagarrien gaineko zergaren kasuan, tributua Euskal Autonomia Erkidegoan ordainaraztea foru aldundien zeregina zen fabrikatzailearen salmenta edo entrega Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako fabrika, tailer edo biltegietako erosleei zuzenduta ateratzen zenean.

País Vasco por las respectivas Diputaciones Forales cuando la venta o entrega por el fabricante salía con destino a los adquirentes de fábricas, talleres o almacenes sitos en territorio del País Vasco.

1993. urtean, abenduaren 13ko 11/1993 Legea dela medio, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna egokitu zen bai Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legera eta bai Zerga Berezien Legera. Zehazki, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia itundu zen lege horren bitartez. 1997. urtean, abuztuaren 4ko 38/1997 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren aldaketa onesten duenak, fabrikazioko zerga bereziak ordainarazteko erregelak aldatu zituen, eta 27. artikuluan ezarrita utzi zuen ezen Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundiek zerga horiek ordainarazteko garaian Estatuak une bakoitzean ezarritako arau substantibo eta formal berberak aplikatu behar zituztela, Ekonomia Itunaren 32. artikuluan aurreikusitako salbuespenei kalterik egin gabe.

En el año 1993, con la Ley 11/1993, de 13 de diciembre, de Adaptación del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco a la Ley del Impuesto sobre el Valor Añadido y a la Ley de Impuestos Especiales, se incluye dentro de la concertación el impuesto especial sobre determinados medios de transporte, y en el año 1997, con la Ley 38/1997, de 4 de agosto, por la que se aprueba la modificación del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, se modifica la concertación de las reglas de exacción de los impuestos especiales de fabricación, estableciendo en su artículo 27 que en su exacción las Diputaciones Forales del País Vasco debían aplicar las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado, sin perjuicio de las excepciones previstas en el artículo 32 del mencionado Concierto Económico.

2002an, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itun berria 12/2002 Legearen bidez onartu zenean, jasota geratu zen espresuki zerga bereziei buruzko I. kapituluko 10. sekzioaren 33. artikuluan lurralde historikoetako erakunde eskudunek ahalmena dutela zerga horiek arautzeko, betiere Estatuak une bakoitzean ezartzen dituen arau substantibo eta formal berberak errespetatuz. Azken esandako horren salbuespen gisa, argitzen da, hala ere, lurralde historikoetako erakunde eskudunek zilegi izango dutela zerga horien karga tasak ezartzea, lurralde erkidean unean-unean indarrean dauden arauek ezarritako mugen eta baldintzen barruan. Era berean, eta lehendik hasitako bide beretik jarraituz, bertan lurralde historikoei ahalmena ematen zaie aitorpen eta ordainketa ereduak onesteko eta likidazio aldi bakoitzeko ordainketa epeak zein izango diren

En el 2002, con la aprobación del nuevo Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco por la Ley 12/2002, se recoge de forma expresa en el artículo 33, inserto en la sección 10.ª de su capítulo I, dedicado de forma expresa a los impuestos especiales, la capacidad normativa de las Instituciones competentes de los Territorios Históricos para regular dichos impuestos, si bien respetando las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado. Como salvedad a esto último, se aclara que las Instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán establecer los tipos de gravamen de estos impuestos dentro de los límites y en las condiciones vigentes en cada momento en territorio común. Asimismo, y como ya se venía recogiendo con anterioridad, se habilita para la aprobación de los modelos de declaración

zehazteko; baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ezingo dira izan Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak.

e ingreso, que contendrán al menos los mismos datos que los de territorio común, y señalar plazos de ingreso para cada período de liquidación, que no diferirán sustancialmente de los establecidos por la Administración del Estado.

Gaikuntza horien babesean, 1992an Gipuzkoako Lurralde Historikoan onetsi eta indarrean jarri zen abenduaren 29ko 103/1992 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitzen duena. Bertan, alabaina, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia baino ez zen arautu, aipatutako 38/1992 Legearen barruan jasota datorrena. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean xedatutakora egokitzen duen martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretua onetsi zenean lortu zen guztiz arautzea gure lurraldean zerga berezien erregulazioa, azken xedapen hori onartu zen unean Estatuan indarrean zegoen araudiarekin bat.

Al amparo de dichas habilitaciones, en el Territorio Histórico de Gipuzkoa se aprobó y entró en vigor el Decreto Foral 103/1992, de 29 de diciembre, por el que se adapta la normativa fiscal del Territorio Histórico de Gipuzkoa a la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales, que regulaba únicamente el impuesto especial sobre determinados medios de transporte, incluido en la Ley 38/1992 mencionada. Es con el Decreto Foral 20/1998, de 3 de marzo, por el que se adapta la normativa tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa a lo dispuesto en la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales, con el que se aborda una regulación íntegra de los impuestos especiales, de conformidad con la normativa vigente en el Estado en el momento de la aprobación de esta última disposición.

Testuinguru horretan, martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak hainbat aldaketa izan ditu harrez gero, haren edukia Estatuak une bakoitzean sartu dituen aldaketetara egokitzeko.

En este contexto, el mencionado Decreto Foral 20/1998, de 3 de marzo, fue objeto de numerosas modificaciones, adaptando su contenido a las modificaciones realizadas en cada momento por el Estado.

Komeni da argi uztea ezen Gipuzkoako Foru Aldundiak onetsi zuen erregulazioak, geroago, Gipuzkoako Batzar Nagusien oniritzia jaso zuela, aurrenik Zergei buruzko urtarrilaren 31ko 1/1985 Foru Arau Orokorraren 13. artikuluan, gero martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren 8. artikuluan, eta, azkenik, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren 14. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Hay que aclarar que la regulación aprobada por la Diputación Foral de Gipuzkoa era objeto de convalidación posterior por las Juntas Generales del Territorio Histórico en sus resoluciones, de conformidad con lo dispuesto inicialmente en el artículo 13 de la Norma Foral 1/1985, de 31 de enero, General Tributaria, posteriormente en el artículo 8 de su sustituta Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, y finalmente en el artículo 14 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Egokitzapen hori, hala ere, 2012tik aurrera eten zen. Une hartan, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak, aurrekontu

Esta adaptación, sin embargo, fue objeto de interrupción a partir del 2012. En aquel momento, mediante Real Decreto-ley

egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoak, besteak beste, tabako laboreen gaineko zergaren zerga tasak aldatu zituen, bai eta balio erantsiaren gaineko zergaren tasa orokorra eta murriztua igo ere: 100eko 18tik 100eko 21era eta 100eko 8tik 100eko 10era, hurrenez hurren.

20/2012, de 13 de julio, de medidas para garantizar la estabilidad presupuestaria y de fomento de la competitividad, se procedió, entre otras cuestiones, a la modificación de los tipos impositivos del impuesto sobre las labores del tabaco, además de la elevación de los tipos impositivos general y reducido del impuesto sobre el valor añadido, del 18 por 100 y 8 por 100 al 21 por 100 y 10 por 100, respectivamente.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, ordura arte segitutako bidetik jarraituz, Gipuzkoako zerga ordenamendura ekarri zuen aldaketa hori, eta, horretarako, abuztuaren 28ko 4/2012 Foru Dekretu-Araua onetsi zuen, balio erantsiaren gaineko zerga eta tabako laboreen gaineko zerga berezia aldatzen dituena. Hala ere, foru dekretu-arau hori Gipuzkoako Lurralde Historikoko Batzar Nagusietan aurkeztu zenean bertan baliozkotu edo indargabetu zedin, batzar nagusiak ez ziren ados agertu testuan jasotako neurriekin, eta, batik bat, balio erantsiaren gaineko zergaren tasak igotzearekin, eta 2012ko irailaren 19ko ebazpenaren bidez hura indargabetzea erabaki zuten.

La Diputación Foral de Gipuzkoa, siguiendo la línea mantenida hasta la fecha, procedió a incorporar dicha modificación al ordenamiento tributario guipuzcoano, y para ello aprobó el Decreto Foral-Norma 4/2012, de 28 de agosto, por el que se modifican el Impuesto sobre el Valor Añadido y el Impuesto Especial sobre las Labores del Tabaco. Sin embargo, cuando el citado decreto foral-norma fue sometido a las Juntas Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para su convalidación o derogación, estas se mostraron en desacuerdo con las medidas contenidas en el mismo, básicamente con la elevación de tipos impositivos del impuesto sobre el valor añadido, de modo que acordaron su derogación por resolución de 19 de septiembre de 2012.

Horrek berekin ekarri zuen Gipuzkoan desoreka bat egotea zerga bereziei buruz indarrean zegoen foru araudiaren eta Ekonomia Itunaren arabera aplikatu behar zenaren artean. Harrez gero, Gipuzkoako Lurralde Historikoan zerga berezien erregulazioak bi arau esparru izan ditu erreferentzia gisa: alde batetik, 20/1998 Foru Dekretua, eta, bestetik, 38/1992 Legea bera.

Ello provocó un desajuste entre la normativa foral vigente de los impuestos especiales en Gipuzkoa y la que, en virtud del Concierto Económico, debía resultar de aplicación. Desde entonces la regulación en el Territorio Histórico de Gipuzkoa de los impuestos especiales ha estado soportada en dos marcos normativos distintos, de un lado el Decreto Foral 20/1998 y de otro la propia Ley 38/1992.

Egoera hori konpontzeko, urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauak, 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituenak, bi foru arau aldatu zituen, hain zuzen ere, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra, eta uztailaren 12ko 6/2005 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketari, Gobernuari eta

A fin de solventar esta situación, mediante la Norma Foral 1/2023, de 17 de enero, por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias para el año 2023, se procedió a modificar tanto la Norma Foral 2/2005, de 8 marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, como la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de

Administrazioari buruzkoa, eta horren helburua izan zen Gipuzkoako ordenamendu juridikoan zuzenbidearen beste figura bat sartzea gure zerga araudia Ekonomia Itunaren arabera lurralde erkidean ezarritako arau substantibo eta formal berberei jarraituz arautu behar diren zergetara egokitu ahal izan dadin.

Gipuzkoa, con el objeto de incorporar en el ordenamiento jurídico guipuzcoano una nueva fuente del derecho que permitiera adaptar su normativa tributaria a aquellos impuestos que, en virtud del Concierto Económico, deban regirse por las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en territorio común.

Horrela, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren 13. artikuluko 5. apartatuak xedatzen du ezen Foru Aldundiak foru dekretu arauemaileak eman ahal izango dituela, haien xede bakarra Gipuzkoako Lurralde Historikoko araudia egokitzea denean, baldin eta, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren arabera, lurralde historiko horretan araubide erkideko lurraldean dauden arau substantibo eta formal berberak bete behar badira.

Así, el apartado 5 del artículo 13 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno, y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, dispone que, la Diputación Foral podrá dictar decretos forales normativos en materia tributaria en el supuesto de que su objeto sea exclusivamente la adaptación de la normativa del Territorio Histórico de Gipuzkoa, cuando, de conformidad con lo dispuesto en el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado mediante la Ley 12/2002, de 23 de mayo, deban regir en dicho Territorio Histórico las mismas normas sustantivas y formales que en el territorio de régimen común.

Bestalde, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 8. artikuluak xedatzen du ezen, Foru Aldundiak, Batzar Nagusiek eskuordetuta, zerga arloko xedapen arauemaileak eman ahal izango dituela, foru arau baten mailarekin, haien xede bakarra Gipuzkoako Lurralde Historikoko araudia egokitzea denean, baldin eta, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren arabera, lurralde historiko horretan araubide erkideko lurraldean dauden arau substantibo eta formal berberak bete behar badira.

Por su parte, el artículo 8 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, dispone que la Diputación Foral, por delegación de las Juntas Generales, podrá dictar disposiciones normativas con rango de norma foral en materia tributaria en el supuesto de que su objeto sea exclusivamente la adaptación de la normativa del Territorio Histórico de Gipuzkoa, cuando, de conformidad con lo establecido en el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado mediante la Ley 12/2002, de 23 de mayo, deban regir en dicho Territorio Histórico las mismas normas sustantivas y formales que en el territorio de régimen común.

Horri dagokionez, gorago aipatutako urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauak honako hau dio lehen xedapen gehigarrian: Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2/2005 Foru Arauaren 8. artikuluan eta 6/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan aurreikusten diren

Al respecto, la disposición adicional primera de la anteriormente citada Norma Foral 1/2023, de 17 de enero, dispone que la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de los decretos forales normativos en materia tributaria previstos en el artículo 8 de la

zerga arloko foru dekretu arauemaileen bidez, urtebeteko epean, 1/2023 Foru Araua indarrean jartzen denetik aurrera, egokitu behar du maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren arabera araubide erkideko lurraldean dauden arau substantibo eta formal berberei jarraituz arautu behar diren zergen erregulazioa.

Norma Foral 2/2005, y en el artículo 13 de la Norma Foral 6/2005, citados anteriormente, procederá, en el plazo de un año desde la entrada en vigor de la Norma Foral 1/2023, a adaptar la regulación relativa a los impuestos que, en virtud del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado mediante la Ley 12/2002, deban regirse por las mismas normas sustantivas y formales que en el territorio de régimen común.

Hortaz, agindu hori betez, proiektuaren helburua da zerga berezien araudi eguneratua jasoko duen foru dekretu arauemaile bat onestea, Estatuan indarrean dagoen araudiaren termino berdinetan. Funtsezkoenean, araudi hori Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean jasotzen da.

En consecuencia, en cumplimiento de dicho mandato, se aprueba un decreto foral normativo que recoja la normativa actualizada de los impuestos especiales, en los mismos términos que los recogidos en la normativa vigente en el Estado, que en lo sustancial está recogida en la Ley 38/1992 de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales.

Erregulazio berriari heltzen zaion unean arau testuingurua zein den kontuan hartuta, komenigarritzat jo da egitura erregulatorioa ahalik eta gutxien aldatzea, eta, horren ondorioz, foru dekretu arauemaileak 20/1998 Foru Dekretuan aurreikusita dauden titulu, kapitulu, sekzio, artikulu eta apartatuen korrelazio bera jasotzen du, baita 38/1992 Legean jasotzen direnena ere, dekretu hori lege horretara egokituta ez dagoen partean. Horrek berekin dakar foru dekretu arauemailean edukirik gabeko parte batzuk agertzea indarrean dauden gainerako edukien korrelazioa mantentzeko, nahiz eta horrek, aldi berean, erraztu egiten duen zergaren araudi substantiboa garatzen duten xedapenetan konkordantzia egotea igorpenen artean (ereduak onesteko foru aginduetan, interpretazio ebazpenetan eta gainerako erregelamenduzko xedapenetan, esate baterako).

Teniendo en cuenta el contexto normativo desde el que se aborda la nueva regulación, se ha estimado conveniente modificar lo menos posible su estructura regulatoria, por lo que el decreto foral normativo recoge la misma correlación de títulos, capítulos, secciones, artículos y apartados que los recogidos en el Decreto Foral 20/1998, y en la Ley 38/1992 por la parte en la que aquél no está adaptado a esta última. Ello provoca que el decreto foral normativo contenga partes sin contenido a fin de conservar la correlación del resto de los contenidos vigentes, si bien por otro lado facilita la concordancia de las remisiones contenidas en disposiciones de desarrollo de la normativa sustantiva del impuesto, tales como las contenidas en las ordenas forales aprobatorias de los modelos, las resoluciones interpretativas y demás disposiciones reglamentarias.

Behin onartuta, foru dekretu arauemailea Batzar Nagusietara bidali behar da, batzarkideen kontrola izan dezaten, ofizialki argitaratzea eta indarrean jartzea eragotzi gabe.

Una vez aprobado, este decreto foral normativo será remitido a las Juntas Generales, al objeto de que sea sometido al control parlamentario correspondiente, sin perjuicio de su publicación oficial y entrada en vigor.

ARAUGINTZAKO PROZEDURA

Uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 70. artikuluan xedatutakoa betez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak maiatzaren 10eko 191/2023 Foru Agindua eman zuen, Zerga Berezien Foru Dekretu Arauemailea prestatzeko prozedura hastea baimentzen duena.

Hasierako foru agindu horretan jasotakoari jarraituz, Departamentu honetako Araugintzako eta Lege Aholkularitzako Zerbitzuak foru dekretu araugilearen proiektuaren zirriborroa prestatzeari ekin zion.

Foru dekretu araugilearen edukia osatuta, testua Zerga Kudeaketako eta Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusietara helarazi zen, haien iritzia jaso eta bidezko oharrak egin zitzaten.

Araugintzako eta Lege Aholkularitzako zerbitzuburuak proiektuaren edukiari buruzko txosten juridikoa egin ondoren, 2023ko uztailaren 6an Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak oniritzia eman zion haren testuari.

Kontuan hartuta zerga bereziak itundutako zergak direla, haiek arautzeko Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen arau substantibo eta formal berak aplikatu behar direla, eta, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoek ez dutela eskumenik haren erregulazioan bereizteko, ezinekoa izanik, horregatik, herritarrek edo bestelako instantzia administratiboek ekarpenik egitea, alde batera utzi dira bai genero eragina

PROCEDIMIENTO DE ELABORACIÓN NORMATIVA.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas dictó la Orden Foral 191/2023, de 10 de mayo, por la que se autoriza la iniciación del procedimiento de elaboración de un Decreto Foral Normativo de los Impuestos Especiales.

De conformidad con lo dispuesto en la orden foral de inicio señalada, el Servicio de Desarrollo Normativo y Asesoramiento Jurídico de este Departamento inició la elaboración del borrador de proyecto de decreto foral normativo en materia tributaria.

Ultimado el contenido del texto del decreto foral normativo, fue sometido a las Subdirecciones Generales de Gestión Tributaria y de Inspección, a los efectos de recabar su opinión y recoger las observaciones que a la misma desearan realizar.

Una vez emitido el informe jurídico sobre el contenido del proyecto por parte del jefe del Servicio de Desarrollo Normativo y Asesoramiento Jurídico, el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, con fecha 6 de julio de 2023, suscribió el visto bueno al mismo.

Teniendo en cuenta que los impuestos especiales son tributos concertados que se rige por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado y que, por tanto, los Territorio Históricos del País Vasco no tienen competencia para diferenciarse en su regulación, no resultando posible la incorporación de aportaciones de la ciudadanía o de otras instancias administrativas, se han omitido los trámites

ebaluatzeko izapidea eta bai informazioa jendaurrean jartzekoa.

de evaluación de impacto de género e información pública.

Izaera orokorreko foru xedapen bat denez gero, foru dekretu araugilearen proiektua Zergen Koordinazio Organora bidali da, maiatzaren 30eko 3/1989 Legeak, Zerga Harmonizazio, Koordinazio eta Lankidetzari buruzkoak, 11. artikuluan xedatutakoa betez. Orobat, Ekonomia Itunean araututako gaietan eragina duenez, proiektua Estatuko Administraziora ere bidali da, jakinaren gainean egon dadin eta Itunean aurreikusitakoarekin bat datorren ebalua dezan (64.a) artikulua).

Por tratarse de una disposición foral de carácter general, el proyecto de decreto foral normativo se ha comunicado al Órgano de Coordinación Tributaria, en cumplimiento de lo dispuesto en la Ley 3/1989, de 30 de mayo, de Armonización, Coordinación y Colaboración Fiscal, y a la Administración del Estado para su conocimiento por tener incidencia en materia objeto de regulación en el Concierto Económico, a los efectos de la evaluación de la adecuación de dicha propuesta a lo previsto en el referido Concierto (artículo 64.a).

Tramite horiek eginda, proposatutako testua Diputatuaren Kontseiluari aurkezten zaio, onartu dezan.

Evacuados dichos trámites, se somete el texto propuesto al Consejo de Gobierno Foral.

PROPOSAMENAREN ERAGIN EKONOMIKO-FINANTZARIOA.

Proiektuaren eragin ekonomiko-finantzarioari dagokionez, memoria honekin batera eranskin gisa aurkezten da Ogasun eta Finantza Departamentuko Erakundeekiko Konpromisoen Zerbitzuak Azterlanen Atalaren bitartez prestatu duen txostena.

IMPACTO ECONÓMICO-FINANCIERO DE LA PROPUESTA.

En relación al impacto económico-financiero del proyecto, se adjunta informe, que se incluye como anexo de la presente memoria, elaborado por la Sección de Estudios del Servicio de Compromisos Institucionales del Departamento de Hacienda y Finanzas.

ARAUGINTZAKO ETA LEGE AHOLKULARITZAKO ZERBITZUKO TEKNIKARIA / TÉCNICO DEL SERVICIO DE DESARROLLO NORMATIVO Y ASESORAMIENTO JURÍDICO

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	DFN IIEE (memoria)

Sinatzailea 1 / Firmante 1:
ECHARRI NAVARRO, M. Jose
Data / Fecha: 2023/07/12 10:18:11

ERANSKINA

PROIEKTUAREN MEMORIA EKONOMIKOA

ANEXO

MEMORIA ECONÓMICA DEL PROYECTO

Zerga-bilketa eraginaren txosten ekonomikoa

Memoria económica de impacto recaudatorio

Foru Dekretu Arauemaile proiektua, Zerga Bereziena

Proyecto de Decreto Foral Normativo de los Impuestos Especiales

1. Sarrera

Txosten honetan aztertzen da zenbateko eragina izango duen araugintza proiektu honek Gipuzkoako Foru Ogasunaren zerga-bilketan.

1. Introducción

En este informe se trata de cuantificar el impacto recaudatorio del presente proyecto normativo en la Hacienda Foral de Gipuzkoa.

2. Arau aldaketak

1/2023 Foru Arauaren lehen xedapen gehigarriak xedatzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak, foru-dekretu arauemaileen bidez egokitu egingo du, Ekonomia Itunaren Legearen arabera, araubide erkideko lurraldeko arau substantibo eta formal berberen arabera arautu behar diren zergei buruzko erregulazioa.

2. Modificaciones normativas

La disposición adicional primera de la Norma Foral 1/2023 dispone que la Diputación Foral de Gipuzkoa procederá, a través de los decretos forales normativos, a adaptar la regulación relativa a los impuestos que, en virtud de la Ley del Concierto Económico, deban regirse por las mismas normas sustantivas y formales que en el territorio de régimen común.

Egokitzapen hori urtebeteko epean egin beharko da, aipatutako 1/2023 Foru Araua indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita.

Dicha adaptación deberá realizarse en el plazo de un año desde la entrada en vigor de la citada Norma Foral 1/2023.

Hala, proiektu honen bidez foru-dekretu arauemaile bat onartu nahi da, Zerga Berezien erregulazioa Gipuzkoako Lurralde Historikoko araudira egokitzeko.

Así, mediante este proyecto se pretende aprobar un decreto foral normativo que adapte la regulación de los Impuestos Especiales a la normativa del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Hori egingo da indarrean dagoen egitura arautzailea ahalik eta gutxien aldatuz; Zerga Bereziei buruzko Legea egokitzeko 20/1998 Foru Dekretuan eta Zerga Bereziei buruzko 38/1992 Legean jasotako titulu, kapitulu, atal, artikulu eta apartatuen korrelazio bera jasoko da.

La misma se va a realizar modificando lo menos posible la estructura regulatoria vigente; se va a recoger la misma correlación de títulos, capítulos, secciones, artículos y apartados que los recogidos tanto en el Decreto Foral 20/1998 de adaptación a la ley de impuestos especiales, como en la Ley 38/1992 de Impuestos Especiales.

3. Eragina zerga-bilketan

Arau proiektu honen helburua da Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga ordenamenduan txertatzea zerga horren erregulazioa, eta bertan jasotzea Ekonomia Itunean finkatutako lotura puntuak, zerga ordainarazteari dagokionez.

3. Impacto recaudatorio

El objetivo de este proyecto normativo es incorporar al ordenamiento tributario del Territorio Histórico de Gipuzkoa la regulación de ese impuesto, recogiendo en él los puntos de conexión fijados en el Concierto Económico a efectos de su exacción.

Zerga honen arau egokitzapenak egiteari utzi zitzaionetik, lurralde erkidean indarrean dagoen araudia aplikatu da modu osagarrian. Zerga honen kudeaketa propioko urteko zerga-bilketa likidoaren serie historikoa honako hau da:

Desde que se dejaron de realizar las adaptaciones normativas de este impuesto ha sido aplicable supletoriamente la normativa vigente en territorio común. La serie histórica de la recaudación líquida anual por gestión propia de este impuesto es la siguiente:

Urtea Año	Zerga-bilketa Recaudación
2019	642.088.816
2020	567.835.432
2021	639.681.309
2022	629.080.525

eurotan / euros

Orain, araudia gure zerga ordenamenduan sartzeak ez du inolako aldaketarik eragiten zergaren aplikazioan. Beraz, ezta inolako zerga-bilketa eraginik espero. Informazio gisa, adierazi, 2023. urterako, zerga-bilketa aurreikuspena 692 milioi eurokoa dela.

Ahora, la incorporación normativa a nuestro ordenamiento tributario no provoca ningún cambio en la aplicación del impuesto. Por tanto, tampoco se espera ningún tipo de impacto recaudatorio. A modo informativo, señalar que para el año 2023 la previsión de recaudación es de 692 millones de euros.

Donostia, 2023ko uztailaren 10a

San Sebastián, a 10 de julio de 2023

Sin./Fir.: José Antonio Lapeira Oyarzabal
AZTERLANETAKO ATALBURUA/ JEFE SECCIÓN DE ESTUDIOS